

EUSKAL GRAMATIKA

TXILLARDEGI

vasco - libro

GRAMATIKA

José Luis Alvarez Enparantza

© de la presente edición:
Ediciones Vascas
Serrano Anguita, 4
San Sebastián

Portada *Angel & Fuchs*

Depósito Legal: BI-2481 - 1978
I. S. B. N. 84-85288-23-8
Imprenta Industrial S. A. Bilbao
Alda. Mazarredo, 57-61
Editorial Legasa

AZALPEN GISA

Orain eskuetara zaizun EUSKAL GRAMATIKA hau, guk uste eta nahi baino askoz beranduago irten da kalera. Eta irakurleak azalpen berezi hau merezi duela iruditu zaigu.

lazko udan barrena eman nizkion azken ikutuak EUSKAL GRAMATIKA honi; liburua azkar burutu behar hartan, korrika eta presaka emanak. Geroztikako luzamendu hauek orduan jakin banitu, xehekiago aztertu nituzkeen puntu batzu, eta adibide batzu han eta hemen erantsiko.

1978-1979 ikastaroaren hastapenetarako prestatuak genituen geure eginkizunak, eta Eguberritarako bederen salgai jartzeko esperantza ez nuen nik galdu nahi. Baina epe hau berau ere joan zen. Eta liburuaren etorrera luzatuz joan da gaur arte.

Bi eragozpen-mota suertatu zaizkigu elkargainka.

Alde batetik liburuaren tankera bera dago. Aditzaren gorabeherak koloretan azaltzera deliberaturik, liburuaren koloretasun hori ongi uxtiatu, eta gainerako puntuetan ere baliatzea erabaki genuen: bai atzizkiak eta erdal itzulpenak garbikiago aurkeztekotan, bai argigarri gerta zitezkeen marrazkiak eta diagramak egokiago ematekotan. Grafikotasunaren alderdi honek zaildu egin du gure eginkizuna; eta argitara-gunea atzeratu ere bai.

Beste alde batetik, berriz, liburua irteteko zorian zegoenean, argitara-saileko gorabeherak gertatu dira: eztabaidak, oporraldiak, eta abar; eta, irakurleak dakikeenez, geldirik egon dira liburugintza-lanak zenbait aste luzetan zehar. Eta honek ere liburuaren irteera luzarazi du.

Eragozpen hauek eta haiek azkenean gainditurik, hementxe duzu liburua.

Eta zer den eta zer ez den laburki gogoraztea on izan daiteke.

Liburu hau eta Patxi Goenagak atera duena ("Gramatika Bide-tan"), horrela ez badirudi ere, adinkide dira, eta bateratsu argitara beharrak ziren. Bi liburuak elkarren osatzaile izan zitezten, eta sintaxi-arazoak haren aztergai nagusia izanik, hemen ezer gutxi esaten da gai horretaz.

Gure liburuak, bestetik, helburu nagusitzat betekizun **didaktikoa** hartua zenez gero, maizago aurkituko du hemen irakurleak euskal gramatikaren alorreko aurkikunde seguruen bilduma bat, azterbide berri eta arriskutsuen saiakuntzarik baino.

Euskal Herriko hizkuntz oinarririk sendoenak berak ere koloka ikusten ditugun kinkaldi honetan, **seguruena biltzea eta azaltzea** izan da ene kezka nagusia; eta seguruena den hori, besteak beste, Azkuek, Altubek eta Lafonek erakatsi ziguten. Klasiko horiek ditut gidari liburu honetan.

Euskararen oinarri sendo eta seguru horien bilduma egokiro lortu badut, itua jo dut.

Eta, besterik gabe, eta euskaltzaleak laguntzeko esperantza horretan, agur t'erdil!

Donostian, 1979-ko Ekainean

1 IZEN SINTAGMAREN EGITURA

- 1.1 Liburu honetan ez dira joskera edo sintaxiari buruzko gorabeherak aztertuko.

Alde batetik, gaur gaurkoz bederen, **Euskaltzaindiak honi buruz ezer gutxi finkaturik daukalako**. Aski da 1968-ko Txostena irakurtzea («Joskera–6.1/6.9») **Euskara Batua**, ofizialki bederen, zehaztu gabe dagoela erreparatzeko. **«Hor, bestetan baino areago – irakurtzen dugu – oinarri hutsetan gelditu behar, handik aurrera urratsik egin gabe»** (1968, II.6.1).

Bestetik, berriz, ia honekin batera agertuko da Patxi Goenaga adiskideak sintaxiari buruz, bereziki, prestatu duen lana (Rikardo Badiola-rena ere ahaztu gabe). Funtsik ez luke denok helburu eta aztergai berbera hautatzeak.

1.1 Por razones diversas, y en especial por la libertad en que quedan los aspectos sintácticos en el Informe de 1968 (II.6.1), en este libro se analizan especialmente los aspectos que afectan a la Morfología.

Pour diverses raisons, notamment la liberté reconnue aux aspects syntaxiques dans la Rapport de 1968 (II.6.1), on analyse dans ce livre les aspects qui correspondent à l'ancienne Morphologie.

- 1.2 Noski. Non amaitzen da «Morfologia» deitu ohi dena, eta non «Sintaxia» hasten? Gaurko Hizkuntzalaritzak oso ezabatu ditu sail zahar horien arteko mugak.

Hemen, dena dela, eta hitz klasikoez esatekotan, euskal

Morfologia izango dugu ikergai. Alde batetik, eta lehenengo kapituluetan, **izen-sintagma**-ri dagokion deklinabidea aztertuko dugu; edo atzizki-saila, nahiago bada.

Gero, berriz, bigarren zatian, **aditz-sintagma** aztertuko dugu; aditz-jokoak eta aditzari datxezkion atzizkiak gogoan hartzen ditugarik.

1.2 La lingüística moderna ha difuminado los límites entre Morfología y Sintaxis. Pero es posible estudiar especialmente la sufijación del Sintagma Nominal.

La Linguistique Moderne a dilué les limites entre Morphologie et Syntaxe. Il est possible, néanmoins, d'étudier en détail la suffixation du Syntagme Nominal.

1.3 **Izen-sintagmari** dagokionez, hortaz, oinarrizko ideiak gogorazi besterik ez dugu egingo.

Zein da izen-sintagmaren barne-egitura? Zein osakinek egiten du? Non agertzen dira izenari datxezkion atzizkiak? Horra hor galderak.

1.3 Se analiza la estructura interna del Sintagma Nominal: componentes del mismo, orden de los elementos; componentes de izquierda y de derecha, cuya lista se expone sistemáticamente.

On analyse la structure interne du Syntagme Nominal: ses composants, ordre des éléments; à gauche du nom, et éléments à droite. Liste systématique.

1.31 Lehenengo hurbilketan, hona hemen izen-sintagmak erakusten duen egitura:

[izen-laguna] [izena] [adjetiboa] [atzizkia]

Esate baterako:

– etxe**ko** ande**re** zahar**re**ntzat

- herriko neskatila gazte-ek
- anaiaren zakur beltz-arekin

Askotan, hortaz, lau osakin horiek ager daitezke izen-sintagman; eta ilara horretan. Ezkerretan, **izen-laguna** agertzen zaigu (**-(r)en** eta **-ko** atzizkiez osatutako elemendua); ezkerretatik eskubitara jarraituz, **izena** topatzen dugu (**andere**, **neskatila**, **zakur**; edo, hitz batez, sintagma osoaren **ardatza**); ondoren, eta beti eskubi aldera jarraituz, **adjetiboa** etor daiteke (**zahar**, **gazte**, **beltz**); eta ondoren, eta sintagma hetsiaz bezala, **izen-atzizkia** (**-arentzat**, **-ek**, **-arekin**).

Ohar garrantzitsu bat egin behar da, hortaz, eta honetaz gero: deklinabide atzizkiak **eskubiko elemenduari** erasten zaizkiola beti: izena bera izan, adjetiboa, edo zehaztaile bat edo beste izan.

- andere – **arentzat**
- etxeko andere – **arentzat**
- etxeko andere zaharr – **arentzat**
- etxeko andere zahar eta itsusi – **arentzat**

Ardatz agertzen den **izenak** markatzen du, hortaz, sintagma (bizidun / bizigabe; eta abar); baita hautatu beharko den atzizki-saila ere:

- **mendi** beldurgarri **hartan**
- **gizon** beldurgarri **harengan**

1.32 Zein elemendu joan daiteke izenaren aurretik? (= ezkerretan, alegia). Egin dezagun zerrrenda:

1.321 **-(r)en** eta **-ko** atzizkiez sortzen diren izen-lagunak:

- **etxeko anderea** esaten da; eta ez **andere etxekoa**.
- **anaiaren etxea**; eta ez **etxe anaiarena**.
- **egiazko poza**; eta ez **poz egiazkoa** (eskuarki bederen).
- **elkarrekiko laguntza**; eta ez **laguntza elkarrekikoa**.

«Aita gurea» (otoitz zaharrarena) eta «zezen suzkoa», euskal joskera jatorraren aurka asmatutako sintagmak dira; hitzez hitz eratuak: «Padre nuestro» (= aita gurea); «toro de fuego» (=zezen suzkoa).

Eskuarki, hortaz, **-(r)en** eta **-ko** atzizkiez osatutako aditz-lagunak **aurretik** jartzen dira; **ezkerretan**, beraz.

Eskuarki, hortaz, **-(r)en** eta **-ko** atzizkiez osatutako aditz-lagunak **aurretik** jartzen dira; **ezkerretan**, beraz.

1.322 Deituretan, ordea, oso maiz erabiltzen dira eskubi aldean leku-izenezko izen-lagunak:

- Mattin Punttanekua
- Joanes Landetakoa
- Maddalen Etxeberribordakoa

Joskera hau jatortzat eman behar da.

1.323 Hizkera modernoan, gero eta maizago erabiltzen da **-zko** atzizkia **adjetiboak** sortzeko: **politikazko**, **ekonomiazko**, **zientziazko**.

Gainerako adjetiboak **eskubitan** eta beste hauek **ezkerretan** jarri beharrak, arazoak sortzen ditu batzutan.

Badirudi, beraz, kasu hauetan, eta hitz berriok adjetiboen multzoan bete-betean erabiliko badira, **eskubi** aldean jartzeko esku-bidea izan behar dutela.

1.324 **Aurretik** ere, nahiz erdal itzulpenez adjetibo izan, **-garren** atzizkiak sortutako hitzak; baita sailean hasera eta bukaera diren biak ere: **lehen(engo)** eta **azken(eko)**:

- lehen partea
- bigarren etxea

- laugarren astea
- azken predikua

1.325 **Aurretik ere, zenbakiak** (bat; eta bi bizkaieraz, izan ezik):

- bi zaldi
 - hiru zaldi
 - bost zaldi
 - bostehun zaldi
 - bostehun zaldiak
- Baina, noski, zaldi bat.

1.326 **Aurretik ere –dun** atzizkiaz sortutako adjetiboak: «Decimos bizardun arotza, más y mejor que arotz bizarduna» (Azkue, Morf., 153). Baita **euskal** eta **erdal** ere.

Esate baterako:

- euskal herria
- erdal kutsua,

(jatorriz, euskara-herria eta erdara-kutsua)

– **dun** - i dagokionez, berriz, hona hemen Sebero Altube-ren adibide batzu:

- burudun txontxongilloa
- ankadun aulkiya
- muturdun atxurra (Erderismos, 216)

– Ohar bat, berebat, **alfer** hitzaz.

Adjetibo gisa, eskubialdean doa:

- gizon **alferra da** (= vago, paresseux)

Hitz elkarketan, berriz, aurretik, eta ezker aldean hortaz:

- **alfer lana** (= alferrikako lana).

1.327 **Aurretik ere zenbait adjetibo mugagabe** (ikus, xehekiago, 3. ikaskaia): **honenbeste, horrenbeste, hainbeste, eta abar** (3.32)

1.328 **Aurretik** ere **galdekariak**:

- **zein** etxetan?
- **zenbat** zakurrentzat?

1.329 **Aurretik** ere **–tar** atzizkizko adjetiboak, nolakotzen duen hitza **izen arrunta** baldin bada:

- **zarauztar** apeza

Bestela, eta leku-izen hau **pertsona** berezi bati baldin badagokio, eta arestian 1.322 puntua gogoan hartuz, izenaren ondotik joan ohi da:

- **On Andoni** zarauztarra.

1.33 Zer gertatzen da **–ista** atzizkiaz sortutako adjetibo berrietan?

1.331 Hitza zinez **adjetibo** denean, **atzetik** (edo eskubian) ez jartzeko arrazoinik ez dago:

- **jokabide sozialista**
- **pertsona anarkistaren iritziak**

1.332 Hitza, ordea, **multzoari** dagokionean (alegia, **–ista** horrek biltzen dituen multzo edo organizazioari dagokionean), **hitz-elkarketan** gaude; eta **–ista** aurretik joango da:

- **sozialista alderdia**
- **karlista gerratea**
- **txori ehizea** - edo esan daitekeen bezala.

Funtsean, bestalde, eta irakurleak errepara dezakeenez, oso antzekoak dira **–tar** atzizkiaz eta **–ista** honetaz gertatzen direnak:

- adjetibo direnean, **atzetik**

- multzoari buruzko hitz elkarketa denean aurretik.
- **alderdi sozialista**: partido de tendencia socialista, parti de tendance socialiste
- **sozialista alderdia**: partido del conjunto de socialistas, parti du groupe des socialistes
- **sozialisten alderdia**: partido de los socialistas, parti des socialistes.

1.333 Ohar berbera egin daiteke **–zale** atzizkiaz:

- **Piarres pelotazalea**; baina baita:
- **pelotazale elkarte**a, edo-ta:
- «**Eskualtzale Biltzarra**» (ezaguna).

Nahiz kasu hauetan ere, multzoa baino, **elemenduak** azpimarkatu nahi baldin badira, **–en** atzizkiaz moldatzea bidezko bada ere:

- **pelotazaleen elkarte**a
- **euskaltzaleen biltzarra**.

Itzulpenak emanez gero:

- **euskaltzale biltzarra**: **asamblea del grupo de los vascófilos; assemblée du groupe des bascophiles.**
- **euskaltzaleen biltzarra**: **asamblea de los vascófilos concretos que nos son conocidos; assemblée des bascophiles concrets que nous connaissons.**

1.34 Izenaren **ondotik**, eta **eskubi** aldean beraz, ondoko **elemendu** hauek joan daitezke:

1.341 **Artikula** (**–a, ak**)

1.342 Artikuluen oinarri izan diren **erakusleak**:

- etxe hori
- emakume horiek
- mendi handi haietan

1.343 «Bat» zenbakaria:

- etxe bat

1.344 Izenaren albo-alboan, eta esana dugunez, adjetiboak:

- etxe handia
- etxe txiki hartan

1.345 Adjetibo mugagabe batzu (ikus 3.32 puntua):

- etxe askotan
- emakume gutxiri

1.346 Ez da sekula esan:

- sindikal burruka (?)
edo antzekoak. Adjetibo horiek atzetik doaz:
- burruka sindikala

1.347 Beste gauza bat da (baina hau hitz-elkarketa da), **-ari** atzizkia, elkarketaz, **-al** agertzea:

Unibertsitarien elkartea, horretara, **Unibertsital elkartea** gertatzen da; **sozialista alderdia**, sozialisten alderdia den bezalatsu (ikus 1.332 eta 1.333).

Azkeneko bolaran erabiltzen hasiak diren moldakera horiek, euskararen joskeraz kontrakoak dira:

- nuklear zentraleak, ez **zentrale nuklearrak**, bai.
 - sindikal organizazioak, ez: **organizazio sindikalak**, bai.
 - militar ekintzak, ez: **ekintza militarrek**, bai.
- Adjetiboa, eskuarki, eskubitan.**

2 BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK

- 2.1 Indo-europea zaharraz bezala, euskaraz ere bi molde desberdinetara deklinatzen dira hitzak: **bizidunei** dagozkien izenak, batetik; eta **bizigabeei** dagozkienak, bestetik. **Gizon** hitza, esate baterako, eta **haran** hitza, ez dira kasu guztietan berdin deklinatzen; nahiz, adibidean ongi ageri denez, fonema berberaz, /n/, bukatu biak, eta nahiz biak, sailari dagokionez, izen arruntak izan: «gizon bat» eta «haran bat» esan daiteke; baina «Kepa bat» eta «Zizurkil bat» ezin daiteke esan, hizkera eskuarraz bederen.

Eman ditzagun, argigarritzat, eta elkarren parean, bi hitz horien deklinabideak; mugatu bakarrean, esate baterako:

0.1	— gizon	— A	haran	— A
0.2	— gizon	— AK	haran	— AK
0.3	— gizon	— ARI	haran	— ARI
1.1	— gizon	— AREN	haran	— AREN
1.2	— gizon	— ARENTZAT	haran	— ARENTZAT
1.3	— gizon	— ARENGATIK	haran	— ARENGATIK
1.4	— gizon	— AREKIN	haran	— AREKIN
1.5	— gizon	— AZ	haran	— AZ
2.1	— gizon	— _____	haran	— eKO
2.2	— gizon	— A(ren)GAN	haran	— eAN
2.3	— gizon	— A(ren)GANA	haran	— eRA
2.4	— gizon	— A(ren)GANAINO	haran	— eRAINO
2.5	— gizon	— A(ren)GANUNTZ	haran	— eRUNTZ
2.6	— gizon	— A(ren)GANDIK	haran	— eTIK

Ageri denez:

1) Bizidunak eta bizigabeak **berdin** deklinatzen dira **0** multzoko kasuetan.

2) Bizidunak eta bizigabeak **berdin** deklinatzen dira, era berean, **1** multzoko kasuetan.

3) Bizidunak eta bizigabeak **ez** dira **berdin** deklinatzen, ordea, **2** multzoko kasuetan. Alegia: **lekutasunari** dagozkion kasuetan: **non, nora, noraino, noruntz** eta **nondik** galderei erantzuten diguten kasuetan, hain zuzen.

2-multzoko kasuetan, ongi ageri denez, **-GAN-** artizkia erasten da, artizki gisa, bizidunen **lekutasunari** dagozkion lerroetan. (Kasuen erabilkerari eta mamiari buruz, ikus 18/19. kapituluak). Gainerako kasuetan berdin deklinatzen dira izen **arrunt** guztiak.

2.2 Desberdintasun berbera aurkitzen da izen **nagusien** deklinabidean; ondoko bi zerrenda hauetan ohar daitekeenez:

0.1	– Andoni –	lрати –
0.2	– Andoni – K	lрати – K
0.3	– Andoni – rl	lрати – rl
1.1	– Andoni – rEN	lрати – rEN
1.2	– Andoni – rENTZAT	lрати – rENTZAT
1.3	– Andoni – rENGATIK	lрати – rENGATIK
1.4	– Andoni – rEKIN	lрати – rEKIN
1.5	– Andoni – Z	lрати – Z
2.1	– Andoni – —	lрати – KO
2.2	– Andoni – GAN	lрати – N
2.3	– Andoni – GANA	lрати – rA
2.4	– Andoni – GANAINO	lрати – rAINO
2.5	– Andoni – GANUNTZ	lрати – rUNTZ
2.6	– Andoni – GANDIK	lрати – TIK

Berrito ere, **0** eta **1** multzoetan ez dago atzizki – desberdintasunik (**EKIN** atzizkiaz geroago mintzatuko gara, 19. kapitulan); baina **2** multzoan bai; bizidunetan **-GAN-** artizkia agertzen delako.

2.1/2.2 – Las categorías «animado» e «inanimado» en vasco. Cuadro completo de «hombre» y «valle» (comunes, terminados ambos en -n); y cuadro completo de «Antonio» e «Iraty» (propios, terminados también en -i).

– Les catégories «animé» et «inanimé» en basque. Tableau complet pour les mots «homme» et «vallée» (noms communs, terminés en -n tous les deux); et tableau complet pour «Antoine» et «Iraty» (noms propres, terminés aussi tous les deux par -i).

2.3 Zer da «bizidun» hori, ordea? Eta zer, berriz, «bizigabe»?

Bi kategoria horiek funtsatu zituen mitologia, jakina denez, aspaldi suntsitu zen Euskal Herrian. Gaurko Zientziak «bizidun»tzat emango lukeen izen-saila, beraz, eta euskararen azterketak ager erazten duena, ez dira berberak.

Pertsonari dagozkion hitzak, batetik, **bizidun** gisa deklinatzen dira euskaraz: **aita, ama, mutil, neska, agure, atso**, eta abar.

Alimaleei dagozkien hitzak, era berean, **bizidun** gisa deklinatzen dira euskaraz: **zaldi, zakur, katu, behi, arratoin, ahuntz, lehoin**, eta abar.

Ez da esaten, hortaz:

- **zezenetik zezenera joan da.**

(Ha ido de un toro a otro / il est allé d'un taureau à l'autre)
beste hau baizik:

+ **zezenagandik zezenagana joan da.**

Zomorroen mailan ere (alimaleen azpi-multzo bat, gure pentsakeraz), **bizidun** gisa deklinatu izan dira gaur arte: «**inurriagana**» (Prai Bartolome), «**xinhaurriagana**» (Axular).

Landareak, berriz, izan bizidunak izanik ere, **bizigabe** gisa deklinatzen dira: **harkaitzean / haritzean; harkaitzeko / haritzeko; harkaitzetik / haritzetik**. Muga non jar?

2.3 No todos los seres vivos para la Ciencia actual, son «animados» en euskara. Los animales son animados; pero las plantas y los microbios no.

– Tous les êtres qui sont vivants pour la Science actuelle, ne sont pas «animés» en Basque. Les animaux appartiennent bien au groupe «animé»; mais pas les plantes et les microbes.

2.4 Bizidunen **multzotasuna** markatu nahi denean, bizidunen banakotasuna baino **talde-moldea** ager erazi nahiago denean, **-TA-** bizigabeen artizkia erabiltzen da:

+ emakumeetara joan da

(ha ido adonde las mujeres; il est allé chez les femmes)

eta ez beti «**emakumeengana**» (pl). Lerraketa hau, jakina, pluralean gertatzen da bakarrik.

Hori dela-bide, ba dirudi **mikrobioei** dagokienez ere; eta bereziki mikrobio **bakar** bati buruz ezer berezirik adierazi behar ez denean, **-TA-** artizkia erabil daitekeela: **amibetan**, **protozooetan**, eta abar. Auka mikroskopoietan, era berean, teoriar landare izaki gainera, **bizigabeen** deklinabidea hauta daiteke.

2.4 Cuando quiere resaltarse el carácter multitudinario del grupo, se usa la sufijación plural inanimada, con **-eta**.

– Lorsqu'on veut faire remarquer le caractère massif du groupe, on utilise les suffixes de pluriel inanimé, avec **-eta**.

2.5 **-GAN-** artizkiaren ordeaz, «**baithan**» hitza erabili ohi dute maiz lpartarrek: «**Jauna baitharat**» (= Jaunagana); «**ene baitharaino**» (= niganaino); «**bere baitharik**» (= beregandik); eta abar. **Euskara Batuaz** ez baita horri buruz ezer esan, **Iparraldeko joskeratzat** har daiteke hori.

Era berean, eta **-GAN-** artizkiari buruz, ohar hau hartu behar da gogotan: «**gizonagan**» eta «**gizonarengan**» elkarren kide diren bezala (nahiz, teoriaz, bigarrena zaharrago izan lehenengoa baino), era berean elkarren kide huts, eta balio berekoak, direla «**gizona baithan**» eta «**gizonaren baithan**».

2.5 En algunos dialectos se utiliza, para los animados, el término «baithan», con genitivo, en vez de «-gan».

– Dans certains dialectes on utilise, pour les êtres vivants, le terme «baithan», au génitif, à la place de «-gan».

2.6 2.1 pasartean esan dugunez, gaur arte bederen bizidun gisa erabili diren hitz batzu (ikus «Oinarri Bila», 54), gaur bizigabetzat hartzen ditugu.

Azterna batzutan bederen gelditu denez, «eguzki» eta «ilargi» izenak bizidunen arabera deklinatu izan dira:

2.1 – eguzki – _____	ilargi – _____
2.2 – eguzki – AGAN	ilargi – AGAN
2.3 – eguzki – AGANA	ilargi – AGANA
2.4 – eguzki – AGANAINO	ilargi – AGANAINO
2.5 – eguzki – AGANUNTZ	ilargi – AGANUNTZ
2.6 – eguzki – AGANDIK	ilargi – AGANDIK

Geroari buruz zer egin? Deklina-molde zahar hau gaitzetsi gabe, molde berria ere onar daitekeela iruditzen zait:

2.1 – eguzki – KO	ilargi – KO
2.2 – eguzki – AN	ilargi – AN
2.3 – eguzki – RA	ilargi – RA
2.4 – eguzki – RAINO	ilargi – RAIO
2.5 – eguzki – RUNTZ	ilargi – RUNTZ
2.6 – eguzki – TIK	ilargi – TIK

2.6 Las palabras «sol» y «luna» han recibido hasta aquí el trato de seres vivientes.

– Les mots «soleil» et «lune» ont reçu jusqu'ici un statut d'êtres vivants.

2.7 Beste izen batzu, berriz, berez bizidunak izanagatik ere, bizigabe gisa deklinatzen dira. **Giza-soinaren atalak**, esate baterako: ile, aurpegi, beso, eta abar.

- **ileetan** esaten da, ez ileengan
- **besoan** esaten da, ez besoagan

Era berean, eta **arima** eta **gorputza** gizakiaren **ataltzat** hartzen direlako nunbait, bi izen horiek **bizigabe** gisa deklinatzen dira (ikus «Oinarri Bila», 53).

Deklinabidea, hortaz, hau izango da:

2.1	– arima	– KO	gorputz	– eKO
2.2	– arim(a)	– AN	gorputz	– eAN
2.3	– arima	– RA	gorputz	– eRA
2.4	– arima	– RAINO	gorputz	– eRAINO
2.5	– arima	– RUNTZ	gorputz	– eRUNTZ
2.6	– arima	– TIK	gorputz	– eTIK

- **Oharra** (2.2): arima + an = ariman
txabola + an = txabolan

2.7 Los miembros de la persona humana, incluidos «cuerpo» y «alma», reciben el trato de seres inanimados.

Les membres de la personne humaine, y compris «corps» et «âme», reçoivent le statut d'êtres non animés.

2.71 Hona hemen adibide harrigarri batzu:

- **arimako etsaiak** (Gerriko)
- **animako edertasuna** (G. Arrue)
(zinez, beste hau espero zitekeen: «**arimaren edertasuna**»)
- **biotzeko damutasuna** (Gerriko).
- **gorputzeko mobimentua** (Gerriko).
- **bihotzeko jaidurak** (Duhalde)

2.8 Bizidun bati dagokion **lekutasuna** azpimarratu nahi denean, eta ez bizidun horren **baitan** dagoen zerbait, gerta daiteke **bizigabeei** dagokien deklinabidea erabiltzea:

– zalditik erori da

Kera honetako kasuetan, **leku** huts gisa agertzen zaigu zaldia; **teilatutik** edo **kanpandorretik** esango bagenu bezala.

Bestetik ere, ba dirudi maizago entzun daitekeela kasu horietan **zaldi gainetik erori**, **zalditik erori** baino. Hots, bizidun gisa «**zaldiagandik**» genuke.

Uste dugu, hitz batez, Darrigol eta Azkueren irizpidea eman daitekeela ontzat: «**Zaldiagana noa**, voy al caballo; pero no **Zaldira**» (Azkue, Morf., 312); «no hay vasco que diga **zezenera** por **zezenagana** o **zezenarengana**» (Azkue, Morf., 313). **Eta bizidunen deklinabidez baliatu**, eskuarki bederen.

Erabilkera honek arreta handiagoa merezi luke, halere; oso euskaldun jatorrengandik entzuna baitut nik esakun hau:

– euskara ez da beti berbera, dena dela; eta emakumetik gizonera diferentzia izaten da.

Pertsonatasuna bera bereziki markatu nahi ez delarik, **GAN sartu beharrik ez da**. **NORTASUNARI datxekio –GAN–**.

2.8 Ciertas expresiones de carácter no animado, río debén anular el valor de la distinción animado / inanimado, hecha ya por Darrigol.

– Certaines expressions, au caractère paradoxal, ne doivent pas entamer la valeur de la distinction entre êtres animés et êtres inanimés, bien comprise déjà par Darrigol.

2.81 Hona hemen, esandakoaren argigarritzat, adibide batzu:

- **etsaietara igaro** (Mendiburu)
- «**Danak**» **zuetara bidaldu nau** (Gerriko)
- **joango naiz seméetara** (Gerriko).

Ondoko hauek esan balituzte bezala:

- etsaien **artera** igaro
- zuen **artera** bidaldu
- semeen **artera**, semeak dauden **lekura**.

3 GRAMATIKA—NUMEROA EUSKARAZ

3.1 Markari dagokionez, gaztelaniaz **bi** numero daude: **singularra** eta **plurala**:

hombre – \emptyset / hombre – s

mujer – \emptyset / mujer – es

Gauza bera frantsesez, hizkuntza izkiriatuari dagokionez:

homme – \emptyset / homme – s

femme – \emptyset / femme – s

(Hizkuntza mintzatuan, gaur, artikulua markatzen du numeroa: [l^a] / [l^e] eta [a] / [e])

Euskaraz, berriz, aurreko mendeetan batez ere, hiru aukera zeuden kasu bakoitzean. Besterik ezean hemen «nominatibo» deituko diegun kasuan, esate baterako, hauek genituen:

gizon – \emptyset / gizon – A / gizon – AK

emakume – \emptyset / emakume – A / emakume – AK

Deklinabide hurbila berezita hartzen ez bada, hortaz (gizon-(h)ori / gizon-ok), euskaraz hiru numero daudela esan daiteke, eta hori deklinabide guztian barrena:

etxe – TAKO / etxe – KO / etxe – ETAKO

etxe – rI / etxe – ARI / etxe – EI

3.1 En el caso que llamaremos «nominativo» (impropiamente en una lengua con ergativo), el vasco tiene triple esquema: uno con marca \emptyset , otros dos

marcados. Frente a las dos lenguas vecinas, que solo tienen dos formas posibles.

– Dans le cas que nous appellerons, sans adéquation, «nominatif» (ceci es toujours inapproprié dans une langue à ergatif), le basque possède un schéma triple: l'un avec marque \emptyset , les deux autres marqués, face aux des langues avoisinantes, que ne possèdent que deux formes possibles.

3.2 Noiz erabiltzen dira bi **MUGATUAK**: Singularra (mugatu bakarra), eta plurala (mugatu anitza)? Noiz, berriz, **MUGAGABEA** (= indefinido, indéfini)?

Nahiz azterpide hau edozein kasutan erabil badaiteke ere, egin dezagun hemen, errazkienik ulertuko delakoan, nominatiboan.

Eman dezagun **izaki**–**multzo** bat: **etxez** osatua, **zakurrez** osatua, edo bestez.

Multzo horretako **elemenduak** ezagunak baldin badira elkarrizketan ari diren hiztunekiko; alegia, **elemendu** horiek **zein** diren hiztunek **zehazki** dakitenean, **MUGATUA** erabiliko da. **Elemendu bakarra** baldin bada **-a** atzizkia, eta bat baino gehiago badira **-ak** atzizkia.

Multzo horretako **elemenduak**, berriz, hiztunek **zehazki** banan-banan ezagutzen ez badituzte; alegia, **elemendu** horiek **zein** diren ez badakite, **MUGAGABEA** erabiliko da. Hitza hutsik joango da = \emptyset atzizkiaz, markarik gabe. Nahiz atzetik, edo aurretik nola gerta, adjetiboren bat joan badaiteke ere (ikus segidan **zein** eta **nola**).

Inolako laguntzarik gabeko mugagabea, dena dela, gutxitan erabiltzen da gaur Mendebaldeko euskalkietan.

3.2 Se emplea el indefinido cuando se ve más el grupo que los elementos individuales que lo componen. En caso contrario, cuando queremos resaltar los elementos, ya conocidos y definidos, usamos los dos números definidos.

– On emploie l'indefini lorsqu'on voit plutôt l'ensemble que les éléments individuels qui le

composent. Dans le cas contraire, lorsque nous voulons faire remarquer les **éléments**, bien connus et définis, nous utiliserons les deux nombres définis.

3.3 **MUGAGABEA**, horretara, lau eratarā erabiltzen da:

- a – Adjetibo galdekarien ondoren:
 - zer **ORDU** da?
 - zenbat **ETXE** saldu dute?
- b – Adjetibo mugagabeekin:
 - **ETXE** gutxi dago hemen
 - zertarako horrenbeste **ZAKUR**?
- c – Adjetibo zenbakariekin (multzoko elemenduak ez-**ezagunak** direnean)
 - hiru **ETXE**
 - hamabost **ZAKUR**
- d – Soil-soilik (Mendebaldeko euskalkietan gaur gutxitan erabilia).

MUGATUAK, berriz, multzoko **elemenduak** ezagunak direnean: **ETXEAK** (= etxe horiek, denok ezagutzen ditugun etxe horiek), **ZAKURRA** (= zakur hori, denok ezagutzen dugun zakur hori).

Honengatik esan daiteke (eta egokiago ere litzateke, ene ustez) «**mugagabe**» esan ohi dugun numeroa **MULTZOKARIA** dela, izan (= colectivo, collectif); numero honetan **MULTZOA** ageri baita, eta **ez multzoko elemenduak**.

Era berean, «**mugatu**» delakoetan, **ELEMENDUAK** dira ageri eta nagusi.

Desberdintasun hau guztiz funtsezkoa da; eta **erakusleekiko komunztaduran** agertzen zaigu nabarmen (ikus 4. kapitulua).


3.3 Se emplea así el indefinido en cuatro casos bien precisos: con los interrogativos (3.31), los adjetivos indefinidos (3.32), los numerales (3.33), y aislado, cada vez con menos frecuencia (3.34). (Ver los croquis).

– On emploie donc l'indéfini dans quatre cas bien précis: avec les interrogatifs (3.31), avec les adjectifs indéfinis (3.32), avec les numéraux (3.33), et isolé, quoique de moins en moins (3.34). (Voir les croquis).

3.31 **Galdekarien** kasuan zalantzarik ez: gäldekaria aurretik doa, eta izena ondotik eta mugagabean:


- zer ORDU da?
- zein EMAKUME etorri zen?
- zenbat KATU ikusi duzu?

«Zein emakume» galdetzen baldin badugu, gauza ageria da emakume–multzo horretako **elemenduak zein** diren ez dakigula; eta «emakume» hitza **MUGAGABE** gisa deklinatu behar dela: **emakume, emakumek, emakumeri**; eta abar.



Zein ETXE?

(= ¿qué casa? ¿cuál dentro del grupo? = quelle maison? laquelle dans cet ensemble-là?)



zenbat ETXE?

(= ¿cuántas casas? combien de maisons?).

Batean eta bestean etxe-**multzo** bat dugu buruan; baina multzo horretan zein **elemendu** ote den ez dakigu.

«Ze **ORDUTAN**» galdetzen da, hortaz; eta «ze orduan» eta «ze orduetan» ez dira euskara. Era berean, «zenbat **GIZONI**» esaten da; eta ez «zenbat gizonari» edo «zenbat gizoni» okerrak. Hitz batez: deklinabide **osoan barrena** segi behar da mugagabeen zerrenda.

3.32 **Adjetibo mugagabeekin** ere zalantzarik gabe adjetiboa **aurretik** doa (edo **atzetik**), eta izena **mugagabeen**:

a) Aurretik: edozein, zenbait, aski, makina bat, honenbeste, horrenbeste, hainbeste, (honenbat), (horrenbat), hainbat.

b) Atzetik: asko, anitz, gutxi, batzu, gehiago, gutxiago.

Oharra: Azpimarraturik ez daudenak, zenbait euskalkitan batez ere, aurretik **edo** atzetik ere erabil daitezke: «edozein lekutan» entzuten da eskuarki; baina «leku edozeinetan» ere entzun daiteke batzutan. «Gizon asko» entzuten da eskuarki (edo-ta «gizonik asko»); baina «asko gizon» ere esan izan da. Eta abar.

Noski: **a** multzokoetan, **izenari** datxezkio atzizkiak; **b** multzokoetan, berriz, **adjetiboari berari** (ikus, honi buruz, 7. ikaskaia).

edozein **etxe**

a edozein **etxeri**
edozein **etxetan**

etxe **asko**

b etxe **askori**
etxe **askotan**

Ageria denez, numero-mota honetan **MULTZOA** dugu buruan; multzoko **elemenduei** buruz ezer ez dakigularik:

– zenbait **ETXE** (= **varias casas, plusieurs maisons**)

– **ETXE** asko (asko da; baina zein ez dakigu)

– hainbeste **ETXE** (gauza bera: ez dakigu **zein** etxez ari garen).

Ez dakigu, berriz ere, «Zubiondoa» den; ala «Bordaberri» ala «Ithurritza». **Multzoa** ageri da; baina **elemenduak** ez.

Oharra: **FRANGO** adjetiboa (= **bastantes, bien des**) aurretik edo atzetik joan daiteke.

Aurretik doanean, normala da: «FRANGO gizonek uste du(te)»; **atzetik** doanean, berriz, **singularraren** ondoan joan ohi da: «**neka pranko**» (Lexo bestsolariak) (eta ez, «neke frango»).

Berezkuntza hau ez da gaurkoa, eta ez gutxiagorik ere:

– ogia frango dutenik
(Joanes Leizarraga).


3.33 **Zenbakariekin**, etá multzoko **elemenduak** aurkeztuak eta hitzunikiko ezagunak ez direnean, **MUGAGABE** gisa deklinatzen da.

Zenbakariak **aurretik** doaz, eta atzizkiak **izenari** datxezkio («Bat» **atzetik** doa, jakina denez, atzizkiak berak bilduz; eta «**bi**» **aurretik** edo **atzetik** joan daiteke, eskuarki aurretik badoa ere).

«**Hiru etxe**» deklinatu behar da, ala «**hiru etxeak**»? «**zazpi karramarro**» ala «**zazpi karramarroak**»? Erantzuna hau da: **segun-eta zer adierazi nahi den.**

Ikus ondoko orrialdeko irudiok.


Mugagabe



ETXE bat

una casa (no definida)
une maison (indéfinie)


Ez dakigu zein den etxe hori:
Bordaberry ote den, ala Koskenea,
ala Errotatxo.



bi ETXE

dos casas (indefinidas)
deux maisons (indéfinies)

Ez dakigu zein ote den aipatzen
diren bi etxe horiek.



lau ETXE

cuatro casas (indefinidas)
quatre maisons (indéfinies)

Zenbakariez

Mugatu anitza



ETXE-a

la casa (concreta)
la maison (concrète)

Ba dakigu «Bordaberri» dela mintzatzan
ari garen etxe hori



bi ETXÉ-ak

las dos casas (concretas)
les deux maisons (concrètes)

Ba dakigu zein diren bi etxe horiek:
«Bordaberri» eta «Iturrondo» dira.



lau ETXE-ak

las cuatro casas (concretas)
les quatre maisons (concrètes)

Etxe **MULTZOA** ezagutzen badugu, baina multzo horretako **elemenduak** ezagutzen ez baditugu, **MUGAGABEA** erabiliko dugu. Kasu honetan azterbide hau erabil daiteke: **HORIEK** hitza erastea (edo **HORI** elemendu bakarra denean). **Adiera aldatzen baldin bada, mugagabea da; adiera aldatzen ez bada, mugatua da.** Esate baterako: «**bi etxe**». Zer da hau?

Esan dezagun «bi etxe horiek». Zalantzarik ez dago: adiera aldatu egin zaigu. Lehen ez genekien **zein** ote ziren «bi etxe» haiek; orain, berriz, «horiek» esaten dugunez gero, adiera aldatu egin da; eta, nolabait esateko, **MULTZOTIK ELEMENDUETARA** joan gara.

Eman dezagun orain beste hau: «**hiru etxeak**». Zer da? Ken dezagun **-ak**, eta erants dezagun «**horiek**». Eta hau dugu: «hiru etxe horiek». Zalantzarik ez dago: adiera ez da funtsean aldatu, gauza berbera adierazten dugu gutxi gora behera. Lehen ere **ELEMENDUETAN** ginen; eta gero, gauza bera. «Hiru etxeak» **mugatua** zen.

Gauza bera gertatzen da **BAT** eta **-a**-ren artean. Gauza bat da «**etxe bat**», eta beste gauza bat da «**etxea**» (euskara zaharrean eta Ekaldeko euskalkietan batez ere).

«**Etxea**»ren ordeaz, «**etxe hori**» esaten badugu, adiera ez da funtsean aldatzen: aipatzen dugun «**etxe**» hori ezaguna zen, eta orain ere bai. «**Etxe bat**», berriz, ezezaguna da. «**Etxea erre da**» entzuten badugu, **zein** etxe erre den **ba dakigu**; baina «**etxe bat erre da**» entzuten badugu, **zein** etxe erre ote den **ez dakigu**.

Elemenduak zein diren ez dakigularik, hitz batez, **MUGAGABEA** erabiliko dugu: **ETXE bat**, **bi ETXE**, **hiru ETXE**, **lau ETXE**, **hamar ETXE**, **hogei ETXE**, **mila-ta-berrehun ETXE**.

Erdaraz honela ez delako («mila etxe» plurala zaigu) huts asko egiten da gaur puntu honetan; deklinabidean barrena, batez ere.

- 3.34 **Soil-soilik** gero eta gutxiago erabiltzen da Mendebaldeko eskualdeetan. Eta honengatik, eta **lehenengo hurbilketan**, hau esan daiteke: izena inoiz ez **dela soilik deklinatzen**. Batzuetan,

hortaz, aurretik doala zehaztailea (bi, hiru, bost, edozein, zenbat); eta besteetan atzetik doala (bat, -a, -ak, asko, gehiago). Irakasaldiaren haseran hau esatea lagungarri gerta dakioke ikasleari; baina **mugagabe soila ere** ba dago, eta ezin daiteke dekretuz alde batera utz.

Nominatiboan bi formatan agertzen da mugagabea (zakur, zakurrik; neskabila, neskatarik; zelai, zelairik). Berauen erabilkerari dagokionez ikus 18. ikaskaian.

Lekutasunezko kasuetan, eta 2.2 **inesiboan** batez ere, eskuarki erabiltzen da mugagabe soila: baketan, bekatutan, izerditan.

Gainerako **kasuetan** errazago aurkitzen dira adibideak antzinako idazleen izkribuetan, gaurko euskaldunen ahotan baino:

– **HERRIK bere lege, ETXEK bere aztura** (Oihenarte, 229. atsoitza).

– ezin ar lezake... kutsurik **DAUKANEK** (G. Arrue)

– irrinzaka aguanian **OÑI ezin eraginda** (Mogel).

– lotsa bear lirake neskatzak **GIZASEMERI** eskurik ematen (Arrue).

– ez **ZAARRI**, ez **GAZTERI**, ez **SENDORI**, ez **ARGALI** (P. Bartolome).

4 MUGAGABEAREN KOMUNZTADURA

Komunztaduran (= concordancia, accord) erakusten du garbikienik bere berezitasuna euskal mugagabeak. Eta komunztaduran ikus daiteke argi eta garbi euskal mugagabea **MULTZOKARIA** baizik ez dela.

- 4.1 Aurreko kapituluan esan dugunez, bi formatan agertzen zaigu mugagabea nominatiboan: \emptyset markaz ezagutarazia baiespen eskuarretan, eta **rIK** markaz, berriz, ezezko, zalantzako eta galderazko perpausetan mugagabe soiletan. Adibidez:

etxe asko / etxerik ez

zenbait lagun / lagunik ote dagoen.

Hots, kasu hauetako komunztadurak zalantza izpirik ez du uzten: aditza **singularrean** doa:

- **etxerik** ba ahal **duzu**?
- **lagunik** ez **zuten**.

(Eta ez, inolaz ere, ***etxerik ba ahal dituzu**, edo-ta ***lagunik ez zituzten**).

Mugagabeak **singularra** behar du komunztadurari dagokionez.

– Las reglas de concordancia muestran claramente que el «indefinido» vasco es, en el fondo, un colectivo.

– Les règles de l'accord montrent clairement que ce que nous appelons «indéfini» est, au fond, un collectif.

4.1 El indefinido presenta dos formas: una afirmativa, no marcada; otra, negativa, interrogativa o dubitativa, marcada –(r)ik.

L'indefini se présente sous deux formes: l'une affirmative, non marquée; l'autre, négative, interrogative ou dubitative, marquée, –(r)ik.

4.2 Gaur galtzen ari bada ere, hauxe izan da aditzarekiko komuntadura euskalki guztietan (ikus «Oinarri Bila», 61/80).

a) **Galdekariekin** aditza singularrean jartzen da:

- zer ordu DA? (ez *zer ordu dira)
- zein zakurrek koskegin DIZU? (eta ez *dizute).
- zenbati egin DIO sabeleko miña? (Udarregi bertsolariak; ez *die).

Gaur, gaztelaniaren eraginez, gero eta maizago entzuten dira horien aurkako erdarakadak: «cuántos piensan eso?», eta, hortaz, *zenbatek uste dute hori?». Lujanbio bertsolariak, ordea, jatorki zion: «zenbat gizon andik propina eman DIT» (eta ez *didate).

b) **Adjetibo mugagabeekin** ere singularrean doa aditza:

- propositu oi DARAMA askok konfesiara (Arrue; ez *daramate).
- anhitz malizia erakutsi izatu DU alferkeriak (Axular; ez *ditu).
- anhitzi gerthatzen ZAIKA (Axular; zaika = zaio; eta ez *zaie).
- askok DU igerri (Iturzaeta bertsolariak; eta ez *dute).
- zenbaitek EZTU ganadubakin suerte onik merezi (Udarregi bertsolariak; eta ez *eztute = ez dute).

c) **Zenbakariekin**, **MULTZOA** adierazi nahi denean; eta ez multzoko **elementuak**:

- **igual aditzen ZAIO iruri** (Txirrita bertsolariak) eta ez hiruei. Gogoan har dezagun diferentzia:
«hiruri», hiru elementuz osatututako **hirukote** bati.
«hiruei», multzo horretan **ezagutzen** ditugun hiru **elementuei**.

Hortaz.

- **hiruri** aditzen **zaio** (multzoari)
- **hiruei** aditzen **zaie** (elemenduei)
- **eskatu DIT amar peseta** (Soroak; eta ez *dizkit)
- **zük BADUZULA bospasei amore** (Etxahunek; eta ez *badütüzüla).

Joera ez da batere berria:

- **Naiago dot «to bat»,**
ze «amabi emon deiat»
(= «**más quiero toma uno, que doce te daré**»; Refranero de 1596).

Joera hau oso nahasia dago. Zenbakariak plurala baitira **erdaraz**, kalko-bidez sartu zaizkigu gero eta gehiago pluralezko komunztadurak.

Nahiz erdalkeria hau ez oso zaharra izan (ikus «Sustrai Bila», 62/69), ba dirudi **bi komunztadurak** eman beharko direla ontzat:

- **bi liburu erosi DUT**
- **bi liburu erosi DITUT.**

Funtsean, hala ere, bi gauza diferenteren aurrean gaude:

- **bi liburu erosi DUT** (**he comprado un conjunto de dos libros; j'ai acheté un ensemble de deux livres**). Multzoa ageri da hor; eta bi liburuak izkutuan dautza.
- **bi liburuak erosi DITUT** (= **he comprado los dos libros; j'ai acheté les deux livres**). Multzoa ez da hemen agiri; osatzen duten **bi elemenduak** baizik.

Garbi dago, beraz, «bi liburu erosi ditut» **bien arteko nahasketa** bat dela; nahiz, honen zabalkundea dela medio, **onartu beharrekoa**.

Honen argigarri gisa, ikus ondoko bi orrialdeok:

Mugagabea

- **hamabost urte DU**
 - tiene quince años
 - il a quinze ans

- **bi bertso onduko DUT**
 - prepararé dos estrofas
 - je préparerai deux strophes

(estrofas indefinidas)
(strophes indéfinies)

- **zortzi etxe saldu NUEN**
 - vendí ocho casas (indefinidas)
 - je vendis huit maisons (indéfinies)

- **bostek esan DU hori**
 - lo han dicho cinco (indefinidos)
 - cinq l'ont dit (indéfinis)


Mugatu anitza

- Ameriketan pasa ZITUEN bere azkenekq hamabost urteak
 - pasó en América sus últimos quince años.
 - il dépensa en Amérique ses quinze dernières années.


- ikasi nituen bi bertsoak ahanzi DITUT
 - he olvidado las dos estrofas que aprendí (concretas)
 - j'ai oublié les deux strophes que j'avais apprises. (concrètes).

- zortzi etxeak saldu NITUEN
 - vendí las ocho casas (concretas)
 - je vendis les huit maisons (définies)

- bostek esan DUTE hori
 - lo han dicho los cinco (concretos)
 - les cinq l'ont dit (concrets)



- **zortzi ETXE saldu NUEN**
 - (vendí un grupo de ocho casas, indefinidas hasta ahí)
 - (je vendis un groupe de huit maisons, non définies jusque là)



- **BOSTI entzun diot gauza bera**
 - he oído lo mismo a cinco
 - j'ai entendu la même chose à cinq



«Arbeletxe»



«Ibarra»



«Zelai»



«Xaberri»



«Loredi»



«Zumardi»



«Ea»




«Bustindui»

– zortzi ETXEAK saldu NITUEN

- vendí las ocho casas (concretas), (cuya identidad es conocida)
- je vendis les huit maisons (concrètes; dont l'identité est connue).



Aranberri



Joxepa



Edurne



Jon



Antton

– BOSTEI entzun DIET gauza bera

- he oído lo mismo a los cinco (concretos)
- j'ai entendu la même chose aux cinq (définis)

- 4.2 a) interrogativos, verbo en singular
 b) con los indefinidos, verbo en singular
 c) con los numerales, cuando se hace referencia al conjunto: singular; si se hace referencia a los elementos componentes, ya definidos: plural.
 (ver cuadros y croquis).
- a) avec les interrogatifs, verbe au singulier.
 b) avec les indéfinis, verbe au singulier.
 c) avec les numéraux, lorsqu'on fait allusion à l'ensemble: singulier, et si l'on fait allusion aux éléments, déjà connus: pluriel.
 (voir tableaux et croquis).

- 4.3 Erakusleekiko komunztadurak ere gauza bera erakusten du: gauza bat dela **MULTZOA** bera; eta beste gauza bat multzoa osatzen duten **ELEMENDUAK**.

Multzoari singularra datxekio (**hau, hori, hura**); eta **elemenduei, berriz, plurala** (**hauek, horiek, haiek**).

Euskal «bost urte», beraz, **quinquenio** da, izan; eta «hamar urte», era berean, **decenio, décennie** behar da ulertu.

«Bost urteak», berriz, multzoko **bost urte horiek** dira, ongi eta banaka, **elemendu** gisa ezagunak.

«Bost urte» ri, multzokaria denez, **singularra** datxekio; eta «bost urteak» i, aldiz, **elemenduak** aipatzen direlako, **plurala** dagokio.

«Bost urte honetan» eta «bost urte hauetan» ez dira **gauza bera**. Erdaraz jarri behar izanez gero, hau esango genuke:

«bost urte **HONETAN**» = en este quinquenio, durante este período o conjunto de cinco años; pendant cette période de cinq ans.

«bost urte **HAUETAN**» = a lo largo de esos cinco años concretos e individualizados; pendant ces cinq années là.

Ikus ondoko orrialdeak.

Mugagabe

Ekaina						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

(hiru egun) **HONETAN**
durante ese intervalo de tres días
pendant cette période de trois jours

(Ekainaren 24–tik Ekainaren
26-ra doan **epe horretan**)

72 ordu


← 3 egun →

(hiru egun) hau

Mugatu anitza




(hiru egun) HAUETAN
en estos tres días (concretos)
pendant ces trois jours (précis)




hiru egun hauek

Mugagabea



- burnibideko hiru metro HORRETAN lurra kendu dute.
- han quitado la tierra en ese intervalo de tres metros de la vía férrea.
- ils ont enlevé la terre tout au long d'un intervalle de trois mètres de voie ferrée.

Mugatu anitza



- Kaminuko hiru metro HORIETAN jarri behar dira mugarriak
- hay que colocar los mojones en esos tres metros (concretos: 610, 620 y 630) de la carretera.
- il faut placer des bornes sur ces trois mètres-là (les 610, 620 et 630-ème) de la route.

Ez da egia desberdintasun hau galdua denik. (Ikus, hori .buruz, «Oinarri Bila», 59/61).

4.3 (ver los croquis)

Si se hace referencia al conjunto, demostrativo en singular; si se explicitan los elementos componentes, demostrativo en plural.

(Voir les croquis)

Si l'on se réfère à l'ensemble, démonstratifs au singulier; si l'on se réfère plutôt à chacun des éléments, démonstratifs au pluriel.

5 MUGAGABEA ADITZAREN OSAKIN

Hona hemen Lafittek bere «Grammaire» famatuan diona: «Le nom **attribut** se met toujours au **NOMINATIF INDEFINI**, quand il est rattaché au sujet ou au complément par un verbe autre qu'**être** ou **avoir**» (73).

Eta geroxeago hau erasten: «il semble que le **nominatif indéfini** ait été jadis le cas de **TOUS LES ATTRIBUTS**: on entend même aujourd'hui: Baionan bikario da, il est vicaire à Bayonne; semea aintzindari dugu, notre fils est officier».

Erregela beraz hau izan daiteke: atributo gisa doan izena edo adjetiboa, **bereziki mugatua ez denean**, **MUGAGABE** gisa agertuko da:

- Ameriketara **joan da MISIOLARI**
- **DEPUTATU izendatu dute.**
- **gaztaroan MORROIN egon zen baserrian.**

Eta erregela hau hertsiki hartuko da **izan ez beste** aditz guztietan.

P. Goenagak egindako ohar batzu kontutan hartuta, beraz, hona hemen jarraipidea.

– Los atributos de todos los verbos, excepto los auxiliares, deben ir en nominativo indefinido.

– Le nom attribut de tous les verbes, exceptés les deux auxiliaires, doit se mettre au nominatif indéfini.

5.1 Gelditu, joan, hartu, jo, eman, izendatu, bilakatu, egin, bihurtu, eta abar, aditzen atributoa **MUGAGABE** gisa agertuko dira:

- artzain gelditu
- ikasle joan
- preso hartu
- su eman
- alkate izendatu
- lapur bilakatu
- abertzale egin
- arazo bihurtu

Erdal itzulpenetan «como, en tant que» ager daitezke:

- se quedó **como** pastor, il est resté **en tant que** berger.

Beste askotan, gehienetan, loturazko hitzik gabe agertzen da erdal itzulpena (hau, noski, beti irriskutsua izanik).

- dar fuego a; mettre le feu à.

Zer esanik ez: norbaitek idatziak dituen *problema batean bihurtu, edo *ikasle bezala joan, ez dira euskara.

5.1 Ver varios ejemplos con los verbos **gelditu, joan, hartu, etc...**
Voir plusieurs exemples avec les verbes **gelditu, joan, hartu, etc...**

5.2 Era honetako perpausak: **es difícil (el) decir, c'est difficile de dire, es fácil (el) comprender, c'est facile de comprendre;** eta halamoduzkoak; plegu hau dute euskaraz:

[ADJETIBO MUGAGABEA] { da / zen } ... { tzen / tzea }

Adibidez:

- **GAITZ da sinisten** (Arrue)
- **ZAIL da dirua sartzen** (Lujanbio)
- **ERRAZAGO da ... aginduak gordetzen** (Arrue)
- **ON da eskolatzea** (Lafitte).

Bide beretik ere (da / zen)-en ordeztu, (du / zuen)erabili behar direnean:

- GAITZ du **sinisten**
- ERRAZAGO zuen etxetik **joatea**.

Oharra: «joaten» ala «joatea»? «-tzen» ala «-tzea»? Biak zilegi; lehenengoa usuago, agian, Bizkai aldean; eta bigarrena usuago, berriz, Lapurdi aldean.

5.2 Ese es el caso en las expresiones del tipo: «es difícil decir», etc.

C'est bien le cas d'expressions telles que; «c'est difficile de dire», etc.

5.3 Zer esan izan-en atributo soilez? Alegia: **este hombre es bueno. cet homme est bon**; eta antzekoak, nola?

Gaurko joera **mugatuaren** alde dator:

- gizon hau **ONA** da.
- emakume hura **GAZTEA** zen
- etxea **POLITA** da

Joera hau ez da oso **zaharra**:

Eta guztiz **orokorra** ere ez: «En souletin on distingue entre karta hau on da, cette carte est bonne, et karta hau ona da, cette carte est la bonne» (Lafitte, Gramm., 123). Eta gauza bera Erronkariko euskaraz: «kau dun ón; kurak dutun ón» (Izagirre).

Baina normalagotzat jo behar da singularra gaurko egunean. Nahiz bestelako esaerak ere entzuten direlarik:

- **gazte dira** oraindik.

Ba dirudi, halere, kasu horietan, gazte **daude** oraindik esan nahi dela; «gazte» hori EGON-en atributoa balitz bezala. Hots, EGON aditzarekin horixe litzateke normala:

- **gazte zaudete**; hain zuzen ere.

Gauza bera Postua, lanbidea, eta antzekoak aipatzen direnean:

- **ene osaba alkate zen orduan**

5.3 El caso de los atributos con el verbo izan.

Le cas des attributs avec le verbe izan.

5.31 **EZAGUN IZAN** ere mugagabeen erabiltzen da:

– EZAGUN da ez zarela joan (= es **evidente** que no has ido; c'est **évident** que tu n'es pas allé).

Eta bide beretik:

– EZAGUN duzu (= se te nota; on voit bien que tu...)

5.4 Euskal «-tzen» aditza-atzizkiak (funtsean = «tze + n»; eta sail berekoek («-tzeko», «-tzera», eta abar), izen-kutsu nabarmena dute; eta **izenkuntzan** erabiltzen dira.

Uste den baino sakonagoa izan daiteke horretara Oñati / Arrasate-ko euskalkian egiten den adizki-trukea:

gertatzen → gertaketan

erosten → erosketan

Hots, **erosketa** erosi aditzari dagokion **ekintza da** (= operación de compra, l'opération même de l'achat). «Mando moztea», horretara, zinez da «mando-moztea»; eta «mando-mozketa» izenkuntzaren kidea.

Ekintza horietan, hortaz, atributoa **mugagabeen** jartzen da; eta ekintzaren izaria honetan agertzen da nabarmenenik: ekintza horren **hasera, amaiera, jarraikiera**, eta abar, aipatzen direla eskuarki. Esate baterako:

- ODOL isurtzen EGONA (Xenpelar)
- BAZKARI jaten ARI ZIRALA (Txirrita)
- BURU zuritzen ASIYA (Txirrita)
- DIRU biltzen JARDUN (Altzo)
- BERTSO jartzen ASI NINTZEN (lantzi)
- MARGO biltan (R., K. Izagirre).

Beste hau adieraziko balitz bezalaxe:

- (odol-isurketan) egona
- (diru-bilketan) jardun
- (buru-zuriketan) hasi

Hots, **izenketa** horietan, **izen-elkarketan** bezala, **mugagabea** da elkarkuntzaren oinarria; eta honek azaltzen du ongienik «Oinarri Bila» liburuan emandako adibide-ilara luzea:

- **artale jaten ari**

- arno edaten ari
- gezur kondatzen ari
- esne saltzen ibili
- azur batzen ekin
- bertso jartzen asi

Edozein ekintza orokorren **ekintzaren gertaera** aipatzen denean (-tzen hasi, ari izan, ekin, ibili, egon, jardun, bukatu), ekintzaren atributoa, **bereziki mugatua** eta xehea ez denean, **mugagabe** agertzen da.

5.4 El caso de diversas nominalizaciones obtenidas por sufijación con «-tzen».

Le cas de diverses nominalisations obtenues par suffixation avec «-tzen».

5.5 Mugagabe agertzen da ere **izan** aditzarekin doazen izen edo adjetibo aldakaitzak (**gose izan**, **egarri izan**, **fida izan**, **ari izan**, **mintzo izan**, eta abar). Baina puntu hau ikasi nahi izatekotan, ikus otoi 32. ikaskaia.

5.6 **Bizi izan** aditzarekin erabili ohi diren **adjetibo soilak**, adberbio gisa hartu behar litateke:

- **ALAI** bizi naiz
- **TRISTE** bizi ziren
- **ILUN** bizi ginen

Gauza bera esan liteke hauetaz ere.

- **ALAI** ibili ginen.

5.5 /5.6 Expresiones de tipo adverbial.

Expressions d'allure adverbiale.

6 BAT eta –A

- 6.1 Euskararen ondoko bi erdaretan **un** (zenbakaria) eta **un** (mugagabea) berdin esaten dira. **Semantika**– berezitasunari, horrela, **fonologi**– markarik ez egokitzean, joera handia dago euskaraz berdin gertatzeko.

Gero eta maizago, horretara, erdarazko **el, la / le, la** hitzez hitz itzuli nahian **-a** ematen da; eta erdarazko **un, una / un, une** delakoei, bai **mugagabe** direnean, bai **zenbakari**, euskarazko **BAT** eman ohi zaie.

Hori dela bide, sekula ezagutu ez den **BAT–ugalketa** ezagun da gaur euskaraz:

- haize **BAT** altxa zen
- etxe polit **BAT** duzue
- horra hor **zaldi BAT** !

Orain arte, ordea, honela esan dira hiru horiek:

- haizea **altxa** zen
- etxe **polita** duzue
- horra hor **zaldia** !

Goazen, beraz, **BAT** horren mugak jartzera.

6.1 Presencia creciente del numeral **BAT** por calco del indefinido español y francés.

Emploi croissant du numéral **BAT** par calque des indéfinis espagnol et français.

6.2 «Bat» horrek «1» adierazten denean (alegia, **bat eta ez bi**)
dudarik gabe dagokio **bat** hitza:

- zenbat anaia duzu? **Bat**
- Londresen urte oso **bat** pasa dut
- Orain arte kotxe **bat** dugu etxean.

Kasu hauetan, proba hau egin daiteke: BAKAR hitza BAT-en aurrean jarri, eta adiera funtsean aldatzen ez bada, **BAT** esan behar da; eta ez **-A**. Alderantziz, berriz, BAKAR horrek adiera aldatzen badu, **-A** zegokion esaldi horri.

- zenbat arreba duzu?
Nik arreba **BAT** dut.
Nik arreba **BAKAR** **BAT** dut.

Adiera ez da funtsean aldatu. BAT, hortaz.

- Non duzue etxea?
Leku baketsu **BATETAN** dago
Leku baketsu **BAKAR** **BATETAN** dago

Adiera aldatzen da. Hortaz:
Etxea leku baketsuan dago.

Grekoz ere ba zegoen honelako zerbait: «heis» (= bakar bat), eta «tis» (= edozein) (ikus Lafitte, «Fontes», n.º 12, 293-297).

6.2 Empleo correcto de BAT como numeral.

Emploi correct de BAT en tant que numéral.

6.3 Erdarakada hori **berria** dela adierazteko, hona hemen literaturazko adibide batzu:

- **nai** dozu bizitza luzia ta pamelija ona zeuretzat? (P. Bartolome)
- **etzeukak** txantxetako errape azala (Itxaspe)
- **turmoi** makurra dago (Soroa)
- **etxe** ederra duzu (c)
- **neska** polita duzue benetan (c).

6.31 **Zenbatu** egin daitezkeen gauzetan, batez ere, euskal gaizto dirudite BAT-ekiko esaldiak:

- *haize bat
- *ur bat
- *zuhurtasun bat

Hona hemen Iturzaeta bertsolariaren esaldi hau:

- alako **kariñua izanik gerena** (eta ez *halako kariño bat)

6.4 Joskeraren bitxia **pluraletan** ageri da ongienik:

- *zozo batzuk zerate
- *galtza batzuk jantzi ditut
- *ero batzuk dirudizue.

Beste hauen ordeez:

- zozoak zarete
- galtzak jantzi ditut
- ero(ak) dirudizue

Hain zuzen ere, eta batzuen ustez, plural hauetan sortu zen:

–AK / BATZU

nahasketa; eta honetatik, gero, analogiaz:

–A / BAT

Edozein kalkuluk, ordea, orehala erakuts dezake Iturzaeta bertsolariak Axularren **erdia** erabiltzen zuela, BAT hitza; eta Axularrek, berriz, bizpahiru aldiz gutxiago gaurko zenbait idazlek baino.

Eta arrazoina hauxe da: «**uno, contando, BAT**» (Larramendi, II, 473).


6.3 /6.4 Varios ejemplos de tipo literario demuestran que el calco es reciente.

Plusieurs exemples de type littéraire pour montrer qu'il s'agit bien d'un calque récent.

6.5 Marrazki bidez hau argitu nahirik, hau esango nuke:

	(= hau, hori, hura)	(= edozein, mugagabe, zeharo) (zenbakaitzetan)	(= bakar bat, bat eta ez bi)
(euskaraz)	-A		BAT (zenbatzeko)
(erdaraz)	(el / la) (le / la)	(un(o) / una) (un / une)	

Erdal pleguak nagusitu ahala, egoera hau dugu (latinarene azkenaldian bezala):



BAT-ek bere semantika-berezitasuna galtzen du egunetik egunera:

- Zenbat ezin** daitezkeen gauzetarako ere erabiltzen da: **haize bat, zorion bat, batasun bat.**
- Mugagabeetan** ere, **ezer gabe** (gaur zubereraz bezala) joan daitezkeen kasuetan ere erasten da:
 - **Kastero ere bada saintü** (Etxahun)
 - **ekharri zin artho** (Etxahun)
 - **holako kumpañetan** (Etxahun)
 - **sudur konkorra zuen** (Alzo)
- Aipatzen den izaki hori, zeharo **ez-ezagun** zaigunean:
 - **zaldia ikusi genuen**
 - **gizona etorri da**

Oso argitsua da, honi buruz, Diego Alzok ematen dituen adibideen erdal itzulpena:

- gizona etorri da {
 ha venido EL hombre
 ha venido UN hombre
 (130.orr.)
- masallekoa eman zion = le dió un bofetón
 (111.orr.)
- («El Euskera hablado», D. Alzo)

6.5 Croquis explicativo del desplazamiento semántico de BAT.
 Croquis montrant le déplacement sémantique de BAT.

- 6.51 Izan aditz soilen osagarriak «bat» behar ote duenez jakiteko, aski da izena atzera eramatea:
- gau hotz **bat** zen (?)
 (= **hacia una noche fría** /
 / **c'était une froide nuit**)
- Eraman dezagun «gau» hitza atzekaldera:
- hotz bat zen gaua (???)
- Hortaz, «bat» hori kendu behar da:
- **hotza zen gaua**
 edo - ta:
 - **gau hotza zen.**
- Gogoan atxik beti Larramendi-ren esaldia:
- «**BAT, uno, contando**»

- 6.6 **Azentoari** buruz, berriz, bai -A bai BAT klitiko izanik: [gisóna] eta [gisómbat]; honek ere biak nahastera bultzatu du, azken mendeotan batez ere.

Holmer-ek gaurko bizkaieran topatu dituen bi ereduek: [gisóna] eta [gisómbat] batetik; [gisón] eta [gisónak] bestetik; garbi erakusten dute BAT-en bilakaera: gero eta gehiago -A-ren kidetsu agertzen zaigu. Gauza bera gertatzen da zubereraz

[gisúmbat], eta aspaldiko geure Lizarraga-renean: «guiçombat», «bat» atzikia balitz bezala.

Baxenabarreraz, bide beretik, maiz entzun daitezke:[ecéat] eta [gastéat], «etxe bat» eta «gazte bat» adierazteko.

BAT zenbakaria, ordea, **mugagabe** zen jatorrian (*EKA galduz geroztik, batez ere). **Singularraren** aldeko joera berria, horretara, maila guztietan ageri da.

6.6 Las características fonéticas de -a y de bat han tendido a facilitar la confusión.

Les caractéristiques phonétiques de -a et de bat ont favorisé les confusions.

6.7 BAT, jatorriz, **zenbakaria** zenez, **mugagabe** gisa deklinatzen zen. Gero eta gehiago, ordea, **singularraren** kidetasuna hartu ala, hauen modura hasi da deklinatzen.

Bizkaieraz entzuten den **batén** forma (inesibo zaharra; zubererazko **étxen** -en kidea) **ez da** singularra, **mugagabe zaharra** baizik.

Iparraldeko euskalkietan, eta aipatzen dena bereziki mugatua ez denean, **mugagabe** gisa deklinatzen da:

(bizigabe)

0.1 bat—

0.2 bat— e K

0.3 bat— I

1.1 bat— EN

1.2 bat— ENTZAT

1.3 bat— ENGATIK

1.4 bat— EKIN

1.5 bat— e Z

2.1	bat—	e TAKO
2.2	bat—	e TAN
2.3	bat—	e TARA
2.4	bat—	e TARAINO
2.5	bat—	e TARUNTZ
2.6	bat—	e TATIK

Eta bizidunekin:

2.2	bat—	ENGAN
2.3	bat—	ENGANA
2.4	bat—	ENGANAINO
2.5	bat—	ENGANUNTZ
2.6	bat—	ENGANDIK

(Gogoan har 3.33-an esandakoa)

6.7 Declinación de BAT como indefinido y como singular. Análisis de la confusión reinante.

Déclinaison de BAT en tant qu'indéfini et en tant que singulier. Analyse de la confusion actuelle.

6.71 Singularra denean, berriz (BATA eta BESTEA, esaten dugunean bezala), deklinabide **mugatua** dagokio:

bata eta bestea

0.1	bat—	A	beste—	A
0.2	bat—	AK	beste—	AK
0.3	bat—	ARI	beste—	ARI
1.1	bat—	AREN	beste—	AREN
1.2	bat—	ARENTZAT	beste—	ARENTZAT
1.3	bat—	ARENGATIK	beste—	ARENGATIK
1.4	bat—	AREKIN	beste—	AREKIN
1.5	bat—	AZ	beste—	AZ

2.1	bat—	e KO	beste—	KO
2.2	bat—	e AN	beste—	AN
2.3	bat—	e RA	beste—	RA
2.4	bat—	e RAINO	beste—	RAINO
2.5	bat—	e RUNTZ	beste—	RUNTZ
2.6	bat—	e TIK	beste—	TIK

Eta bizidunekin:

2.2	bat—	ARENGAN	beste—	ARENGAN
2.3	bat—	ARENGANA	beste—	ARENGANA
2.4	bat—	ARENGANAINO	beste—	ARENGANAINO
2.5	bat—	ARENGANUNTZ	beste—	ARENGANUNTZ
2.6	bat—	ARENGANDIK	beste—	ARENGANDIK

— artuko dot esku batean gezia, bestean zuzi irazekia —
(T.A.V., 91)

— bata nola bertzea (T.A.V., 115)

Gauza ageria denez, honela jokutzen dute Hegoaldeko euskalkiek:

0.1 / 0.3 — mugagabe gisa (0.3 ez beti)

1.1 / 1.5 — mugagabe gisa

2.1 / 2.6 — singular gisa.

Hegoaldeko eskualdeetan **numero-nahasketa** dago; eta, nabarmen denez, singularra ari zaio mugagabeari nagusitzen.

Hots, **etxe bat** esanez zehaztu gabe gelditzen da elemendua (mugagabe); **etxea**, berriz, esaten badugu, etxe hau edo etxe hura, denek ezaguna, aipatzen dugularik.

Una casa / une maison, berriz, singularra de hauzoko erderetan.

BAT singular gisa deklinatzea, hortaz, erdarakada da; eta jatorrago da, honetan ere Iparraldeko euskalkiak eredu, **mugagabe** gisa deklinatzean. (Noski: bereziki jatorrian **bata** ez dagoenean).

6.72 Nahasketa hau (BAT / BATA) eta ondoko ikaskaian (BATZU / BATZUAK) alderatzen direnean (ikus 7.51 bereziki), ba dirudi alderantziz jokatu dutela euskalkiek batean eta bestean.

Hegoaldeko euskalkietan hau baikenuke, gutxi gora-behera, (BATZU / BATZUAK) bikoteari dagokionez:

0.1 / 0.3 – Plural gisa (0.1 ezik)

1.1 / 1.5 – Plural gisa (Bizkaian ez)

2.1 / 2.6 – Beharbada maizago mugagabe gisa.

Nahasketa-mota berberaren aurrean gaude, nolana ere.

6.8 Pasadizuetan eta kondairetan, azkenekorik, istorioaren presunak, abereak edo gauzak oro, entzuleari lehenengo aldiz aurkeztutzen zaizkionean, nahi-ta-ez sartu behar da bat hitza lehenengo aldian:

– ba zen herri hartan neskabila eder BAT.

Hau esanez geroztik, ordea, neskabila hori ezaguna da entzuleentzako; eta pasadizuaren segidan neskabila da (= neskabila + a noski, mugatua denez; «neskatillia» bizkaieraz).

Gauza bere gertatzen zaigu «beste» hitzaz.

Lehenengo aipaldian «beste etxe bat» (edo «beste bat») esango dugu. Geroztik, ordea, ezaguna denez, «beste etxea» edo «bestea» esango da.

6.8 Paso de BAT a -A en la forma narrativa.

Le passage de BAT à -A dans la prose narrative.

6.81 Fenomeno berbera gertatzen da zubereraz, Beñat Mardo-ren bertsoetan ageri denez.

Lehendabiziko aipaldian bi elemenduren multzo bat presentatzen digu bertsolariak, eta aditza singularrean jartzen du. Segidan, berriz, multzotik elemenduetara igarotzen da; «bi»

hura «biak» bilakatzen da; eta adizkiak ere **pluralean** agertzen zaizkigu.

«Beñat, esker dereiat,
hirur perrüka **ba diat**
sagardoi larrüz eginik,
eta hire begirutzen **tiat**»

(P. Lafitte, Gure Herria, 1950, 293). Nekez aurki daiteke argitzaileagorik.

Aldakuntza-mota berbera dugu kasu honetan eta aurrekoetan. Behin eta berriz **MULTZOA** izan begien aurrean, eta elementuak **berak** gailen.

Gauza berbera ikusten da Etxepare-ren bertso honetan:

– **anhitz gizon ari bada**
 andrez gaizki erraiten,
 arhizki eta desoneski
 baitituzte aipatzen.

Alegia: «anhitz gizon» horrek osatzen duen multzoa lehenengo aldiz aipatzerakoan; oraindik ere, beraz, gizon-multzoa ez-ezaguna denean, «bada» irakurtzen dugu, singularrean. Multzoaren berri dugunean, berriz, eta Beñat Mardo-ren bertsoan bezalaxe, «baitituzte» plurala irakurtzen dugu.

7 ADJETIBO MUGAGABEAK

Soilik (eta izenorde gisa, hortaz) edo **izenaren laguntzaile gisa** (eta adjetibo gisa, hortaz) ba daude euskaraz adjetibo **mugagabe** deituko ditugunak: **asko, (h)anitz, gut(x)i, zenbait, batzu, beste, (= bertze), frango, honenbeste, horrenbeste, hainbeste, (honenbat), (horrenbat), hainbat, gehiago, gut(x)iago, gehiegi, gut(x)iegi, aski, makina bat.**

Era berean, **edozer, edozein** (zer eta zein galdekarien hildokoak) mugagabetzat jo daitezke: edozein etxetan, edozertarako.

– Existen en vasco varios indefinidos, que funcionan como adjetivos o como pronombres.

Il y a en basque plusieurs indéfinis, qui fonctionnent soit comme adjectifs, soit comme pronoms.

- 7.1 Lehenago ere esan dugunez (ikus 3.32) mugagabe hauetako batzuek izenaren **aurretik** doaz, besteak **atzetik**. Ez dugu han esandakoa berriz errepikatuko.

Aurretik doazenean, atzizkiak izenari erasten zaizkio: **horrenbeste gizon, horrenbeste gizonek, horrenbeste gizoni, horrenbeste gizonen, eta abar.**

Ondotik doazenean, edo-ta berak **soilik**, atzizkiak adjetibo **mugagabeari** erasten zaizkio: **horrenbeste, horrenbestek, horrenbesteri, horrenbesteren, eta abar.**

Lekutasunezko kasuetan (2.1 / 2.6) bizidun / bizigabe berezketaren arabera deklinatzen dira, laguntzen (edo-ta ordaintzen) dituzten izenen motaren arabera.

7.1 Los que van tras el sustantivo, o bien todos cuando van solos, reciben los sufijos de declinación.

Ceux qui vont après le nom, ou bien tous lorsqu'ils vont seuls, reçoivent eux mêmes les suffixes de déclinaison.

7.2 Adjetibo hauen izendapenak berak adierazten duenez, **multzoa** ageri da hauen sintagmetan, eta ez inolaz ere multzoko elementuak.

«Hainbeste etxe» entzutean, etxe **multzo** bat antzematen dugu; baina ez multzo hori osatzen dituzten etxeak, bana-bana. Era berean «**etxe gutxi**» entzuten edo irakurtzen dugunean, etxe **multzo** bat somatzen dugu; multzo urria nahi bada, eta ez txit ugaria. Baina **multzoa nolanahi ere, eta ez elementuak**.

Era berean, «**edozein etxetan**» entzuten dugunean, etxe hori xuxen zein ote den ez dakigu. «Etxebarne» izan daiteke, Elkano kaleko 31-garrena, edo-ta «lhidoi» deritzana. Etxe hori, **elementu zehatza** litzatekeen aldetik, ilun agertzen zaigu.

Adjetibo mugagabeak, horretara, **mugagabeen** hildotik deklinatzen dira. Ez dira singularra eta ez plurala. Erdarazko itzulpenetan, ordea (**asko** = muchos, beaucoup de; **gutxi** = pocos, peu de; **hainbeste** = tantos. autant de) plural-kutsua nabari da. Eta horretatik ere, erdararen eraginaz, nahasketaren larria.

Horregatik gure taula oso batzu.

7.2/7.3 Declinación, indefinida, de asko y de zenbait, animados e inanimados.

Déclinaison, indéfinie, de asko et de zenbait, animés et non animés.

7.31 Hona hemen **bokalez** bukatutako mugagabe bat (**asko**), eta dagokion deklinabidea:

(bizigabe)

- | | | |
|------|-------|-----------------|
| 0.1 | asko— | |
| 0.2 | asko— | K |
| 0.3 | asko— | ri |
| 1.1 | asko— | rEN |
| 1.2 | asko— | rENTZAT |
| 1.3 | asko— | rENGATIK |
| 1.4 | asko— | rEKIN |
| 1.5 | asko— | Z |
| 2.1 | asko— | TAKO |
| 2.2 | asko— | TAN |
| 2.3 | asko— | TARA |
| 2.4 | asko— | TARAINO |
| 2.5 | asko— | TARUNTZ |
| 2.6 | asko— | TATIK |
| 0.11 | asko— | riK |
| 3.1 | asko— | TZAT |

Jakina: **bizigabe** baten ordeaz, **bizidun** bat baldin badugu, **lekutasunari** dagozkion kasuak aldatuko dira:

- | | | |
|-----|------------|----------------|
| 2.1 | | (ez dago) |
| 2.2 | asko—(ren) | GAN |
| 2.3 | asko—(ren) | GANNA |
| 2.4 | asko—(ren) | GANAINO |
| 2.5 | asko—(ren) | GANUNTZ |
| 2.6 | asko—(ren) | GANDIK |

7.311 «Asko» eta «gutxi» zenbakarri diren izenen ondoan erabil daitezke; baina zenbatu ezin daitezkeen izenen ondoan «handi» eta «txiki» erabili behar dira. Berririo ere Altube-ren irizpidea da gogoan hartzekoa: «Los vocablos que se refieren a seres no ponderables, o a objetos cuya cuantía no se acostumbra a determinar por cifras numéricas, concuerdan mal en euskera con el adjetivo asko, empleado en sustitución de **aundiya o luzea**» (Enderismos, 197).

Honek guztiak ondoko erderetatik urruntzen gaitu, eta inglesera hurbiltzen; honek, euskararen antzera, «countable» (= zenbakarri) eta «uncountable» (= zenbatezin) kategoriak ezagutzen dituelako.

Kee, gogo, su, argi, egarri, lotsa, hotz, beldur, eta abar, txikiak eta handiak dira; ez asko eta gutxi. «Gose asko daukat» ez da euskara; «oso gose naiz» bai. Era berean: «denbora luzea» eta «denbora laburra» esaten da.

Areago:

A– Su handia piztu dute

B– Su asko piztu dute

ez dira gauza bera. A perpausak su handi bat-adierazten du; B perpausak, berriz, bost su, hamar, hogeita-zazpi, asko hitz batez, piztu dutela.

Lehenengoan (A) suaren nolakotasuna ageria; bigarreanean (B), berriz, su horien aniztasuna.

Bide beretik, noski, «asko maite zaitut» ezin esatea; eta bai, ordea, «txit, oso, biziki, zinez, edo abar, maite zaitut».

Asko zenbakarriekin ez besterekin joan daiteke. Gauza bera gutxi (gaur, bederen).

Lekuko seguru honetan ere gure Axular zaharra:

– ur ttipia

– ur handia

Eta bide beretik ere adberbioetan, jakina:

– oso asarretu da (Urruzuno; eta ez «asko asarretu»)

– oso maite gaitu (Urruzuno)

– oso tristetu ziran (P. M. Otaño).

– oso indartu zuen (Otaño).

– txit maite gaitu (Gerriko).

eta **alderaketetan**:

– diru gehiago

– abere gehiago

baina:

– antz handiago

7.32 Eta hona hemen **kontsonantez** bukatutako mugagabe bat (zenbait), eta dagokion deklinabidea:

(bizigabe)

0.1 zenbait–

0.2 zenbait– eK

0.3 zenbait– I

1.1 zenbait– EN

1.2 zenbait– ENTZAT

1.3 zenbait– ENGATIK

1.4 zenbait– EKIN

1.5 zenbait– eZ

2.1 zenbait– eTAKO

2.2 zenbait– eTAN

2.3 zenbait– eTARA

2.4 zenbait– eTARAINO

2.5 zenbait– eTARUNTZ

2.6 zenbait– eTATIK

0.11 zenbait– IK

3.1 zenbait– TZAT

Ohar berbera hemen ere lekutasunari dagokionez. Biziduna izanez gero:

2.2 zenbait– en GAN

2.3 zenbait– en GANA

- 2.4 zenbait— en GANAINO
- 2.5 zenbait— en GANUNTZ
- 2.6 zenbait— en GANDIK

7.4 **Beste**, bere horretan, eta zehaztu ez den multzo bati buruz ari garelarik (otros, d'autres), mugagabe gisa deklinatzen da.

Ez dira gauza bera: **beste** eta **besteak**:

bestek esaten du = otros dicen / d'autres disent

besteek esaten dute = los otros dicen / les autres disent.

«**Bestek**» diogularik multzoa somatzen dugu; baina multzoko elementuak ez. «**Besteek**» diogularik, berriz, multzoko elementuak ikusten ditugu; ba dakigu zinez nork eta nork esan duten hori. «**Bestek**» mugagabea da; «**besteek**», berriz, plurala.

Noski: **beste** mugagabe hori bezalaxe erabiltzen dira horretatik sortu diren mugagabeak: **honenbeste**, **horrenbeste**, **hainbeste**.

Lekutasunari buruz, era berean, bere ondorioak ditu lagundua edo ordaindua den izena **biziduna** edo **bizigabea** izatea.

Hona hemen deklinabidea bere osoan:

- 0.1 beste—
- 0.2 beste— K
- 0.3 beste— rI
- 1.1 beste— rEN
- 1.2 beste— rENTZAT
- 1.3 beste— rENGATIK
- 1.4 beste— rEKIN
- 1.5 beste— Z
- 2.1 beste— TAKO
- 2.2 beste— TAN

- 2.3 beste— TARA
- 2.4 beste— TARAINO
- 2.5 beste— TARUNTZ
- 2.6 beste— TATIK

- 0.11 beste— rIK
- 3.1 beste— TZAT

Datxekion izena **biziduna** baldin bada, hau dugu:

- 2.2 beste— ren GAN
- 2.3 beste— ren GANA
- 2.4 beste— ren GANAINO
- 2.5 beste— ren GANUNTZ
- 2.6 beste— ren GANDIK

7.4 Caso ambiguo de beste.
Le cas ambigü de beste.

7.5 Nahasketarik nabarmenena **batzu** mugagabeen gertatzen da. Mendebaldeko euskalkietan bere **mugagabetasuna** ongi atxiki badu ere (**batzu** entzuten da Bermeon; eta **batzuren**, **batzuri**, **batzutan**, eta abar, ez dira bitxi gertatzen bizkaieraz); **pluraltasuna** kutsatu bide zaio bestetan (batzuek, batzuen, batzuei, batzuetan, eta abar).

Egoera, hitz batez, bat-en kide hertsia da (batak / batek; batean / batetan; bateko /batetako; eta abar); **mugagabea eta singularra nahastetik etorria**.

Hots, gauza bat da batzu, mugagabea, eta beste gauza bat batzuek; gauza bat bat, eta beste bat bata diren bezalaxe. (ikus, honi buruz, 6. ikaskaia).

7.5 El caso no menos ambiguo de batzu
Le cas aussi bien ambigü de batzu.

7.51 «Gizon **batzu**» esaten dugularik, gizon ez osatutako multzo hori **multzo** gisa ageri zaigu (= un conjunto de varios hombres / un ensemble de plusieurs hommes). Multzoa ikusten dugu, ez elementuak. Multzo hau bakarrik dago; eta beste multzorekiko harremanik edo kontrakarrik ez dago. Aditzaren komuntadura, **halere, pluralean** egiten da:

– gizon **batzu** ikusi **ditugu** (eta ez **dugu**).

Hona hemen deklinabide osoa **mugagabe**:

(bizigabe)

- 0.1 batzu—
- 0.2 batzu— **K**
- 0.3 batzu— **ri**
- 1.1 batzu— **rEN**
- 1.2 batzu— **rENTZAT**
- 1.3 batzu— **rENGATIK**
- 1.4 batzu— **rEKIN**
- 1.5 batzu— **Z**
- 2.1 batzu— **TAKO**
- 2.2 batzu— **TAN**
- 2.3 batzu— **TARA**
- 2.4 batzu— **TARAINO**
- 2.5 batzu— **TARUNTZ**
- 2.6 batzu— **TATIK**

Eta bizidunekin:

- 2.2 batzu— **ren GAN**
- 2.3 batzu— **ren GANA**
- 2.4 batzu— **ren GAINO**
- 2.5 batzu— **ren GANUNTZ**
- 2.6 batzu— **ren GANDIK**

7.52 Multzo bat bi azpi-multzotan zatitzen badugu, berriz, bi azpimultzo horien elemenduak batzuak gertatuko dira lehenengoan; eta besteak bigarrean. Kasu honetan elkarrekiko mugatzen-edo dira bi azpimultzo horiek, eta plural gisa deklinatuko dira biak:

(bizigabe)

0.1 batzu— AK	eta beste— AK
0.2 batzu— EK	eta beste— EK
0.3 batzu— EI	eta beste— EI
1.1 batzu— EN	eta beste— EN
1.2 batzu— ENTZAT	eta beste— ENTZAT
1.3 batzu— ENGATIK	eta beste— ENGATIK
1.4 batzu— EKIN	eta beste— EKIN
1.5 batzu— EZ	eta beste— EZ
2.1 batzu— ETAKO	eta beste— ETAKO
2.2 batzu— ETAN	eta beste— ETAN
2.3 batzu— ETARA	eta beste— ETARA
2.4 batzu— ETARAINO	eta beste— ETARAINO
2.5 batzu— ETARUNTZ	eta beste— ETARUNTZ
2.6 batzu— ETATIK	eta beste— ETATIK

Eta bizidunetan:

2.2 batzu— ENGAN	eta beste— ENGAN
2.3 batzu— ENGANA	eta beste— ENGANA
2.4 batzu— ENGANAINO	eta beste— ENGANAINO
2.5 batzu— ENGANUNTZ	eta beste— ENGANUNTZ
2.6 batzu— ENGANDIK	eta beste— ENGANDIK

«Batzuak» forma ez da teoriakoa; eta idazle zaharretan aurki daiteke.

Ba dirudi, beraz, «batzu»-ren erabilkera semantika-balioen arabera erabaki behar dela:

Batzuk esaten dute (**varios, plusieurs**). Baina:

batzuek hau esaten dute, eta besteek berriz beste hori.

Era berean:

batzutan gertatzen da hori. Baina:

etxe batzuetan horrela konpontzen dute arazo hori. eta besteetan beste modu horretara.

7.53 **Azken ohar bat:** gauza bat da **bestea**, eta beste gauza bat **beste bat**:

– **beste bat ekarri dizut** (te he traído otro / je t'en ai apporté un autre)

– **bestea ekarri dizut** (te he traído el otro / je t'en ai apporté l'autre)

Bigarren hori, hortaz, **ezaguna** dute mintzatzailleek; eta **bestea** esan duten bezala, **beste hori** ere esan lezakete. Bigarren hori, hitz batez, **singularra** da; lehenengoa **mugagabea** zelarik.

7.54 Tradizinoari eutsiaz deitu ditugu «adjetibo» sail honetako monemak. Nahiz, funtsean, izendapen **hori** (eta ohizko **beste batzu**) aldatu beharra garbi agertu.

8 EUSKAL JENEROAK

- 8.1 Gramatika-jeneroari dagokionez, eta lehenengo hurbilketan, euskaraz jenerorik ez dagoela esan behar da.

Ondoko erdaretan ba dago, jakina denez:

- 1– el árbol es hermoso / l'arbre est beau.
- 2– la luna es hermosa/ la lune est belle
- 3– el hombre es ambicioso / l'homme est ambitieux
- 4– la mujer es ambiciosa / la femme est ambitieuse

3. eta 4. adibideetan **setsu**-desberdintasuna ba dago; eta setsu desberdintasun horri **jenero**-desberdintasuna dagokio gramatikaren mailan. Bainan 1. eta 2. adibideetan, jenero-desberdintasuna ba dago; nahiz setsu arazorik ez egon.

Euskaraz **ez dago** horrelako diferentziarik gramatikaren mailan:

- gizon hori ederra da
- emakume hori ederra da
- zuhaitz hori ederra da
- ilargia ederra da

Setsu-arazoa, aurrerago azalduko dugunez, **aditzaren** mailan nabarmentzen da; baina bestetan ez.

8.1 El género gramatical no existe en la declinación vasca.

Il n'y a pas de genre grammatical en ce qui concerne la déclinaison basque.

8.2 **Setsu-desberdintasunak**, halere, bizpahiru modutara ager erazten dira euskaraz.

8.2 La diferenciación sexual en vasco.

La différenciation sexuelle en basque.

8.21 **Etzeko abereetan**, aziendan, oso maiz erabiltzen ditugu **hitz desberdinak** arrentzako eta emeentzako:

garaño
(caballo (no capado), étalon)
zezen
(toro, taureau)
ordots
(verraco, verrat)
aker
(cabrón, bouc)
ahari
(carnero, mouton)

behor
(yegua, jument)
behi
(vaca, vache)
ahardi
(cerda, truie)
ahuntz
(cabra, chèvre)
ardi
(oveja, brebis)

8.22 Gainerako alimaleetan, ar eta eme hitzak erabiltzen dira atzizki gisa (**-AR; -EME**). Era honetara:

asto > **astar** / **asteme** (asno, âne)
katu > **katar** / **kateme** (gato, chat)

8.23 **Orokorki**, azkenekorik, eta alimaleen **arra** eta **emea** adierazi nahi direnean, zenbait euskalkiren joera ontzat hartuz, bi hitz hauek erabil daitezke:

orots (macho, mâle)
urruxa (hembra, femelle)

Baita, noski, **ar** eta **eme** berberak.

Oharra: Gauza bat da **ar** (= macho, mâle) eta beste bat **har** (= gusano, ver)

8.24 Gramatikaren mailan **ar/eme**-tasunik ez dagoen bezalaxe, **neutro**-rik ere ez dago (**lo bueno, Das Kind**).

Irendutako abereek, horretara, hitz bereziak izaten dituzte:

zaldi (caballo castrado, cheval châtré)

idi (buey, boeuf)

zikiro (cebón, mouton châtré).

«**iren**» hitz berbera **atzizki** gisa erabiltzen ez delarik:

aketiren (= aker irendua)

Oharra: **zaldi** adiera orokorrean erabiltzen da gaur; **garaño** «semental» adieraz erabiliz.

8.3 Setsu-desberdintasuna aditzaren jokabideetan agertzen da, jakina denez:

hik ekarri duk (= gizonezko bat ekarle)

hik ekarri dun (= emakumezko bat ekarle)

hiri erosi diat (= gizonezko bat saltzaile)

hiri erosi dinat (= emakumezko bat saltzaile)

Setsu-markak, horretara, hauek dira aditzean:

k (= **a**) (gizonezkoak)

n (= **na**) (emakumezkoak)

Baina honi buruz xehekiago mintzatuko gara aditzari buruzko kapituluetan, 22. ikaskaitik aurrera.

8.3 El reflejo del hecho sexual en la conjugación vasca.

Le reflet du fait sexuel dans la conjugaison basque.

8.4 **Gizakien mailan**, eta gizonezkoa eta emakumezkoa bereztekotan, **-sa** atzizkia erabili izan da Ekaldeko euskalkietan:

jainko / jainkosa

artzain / artzaintsa

errient / errientsa (= irakasle)

ohoin / ohointsa (= lapur)

alargun / alarguntsa

kantinier / kantiniertsa

Nahiz bere jatorriaren alderditik erdal kutsukoa izan, gizonez-koen eta emakumezkoen **lanbideak** berezteko -sa erabil daitekeela dirudi:

sekretari / sekretarisa

lehendakari / lehendakarisa

8.4 El empleo del sufijo sexual «-sa».
L'emploi du suffixe sexuel «-sa».

9 IZEN ARRUNTEN DEKLINABIDEA

- 9.1 Euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, bi azpi-multzotan bana daiteke izen guztien saila: **arruntak** eta **nagusiak**.

Hona hemen adibide bana:

A = {etxe, gizon, herri, zaldi, bago}

B = {Hazparne, Ezkarai, Bilbo, Kepa, Miren}

A multzoa osatzen duten elemenduak izen **arruntak** dira; **B** multzoa osatzen duten elemenduak, berriz, izen **nagusiak** dira.

Izen arruntak eta izen nagusiak ez dira hildo beretik deklinatzen (ikus ondoko orrialdeak); ezta **bokalez** edo **-ai**, **-ei**, **-oi** letrez bukatzen diren hitzak batetik, eta **kontsonantez** edo **-au** letrez bestetik.

Hazparne, **Ezkarai** izenak **bakarrak** dira berez; nahiz, kasu batean edo bestean, hiru **Hazparne**, bost **Ezkarai**, eta antzekoak esan ahal izan. **Etxe**, **gizon**, **herri**, izen arruntak dira, era berean: etxe asko dago munduan, gizon gutxi edo hainbeste herri dagoen bezala.

Izen abstraktoak ere (**higadura**, **maitasun**, **eskubide**, **demokrazia**) izen arrunten sailean sartzen dira.

9.1 Existencia en vasco de dos declinaciones distintas, para nombres comunes y nombres propios.

Existence en basque de deux déclinaisons différentes, pour noms communs et noms propres.

- 9.2 Ikus dezagun, aurrenik, izen **arrunten** deklinabidea.

Lehendabizi (gogoan har bigarren kapituluaren esandakoak) **bizigabeen** deklinabidea eman dugu.

Deklinabide hau lau taulatan agertzen dugu:

9.2	Declinación de los nombres comunes. 1 – Palabras terminadas en vocal. 2 – Palabras terminadas en consonante. 3 – Palabras terminadas en diptongo con i. 4 – Palabras terminadas en diptongo con u. Cuadros correspondientes.
	Déclinaison des noms communs. 1 – Mots terminés par voyelle. 2 – Mots terminés par consonne. 3 – Mots terminés par diphtongue avec i 4 – Mots terminés par diphtongue avec u. Tableaux correspondants.

9.21 **Bokalez** bukatzen diren izen bizigabeen deklinabidea.

9.22 **Kontsonantez** bukatzen direnena.

9.23 **-ai, -ei,** eta **-oi** diptongoez bukatzen diren hitzena.

9.24 **-au** diptongoaz bukatzen direnena.

Zer esanik ez: izen-sintagmaren azken hitza adjetibo bat baldin bada, **adjetibo horri** datxezkio daklinabidezko atzizkiak; eta hauek, hain zuzen, lau taula horietan gertatzen diren berberak dira:

haritz_e **AN** / hotz_e **AN**
zubi **TATIK** / itsusi **TATIK**
zelair **IK** / alair **IK**

Eta adjetiboarekin doan izena **biziduna** baldin bada, bizidunen arabera deklinatzen da eskuinaldeko adjetiboa:

mutil **ENGAN** / sotil **ENGAN**
zaldir **ENGANDIK** / bizir **ENGANDIK**

Ageri denez, eta Euskaltzaindiak hala erabakirik, dira, 1 eta 3 taulak batetik, eta 2 eta 4 taulak bestetik, berdina dira. **Bokalez** bukatzen diren hitzak eta **-ai, -ei, -oi** diptongoez bukatzen direnak elkarren kide dira deklinabideari dagokionez; eta gauza bera **kontsonantez** eta **-au** diptongoaz bukatzen direnak.

Bizigabeak

M

0.1	zubi—	
0.2	zubi—	K
0.3	zubi—	r I
1.1	zubi—	r EN
1.2	zubi—	r ENTZAT
1.3	zubi—	r ENGATIK
1.4	zubi—	r EKIN
1.5	zubi—	Z
2.1	zubi—	TAKO
2.2	zubi—	TAN
2.3	zubi—	TARA
2.4	zubi—	TARAINO
2.5	zubi—	TARUNTZ
2.6	zubi—	TATIK
0.11	zubi—	r IK
3.1	zubi—	TZAT

S
zubi— A
zubi— AK
zubi— ARI

zubi— AREN
zubi— ARENTZAT
zubi— ARENGATIK
zubi— AREKIN
zubi— AZ

zubi— KO
zubi— AN
zubi— RA
zubi— RAINO
zubi— RUNTZ
zubi— TIK

P
zubi— AK
zubi— EK
zubi— EI

zubi— EN
zubi— ENTZAT
zubi— ENGATIK
zubi— EKin
zubi— EZ

zubi— ETAKO
zubi— ETAN
zubi— ETARA
zubi— ETARAINO
zubi— ETARUNTZ
zubi— ETATIK

9.22 Kontsonantezkoak
Bizigabeak

M

0.1	lan—	
0.2	lan—	e K
0.3	lan—	I
1.1	lan—	EN
1.2	lan—	ENTZAT
1.3	lan—	ENGATIK
1.4	lan—	EKIN
1.5	lan—	e Z
2.1	lan—	e TAKO
2.2	lan—	e TAN
2.3	lan—	e TARA
2.4	lan—	e TARAINO
2.5	lan—	e TARUNTZ
2.6	lan—	e TATIK
0.11	lan—	IK
3.1	lan—	TZAT

S

lan— A
lan— AK
lan— ARI

lan— AREN
lan— ARENTZAT
lan— ARENGATIK
lan— AREKIN
lan— AZ

lan— e KO
lan— e AN
lan— e RA
lan— e RAINO
lan— e RUNTZ
lan— e TIK

P

lan— AK
lan— EK
lan— EI

lan— EN
lan— ENTZAT
lan— ENGATIK
lan— EKIN
lan— EZ

lan— ETAKO
lan— ETAN
lan— ETARA
lan— ETARAINO
lan— ETARUNTZ
lan— ETATIK

Bizigabeak

M

- 0.1 zelai— —
- 0.2 zelai— K
- 0.3 zelai— r l

- 1.1 zelai— r EN
- 1.2 zelai— r ENTZAT
- 1.3 zelai— r ENGATIK
- 1.4 zelai— r EKIN
- 1.5 zelai— Z

- 2.1 zelai— TAKO
- 2.2 zelai— TAN
- 2.3 zelai— TARA
- 2.4 zelai— TARAINO
- 2.5 zelai— TARUNTZ
- 2.6 zelai— TATIK

- 0.11 zelai— r IK
- 3.1 zelai— TZAT

S

zelai— A
zelai— AK
zelai— ARI

zelai— AREN
zelai— ARENTZAT
zelai— ARENGATIK
zelai— AREKIN
zelai— AZ

zelai— KO
zelai— AN
zelai— RA
zelai— RAINO
zelai— RUNTZ
zelai— TIK

P

zelai— AK
zelai— EK
zelai— EI

zelai— EN
zelai— ENTZAT
zelai— ENGATIK
zelai— EKIN
zelai— EZ

zelai— ETAKO
zelai— ETAN
zelai— ETARA
zelai— ETARAINO
zelai— ETARUNTZ
zelai— ETATIK

Bizigabeak

M

0.1	gau—	
0.2	gau—	e K
0.3	gau—	I
1.1	gau—	EN
1.2	gau—	ENTZAT
1.3	gau—	ENGATIK
1.4	gau—	EKIN
1.5	gau—	e Z
2.1	gau—	e TAKO
2.2	gau—	e TAN
2.3	gau—	e TARA
2.4	gau—	e TARAINO
2.5	gau—	e TARUNTZ
2.6	gau—	e TATIK
0.11	gau—	IK
3.1	gau—	TZAT

S
gau— A
gau— AK
gau— ARI

gau— AREN
gau— ARENTZAT
gau— ARENGATIK
gau— AREKIN
gau— AZ

gau— e KO
gau— e AN
gau— e RA
gau— e RAINO
gau— e RUNTZ
gau— e TIK

P
gau— AK
gau— EK
gau— EI

gau— EN
gau— ENTZAT
gau— ENGATIK
gau— EKIN
gau— EZ

gau— ETAKO
gau— ETAN
gau— ETARA
gau— ETARAINO
gau— ETARUNTZ
gau— ETATIK

9.3 Deklinabidearen **erregelak**, horretara, hauek dira: (V = bokale; C = kontsonante)

9.3 Reglas de ligazón = indefinido, singular, plural.
Règles de liaison = indéfini, singulier, pluriel.

9.31 Mugagabeen

- 1- **(-V) + (C-)** – lotura \emptyset
zubi + **K** = zubik
- 2- **(-C) + (V-)** – lotura \emptyset
lan + **EN** = lanen
- 3- **(-V) + (V-)** – lotura **r**
zubi + **I** = zubiri
- 4- **(-C) + (C-)** – lotura **e**
lan + **TAN** = lanetan

Oharra:

4. legea ez da **3.1** kasuan betetzen:

lan + **TZAT** = lantzat.

9.32 Mugatu bakarrean

Eskuarki atzizkia eta hitza loturazko letrarik gabe lotzen dira. Berezkuntza bakar bat egin behar: kontsonantez **-(eta- au diptongoaz)** bukatzen diren hitzetan, **e** da lotura lekutasunari buruzko kasuetan:
gau + **ko** = gaueko
lau + **tik** = lauetik

9.33 Mugatu anitzean

Atzizkia eta hitza loturazko letrarik gabe lotzen dira. Eta hau **beti** eta inolako berezkuntzarik gabe.

9.4 Ondoren, eta bigarren ikaskaiari azaldutakoen bidetik, **bizidunen** deklinabidea eman dugu.

9.4 Caso de los animados, terminados en vocal o consonante.
Cas des animés, qui se terminent par voyelle ou consonne.

9.41 **Bokalez** (eta **-ai**, **-ei**, **-oi** diptongoez) bukatzen diren hitzen deklinabidea.

9.42 **Kontsonantez** (eta **-au** diptongoaz) bukatzen direnena.

Bizidunak

		M
0.1	zaldi—	
0.2	zaldi—	K
0.3	zaldi—	r I
1.1	zaldi—	r EN
1.2	zaldi—	r ENTZAT
1.3	zaldi—	r ENGATIK
1.4	zaldi—	r EKIN
1.5	zaldi—	Z
2.1	zaldi—	
2.2	zaldi—	(ren) GAN
2.3	zaldi—	(ren) GANA
2.4	zaldi—	(ren) GAINO
2.5	zaldi—	(ren) GANUNTZ
2.6	zaldi—	(ren) GANDIK
0.11	zaldi—	r IK
3.1	zaldi—	TZAT

S

zaldi— A
 zaldi— AK
 zaldi— ARI

zaldi— AREN
 zaldi— ARENTZAT
 zaldi— ARENGATIK
 zaldi— AREKIN
 zaldi— AZ

zaldi— —
 zaldi— A (ren) GAN
 zaldi— A (ren) GANA
 zaldi— A (ren) GANAINO
 zaldi— A (ren) GANUNTZ
 zaldi— A (ren) GANDIK

P

zaldi— AK
 zaldi— EK
 zaldi— EI

zaldi— EN
 zaldi— ENTZAT
 zaldi— ENGATIK
 zaldi— EKIN
 zaldi— EZ

zaldi— —
 zaldi— ENGAN
 zaldi— ENGANA
 zaldi— ENGANAINO
 zaldi— ENGANUNTZ
 zaldi— ENGANDIK

Bizidunak

M

0.1	mutil—	
0.2	mutil—	e K
0.3	mutil—	I
1.1	mutil—	EN
1.2	mutil—	ENTZAT
1.3	mutil—	ENGATIK
1.4	mutil—	EKIN
1.5	mutil—	e Z
2.1	mutil—	—
2.2	mutil—	(en) GANA
2.3	mutil—	(en) GANA
2.4	mutil—	(en) GAINO
2.5	mutil—	(en) GANUNTZ
2.6	mutil—	(en) GANDIK
0.11	mutil—	IK
3.1	mutil—	TZAT

	S
mutil—	A
mutil—	AK
mutil—	ARI
mutil—	AREN
mutil—	ARENTZAT
mutil—	ARENGATIK
mutil—	AREKIN
mutil—	AZ
mutil—	—
mutil—	A (ren) GAN
mutil—	A (ren) GANA
mutil—	A (ren) GANAINO
mutil—	A (ren) GANUNTZ
mutil—	A (ren) GANDIK

	P
mutil—	AK
mutil—	EK
mutil—	EI
mutil—	EN
mutil—	ENTZAT
mutil—	ENGATIK
mutil—	EKIN
mutil—	EZ
mutil—	—
mutil—	ENGAN
mutil—	ENGANA
mutil—	ENGANAINO
mutil—	ENGANUNTZ
mutil—	ENGANDIK

9.5 Deklinabide honi buruz ohar batzu egin daitezke:

a) **Bizidunen** deklinabiden **2.1 kasua ez dagoela**: gizoneko, **zaldiko** formarik ez dago (zaldiko beste batera gerta daiteke; baina beste **-ko** hori ez da deklinabidean nongo? galderari erantzuten diona).

Gogoan hartu behar da, halere, 18. ikaskaian xehekiago azaltzen denez, **bizidunek -ko** hartzen ez badute ere, **bizigabeek -en** har dezaketela. Esate baterako:

mutileko, emakumeko = **EZ**

baina mendiaren, zubiaren = **BAI**

eta mendiko, zubiko = **BAITA ERE**

b) **Lekutasunari** dagozkion kasuetan **rEN / REN** bi atzizkiak parentesi artean agertzen dira. Honen arabera, eta Euskara Batuari dagokionez, bi moldeak erabil daitezke, eta adiera berberean erabil:

zaldirengana / zaldigana

mutilarenganaino / mutilaganaino

9.5	Los sufijos referentes a la localización. Les suffixes se rapportant à la localisation.
-----	--

10 IZEN NAGUSIEN DEKLINABIDEA

10.1 Euskarazko izen nagusiak bi multzotan bana daitezke.

Alde batetik **pertson-izenak** daude: Andoni, Joseba, Piarres, Marta, eta abar; baita, jatorriz leku-izenak izanagatik ere, pertsonen **deitura** bilakatu direnak: Aizkibel, Larramendi, Kortadi, Unanue, eta abar.

Eta, beste batetik, **leku-izenak** daude: Angiozar, Bilbo, Mosku, Afganistan, Nafarroa, eta abar. Zer esanik ez : pertsona-deitura bilakatu diren horietxek, leku-izentzat deklinatzerakoan, leku-izenen deklinabidearen arabera jokatuko dira.

Izen **arruntek** deklinabide **hirukuna** badute ere (mugagabea, singularra, plurala), izen **nagusiek** deklinabide **bakuna** dute. Hori dela-ta, bi taulatan ematen da deklinabide hau:

10.1	Los nombres propios pueden ser de lugar o de persona. En ambos casos su declinación es única. Les noms propres peuvent être de lieu ou de personne. Dans tous les cas, leur déclinaison est unique.
------	--

10.2 **Leku-izenak** – Zerrenda batean **bokalez** bukatzen direnen deklinabidea (baita, beti bezala, **-ai**, **-ei**, **-oi** diptongoez bukatzen direnena); eta bestean **kontsonantekoena**.

10.3 **Pertson-izenak** – Bide beretik ere, bi zerrendatan: bokalezkoena batean, kontsonantetzkoena bestean.

10.2 /10.3 Ver los cuadros correspondientes, para vocal y para consonante.
Voir les tableaux correspondants, pour voyelle et pour consonne.

10.2 Leku izenak

0.1	Hazparne—		Aralar —	
0.2	Hazparne—	K	Aralarr—	e K
0.3	Hazparne—	r l	Aralarr—	l
1.1	Hazparne—	r EN	Aralarr—	EN
1.2	Hazparne—	r ENTZAT	Aralarr—	ENTZAT
1.3	Hazparne—	r ENGATIK	Aralarr—	ENGATIK
1.4	Hazparne—	r EKIN	Aralarr—	EKIN
1.5	Hazparne—	Z	Aralarr—	e Z
2.1	Hazparne—	KO	Aralar —	KO
2.2	Hazparne—	N	Aralarr—	e N
2.3	Hazparne—	r A	Aralarr—	A
2.4	Hazparne—	r AINO	Aralarr—	AINO
2.5	Hazparne—	r UNTZ	Aralarr—	UNTZ
2.6	Hazparne—	TIK	Aralar —	TIK
0.11	Hazparne—	r IK	Aralarr—	IK
3.1	Hazparne—	TZAT	Aralar —	TZAT

10.21 Aldera ditzagun, **lekutasunari** dagozkion kasuetan, ondoko bi zerrenda hauek (mugatu bakarra lehenengoa, izen nagusia bigarrena), biak **bokalezko** izenetan hautatuak.

2.1	zubi—	KO	Hazparne—	KO
2.2	zubi—	AN	Hazparne—	N
2.3	zubi—	RA	Hazparne—	r A
2.4	zubi—	RAINO	Hazparne—	r AINO
2.5	zubi—	RUNTZ	Hazparne—	r UNTZ
2.6	zubi—	TIK	Hazparne—	TIK

baita ondorengo beste bi hauek ere, oraingoan kontsonantetzko izenetan hautatuak:

2.1	lan—	e KO	Aralar —	KO
2.2	lan—	e AN	Aralarr—	e N
2.3	lan—	e RA	Aralarr—	A
2.4	lan—	e RAINO	Aralarr—	AINO
2.5	lan—	e RUNTZ	Aralarr—	UNTZ
2.6	lan—	e TIK	Aralar —	TIK

10.22 Eman dezagun orain, arazoa garbi ulertzeko, izen nagusiak **mugatu bakartzat** deklinatzen ditugula; eta ondoko hau lortuko genuke:

*	2.1	Hazparne—	KO	*	Aralarr—	e KO
	2.2	Hazparne—	AN		Aralarr—	e AN
	2.3	Hazparne—	RA		Aralarr—	e RA
	2.4	Hazparne—	RAINO		Aralarr—	e RAINO
	2.5	Hazparne—	RUNTZ		Aralarr—	e RUNTZ
	2.6	Hazparne—	TIK		Aralarr—	e TIK

Lehenengo zerrendan ***Hazparnean** horrek harritzen gaitu; **Hazparnen** esaten baita. Eta bigarrenean seiak bitxi izanagatik ere, hala ere, bizkaieraz batez ere, onartzeko modukoak ere direla pentsa liteke. Hots, ez da zuzena; izen nagusiak ez baitira arruntak. **Zarauzko** esaten da; eta ez *Zarautzeko; **Zizurkilgo**, eta ez *Zizurkileko; eta Joanes Lizarraga gure lehen idazleak **Beraskoizko** esaten zuen (nahiz gaur

Beskoitzeko esan bertakoek; **Beraskoitz-en** orde, gaur **Beskoitze** esaten dutelako).

10.23 **Iparraldeko** euskalkietan, hitz batez, **-e erasten da** leku-izen askotan: Azkaine; Beskoitze; Uztaritze; Atharratze, Barkoxe, eta abar; eta **-e** hori berezkoa izanik, taula hauek agertzen dira:

2.1	Maule—	KO	Atharratze—	KO
2.2	Maule—	N	Atharratze—	N
2.3	Maule—	r A	Atharratze—	r A
2.4	Maule—	r AINO	Atharratze—	r AINO
2.5	Maule—	r UNTZ	Atharratze—	r UNTZ
2.6	Maule—	TIK	Atharratze—	TIK

Bukaerako **-e** hori oso berria dela garbi ageri da: **beskoiztar**, **uztariztar**, **atharratar**, **barkoxtar**, eta abar. (Baina **mauletar**, eta ez ***maultar**).

Eta gaur, hortaz, ez da loturazko **-e-**, **berezko -e** baizik.

10.231 Ohar txiki bat.

Erdaraz «de» morfema sartzen bada ere («**el pueblo de Tolosa / la ville de Tolosa**»), euskaraz **ilara - aldaketa** besterik ez dela egin behar:

- **Tolosa hiria**
- **Zarautz herria**
- **Larrañe herriska**

Etxahunen bertsoetan ongi ageri denez:

- **Idorroki olha**

10.24 **Bizkaiko idazleren batengan** ikusi dugunez, ordea, ba dago lege honen kontrako joera; batez ere 2.3, 2.4, eta 2.5 puntuetan. **Gasteizko**, **Gasteizen** eta **Gasteiztik**, eman dezagun, nola edo hala onartzen dituzte. **Gasteiza**,

Gasteizaino eta **Gasteizuntz**, ordea, ireskaitz gertatzen zaizkie.

Hona hemen 2.1 puntuari buruz Azkuek eman digun iritzia: «Es propio de niños, o de personas **que no dominan la lengua**, valerse de Babeloko, Israeleko y Madrilleko, por Babelgo, Israelgo, Madrilgo». (Morfología, 340).

2.6 Kasuari buruz, adibide hauek ematen ditu Azkuek: **Irundik, Madrildik, Larrauldik, Baratzardik, Miravallesdik**. (Morf. 341). Baita hauek ere: **Burgostik, Eibartik**, eta abar (Morf. 294). Eta 2.1 kasuan gertatu ohi den hutsa aipatzen duelarik, hau irakur dezakegu: «**Vocablos como Burgosekoa, Irunekoa, Eibarretik, que tanto y tan justamente nos disuenan a nosotros**» (Morf. 294).

2.2 kasuaz dudarik ez dago Azkueren iritzian: «**Tratándose del caso inesivo, se ha dicho ya que pide epéntesis: Burgosen, Eibarren, Irunen**». (Morf. 294)

Zein kasu gelditzen, hortaz? 2.3 delakoa (= nora?); eta honen hildotik mamitzen direnak (2.4 eta 2.5).

Azkuek etsi xamarrean ikusten du egoera. Iritzia ermoki ematen du: «**Los vocablos propios... son de suyo absolutamente refractarios a la epéntesis**» (Morf. 294). Baina, baita hau aitortzen ere: «**Respecto de las desinencias directivas es tal el uso que se hace, en general de la epéntesis de r (ra, rantz, ragino, rako, por a, antz, agino, ako) que, cual si este elemento fuera orgánico, se oye tal vez más generalmente Burgosera, Eibarrera, Irunera, que Burgosa, Eibarra, Iruna**» (Morf. 294)

10.21 /24 Comparación de las declinaciones de nombres propios y comunes. El problema de la epéntesis de e. Comparaison des déclinaisons des noms propres et communs. Le problème de l'épenthèse de e.
--

10.25 Hots, **Iparraldean bertan** (Lizarraga, Axular, Etxeberri, Urte) loturarik **gabeko** deklinabidea erabili izan da mendeetan barrena; eta Gipuzkoan bertan ere, eta gaurtxe, eguneroko formak dira: «Zarautza niak», «Eibartik etorri da», eta «Usurbilgo eliza».

Epentesirik gabeko deklinabidea hartu behar da ontzat, hortaz; singularraren araberako bazterpenak gaitzetsiz.

Iritzi berekoa da Lafitte Kalonjea: «Aralargo», «Israelgo», «Larrungo», «Azkaingo». Eta loturen aurka mintzo delarik hauxe dio: «Il faut condamner des **monstres** comme Pariseri, au lieu de Parisi (datif)» (Gramm. 56-57). (Ikus Lafitte-ren deklinabidea, honi buruz, Gramatikaren 56 orrialdean).

10.26 Hitz batez, **HAUXE** da leku-izenen atzizki taula.

	Bokalezkoak		Kontsonantezkoak
2.1	—	KO	— KO
2.2	—	N	— e N
2.3	— r	A	— A
2.4	— r	AINO	— AINO
2.5	— r	UNTZ	— UNTZ
2.6	—	TIK	— TIK

Adibidez:

Orioko, Orion, Oriora, Orioraino, Orioruntz, Oriotik.
 Usurbilgo, Usurbilen, Usurbila, Usurbilaino, Usurbiluntz,
 Usurbildik.

Oharra: -ko >-go, eta -tik >-dik, ikus 13 kapitulua.

10.3 Pertson izenak

0.1	Ane—	—	Miren—	—
0.2	Ane—	K	Miren—	e K
0.3	Ane—	r I	Miren—	I
1.1	Ane—	r EN	Miren—	EN
1.2	Ane—	r ENTZAT	Miren—	ENTZAT
1.3	Ane—	r ENGATIK	Miren—	ENGATIK
1.4	Ane—	r EKIN	Miren—	EKIN
1.5	Ane—	Z	Miren—	e Z
2.1	Ane—	—	Miren—	—
2.2	Ane—	GAN	Miren—	GAN
2.3	Ane—	GANA	Miren—	GANA
2.4	Ane—	GANAINO	Miren—	GANAINO
2.5	Ane—	GANUNTZ	Miren—	GANUNTZ
2.6	Ane—	GANDIK	Miren—	GANDIK
0.11	Ane—	r IK	Miren—	IK
3.1	Ane—	TZAT	Miren—	TZAT

10.31 Aldera ditzagun, era berean, 9.41, 9.42, eta 10.3 puntuetan agertzen diren deklinabide-taulak. Ohar batzu'egin daitezke.

a) 2.2 ... 2.6 kasuetan, ez dela derriorrezkoa **-rEN-** artizkia sartzea: **Anerengan** esan daiteke, baina **Anegan** ere bai. Eta gauza bera gainerako kasuetan.

b) 0.3 kasuan (datiboan, alegia), **kontsonantez** bukatzen diren izen nagusietan, **-I** dela atzizkia, eta **ez *eRI**. **Mireni** esan behar da, hortaz, loturarik gabe; eta ez **Mireneri**. (Ikus ere, honi buruz, eta Euskara Batuaren erregela honen alde, Azkue: Morfol. 298).

11 DEKLINABIDE BEREZI BATZU

- 11.1 Aspaldidanik izan da oharrerazia erdarazko **el rey, le roi, ERREGE** direla euskaraz; eta ez **erregea**.

Areago: zenbait autorek dionez, gauza bat da norberaren **ERREGE** dena (izen nagusi gisa deklinatua, horretara), eta beste gauza bat **ERREGEA** (hemengo edo hango erregea, baina ez mintzatzailearen beraren erregea).

Orri berezitan eman ditugu bi deklinabideak (11.11) elkarren ondoan.

Lehenengoa, hortaz, norberaren **errege** deklinatzeko erabiliko da: «Le basque emploie le mot **Errege, roi, comme un nom propre quand il veut désigner son roi**» (Ithurry, Gramm. 5). Barandiaran eta Azkueren ipuin-bildumetan ikus daitekeenez, joera hau, oso zaharra izanaz gain, bizirik egon da euskalki guztietan gaur arte (ikus «Oinarri·Bila» 50-52). Bidezko dirudi Euskara Batuan deklinabide jatorrari eustea; zeren-eta «**aunque, por imitación del castellano, se oye decir a algunos erregea, los más castizos de nuestros escritores lo emplean sin artículo**» (Morfol. 278-279, Azkue).

Gauza bera gertatzen da **Faraon** hitzean: **faraonek, faraoni, faraonen**, eta abar.

11.1 El término errege (rey) se declina de modo distinto, según se trate del propio rey o de un rey ajeno. Le terme errege (roi) se décline différemment, selon qu'il s'agisse de son roi ou d'un roi différent.
--

11.11 – errege

(norberarena)

- 0.1 errege– —
 0.2 errege– K
 0.3 errege– r I
 1.1 errege– r EN
 1.2 errege– r ENTZAT
 1.3 errege– r ENGATIK
 1.4 errege– r EKIN
 1.5 errege– Z
 2.1 ———
 2.2 errege– (ren) GAN
 2.3 errege– (ren) GANA
 2.4 errege– (ren) GAINO
 2.5 errege– (ren) GANUNTZ
 2.6 errege– (ren) GANDIK
 0.11 errege– r IK
 3.1 errege– TZAT

(besterena)

- errege– A
 errege– AK
 errege– ARI
 errege– AREN
 errege– ARENTZAT
 errege– ARENGATIK
 errege– AREKIN
 errege– AZ
 ———
 errege– A(ren) GAN
 errege– A(ren) GANA
 errege– A(ren) GAINO
 errege– A(ren) GANUNTZ
 errege– A(ren) GANDIK
 ———
 ———

11.11 Cuadro en ambos casos.
 Tableau dans les deux cas.

- 11.2 Joera berbera agertzen da **senitarte**-ko izenetan. Norberaren **aita**, **ama**, **osaba**, **izeba** (**izeko**), eta **abar**, artikulurik **gabe** deklinatzen dira; izen **nagusiak** balira bezala. (Famili-izen askok berezko **-a** duenez gero, nekezago ageri da desberdintasuna **errege** hitzean baino).

Amatxo / **Aitatxo** hitzak, esate baterako, izen nagusi gisa deklinatzen dira:

0.1	aitatxo—	—	amatxo—	—
0.2	aitatxo—	K	amatxo—	K
0.3	aitatxo—	r l	amatxo—	r l
1.1	aitatxo—	r EN	amatxo—	r EN
1.2	aitatxo—	r ENTZAT	amatxo—	r ENTZAT
1.3	aitatxo—	r ENGATIK	amatxo—	r ENGATIK
1.4	aitatxo—	r EKIN	amatxo—	r EKIN
1.5	aitatxo—	Z	amatxo—	Z
2.1	aitatxo—	—	amatxo—	—
2.2	aitatxo—	GAN	amatxo—	GAN
2.3	aitatxo—	GANA	amatxo—	GANA
2.4	aitatxo—	GANAINO	amatxo—	GANAINO
2.5	aitatxo—	GANUNTZ	amatxo—	GANUNTZ
2.6	aitatxo—	GANDIK	amatxo—	GANDIK

Bide beretik deklinatzen dira **aitabitxi** eta **amabitxi**. Eta bide beretik ere, eta oso jator, **andereño** hitza, norberaren eskolako andereño denean.

Hona hemen, adibidez, Oihenarte-ren esaldi hau:

— Eva amasok jan zezana

Gauza bera **pailaso** hitza (ikus «Auspoa» sorta, 74-75 lib.)

Idéntico fenómeno sucede con diversos términos ligados al parentesco, según sean propios o no. Un phénomène tout à fait semblable arrive à certains termes liés à la parenté, suivant les cas.

- 11.3 Inesiboan bederen (= non?) diferentzia egiten da euskaraz: **etxean** (en la casa concreta, **distinta** de la propia; dans la maison concrète, qui n'est pas sa propre maison); eta **etxen** (en la propia casa, dans sa propre maison).

Adibidetzat ikus «Oinarri Bila», 1.72. Esate baterako:

-ez bortian ez **etxen** gal dezan ardirik
(Barkoxeko Etxahun, S)

11.3	El inesivo de etxe. L'inessif de etxe.
------	---

12 DEKLINAZIO-ATZIZKIEN ERASPIDEA

Egin dezagun 9.3 puntuaren laburtzapen bat:

Mugagabeen=

$(-V) + (C-) \rightarrow -\emptyset-$

$(-C) + (V-) \rightarrow -\emptyset-$

$(-V) + (V-) \rightarrow -r-$

$(-C) + (C-) \rightarrow -e-$

Singularrean:

lotura = $-\emptyset-$ (eskuarki).

lekutasuna =

$(-C) + (C-) \rightarrow -e-$

Pluralean =

lotura= \emptyset (beti)

Arazoak noiz sor daitezkeen, eta non sortzen ere diren, asmatzea ez da zaila. Aski da horretarako atzizkien zerrenda begien aurrean paratzea.

Cuadro resumen de las ligazones expuestas en el punto 9.3.
Tableau résumé des liaisons qui ont été exposées au point 9.3.

- 12.1 Hitzären azken hizkia **A** denean (**eskola**, **ama**, **atorra**, **gaiztakeria**) arazoak agertzen dira. Zenbait euskalkitan a berezkoa eta **-a** artikulua berezteko bideak ba daude (S, **elíza/elizá**; B, **elexa/elexea**); baina beste batzutan ez.

Bestetik ere a+a eta a+e erasketak gertatzen dira. Zer egin?

12.1 El problema de las palabras terminadas en -A.
Le problème des mots terminés par -A.

12.11 Deklinabideari dagokionez, zubi edo seme bezalaxe deklinatuko dira **atorra** (bizigabea), eta **neska** (biziduna).

Euskara Batuan onartuko diren erasketa-legeak hauek dira:

Mugagabeen:

$(-A) + (C-) \rightarrow -\emptyset-$

eliza + z = elizaz

eliza + tako = elizatako.

$(-A) + (V-) \rightarrow -r-$

eliza + ik = elizarik

eliza + entzat = elizarentzat.

Singularrean:

$(-A) + (C-) \rightarrow -\emptyset-$

eliza + ko = elizako

eliza + tik = elizatik

$(-A) + (A-) \rightarrow A$ (bakar bat, biren ordezt)

eliza + aren = elizaren

eliza + ak = elizak.

Pluralean:

$(-A) + (A-) \rightarrow A$ (bakar bat)

eliza + ak = elizak

$(-A) + (E-) \rightarrow E$ (eta ez «ae»)

eliza + èn = elizen

eliza + etan = elizetan.

12.11 Cuadro aplicable a las palabras terminadas en -A orgánica.
Tableau applicable aux mots se terminant par -A organique.

12.12 Hona hemen, beren osoan, eta elkarren ondoan paraturik, **atorra** (a berezkoa) eta **malkor** hitzen deklinabideak:

Mugagabea

0.1	atorra—	—	malkor—	—
0.2	atorra—	K	malkorr—	e K
0.3	atorra—	r l	malkorr—	l
1.1	atorra—	r EN	malkorr—	EN
1.2	atorra—	r ENTZAT	malkorr—	ENTZAT
1.3	atorra—	r ENGATIK	malkorr—	ENGATIK
1.4	atorra—	r EKIN	malkorr—	EKIN
1.5	atorra—	Z	malkorr—	e Z
2.1	atorra—	TAKO	malkorr—	e TAKO
2.2	atorra—	TAN	malkorr—	e TAN
2.3	atorra—	TARA	malkorr—	e TARA
2.4	atorra—	TARAINO	malkorr—	e TARAINO
2.5	atorra—	TARUNTZ	malkorr—	e TARUNTZ
2.6	atorra—	TATIK	malkorr—	e TATIK
0.11	atorra—	r IK	malkorr—	IK
3.1	atorra—	TZAT	malkorr—	TZAT

Oharra: malkor hitzaren «r» horrek [r] balio du, fonetikaren mailan; eta «rr» idazten da Euskara Batuan, hitz-amaieran ez beste kasu guztietan. Ikus honi buruz 13. ikaskaia.

Singularra

0.1	atorr(a)—	A	malkorr—	A
0.2	atorr(a)—	AK	malkorr—	AK
0.3	atorr(a)—	ARI	malkorr—	ARI
1.1	atorr(a)—	AREN	malkorr—	AREN
1.2	atorr(a)—	ARENTZAT	malkorr—	ARENTZAT
1.3	atorr(a)—	ARENGATIK	malkorr—	ARENGATIK
1.4	atorr(a)—	AREKIN	malkorr—	AREKIN
1.5	atorr(a)—	AZ	malkorr—	AZ

2.1	atorra	—	KO	malkorr—	e	KO
2.2	atorr(a)	—	AN	malkorr—	e	AN
2.3	atorra	—	RA	malkorr—	e	RA
2.4	atorra	—	RAINO	malkorr—	e	RAINO
2.5	atorra	—	RUNTZ	malkorr—	e	RUNTZ
2.6	atorra	—	TIK	malkorr—	e	TIK

Plurala

0.1	atorr(a)	—	AK	malkorr—		AK
0.2	atorr(a)	—	EK	malkorr—		EK
0.3	atorr(a)	—	EI	malkorr—		EI
1.1	atorr(a)	—	EN	malkorr—		EN
1.2	atorr(a)	—	ENTZAT	malkorr—		ENTZAT
1.3	atorr(a)	—	ENGATIK	malkorr—		ENGATIK
1.4	atorr(a)	—	EKIN	malkorr—		EKIN
1.5	atorr(a)	—	EZ	malkorr—		EZ
2.1	atorr(a)	—	ETAKO	malkorr—		ETAKO
2.2	atorr(a)	—	ETAN	malkorr—		ETAN
2.3	atorr(a)	—	ETARA	malkorr—		ETARA
2.4	atorr(a)	—	ETARAINO	malkorr—		ETARAINO
2.5	atorr(a)	—	ETARUNTZ	malkorr—		ETARUNTZ
2.6	atorr(a)	—	ETATIK	malkorr—		ETATIK

12.12 Comparación sistemática de las declinaciones de atorra (-A orgánica) y malkor (consonante). Ver los cuadros sucesivos.
 Comparaison systématique des déclinaisons de atorra (-A organique) et de malkor (consonne). Voir les tableaux successifs.

- 12.2 Nola jakin, ordea, zein hitzek duen **A** hori berezkoa?
 Erantzuna hitsa da: **erregelarik ez dago**. Zein hitz n edo e - tan

bukatzen den jakiteko, erregularik ez dagoen bezala.

Zubereraz eta bizkaieraz arazorik ez dago, gorago esan dugunez. Zalantzak izanez gero, argigarri izan daiteke Zuberoako eta Bizkaiko euskalkiak kontutan hartzea.

Zubereraz: hitzak eskuarki paroxitono izanik (eliza, méndi, úste, hándi), mugatu bakarrean oxitono gertatzeak (elizá, bordá, arrollá, egiá) **A** berezkoa salatzen du.

Bizkaieraz: singularrean **-ea** agertzen bada, **A** berezkoa den seinale: birjinea, alabea, eskolea, arnasea, makillea.

Zaraitzieraz (Zaraitzu-ko euskaraz), **a + a = ara** gertatzen da:

– eliza + a = elizara

– borda + a = bordara

(= la iglesia / l'église)

Hots, Zaraitzuko euskara eta Baxenabarrekoa talde berekoak dira. Eta ahaidetasun sakon hau ongi ageri da Iparraldeko idazleengan:

– oinzolara (= oin-zola + a = la planta del pie) (Oihenarte) eta Etxepare-ren bertso honetan:

– egiara baziniaki

(= si vous saviez la vérité).

- | |
|---|
| 12.2 Métodos para distinguir -A orgánica y -A artículo:
1 – razones de distribución fonética.
2 – los casos de -r suave.
3 – una lista de casos típicos.
4 – la observación de las palabras derivadas.
Méthodes pour distinguer -A organique et -A article:
1 – raisons de distribution phonétique.
2 – les cas de -r douce.
3 – une liste de mots typiques.
4 – l'observation des mots dérivés. |
|---|

12.21 Hitzei dagokienez, eta euskal literatura, eta euskalkiak ere, kontutan hartuz, segurantz handiaz eman daiteke **A** berezkoen lerrokada.

12.211 Alde batetik, **fonetika hutsaren bidez** somatzen direnak: ezin daiteke «am bat» esan; beraz «ama» da hitza. Arrazoi soil hau kontutan hartuta, hona hemen lehenengo zerrenda bat: ama, alaba, osaba, izeba, ahizpa, arreba, neba, abarka, aska, azienda, bazka, baba, borda, gerla, haga, horma, neska.

Ez dira inundik ere posible = «alab bat», «osab bat» ... eta «nesk bat» esatea.

12.212 Euskaraz **oso gutxi** dira **r xamurrez** [r] amaitzen diren hitzak: ur, zur, paper, eta beste zenbait (ikus honi buruz 13. ikaskaia).

«-ra» bukaera denean, hortaz, berezkuntza batzu kenduta bederen, **A** berezkoa dugu:

euskara, erdara, era, aingira, aingura, aintzira, (h)aizkora, alkandora, ardura, denbora, enara, itxura.

12.213 Beste kasu askotan, halere, **erregelarik** ematerik ez dago:

aisia, aita, aitona, amona, anaia, arrautza, artoa, arroila, ausardia, atxakia, atorra, aza, balantza, balea, baratza, birjina, bizitza, eskola, ezkila, feria, ferra, gartzela, gazteria, gona, grina, gutizia, habaila, habia, hegoa, heriotza, herra, kaiola, kandela, kuia, labana, maratila, marra, nahaspila, okela, orua, pertza, premia, saltsa, sardina, segurantzia, upela, zalantza, ziza, zuhurtzia.

Baita gipuzkoarrek oso maiz nahasten dituzten hauek ere:

anaia, arnasa, axola, burdina, egia, eliza, farra, gauza, kopeta, koroa, lotsa, makila, neskatila, neskatxa, ola, orroa, piztia, sakela.

Giltz ala giltza? Bizkaieraz **giltz** da hitza; eta erronkarieraz ere bai: «giltza, la llave» (K. Izagirre). (Eta ez «giltzá», beraz). **Giltz** har daiteke.

Katea, berriz, hobe kate baino (ikus «katiatu»)

12.214 «-tu» eta «-ka» atzizkiak erastean, **A** berezkoa atxiki egiten da. Esate baterako:

makilatu / soildu
eskolatu / mutildu
ferratu / edertu
lotsatu / mingostu
orroaka / harrotu
makilaka / trumilka

Hau dela-ta, argi-iturri izan daiteke «-tu», «-ka», «-z», edo abar, erastea; eta A hori dagoen ala ez dagoen aztertzea.

12.22 Atzizkiei dagokienez, eta lerrokada laburragoa izanik, atzizki guztiak emango ditugu ilaran:

- (k)era = (-era / -kera hemen elkarrekin emanda)
egoera, mintzaira, pentsakera.
- gintza = zapatagintza, upagintza, teilagintza.
- goa = bekaizkoa, ahaikoa, adiskidegoa.
- keria = erokeria, zorakeria, gaiztakeria
- keta = jorraketa, ariketa, hizketa.
- kuntza = alfabetakuntza, atzerakuntza, hazkuntza.
- tza = heriotza, bizitza, arrantza.

12.22 Lista de sufijos terminados en -A orgánica.
Liste des suffixes se terminant par un -A organique.

13 OZTOPO BATZU DEKLINABIDEAN

Ondoko lerroetan, sailka aztertuko ditugu deklinabidean agertzen diren oztopo batzu.

13.1 Nola deklinatzen dira -r letraz amaitzen diren hitzak?

Ohar hau aurretik: euskaraz **bi** fonema dardarkari daudela: «r» idatzi ohi duguna batetik (**haran, eri**); eta «rr» idatzi ohi duguna bestetik (**harro, herri**). Kontsonante ondoan, neutralizazioa gertatzen da; eta artxifonema hori [r̄] esaten da (**arte, orpo**).

Hitz bukaeran ere, **eskuarki** egoten da neutralizazioa; eta [r̄] gertatzen artxifonema: **gogor / gogorra; ezker / ezkerra**.

Deklinabidean barrena, hitz batez, **bikoiztu** egiten da bukaerako -r delakoa: **ezker, ezkerra, ezkerrari, ezkerretan, eta abar**.

Noiz ez?

13.1 Declinación de las palabras terminadas en -r. Déclinaison des mots se terminant par -r.

13.11 Hitz bakan batzutan, neutralizaziorik ez ; eta -r- gertatzen da deklinabidean barrena, eta ez -rr-.

Esate baterako: **ur, ura, uraren, uretan, uretara; nor, nori, noren, norentzat, norekin**. Zein dira hitz horiek?

Hona hemen ilara:

(h)ur: agua, eau

(baina hurra, hurrak... avellana, noisette)

zur: madera, bois

hor: perro, chien

(artzanor = perro pastor, chien berger)

paper: papel, papier

plater: plato, assiette

Eta **galdekariak** : eta antzekoak:

nor: quién, qui

zer: qué, quoi

ber: el mismo, le même (ikus 16.8).

13.11 Lista de las excepciones.
Liste des exceptions.

- 13.2 Eta **-e** hizkiak amaitzen direnak? Arazorik ez **mugagabe**an eta **singularrean** (ikus loturazko erregelak : 9.3 bereziki).

Pluralean, ordea, EE sortzen da :

Seme + en → semeen

larre + etan → larreetan

Euskara Batuan, eta izkribuari dagokionez, elkarren segidan idatziko dira bi EE horiek; fonetika aldakuntzak, [ie], oraingoz erabakirik ez daudela:

seme: semeek, semeei, semeentzat

andere: andereek, andereei, andereekin

kale: kaleek, kaleetan, kaleetako

beste (pl.): besteek, besteei, besteetan.

13.2 Declinación de las palabras terminadas en -e.
Déclinaison des mots se terminant par -e.

- 13.3 Azter ditzagun orain afrikatuaz amaitzen diren leku edo pertson izenak : **Zarautz, Araotz, Olatz.**

Kasu honetan (10. ikaskaian azaldu denez) loturazko hizkirik ez dago, eta afrikatua zuzenki lotzen da ondoko kontsonantearekin.

Kasu horietan, **afrikatua** (-tz, -ts, -tx) igurzkari edo **frikatibo** bihurtzen da (-z-, -s-, -x-) deklinabidean:

Zarautz: Zarauzko, Zarauztik

Araotz: Araozko, Araoztik

13.3 Declinación de los topónimos terminados en africada (-tz, -ts, -tx).
Déclinaison des toponymes se terminant par une affriquée (-tz, -ts, -tx).

13.4 Zenbait arazo sor daiteke ere «-tzat» atzizkian. Zer egin «haitz + tzat» erasketan? Edo-ta «apaiz + tzat»?

Artikulazio -**puntuari** dagokionez, **lehenengoa** nagusitzen bide da eskuarki : dakus + zki = dakuski. Eta **frikatibo** / **afrikatu** erasketan, **afrikatua** nagusitzen =

ardatz + tzat → ardatzat

solas + tzat → solatsat

Nahiz, idazkerari dagokionez, idazkera osoa («ardatztat», «solatszat») zeharo bazterterik ez badago ere.

13.4 /1.5 Varios casos conflictivos.
Plusieurs cas conflictifs:

13.5 Eta «-il» eta «-in» bukatzen diren hitzez, zer esan?

Fonetika - arazoak liburu honetan alde batera utzita, **idazkerari** dagokionez, korapilorik ez dagoela:

Zerain: Zeraina, Zerainen, Zerainez

Usurbil: Usurbila, Usurbilen, Usurbilez

13.51 «-ko» eta «-tik» atzizkiak, dena dela, «-go» eta «-dik» bihurtzen

dira «-l» eta «-n» guztietan:

- Zeraingo, Zeraindik; Irungo, Irundik.
- Usurbilgo, Usurbildik; Zizurkilgo, Zizurkildik.

Gauza bera «non» (= *dónde*, *où*) hitzean:

- nongo, nondik; edonongo, edonondik.
- eta «egun» (adberbio gisa erabilia denean):
- egungo egunean (= gaurko egunean)

14 GALDEKARIAK ETA ZENBAKARIAK

14.1 Hona hemen euskal galdekariak:

- 1 – **nor?** = quién? qui?
- 2 – **zer?** = qué? quoi?
- 3 – **zein?** = cuál? lequel?
- 4 – **non?** = dónde? où?
- 5 – **noiz?** = cuándo? quand?
- 6 – **nola?** = cómo? comment?
- 7 – **zenbat?** = cuántos? combien de?

Hauen ondorioz, **mugagabe** eta **galdekari** batzu sortzen dira:

- edozer, edozein, edonor
- edonon, edonoiz, edonola

Baita beste hauek ere:

- zerbait, noizpait, norbait, nolapait eta antzekoak.

14.1	Lista de las partículas interrogativas. Liste des particules interrogatives.
------	---

14.2 Galdekari hauetako batzu **izenorde** gisa erabiltzen dira; eta **soilik**, beraz: **nor?** **non?** **noiz?** **nola?**

Beste batzu, berriz, **izenlagun** gisa ere erabil daitezke:

- 2 – zer ordutan?
- 3 – zein katuk egin du?

7 – zenbat ardiri gertatu zaio?

2, 3, 7, hauek, beraz, **berex**, aztertuko ditugu.

14.2 Subdivisión en pronombres (y derivados), y adjetivos.
Sub-division en pronoms (et dérivés), et adjectifs.

14.3 **nor? non? noiz? bakarrik** joan ohi direnez gero, ikus dezagun beroien deklinabidea.

14.3 Declinación de nor, non y noiz.
Déclinaison de nor, non et noiz.

14.31 **NOR**

0.1 nor—

0.2 nor— **K**

0.3 nor— **I**

1.1 nor— **EN**

1.2 nor— **ENTZAT**

1.3 nor— **(EN)GATIK**

1.4 nor— **EKIN**

1.5 nor— **TAZ**

2.1 nor— _____

2.2 nor— **ENGAN**

2.3 nor— **ENGANA**

2.4 nor— **ENGANAINO**

2.5 nor— **ENGANUNTZ**

2.6 nor— **ENGANDIK**

Galdekari hau beti **pertsoneri** buruz erabiltzen denez gero, bizigabeei buruzko deklinabiderik ez du.

Bizkaian erabiltzen den «plurala» (= **nortzuk**, **nortzuen**,...), euskalki gisako berezitasuntzat jo daiteke.

Gipuzkoan, berriz, **NOR**-en ordeztu **ZEIN** erabili ohi da. Hobe litzateke zeini bere funtzio berezia gordetzea.

14.32 **NON**

Lekutasunezko galdekaria izanik, hona hemen haren deklinabidea.

- 2.1 – no – **nGO**
- 2.2 – no – **N**
- 2.3 – no – **RA**
- 2.4 – no – **RAINO**
- 2.5 – no – **RUNTZ**
- 2.6 – no – **nDIK**

14.33 **NOIZ**

Ohizko deklinabidea hau da:

- 2.1 – noiz – **KO**
- 2.2 – noiz –
- 2.4 – noiz – **ARTE** (bi hitzetan)
- 2.6 – noiz – **TANIK** (noiz - TIK)

Denborazko adberbioa izanik, aldatu egiten dira 2.4 eta 2.6 kasuetako atzizkiak.

14.4 Eman ditzagun orain, xeheki, **zer**, **zein** eta **zenbat** galdekarien deklinabideak.

Soilik doazenean, berek atxikitzen dituzte deklinabide-atzizkiak: **zertaz**, **zeinek**, **zenbatentzat**, eta abar.

14.4	Declinación completa de zer, zein y zenbat. Déclinaison complète de zer, zein et zenbat.
------	---

14.41 **ZER**

- | | | |
|------|------|------------------|
| 0.1 | zer- | |
| 0.2 | zer- | K |
| 0.3 | zer- | I |
| 1.1 | zer- | EN |
| 1.2 | zer- | ENTZAT |
| 1.3 | zer- | (EN)GATIK |
| 1.4 | zer- | EKIN |
| 1.5 | zer- | TAZ |
| 2.1 | zer- | TAKO |
| 2.2 | zer- | TAN |
| 2.3 | zer- | TARA |
| 2.4 | zer- | TARAINO |
| 2.5 | zer- | TARUNTZ |
| 2.6 | zer- | TATIK |
| 0.11 | zer- | IK |
| 3.1 | zer- | TZAT |

14.42 **ZEIN**

- | | | |
|-----|-------|----------------|
| 0.1 | zein- | |
| 0.2 | zein- | e K |
| 0.3 | zein- | I |
| 1.1 | zein- | EN |
| 1.2 | zein- | ENTZAT |
| 1.3 | zein- | ENGATIK |
| 1.4 | zein- | EKIN |
| 1.5 | zein- | e TAZ |

- 2.1 zein— e TAKO
- 2.2 zein— e TAN
- 2.3 zein— e TARA
- 2.4 zein— e TARAINO
- 2.5 zein— e TARUNTZ
- 2.6 zein— e TATIK

- 0.11 (zein— IK)
- 3.1 zein— TZAT

Biziduna izanez gero:

- 2.2 — zein — en GAN
- 2.3 — zein — en GANA
- 2.4 — zein — en GANAINO
- 2.5 — zein — en GANUNTZ
- 2.6 — zein — en GANDIK

14.43 ZENBAT

(bizigabe)

- 0.1 zenbat—
- 0.2 zenbat— e K
- 0.3 zenbat— I
- 1.1 zenbat— EN
- 1.2 zenbat— ENTZAT
- 1.3 zenbat— ENGATIK
- 1.4 zenbat— EKIN
- 1.5 zenbat— e TAZ
- 2.1 zenbat— e TAKO
- 2.2 zenbat— e TAN
- 2.3 zenbat— e TARA
- 2.4 zenbat— e TARAINO
- 2.5 zenbat— e TARUNTZ

2.6 zenbat— e TATIK
 (zenbat— IK)
 (zenbat— TZAT)

Biziduna izanez gero:

2.2 — zenbat — ENGAN
 2.3 — zenbat — ENGANA
 2.4 — zenbat — ENGANAINO
 2.5 — zenbat — ENGANUNTZ
 2.6 — zenbat — ENGANDIK

14.5 Noski: hauetatik sortzen diren mugagabeak, hauen arabera deklinatzen dira.

Esate baterako:

		EDOZEIN	
0.1	edozein—		(bizigabe)
0.2	edozein—	e K	
0.3	edozein—	I	
1.1	edozein—	EN	
1.2	edozein—	ENTZAT	
1.3	edozein—	ENGATIK	
1.4	edozein—	EKIN	
1.5	edozein—	e TAZ	
2.1	edozein—	e TAKO	
2.2	edozein—	e TAN	
2.3	edozein—	e TARA	
2.4	edozein—	e TARAINO	
2.5	edozein—	e TARUNTZ	
2.6	edozein—	e TATIK	
3.1	edozein—	TZAT	

14.6 Galdekari hauetako bat galderan ageri denean, aditzak ez du ezelako aurrizki edo atzizkirik hartzen:

- NORK esan **du** hori?
- ZENBATI entzun **diozu** kontua?

Galdekari berezirik ez dagoenean, aldiz, hizki berezi bat hartzen du aditzak:

- hori esan **ahal** du? hori esan **dua**? («**aha**» edo «**a**»: erabaki **gabe**)
- hori gertatu **ahal** da? hori gertatu **dea**?

Galdekaria agertuz gero, ordea, aditzak ez darama ezer:
*zer esan duzua? *zer esan ahal duzu, ez dira euskara.

14.7 Zenbakariak hauek dira Euskara Batuan:

- 1 – bat
- 2 – bi (izenlagun), **biga** (soilik doanean)
- 3 – hiru
- 4 – lau
- 5 – bost (= bortz)
- 6 – sei
- 7 – zazpi
- 8 – zortzi
- 9 – bederatzi
- 10 – hamar
- 11 – hamaika
- 12 – hamabi
- 13 – amahiru (edo hamahiru)
- 14 – hamalau

15	–	hamabost
16	–	hamasei
17	–	hamazazpi
18	–	hemezortzi
19	–	hemeretzi
20	–	hogei
30	–	hogeita-hamar
40	–	berrogei
60	–	hirurogei
80	–	laurogei
100	–	ehun
1.000	–	mila
1.000.000	–	miloi bat

Bestetan ere azaldua denez, **bat atzetik** doa (etxe bat, mutil bat); **bi** atzetik edo aurretik, euskalkien arabera (bi etxe, etxe bi); gainerako guztiak **aurretik** doazelarik (hiru etxe, lau etxe. hogei etxe).

Euskal zenbapidea **hogeikaria** da. Orintsu artio, 100 esateko **ehun** erabili izan da; baina baita **bostogoi** ere (Zuberoan egun hauetantxe ere entzuna). Eta **40, 60, 80, berrogei, hirurogei** eta **laurogei** esaten dira; guztiz hogeinakak eskatzen duenaren arabera.

14.7	Lista de los numerales vascos. Liste des numéraux basques.
------	---

14.71 Bai azentuari dagokionez: [gisómbat] = [gisóna]; bai beste zenbait alderditatik, **bat** hori **-a**-ren kidea da; eta «uno cualquiera, n'importe **lequel**» adierazten du:

Gizona ikusi dut: edozein gizon ikusi dut, ez dakit nor.

Inglesez (eta ondoko erderetan bezala) bi adiera ditu «**bat**»ek:

- a) **bat** (= eta **ez bi**)
- b) **bat** (= **edozein**)

a kasuan benetako zenbakaria bada ere, **b** kasuan ez da

zenbakaria. (Ikus ere 6 ikaskaia).

14.72 Egunak nola eman?

Bide zaharra hau da:

VIII-15 – Abuztuaren hamabosta.

X-20 – Urriaren hogeia

XII-1 – Abenduaren lehena.

Hilabetearen izenari (hilabeteen izena **singularrean** doa), –ren atzikia erantsi, eta egunari dagokion **zenbakia** ematen zaio. (Hilaren 1-ari, dena dela, «lehena» esaten zaio: «Maiatzaren lehena»)

I –Urtarrila

II –Otsaila

III –Martxoa

IV –Apirila

V –Maiatza

VI –Ekaina

VII –Uztaila

VIII –Abuztua

IX –Iraila

X –Urria

XI –Azaroa

XII –Abendua

Astegunak:

1 – astelehena

2 – asteartea

3 – asteazkena

4 – osteguna

5 – ostirala

6 – larunbata

7 – igandea

14.8 Garrenkariak euskaraz, **-garren** atzikia erantsiz lortzen dira:

2.º – bigarren

- 3.º – hirugarren
- 4.º – laugarren
- 5.º – boskarren
- 6.º – seigarren
- 7.º – zazpigarren
- 8.º – zortzigarren
- 9.º – bederatzigarren
- 10.º – hamargarren
- 20.º – hogeigarren
- 100.º – ehungarren
- 1.000.º – milagarren

Bai zenbait euskalkitan atxiki duen azentu-autonomiaren aldetik (-gárren); bai bizkaieraz soilik ibiltzeko duen gaitasunaren aldetik, atziki hau hitz **berezia** izan dela ageri da.

Bat-i dagokionez, ez da ***bakarren** esaten, **lehenengo** edo **lehendabiziko** baizik. Halaz ere, 21.º, **hogeita-bakarren** esaten da.

14.8	Lista de los ordinales. Liste des ordinaux.
------	--

14.81 Garrenkariak **soilik** joan daitezke (**hirugarrenak irabazi du**); edota, izenaren **aurretik**:

hirugarren etxean bizi naiz

14.9 **Soilik** doazenean, deklinabide atzizkiak hartzen dituzte **zenbakariak**. **Multzoa mugagabe** denean (**bi etxe, bost etxe**), eta **bi** eta **bost** izenorde gisa, **mugagabe** gisa; multzoko **elemenduak** zehazki ezagunak direnean, **plural** gisa (**bi etxeak, bost etxeak**) eta, hortaz, **biak** eta **bostak**.

Hona hemen, **bokalez** edo **kontsonantez** berezten diren arabera, **hi / biak** eta **bost / bostak** bikoteen deklinabideak:

	M			P	
0.1	bi-	-		bi-	AK
0.2	bi-	K		bi-	EK
0.3	bi-	r l		bi-	EI
1.1	bi-	r EN		bi-	EN
1.2	bi-	r ENTZAT		bi-	ENTZAT
1.3	bi-	r ENGATIK		bi-	ENGATIK
1.4	bi-	r EKIN		bi-	EKIN
1.5	bi-	Z		bi-	EZ
2.1	bi-	TAKO		bi-	ETAKO
2.2	bi-	TAN		bi-	ETAN
2.3	bi-	TARA		bi-	ETARA
2.4	bi-	TARAINO		bi-	ETARAINO
2.5	bi-	TARUNTZ		bi-	ETARUNTZ
2.6	bi-	TATIK		bi-	ETATIK

	M			P	
0.1	bost-	-		bost-	AK
0.2	bost-	e K		bost-	EK
0.3	bost-	l		bost-	EI
1.1	bost-	EN		bost-	EN
1.2	bost-	ENTZAT		bost-	ENTZAT
1.3	bost-	ENGATIK		bost-	ENGATIK
1.4	bost-	EKIN		bost-	EKIN
1.5	bost-	e Z		bost-	EZ
2.1	bost-	e TAKO		bost-	ETAKO
2.2	bost-	e TAN		bost-	ETAN
2.3	bost-	e TARA		bost-	ETARA
2.4	bost-	e TARAINO		bost-	ETARAINO
2.5	bost-	e TARUNTZ		bost-	ETARUNTZ
2.6	bost-	e TATIK		bost-	ETATIK

14.9 Declinaciones sucesivas de bi indefinido y biak plural; y de bost / bostak.
 Déclinaisons succesives de bi indéfini et biak pluriel; et de bost / bostak.

14.91 Ohar labur bat neurriei dagokienez:

– «una taza de leche / une tasse de lait» esaerak, bi itzulpen ditu:

(a)– esne katilu bat

(b)– katilu bat esne

Eta zenbakiz markatuz:

– una taza de leche

1 2 3 4

(a)– esne katilu bat

4 2 1

(b)– katilu bat esne

2 1 4

Nahiz (b) moldea ere zaharra izan (ikus Mendiburu, esate baterako), hitz-erasketak (a) moldera bultzatzen du:

– esne-katilu bat

«esne-katilu» hori «esnekatilu» ere idatz bailiteke. Eta, horretara:

– ardo-botila bat

– hiru ardo-botila

– babarrun-zorro bat

– lau babarrun-zorro

Eta abar.

15 EUSKAL ERRELATIBOIA

- 15.1 Edozein euskal gramatika eskuetan hartuz gero, hau irakur daiteke: «**que**» errelatiboaren euskal kidea «-n» dela; eta -n hau, adizki **pertsonalen** eskubitan erasten dela:

gizona	etorri	da
1	2	3

(= ha venido el hombre; l'homme est venu)

eta, horretatik:

etorri	da-n	gizona
2	3 n	1

–Ikus dezagun beste adibide bat:

zakurra	ikusi	duzu
1	2	3

(=has visto un perro, tu as vu un chien)

eta horretatik:

ikusi	duzu-n	zakurra
2	3 n	1

Ordena-trukaera eta n-sarrera hori guztiz dira Chomsky-k «**transformazio**» deituko lukeen aldaketa. Liburu honetan, halere, ez ditugu sintaxi arazoak ikutuko (irakur P. Goenaga-ren liburu berria gai hauetaz); ez bada Euskaltzaindiak onartutako oinarri-bideetan barrena.

15.1 Originalidad sintáctica del relativo vasco.
Originalité syntaxique du relatif basque.

15.2 Teori-mailako eztabaida luzetan barrena abiatu beharrean, ohar hau egingo dugu: Euskara Batuan, eta errelatiboari dagokionez, aldakuntza hauek ditugula:

15.21 Adizkeraz -n duenean, **errelatiboak ez du ezer erasten**:

gizona etorri zen
1 2 3

el hombre vino; l'homme est venu

eta, beraz:

etorri zen gizona
2 3 1

(el hombre **que** vino; l'homme **qui** est venu).

arraina erosi genuen
1 2 3

eta, errelatiboa:

erosi genuen arraina
2 3 1

Kasu hauetan, teorian, hau gertatu da:

zen + n → *zenen → zen

genuen + n → *genuenen → genuen.

Zenbait autore zaharren idazpidea onartuz, batzuk idazkera hau proposatu dute:

gizona etorri zen / etorri zèn gizona

Hitzen ilarak ez baitu zalantzarik uzten, azentu horren beharra ez da agiri.

15.21 Relativos de formas verbales de pasado. La fusión de las dos n.
Relatif de formes verbales à passé. La fusion des deux n.

15.22 Lehenengo eta bigarren pertsonetan (singularrean), aldaketa hauek ditugu:

- t + n → -dan
- k + n → -an
- n + n → -nan

Esate baterako:

- liburua eraman diot.
(→ eraman diodan liburua)
- teila bat erori zait
(→ erori zaidan teila)
- papera erosi duk
(→ erosi duan papera)
- harriak bota dizkik
(→ bota dizkian harriak)
- masailekoa eman dien
(→ eman dianan masailekoa)

15.23 «naiz» eta «haiz» aditzetan, -en erasten da:

- etorri naizen egunean
- joan haizen urtean

15.24 Ahalezko eta baldintzazko adizkeretan ere, -ke atzikiaren ondoren, -en erasten da, e delako hori bikoiztuz:

- etor daiteke
(→ etor daitekeen saltzailea)
- salduko nuke
(→ salduko nukeen liburua)
- dirua gal lezake
(→ gal lezakeen dirua).

15.25 «du», «ditu» hirugarren pertsonetan, -en erasten da:

- zerbait esan du
(→ esan duen kontua)
- hiru lagunak ekarri ditu
(→ ekarri dituen hiru lagunak)

15.26 -a letran amaitzen diren adizkeretan, a kendu, eta -en erasten da:

- da, gara, zara, dira–
→ den, garen, zaren, diren

15.27 «-gu», «-zu», «-zue», «-o», «-e» atzizkien ondoan, azkenekorik, n soila erasten da:

- dugu, zaizkizu, dituzue, zaio, zaizkie → dugun, zaizkizun, dituzuen, zaion, zaizkien.

15.22 /27 Diversos casos posibles en la aplicación de n de relativo.
Les différents cas possibles dans l'application du n de relatif.

15.3 Euskal errelatibo horrek, -(e)n, ez du que erdal itzulpen bakarra; baizik-eta que, quien, en que, a que, por que, eta abar, (fr. que, qui, à qui, où, par qui). Denak dira -(e)n euskaraz.

ikusi duzun gizona { el hombre a quien has visto
l'homme que tu as vu.

– bizi zaren etxea { la casa en que vives
la maison où tu habites.

Itzulpen desberdinak ere gerta daitezke:

- atzo mintzatu zinen adiskidea
el hombre (a quien, con quien, de quien) hablaste ayer /
l'homme (dont, à qui, avec qui) tu as parlé hier.

15.3 Multiplicidad de los valores semánticos del sufijo -n.
Calcos diversos y relativos defectuosos.
Multiplicité des valeurs sémantiques correspondant
au suffixe -n. Calques divers et relatifs défectueux.

15.31 Ez da euskara, hortaz, hitzez-hitz moldatutako itzulpen hau:

- *etorri delako berria
(la noticia de que ha venido)

Euskara jatorrez hau esango genuke:

- etorri den berria, besterik gabe.

Hortaz, la noticia de que no puede venir, honela euskaratzen da:

- ezin etor daitekeen berria, eta ez besterik.

15.4 Erdararen eraginez, eta euskal jitearen kontra, «zein», «non», eta abar, erabili izan dira errelatiboa euskaratzeko:

	la casa	en que	vivo
	1	2	3
→	*etxea	zeinetan	bizi naizen
	1	2	3
	el pueblo	donde	murió
	1	2	3
→	*herria	non hil zen	
	1	2	3

Esaera horiek hitzez hitz moldatutako kopikeriak besterik ez dira. Eta Lafitteren hitzak gure eginez, «nous n'hésitons pas à condamner ce charabia» (Grammaire, 407).

Hona hemen itzulpen jatorrak:

- bizi naizen etxea
- hil zen herria

Errelatibozko perpausetan ageri da ongienik euskal eta erdal joskeren aurkaritza osoa:

arratsalde-an	ikusi	duzu-n	emakume-a
1 2 3	4 5 6 7		
la mujer	que	has visto	por la tarde
7 6 5	4 3 2 1		

Joskeraren itzuli-behar guztizko hau dela bide, zail gertatu ohi zaie euskaldun-berriei eta euskaraz ongi ez dakitenei joskera berezi hori.

15.4 Empleo de «zein» y «non».
Emploi de zein et non.

- 15.5 Iparraldeko euskalkietan, eta erdararen eraginez itxura denez (ikus joskera, esate baterako), ba dago beste errelatibo mota bat «bait-» aurrizkiak:

le chat	que vous avez vu	ce matin	
1	2	3	
→ katua	ikusi	baituzu	goizean
1	2	3	
(= goizean ikusi duzun katua)			

Perpauza luzeetan jokabide honek arintasun apur bat eman badezake ere, erdal errelatibo asko itzultzeko biderik jatorrena, perpauza luzea **zatitzea** izaten da.

Erd: él era un amigo **con quien** yo había vivido en Londres.

Hiru itzulketa hauek eman daitezke:

- 1– Londresen bizi izan nintzen adiskide bat zen hura.
- 2– adiskide bat zen, harekin bizi izan bainintzen Londresen.

3— Londresen bizi izan nintzen adiskide batekin; eta huraxez.

15.5 Relativo con *bait-* en los dialectos del Norte.
Relatif avec *bait-* dans les dialectes du Nord.

15.6 Ba daude, bestalde, pertsona-laguntzailerik gabeko errelatiboak.

Eskuarki hiru modutara egin daitezke:

a-etorritako neskatila

b-etorririko neskatila

c-etorri neskatila

Hiruok adierazten dute gauza bera:

(= la chica **que** ha venido /

/ la fille **qui** est venue)

a moldea Erdialdeko eskualdeetan erabiltzen da gehienik;

b moldea, berriz, Bizkaiko moldetzat jo daiteke

c moldea, azkenik (markarik gabea, ageri denez; hitzen ilara aldatze soilean baitatza) Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da.

16 NOR-KIAK ETA NOREN-KIAK

16.1 Euskarak, funtsean, beste anitz hizkuntzak bezala, lau norki ditu:

1 – ni (sing.) / gu (pl)

2 – hi (sing.) / zu (pl)

Oso berriki sartua den **zuek** delakoa, maingu agertzen da aditz-jokabide guztietan. Eta **zu** izenordeak (ikus «Oinarri Bila», 4.211., 112, 113 eta 114 orrialdeak) oraintsu arte «vosotros, vous (autres)» adierazi du.

Hirugarren pertsonetan, berriz, latineratikako hizkuntzetan bezala, **3 pertsonaren** norkia ez da, izan, **3 erakuslea** baizik: **hura / haiek**. Bizkaieraz batez ere nabarmen agertzen da jatorri hori.

16.1 Los cuatro pronombres personales en vasco. Utilización de los demostrativos remotos como pronombres de tercera persona. Les quatre pronoms personnels en basque. Utilisation des démonstratifs en tant que pronoms de la troisième personne.

16.2 Horra hor, ondoko orrialdeotan, eta xeheki, lau izenorde horien deklinabidea:

Izenordeak (ni, hi)

0.1	ni—	
0.2	ni—	K
0.3	ni—	r l
1.1	ni—	r E
1.2	ni—	r ETZAT
1.3	ni—	r EGATIK
1.4	ni—	r EKIN
1.5	ni—	TAZ
2.1	ni	—
2.2	ni—	GAN
2.3	ni—	GANNA
2.4	ni—	GANAINO
2.5	ni—	GANUNTZ
2.6	ni—	GANDIK

0.1	hi—	
0.2	hi—	K
0.3	hi—	r l
1.1	hi—	r E
1.2	hi—	r ETZAT
1.3	hi—	r EGATIK
1.4	hi—	r EKIN
1.5	hi—	TAZ
2.1	hi—	—
2.2	hi—	GAN
2.3	hi—	GANNA
2.4	hi—	GANAINO
2.5	hi—	GANUNTZ
2.6	hi—	GANDIK

Izenordeak (gu, zu, zuek)

- 0.1 gu—
- 0.2 gu— K
- 0.3 gu— r l

- 1.1 gu— r E
- 1.2 gu— r ETZAT
- 1.3 gu— r EGATIK
- 1.4 gu— r EKIN
- 1.5 gu— TAZ

- 2.1 gu— —
- 2.2 gu— GAN
- 2.3 gu— GANA
- 2.4 gu— GANAINO
- 2.5 gu— GANUNTZ
- 2.6 gu— GANDIK

0.1	zu—		zu—	EK
0.2	zu—	K	zu—	EK
0.3	zu—	r l	zu—	EI
1.1	zu—	r E	zu—	EN
1.2	zu—	r ETZAT	zu—	ENTZAT
1.3	zu—	r EGATIK	zu—	ENGATIK
1.4	zu—	r EKIN	zu—	EKIN
1.5	zu—	TAZ	zu—	ETAZ
2.1		—		—
2.2	zu—	GAN	zu—	ENGAN
2.3	zu—	GANA	zu—	ENGANA
2.4	zu—	GANAINO	zu—	ENGANAINO
2.5	zu—	GANUNTZ	zu—	ENGANUNTZ
2.6	zu—	GANDIK	zu—	ENGANDIK

16.2 Cuadros completos de las declinaciones respectivas de ni, hi, gu, zu, zuek.
Tableaux complets des déclinaisons respectives de ni, hi, gu, zu, zuek.

16.3 Izenordea **galdegaia** denean, edo haren **nagusitasuna** azpimarratu nahi denean, bigarren sail hau erabil daiteke:

- 1– **nihaur** (neroni)
- 2– **ihaur** (herori)
- 3– **bera**
- 1– **guhaur** (geroni)
- 2– **zuhaur** (zerori)
- 2'– **zuhauk** (zeuek)
- 3– **berak**

Mendebaldeko eskualdeetan, berriz, **neu, heu, bera, geu, zeu, zeuek, berak** saila erabiltzen da.

- **Nork** esan zuen?
- **Nihaurk** esan nuen; edo-ta, **neuk** esan nuen.
- **Nori** eman zioten ostikoa?
- **Nihauri** eman zidaten; edo-ta, **neuri** eman zidaten.
- **Nor** harrapatu zuten?
- **Nihaur** harrapatu ninduten; edo-ta, **neu** harrapatu ninduten.
- **NIHAUREK** zerratü dütüt zelüko borthak
(Ziberuko Gühüna)
- **NEUK** aztertuko dot zure jakiturija
andia (Mogel)
- **GIHAUR** baikira... gaixtoak (Tartas)

16.3 Segunda serie de pronombres: los intensivos.
Deuxième série de pronoms: les intensifs.

16.31 Nola esaten dira euskaraz «**en cuanto a mí, yo por mi parte**» / «**quant à moi, moi pour ma part**» erdal joskerak?

Erantzuna garbi dago:

- ni neu, hi heu, gu geu, zu zeu, zuek zeuok.

Esate baterako:

- ni neu ez naiz bihar arte joango
- gu geu ez gaituzte horretan harrapatuko
- hi heu argi ibili kontu horretan.

Edo Altuberen adibide honetan, hirugarren pertsonari dagokionez:

- A bera eztoa iñora («en cuanto a él, no va a ninguna parte») (Erd. 78)

Jakina: kasu hauetan ere **bi izenordeak** deklinatzen dira kasu berean; eta **biek** hartzen dute, hortaz, atzizki berbera:

- nik neuk ez zekiat ezer hortaz.
- guk geuk ez dugu egingo.
- niri neuri berdin zait.
- zuk zeuk zer deritxazu tanguai? (Otxolua)

Galdegaia **beste** izenorde edo perpausa-atal bat denean erabiltzen dira errepikazko izenorde hauek, **aurkaritza** markatzeko batez ere: «ez dakit nik zuk zer deritxazun; baina nik neuk bederen...». Edo Altuberen hitzez azaltzeko. «Cuando a los **inquiridos** (= galdegaia ez direnei) se les quiere imprimir un matiz opositivo muy señalado, es corriente emplear las siguientes fórmulas, en las que el demostrativo **sencillo** es repetido por otro **reproductivo**» (Erderismos, 78).

Noizean behin entzuten diren «nik personalki», eta antzekoak, ez dira euskara. Aski baita: **nik neuk** esatea, ageri denez.

16.32 Izenorde hauen deklinabideen argigarri, azkenik, hona hemen neu eta zuhaur:

neu

0.1 neu—
0.2 neu— K
0.3 neu— r I

1.1 neu— r E
1.2 neu— r ETZAT
1.3 neu— r EGATIK
1.4 neu— r EKIN
1.5 neu— TAZ

2.2 neu— GAN
2.3 neu— GANA
2.4 neu— GANAINO
2.5 neu— GANUNTZ
2.6 neu— GANDIK

zuhaur			(zerori)
0.1	zuhaur—		(zerori)
0.2	zuhaur—	K	(zerorrek)
0.3	zuhaur—	I	(zerorri)
1.1	zuhaur—	EN	(zerorren)
1.2	zuhaur—	ENTZAT	(zerorrentzat)
1.3	zuhaur—	(EN)GATIK	(zerorreatatik)
1.4	zuhaur—	EKIN	(zerorrekin)
1.5	zuhaur—	TAZ	(zerorretaz)
2.1	zuhaur—	ENGAN	(zerorrengan)
2.2	zuhaur—	ENGANA	(zerorrengana)
2.3	zuhaur—	ENGANAINO	(zerorrengaino)
2.4	zuhaur—	ENGANUNTZ	(zerorrenganuntz)
2.5	zuhaur—	ENGANDIK	(zerorrengandik)

16.4 Euskaraz ez dago, egon, benetako **posesiborik**. Norkien genitiboa hartu ohi da posesibotzat.

Hau dela-ta, bi posesibo-sail daude euskaraz:

16.4 Serie normal y serie reflexiva de los posesivos vascos. Gráficos de aclaración de ambas series. Série normale et série réfléchie des possessifs basques. Croquis pour une meilleure compréhension des deux séries.

16.41 Sail eskuarra:

- 1 – nire (= ene)
- 2 – hire
- 3 – haren
- 1 – gure
- 2 – zure
- 2' – zuen
- 3 – haien

Norenki hauek izenaren **aurretik** doaz:

- hemen duzu **ene** etxea
- **zure** zaldia ikusi nuen.

Posesiboa **bihurkaria** ez denean (= nik zure, hik nire, zuek gure, zu haren, haiek hire, eta abar), posesibo sail hau erabiltzen da (ikus «Oinarri Bila», 83 / 86).

Esate baterako:

- **ENE** gogoia unsa ezakusa**ZU** (Etxepare) (1/2 pertsonak)
- emongo **DABELA** kerellaren bat **NIRE** kontra (3/1). (Mogel).
- **ENE** sorbalden gainean egin **ZUTEN** egur bekhatoreek (1/3) (Axular).
- **ENE** kontra ibili **ZARA** (1/2) (Axular)
- **ENE** guziak **ZURE** dirade, eta **ZUREAK** **ENE** (1, 2, 3) (Haraneder)

Pertsona-bihurketa ez dagoenez gero, sail hau erabiltzen da.

16.42 **Sail bihurkaria:**

- 1 – **neure**
- 2 – **heure**
- 3 – **bere**
- 1 – **geure**
- 2 – **zeure**
- 2' – **zeuen**
- 3 – **beren** (= euren)

Aditzaren ekintza sujetoarengana bihurtzen denean, sail hau erabiltzen da (ikus «Oinarri Bila», 87/94).

Esate baterako:

- gozatu nahi dut NIK ere NEURE denboran (1/1) (Axular)
- GEURE baithan baitakiGU (1/1) (Axular)
- erhogoatan badaramaK HEURE mende guzia (2/2) (Etxepare)
- ZUK aterako bazendu ardaa ZEURE kontura (2/2) (Mogel)
- ZEUEK buruen etsaiak Jainkoagatik egin nahi ezpaduZUE ere (2/2) (Axular).
- ezagutuko DU BERE jakinduriaren laburtasuna (3/3) (Arrue).

Hortaz:

- nik haren etxea ikusi dut
baina:
- hark bere etxea saldu du
Era berean:
- ni zuen etxera joan nintzen
baina:
- zuek zeuen etxean sartu zineten.

16.421 Euskaraz, hortaz, **bi gauza desberdin** adierazten dira **haren** eta **bere** hitzen bitartez:

- Joanesek HAREN etxea saldu zuen (alegia, Joanes-en beraren ez zen etxe bat saldu zuen)
- Joanesek BERE etxea saldu zuen (alegia, Joanesena berarena zen etxea saldu zuen).

Era berean:

- nik NEURE etxea saldu nuen
(neure etxea nuen etxea saldu).
- hark ENE etxea saldu zuen.
(berea ez zuen etxea saldu)

Bihurkari { $\left. \begin{array}{ll} \text{ni neure} & \text{hi heure} \\ \text{gu geure} & \text{zu zeure} \end{array} \right\}$

Baina:

ez bihurkari { $\left. \begin{array}{ll} \text{ni haren} & \text{hura ene} \\ \text{zu haren} & \text{nik zure} \\ \text{zuk haren} & \text{zuek gure} \end{array} \right\}$

16.5 Eskutitzen hastapenetan, hortaz, eta Axularren hildotik:

- ene adiskidea:
- gure anaia:
- ene lankide hori:

– Gisa da hori gertatzea; eskutitza hastean, **deitu** bezala egiten dugulako.

Hots, Sebero Altubek xuxen azaldu duenez, **deikaria** ezin izan daiteke **bihurkaria**; beti hi eta zu baizik: «Vocativos: este caso gramatical **jamás admite** la forma intensiva de pronombre alguno» (Erderismos, 104):

«I, lagun zar, entzun dok...?» eta ez, diosku Altubek, «Eu, lagun zar».

Bide beretik haserako norenkiak.

16.5 El encabezamiento de las cartas.
Le début des lettres.

16.51 Oso joera ezaguna da, era berean, «mi padre, mi madre»

/«mon père, ma mère», euskaraz **gure aita, gure ama** esaten direla.

Joera hau zaharra izan daiteke.

Inguruetako hizkuntzetatik urrun (baina ez Kaukaso-koetatik, dirudienez), «**padres / parents**» ez da euskaraz «aitak» esaten, **gurasoak** baizik. Alegia, senitartetza **gu** izenordeari dagokio behin eta berriz.

16.6 Erdarazko «**reflexivo, réfléchi**», berriz, **bigarren** sailaren arabera; ekintzaren **bihurkuntza** nabarmen baitago:

- **nik neure burua ikusten dut aintziraren gainaldean.**
- **zain ezak ongi heure burua**
- **etsita zegoen, eta bere burua hil zuen**
- **ez badugu guk geure burua menderatzen, nork egingen?**
- **egizue kontu zeuen buruez**

Bihurkuntza, euskaraz, «**-re(n) burua**»z adierazten da.

«**Orraztu naiz**» baino hobe, hortaz, «**neure burua orraztu dut**»; eta «**garbitu zen**» baino, «**bere burua garbitu zuen**». Ez da egia euskaldun herri jatorrak esakera hauek jadanik erabiltzen ez dituenik.

NOR / NORK aditzetan, hortaz, erne ibili behar da, erdarazko «se» bihurkaria «se» intransitibotzat ez hartzeko:

- **se cayó (NOR)**
- **se suicidó (NOR / NORK)**

– **Nik neure burua hilko dut**
(hil)

NIK

– **Egik kontu heure buruaz**
(kontu egin)

HIK

– **Andonik bere burua bota zuen**
(bota)

Andonik


- Honela jarraitzekotan, geure burua galduko dugu.
(galdu)

GUK

16.6 El verbo reflexivo en vasco. Expresiones con «-re burua». Gráficos.
Le verbe réfléchi en basque. Expressions avec «-re burua». Croquis divers.

16.7 «Elkarkaria», berriz, (= **recíproco**, **réciproque**) **ELKAR**
izenordea deklinatuz egiten da euskaraz:

- NIK ZU maite zaitut
- ZUK NI maite nauzu
(maite)




hortaz:



= ELKAR maite duGU (biok)

Era berean:

- NIK ZURI ekarri nizun
- ZUK NIRI ekarri zenidan
(-ri ekarri)




Hortaz:




- ELKARRI ekarri genion. Eta, hirugarrenekorik:

- NI HAREN ondoan eseri nintzen
- HURA ENE ondoan eseri zen



Hortaz:



- ELKARREN ondoan eseri ginen

16.7 El recíproco en vasco. Gráficos. Declinación de elkar.
Le réciproque en basque. Croquis. Déclinaison de elkar.

16.71 **ELKAR**, hortaz, kasuen arabera, **deklinat**u egiten da:

- 0.1 elkar –
- 0.3 elkarr– I
- 1.1 elkarr– EN
- 1.2 elkarr– ENTZAT
- 1.3 elkarr– ENGATIK
- 1.4 elkarr– EKIN
- 1.5 elkarr– e Z
- 2.2 elkarr– (en)GAN
- 2.3 elkarr– (en)GANA
- 2.4 elkarr– (en)GANAINO
- 2.5 elkarr– (en)GANUNTZ
- 2.6 elkarr– (en)GANDIK
- 3.1 elkar – TZAT

Esate baterako:

- ELKARREKIN abiatu ginen
- ELKARGANAKO maitasuna hoztu zen
- ELKARRI aitortu genion egia
- ELKARRENGANA hurbildu gara
- ELKARREN ondoan bizi gara.

Zer esanik ez: gauza bat da **elkar afaldu zuten** (= se cenaron mutuamente) eta beste gauza bat, normala bestalde:

elkarrekin afaldu zuten (= cenaron juntos; ils soupèrent ensemble).

16.72 «**Parecerse mutuamente, se ressembler**» ELKAR IRUDITU
esaten da euskaraz:

- **anhitz gauzatan baitirudite ELKHAR** (Axular)

Noski, beste modu honetara ere esan daiteke:

- **ELKARREN antza dute gauza askotan.**

Era berean: «**os parecéis mucho, vous vous ressemblez beaucoup**»:

- **ELKAR dirudizue** edo-ta, gaur usuago.
- **ELKARREN antza handia duzue.**

16.72 La expresión «parecerse mutuamente».
L'expression «se ressembler».

16.73 Hildo beretik, **ELKAR HARTU** eta **ELKAR ADITU** erabiltzen dira euskaraz «**ponerse de acuerdo, se mettre d'accord**» adierazteko:

- **ELKAR HARTU zuten** (= se pusieron de acuerdo; ils se sont mis d'accord)
- **Aurrenik ELKAR HARTU egin behar duzue** (= en primer lugar

debéis ponerlos de acuerdo; d'abord il faut que vous vous mettiez d'accord)

– ELKAR HARTUKO dute (= se pondrán de acuerdo, ils se mettront d'accord).

– ELKAR HARTZEN ez badugu, jai dugu (= si no nos ponemos de acuerdo, estamos perdidos; si nous ne nous mettons pas d'accord, nous n'aurons rien à faire).

16.73 La expresión «ponerse de acuerdo».
L'expression «se mettre d'accord».

16.8 «ber» adjetiboak ba du, dena dela, bigarren adiera bat (r xamura):

ber(a) = (el / la) mismo / (le / la) dite, même.

Balio semantiko hau duenean, izenaren **ondoan** jartzen da; eta berari erasten zaizkio atzizkiak. (Zubereraz aurretik joan daiteke, ber forman)

ber gaiza erran = decir lo mismo / dire la même chose.

Gainerako euskalkietan **ondotik** joan ohi da:

gauza bera esan du

Ber deklinatu egiten da (ikus 9.22)

0.1	ber—	A	ber—	AK
0.2	ber—	AK	ber—	EK
0.3	ber—	ARI	ber—	EI
1.1	ber—	AREN	ber—	EN
1.2	ber—	ARENTZAT	ber—	ENTZAT
1.3	ber—	ARENGATIK	ber—	ENGATIK
1.4	ber—	AREKIN	ber—	EKIN
1.5	ber—	AZ	ber—	EZ

2.1	ber-	e	KO	ber-	ETAKO
2.2	ber-	e	AN	ber-	ETAN
2.3	ber-	e	RA	ber-	ETARA
2.4	ber-	e	RAINO	ber-	ETARAINO
2.5	ber-	e	RUNTZ	ber-	ETARUNTZ
2.6	ber-	e	TIK	ber-	ETATIK

–mendi **berera** igo dira (= han subido al mismo monte; ils sont montés à la même montagne).

–zulo **beretik** irten dira (= han salido del mismo agujero; ils sont sortis du même trou)

Batzutan **bikoiztu** egiten da **ber** silaba: **berber**.

– baserri **berberean** harrapatu dute.

16.8 El adjetivo **ber** (el mismo). Diferencias entre **ber** y **berdin**.
 L'adjectif **ber** (le même). Différences entre **ber** et **berdin**.
 Declinación de **bera** / **berak**.
 Déclinaison de **bera** / **berak**.

16.81 Gipuzkoako kaletarren artean, ordea (eta ez beti euskara lantzen duten jendeengandik urrun) joskera eragabe bat ari da zabaltzen, **ber** honen ordez **berdin** erabiliz:

- *gauza **berdina** esan dute
- *mendi **berdina** igo dira
- *zulo **berdinetik** irten dira
- *baserri **berdinean** harrapatu dute.

Euskal-gaizto horretan, nola eman ote liteke ideia hau:

– **pasa den kotxe hori berdina zen, baina ez zen berbera**. (alegia, **pasa den kotxe hori marka berekoa zen, kolore berekoa, itxura berekoa; oso antzekoa zen, hitz batez; berdina zen. Baina ez zen berbera**).

Ikus dezagun beste adibide bat:

–ikusi duzun zakur hori berdina zen, baina ez zen berbera; ez zen nire andragaiari koskegin zion berbera.

Alegia: ikusi duzun zakur hori, guztiz antzekoa zen, itxura berekoa zen, ilaje berekoa. Berdin-berdina zen. Baina ezagutzen dut hori. Aldameneko etzekoa da, eta ez zion honek koskegin. Hortaz, zakur **berdina** zen; baina zakur **bera** ez zen.

Otoi, beraz: **ez ditzagun biak nahas** zeinek bere balio semantiko berezia izanik, nahasteko arrazoinik ez dago. Nahiz-eta erdaraz nahasten badira ere bi horien erdal kideak.

16.82 **Ber** honen hildoan jarri behar dira **bertan** eta antzekoak:

- hemen bertan; bihar bertan.
 - honera bertara; horrera bertara.
 - bertatik joan; bertan gelditu.
- (antzinako mendeetan:hemen bereon)

16.9 Gogoan har dezagun, hasteko, Altube-ren «Erderismos» liburutik hartutako adibide zerrenda hau:

- A– Argin berak egin dau.
- B– Mendi berean dagoz.
- C– Denbora berean.
- D– Era berean Euskaltzaindiak itzartu zuan (Erderismos, 83).

Adibide hauetan:

- izena **soilik** agertzen da (argin, mendi, denbora, era), atzizkirik gabe.
- Atzizkiak, hortaz, **ber** hitzari datxezkio (berak, berean).

Hots, adibide horietan, **entzuleak ba daki** nor den hargin hori, **zein** den mendi hura, **zein** denboraz mintzo diren, eta **nola** hitzartua duen Euskaltzaindiak. Eta perpausa horiek honela ere molda litezke:

- A– **Dakizuen** hargin **horrek**, lehen **aipatu dugun** hargin **horretxek**, egin du.
- B– **Dakizuen** mendi **horretan**, lehen **aipatu dugun** mendi

horretantxe, daude.

Eta bide beretik C eta D perpausak.

Erdarazko itzulpenaren arabera (baina kontuz itzulpenetan!) «**el mismo, el susodicho / celui-là même, le dit**» esango genuke. Altuberren hitzez esateko: «**los pronombres reproductivos se limitan a señalar la identidad de un objeto o persona que actúa en dos o más ocasiones**» (Erderismos, 82).

Hauxe da, hain zuzen, **16.8** puntuan azaldu duguna. Ber horren deklinabidea, esana dagoenez, **16.8** puntuan dator.

Har dezagun orain beste adibide ilara hau:

E– Aitak berak esan zidan.

F– Auxe berau da niri gaur jazo yatana.

G– Nire ontasunean berean.

H– Lazedemonia hartako bereko gobernariak.

Adibide hauetan:

– izena eta ber izenordea, **biak batera**, deklinaturik agertzen dira; eta **biak kasu berean** eta, hortaz, **atzizki berberaz** horniturik:

Aitak berak, auxe berau, ontasunean berean, hartako bereko.

Hots, bigarren adibide-sail honetan, izena **agertu egiten da** (aita, auxe, ontasuna, hura); eta **lehenago ere aipatu ez bada**, entzuleak **ba daki zein** aitaz, **zein** ontasunez eta nongo gobernarietz ari garen; hitza bera **hortxe** datorrelako.

Kasu hauetan, beraz, Altube-ren hitzez esatekotan, «**se enuncian en forma repetida para insistir sobre el objeto o persona a la que se refieren**» (Erderismos, 81)

Lehenengo adibide ilaran, hitz batez, perpausan **agertzen ez den** izen bat gogorazten da (lehenago nahi-ta-ez aipatua); eta bigarren ilaran, berriz, perpausan bertan **agertzen diren** izen bat azpimarkatu nahi dira.

Lehenengoetan **izena soilik** utzi eta **ber** deklinatzen da; bigarrenetan, berriz, **biak** deklinatzen dira, eta **atzizki berbera** erasten zaie bie.

16.9 «Etxe berean» y «etxean bertan». Dos empleos diferentes de **ber**.
«Etxe berean» et «etxe bertan». Deux emplois différents de **ber**.

17 ERAKUSLEAK

Hiru bikote dira euskaraz:

- 1 –**hau** / **hauek**
- 2 –**hori** / **horiek**
- 3 –**hura** / **haiek**

Soilik joan daitezke (izenorde gisa, kasu honetan); edo **izen batekin**, eta egiazko adjetibo gisa, horretara:

- honek** ekarri du
- mutil honek** ekarri du

Frantsesez bi erakusle baizik ez baitago (celui-ci, celui là), nahasketak gertatzen dira Iparraldean; baita adberbioen mailan ere: **hemen**, **hor**, **han** (3), frantsesezko **ici-là** / **là-bas** -ren eraginez.

Lista de los seis demostrativos vascos.
Liste des six démonstratifs basques.

17.1 Eman ditzagun aurretik erakusleen deklinabideak.

Ohar bakar bat: pluralean, liferentzia hau egin liteke (eta egina izan da aspaldiko denboretan):

gizon **hauk** etorri dira / gizon **hauek** ekarri dute.
gizon **horik** joan ziren / gizon **horiek** saldu zuten.
neska **haik** erori daitezke / neska **haiek** ikas dezakete.

Euskaltzaindiak ez du, honi buruz, bere azken hitza esan. Deklinabideaz Villasantek (gaurko euskaltzain-buruak) idatzi duen liburuan, ez du liferentziarik egiten:

Hauek hurbildu dira / **hauek** erosi dute.

«Anaitasuna» hamaboskarian, aldiz, beste zenbait lekutan eta euskalkitan bezala (S, hu(r)ak = pas. nom.) liferentzia horri atxikitzen zaio. Zer egin?

Ba dirudi **bi jokabideok** ontzat eman daitezkeela:

haik hil dira = **haiek** hil dira.

17.1 Problema del plural (nominativo / ergativo).
Problème du pluriel (nominatif / ergatif).

Oharra: Azkenean Euskaltzaindiaren erabakia (1979) hau da = **beti, hauek, horiek, haiek**

17.2 Deklinabidea, beraz, **bizigabeei** dagokienez, ondoko hau izan liteke:

Erakusleak				
	S		P	
0.1	hau—	—	hau—	EK
0.2	hon—	e K	hau—	EK
0.3	hon—	I	hau—	EI
1.1	hon—	EN	hau—	EN
1.2	hon—	ENTZAT	hau—	ENTZAT
1.3	hon—	ENGATIK	hau—	ENGATIK
1.4	hon—	EKIN	hau—	EKIN
1.5	hon—	e Z (hon- e TAZ)	hau—	EZ (hau- ETAZ)
2.1	hon—	e TAKO	hau—	ETAKO
2.2	hon—	e TAN	hau—	ETAN
2.3	hon—	e TARA	hau—	ETARA
2.4	hon—	e TARAINO	hau—	ETARAINO
2.5	hon—	e TARUNTZ	hau—	ETARUNTZ
2.6	hon—	e TATIK	hau—	ETATIK

17.3 Erakusleak

	S		P	
0.1	hori—	—	hori—	EK
0.2	horr—	e K	hori—	EK
0.3	horr—	I	hori—	EI
1.1	horr—	EN	hori—	EN
1.2	horr—	ENTZAT	hori—	ENTZAT
1.3	horr—	ENGATIK	hori—	ENGATIK
1.4	horr—	EKIN	hori—	EKIN
1.5	horr—	e Z (horr-eTAZ)	hori—	EZ (hori-ETAZ)
2.1	horr—	e TAKO	hori—	ETAKO
2.2	horr—	e TAN	hori—	ETAN
2.3	horr—	e TARA	hori—	ETARA
2.4	horr—	e TARAINO	hori—	ETARAINO
2.5	horr—	e TARUNTZ	hori—	ETARUNTZ
2.6	horr—	e TATIK	hori—	ETATIK

17.4 Erakusleak

	S		P	
0.1	hura—	—	hai—	EK
0.2	har—	K	hai—	EK
0.3	har—	I	hai—	EI
1.1	har—	EN	hai—	EN
1.2	har—	ENTZAT	hai—	ENTZAT
1.3	har—	ENGATIK	hai—	ENGATIK
1.4	har—	EKIN	hai—	EKIN
1.5	har—	e Z (har-TAZ)	hai—	EZ (hai-ETAZ)
2.1	har—	TAKO	hai—	ETAKO
2.2	har—	TAN	hai—	ETAN

2.3	har—	TARA	hai—	ETARA
2.4	har—	TARAINO	hai—	ETARAINO
2.5	har—	TARUNTZ	hai—	ETARUNTZ
2.6	har—	TATIK	hai—	ETATIK

17.2 /3/4 Cuadros sucesivos de la declinación de los tres pares de demostrativos.
Tableaux successifs de la déclinaison des trois paires de démonstratifs.

17.5 Erakusleekin doan izena **biziduna** izanez gero, ondoko hau ateratzen da:

hau

2.2	— hon — en	GAN	hau —	ENGAN
2.3	— hon — en	GANAINO	hau —	ENGAINO
2.4	— hon — en	GANUNTZ	hau —	GANUNTZ
2.5	— hon — en	GANDIK	hau —	GANDIK

hori

2.2	— horr — en	GAN	hori —	ENGAN
2.3	— horr — en	GANAINO	hori —	ENGAINO
2.4	— horr — en	GANUNTZ	hori —	GANUNTZ
2.5	— horr — en	GANDIK	hori —	GANDIK

hura

2.2	— har — en	GAN	hai —	ENGAN
2.3	— har — en	GANAINO	hai —	ENGAINO
2.4	— har — en	GANUNTZ	hai —	GANUNTZ
2.5	— har — en	GANDIK	hai —	GANDIK

17.5 Los demostrativos animados.
Les démonstratifs animés.

17.6 Perpausaren erantzun nagusia (galdegaia) erakuslea bera izan, eta erakusle honi **indar** berezia eman nahi zaionean, **-xe** atzizkizko erakusle azkarrak erabiltzen dira:

hauxe, horixe, huraxe; hauetxek, horietxek, haietxek.

- Zer ekarri dute? **Hauxe** ekarri dute.
- Zer esan dizute? **Horixe** esan didate.
- Nor da etorri dena? **Huraxe** duzu.

Noski: erakusle azkar hauek **deklinat**u egiten dira:

- etxe horretantxe bizi naiz
- mendi hartatixek jetxi ziren
- honetxek erantzun dio
- hauetxek dituzu ene katuak.

17.6 Demostrativos intensivos.
Démonstratifs intensifs.

17.61 Bide beretik hiru erakusleei dagozkien hiru leku-adberbioak:

- **hementxe, hortxe, hantxe**

Eta gauza bera hauetatik sortzen direnak:

- **honeraxe** ekarri dute.
- **harainoxe** joan zen.

18 KASUEN BALIO SEMANTIKOA (I)

18.1 Zenbait euskalarik dioen bezala, gure ustez ere hiru sail edo multzotan banatu behar dira «deklinabideari» dagozkion atzizkiak.

a - Lehenengoan, **aditz jokoetan** eragina edo **marka** duten kasuak sartu behar ditugu. **-Ø** marka izan ohi duen **NOR** delakoa, liburu honetan beti **urdinez** idatzia; **-K** marka izan ohi duen **NORK** delakoa, liburu honetan barrena **gorriz** idatzia; eta **-i** marka izan ohi duen **NORI** delakoa, liburu honetan **berdez** idatzia.

b - Bigarren multzoan, berriz, eta linguistikan «distribuzio» delakoa kontutan hartuz, bi atzizki sartu beharra dago: **-en** eta **-ko** delakoak.

c - Hirugarren multzoan, azkenik, gainerakoak.

Sailketa honi buruz aipa daitezkeen teori-argudioak alde batera utzirik, hemen alderdi **pratikoari** begiratuko diogu bereziki, gainerako kapituluetan bezala; eta, emango diren itzulpenen balioaz argi eta erne ibiltzeko berriro eskatuz, deklinabide - atzizki bakoitza **nola** erabiltzen den eta zein **balio semantiko** duen azaltzen saiatuko gara.

- 18.2
- 1) **NOR** kasua.
 - 2) **NORK** kasua
 - 3) **NORI** kasua

18.2 – Parece justificada la propuesta de diversos lingüistas, en el sentido de establecer una clara diferencia entre los tres sujetos con repercusión verbal (pasivo, ergativo y dativo).

– Il semble que la proposition faite par plusieurs bascologues, dans le sens d'une distinction fondamentale en ce qui concerne les trois sujets avec répercussion verbale (passif, ergatif, datif) soit à retenir.

18.21 **NOR** kasua (tauletan, 0.1 agertzen). Zenbait liburutan «nominatibo» deritza kasu honi; nahiz izen hau, euskarari dagokionez, eta xeheki funtsatzea luzeegi eta alferra litzatekeen arrazoin mordoarengatik, oso desegokia izan.

Hirugarren ikaskaian agertu denez (ikus 3.1 puntua bereziki), kasu honek **hiru molde** ditu euskaraz (**gizon, gizona, gizonak**); baita laugarren bat ere, 0.11, **-(r)IK** markaz hornitua (**gizonik**). **Gizon** eta **gizonik** mugagabeak dira; eta **gizona** eta **gizonak**, berriz, mugatu bakarra eta mugatu anitza.

Kasu honetan, **NOR?** galderari erantzuten dion hitza bizigabe baldin bada (pertsona ez bada, zehazkiago), **ZER?** galde daiteke. Kasu honetan, hitz batez, galdetzaileak **NOR** edo **ZER** izan daitezke, kasuen arabera bata zein bestea.

- **NOR** ikusi duzu? **LAGUNA** ikusi dut
- **ZER** ikusi duzu? **ZENBAIT MENDI** ikusi dut.

18.21 – Casos en que se usa el caso pasivo.
– Cas où l'on emploie le cas passif.

18.211 **NOR/ZER** mugagabea

Bi eratara agertzen zaigu:

a) **laguntzaile** baten ondoan (**gehienetan** honela, gaurko euskaraz, egia esateko).

b) **Bakar-bakarrik**, ezelako hitz laguntzailerik gabe.

a) **Laguntzaile baten ondoan** datorrenean, mugatuak eta

mugagabea antzekoak dira oso, marka-arazoari dagokionez:

- gizon-A etorri da
- gizon-AK etorri dira
- gizon GUTXI etorri da

Hiru kasu horietan, -A, -AK eta GUTXI elkarren kidetzat jo daitezke.

Gaurko euskaraz kasurik **gehienetan** mugagabea **zerbaitez horniturik** erabiltzen denez gero:

- gizon gutxi
- gizon asko
- hiru gizon
- zein gizon
- hainbeste gizon

lehenengo hurbilketaz hau esan daiteke: **askotan** (ez beti) **izenak zehaztaile edo laguntzaile bat behar izaten duela euskaraz**. Eta laguntzaile hori mugatzailea daitekeela (-a, -ak, hau, hori, hura); edo-ta mugagabeetako bat (zein, horrenbeste, bat, hamar).

Lehenengo era horretara, izenak ez dauka markarik (-Ø); edo, beste modu batez esanda, ondoan duen laguntzaileak ordaintzen du marka (ikus 3. Ikaskaia):

- **zer ordu da?** (galdekariez)
- **horrenbeste mutil** (mugagabeez)
- **hiru etxe** (zenbakari soilez)

b) **Soilik** (alegia, ezelako laguntzailerik gabe datorrenean) bi marka izan ditzake: -Ø marka edo -(r)IK marka. Noiz bata? Noiz bestea?

Eman dezagun **ogi** izena. Bi molde dagozkio:

- **ogi**
- **ogirik**

Bazterretako euskalkiak kontutan ez hartzekotan (bizkaiera eta ziberera, hitz batez), gaur ogi hitz soila, **zer** galderari erantzunez, nekez entzun daiteke. «Zer erosi duzu?» galdetzen badugu, eskuarki «ogia» entzungo dugu, nahiz ogi hori ezezaguna eta zehaztu-gabea izan; eta ez «ogi». «Ogi» entzuteko, beste zerbait erantsi beharko zaio:

- **ogi hau ez da batere xamurra.**

- atzoko ogi itsusiak busti egin dira.
- zein ogi puska nahi duzu?

Zibereraz ez da hau gertatzen. Eta aisa entzun daiteke ostatuetan:

- ógi, óthoi!

(guk, Gipuzkoan, «ogia, mesedez» esango genukeena)

Erronkarietaz, bide beretik, oso maiz joan ohi zen soilik. Eta bizkaieraz ere gauza bera:

- emósu afári

(guk «emáiozu afária» esango genukeena).

Xaharkeriak ote dira esakera horiek?

Dena eman ahal daiteke ontzat?

18.212 Hona hemen Azkuek emandako hiru adibide:

- ekarzan ur (S)
- harrazu ogi (S)
- baneukan asti (B)

Plegu honetako esakerak zaharrak direla gauza segurua da. Molde berria gaitzetsi gabe ere, hortaz, molde zahar horiek xaharretsi beharrik ere ez dagoela iruditzen zait. Literatur-mailan batez ere; eta are gutxiago euskalki kutsua eman nahi denean. Pluralismoaren izenean, «biak on» esango nuke nik.

Hau proposatuz, Azkueren hildotik noa: «ya de muchos años a esta parte se nota en muchas comarcas una invasión de este elemento determinativo, paciente de la declinación, hasta en el Vocativo» (Morfología, 265).

Gogoan har beza irakurleak, besteak beste, 5. ikaskaian esandakoa.

18.213 **-(r)IK** marka, berriz, noiz erabiltzen den, erraz da asmatzen:

- Ezezkoetan:** ez dut ogirik jango.
- Galderetan:** ogirik ba ahal dugu?
- Zalantzazkoetan:** ez dakit ogirik ote dagoen.

Mugagabe mota honetan, gisa denez, aditza **singularrean**

jartzen da: **dut, dugu, dagoen**, aurreko hiru adibideotan. «Ba ahal **dituzu** sagarrik?», eta honelakoak, ez dira euskara.

Baiezkoetan ere, -(r)IK marka erabil daiteke; batez ere esanari indar eman nahi zaionean:

– **ba zen, bai, emakume ederrik!**

– **ba zuten, bai, neskatila galantik!**

eta, horretara, aditza, gisa denez, singularrean doa: zen, zuten (NOR elemenduari dagokionez, jakina).

18.213 – Empleo del partitivo.
– Emploi du partitif.

18.214 Eskuarki, hortaz, erantzun mota hauetan erabiltzen da markarik gabeko kasua (0.1), eta honen kidea den (0.11) delakoa:

«**NOR etorri da? ZER etorri da?**»

Mugagabe:

1- **Zenbat** adiskide etorri da?

2- adiskide **gutxi** etorri da.

3- **bost** adiskide etorri dira.

4- adiskiderik etorri al da?

5- ez dut uste adiskiderik etorri denik.

6- honera ez da adiskiderik etorri.

Singularra:

1- ene adiskidea etorri da.

2- etorri al da ene adiskidea?

3- ez dut uste ene adiskidea etorri denik.

4- ene adiskidea ez da etorri.

Plurala:

1- ene adiskideak etorri dira.

2- etorri al dira ene adiskideak?

3- ez dut uste ene adiskideak etorri direnik.

4- ene adiskideak ez dira etorri.

Oharra: gauza bat da: «ene **adiskidea** ez da etorri» (no ha venido mi amigo, concreto, de que estamos hablando; mon ami, concret, dont on était en train de parler, n'est pas venu) ; eta beste bat, «ene **adiskiderik** ez da etorri» (no ha venido ninguno de mis amigos; aucun de mes amis n'est venu).

18.215 Era berean, segidan, ikus ditzagun «**NOR eraman dute? ZER eraman dute?**» galderari, eman dakizkiokeen erantzunak.

Mugagabe:

- 1- **Zenbat** zakur eraman dute?
- 2- zakur **asko** eraman dute.
- 3- **Iau** zakur eraman dituzte (dute).
- 4- zakurrik eraman al dute?
- 5- ez dakit zakurrik eraman ote duten.
- 6- hemendik ez dute zakurrik eraman.

Singularra:

- 1- aldameneko zakurra eraman dute.
- 2- eraman al dute aldameneko zakurra?
- 3- ez dakit aldameneko zakurra eraman ote duten.
- 4- aldameneko zakurra ez dute eraman.

Plurala:

- 1- aldameneko zakurrak eraman dituzte.
- 2- eraman al dituzte aldameneko zakurrak?
- 3- ez dakit aldameneko zakurrak eraman ote dituzten.
- 4- aldameneko zakurrak ez dituzte eraman.

Oharra: gauza bat da: «**ez dute zakurrik eraman**» (ez dute inolako txakurrik **batere** eraman hemendik); eta beste gauza bat beste hau: «**ez dute zakurra eraman**» (guk ezagutzen dugun zakur **hori**, oraintxe aipatzen genuen **hori**, ez dute hemendik eraman; baina besteren bat beharbada bai).

Era berean bi perpausa hauek: «**ez didate dirurik eman**» (=no me han dado ningún dinero, de ningún tipo; il ne m'ont donné aucun type d'argent); eta «**ez didate dirua eman**» (= no me han dado el dinero ese, concreto, de que estábamos hablando; il ne m'ont pas remis cet argent là, l'argent concret dont on parlait tout à l'heure).

18.216 Erdarazko esaerak artikulurik ez duenean, **mugagabea** dagokio euskaraz eskuarki; egunean barreneko esaera zaharretan ongi ageri denez:

- **Egun on!**
- **Arratsalde on!**

– Gau on! («gai unik», erronkariarrek)
(hau euskalki guztietan; eta frantsesetik eta inglesetik bertago, gaztelanitik baino).

Bide beretik, hortaz, jatorragotzat eman behar dira kera horretako esaera mugagabeak, mugatuak baino:

– Zorion!

– Eguberri on!

18.217-18.212 puntuan esan dugunari orain eutsiaz, hortaz, nola egiten dira deiak? «Bokatibo» edo «deikari» delakoa, zein modutara egiten da euskaraz?

Hona hemen Azkueren iritzia: «En vez de llamar a uno «gizon, zatoz lagun artera», dicen muchos «gizona, zatoz» (Morfol., 265-266).

Harrigarria honi buruz gertatzen dena: maizago erabiltzen da deikari hori mugagabe gisa hitz batzutan, beste batzutan baino. Gipuzkoan, esate baterako, oso maiz entzun daiteke hau:

* – Egun on, etxekoandre!

Baina inoiz ez beste hau:

– Egun on, jaun!

Baizik - eta, beti:

– Egun on, jauna!

Eta areago bide doa ohitura, erantzun laburretan:

– Bai, jauna!

– Bai, andrea!

– Ez, maitea; hori ez!

zer esanik ez pluraletan:

– Haurrak! (Leizarragak berak ere bai, orain dela larehun urte).

Hain zuzen ere, deikari anizkor hauetatik zabaldu bide da gero, beti ere Azkueren ustez, gainerakoetara.

Ohitura zaharra, oso galduta dago Iparraldean:

– gaixo haurra!

– gaixo mutila!

Nahiz funtsean deikaria mugagabe izan euskaraz:

– Kaixo, gazte!

- Agur, neskato!
- Arratsalde on, mutiko!
- Gau on, emakume!

Kera horretako esaldiak normalak dira gaur ere; eta, «jauna» berezkuntza eginik, areago izan ziren aspaldiko mendeetan.

18.217 – El vocativo en vasco.
– Le vocatif basque.

18.218 Deikari, azkenekorik, deitua bereziki nabarmenerazi nahi denean, **-ori/-ok** atzizkiak erabiltzen dira. (Nahiz, berez, erakusleak izan, posizio horretan, eta **-a/-ak** bezalaxe, **H-rik gabe** idatzi behar direla iruditzen zait).

Esate baterako:

- Kaixo, gazteori!
- Zer ari haiz hor, eroori?

Eta, era berean:

- Kaixo, gazteok!
- Egun on, mutikook!
- Agur, emakumeok!
- Egun on, jaun-andereok!

Deikaria, eskuarki, **-a** edo **-ori** atzizkiez osatzen da (gorago ere esan dugunez):

- Jauna!
- Jaun maitea!
- gaiztoa!

Gauza bera pluralean:

- urrikalkizunak!
- anaia maiteak!
- aingiruak!

(Sei adibide hauek Axularrenak dira)

Batzutan, eta famili-izenez gertatzen dena ikusita ere (ikus 11. ikaskaia), iritzi honi euts dakioko:

- seme!

baina **-jauna!**

Fonetikan barrena sartuko ez bagara ere, ohar txiki bat «oo» hiato, horiei buruz: «oo» bikoteak, [uo] esaten dela: [erúori,]

[sorúok,] eta abar.

18.22 **NORK** kasua (= «ergatibo»)


NORK aditzetan ez bestetan erabiltzen da kasu hau (ikus honi buruz 22. ikaskaia).

Aldera ditzagun bi aditz hauek:

ikusi / erori

«**Ikusten du**» entzuten baldin badugu, aditz horrek **bi** elementu behar ditu: «**NORK** ikusten du?» eta **NOR (= ZER)** ikusten du?» Bi galdera horiek erantzunez, perpausa osoa izango genuke:

– **ene adiskideak etxea ikusten du.**



«**Erortzen da**» entzuten baldin badugu, berriz, aditz horrek elementu **bakar bat** eskatzen du = «**NOR (= ZER)** erortzen da?». Eta galdera hori erantzunez, honela osatuko genuke perpausa:



– **ene adiskidea erortzen da**
(erortzea berari gertatzen zaio; ez du inork bera erortzen).

Lehenengoak bi elementu ditugu:

(1) **NORK** → **NOR**

edo-ta, kide direnak:

(2) **NORK** → **ZER**

(3) **ZERK** → **NOR**

(4) **ZERK** → **ZER**

Gorritz agertzen diren egile horiek, **-K** marka dute; eta berek egindako ekintza, berengandik kanpora atera, eta **beste elementu batetara** igarotzen dira, **∅** markaz hornitua (edo-ta **-(r)IK**, gorago esan dugunez):

– mendia ikusi dut nik.

– ez dut mendirik ikusi nik.

NOR eta **ZER** horiek, bestek hasitako ekintza jasaten dute. Horretatik ere eman ohi zaien izena: «sujeto pasivo» / «sujet passif».

18.22 – El caso agente o ergativo. Marca. – Le cas ergatif. Sa marque.

18.221 Semantika hutsa ez da beti **NORK** eta **NOR** aditz horien berezgarri segurua. Ondoko erdaretan ez dago bateratasunik: **he ido, he comido / je suis allé, j'ai mangé**: eta itzulpen-bidez nekez lor daiteke ezer onik.

Euskalkien artean ere batasunik ez dago:

irten naiz / urten dot

igo naiz / igon dot

afaldu dut / afaldu naiz

Gehienetan, hala ere, aditzak adierazten duen ekintzak **egilea** eta **jasalea** eskatzen baditu (ekarri, erosi, saldu, eraman, eta abar) **NORK NOR** aditza eskatuko du; eta egileari ergatibo **K** dagokio.

Ekintzak berriz egilerik ez badu, **jasalea** du soilki; eta **NOR** bakarra, hortaz (erori, etorri, joan, jarraiki, eta abar). Ikus, honi buruz, 22. ikaskaia.

18.222 Ergatiboaren marka -K da:

gizone^K / gizon-a^K / gizon-e^K

emakume^K / emakume-a^K / emakume-e^K

Nork erosi du hori?

–zenbait gizonek

–dakizun gizonak

–etorritako gizonek

NOR -aditzetik **NOR** **NORK** -aditzera aldatzean, ^{-K} hori agertzen da. Aldera itzazu:

–zenbait **lagun** etorri da

–**laguna** joan da

–**lagunak** erori ziren.

eta, bestela:

–zenbait **lagunek** esan du

–**lagunak** erosi du

–**lagunek** eraman zuten

Lagunek (zenbait...) eta **lagunek** (esandako...), fonetikari dagokionez desberdin gertatuagatik ere, liburu honetan ez dugu izari horretan sartzeko aukerarik baliatuko; hemen Euskara Batu idatzia baita gure aztergaia.

18.223-18.218 puntuan azaldutakoari segida emanez, ^{-ori} / ^{-ok} hori deklinatu egiten da; eta **ergatibo** izan daiteke: ^{-orrek} / ^{-ok} esate baterako:

–zer diok, txotxolo horrek?

edo-ta, hitz bakar batez:

–zer diok, txotxolorrek?

eta pluralean:

–zer diozue, adiskideok?

18.23 **NORI** kasua (= «datibo»)

NOR -aditzari **NORI** erants dakioko:

– erorida / erorizaio

– joangara / joangatzakio

Eta **NOR** **NORK** aditzari, **NORI** erants dakioko:


– erosi ditu / erosi dizkio

- ekarri **zuen** / ekarri **zion**


Aldera itzazu ondoko bi perpausa hauek:

- ikusi **zuen** / ikusi **zion**

Ikusi zuen delakoari dagokion irudia hau da:



edo-ta, funtsean berbera:



(1) Pleguko esaldiak «a» itzultzen dira gaztelaniaz =
atzo zure aita ikusi nuen (nik) =

ayer (yo) vi A tu padre

(frantsesez ez = hier j'ai vu ton père).


Eta, **kalko kutsez** (eta erdarakada borobilez, hortaz), «A» hori, datibo-tzat harturik, NORI itzultzea.


Eta horretatik dator erdalkumeen ikastoletan andereñoek behin eta berriz egin behar duten galdera:

Haurrak: **Eta hil egin zion**

Ander.: **Eta ZER hil zion, bada?**

Eta, noski, kideak:







Esate baterako:

- (1) gizonak adiskidea ikusi du
- (2) gizonak mendia ikusi du
- (3) harriak neskatila jo du
- (4) harriak pareta jo du

NOR/ZER ez dira, alderdi honetatik, ezertan berezten.

Ikusi dio sailekoetan, berriz, irudiak haiek dira:



Oharra: **NORK** **NOR** **NORI** aditz - jokoak ere erabiliak izan dira (ikus XVI. mendeko Leizarraga); baina Euskara Batuari dagokionez arkaikotzat izan dira alde batera utziak.

(2') gizonak kotxea erosi dio adiskideari

(4') harriak begia hondatu dio mutikoari.

gizonak egiten du ekintza adiskideari gertatzen zaio ekintza (al amigo/à l'ami)

- 18.3 Bigarren atzizki sailean, hortaz (ikus 18.1b), **-en** eta **-ko** atzizkiak sartuko ditugu. Biak, erdaraz, **de/deizultzen** dira:
adiskidearen etxea: la casa **del** amigo / la maison **de** l'ami.
herriko etxea: la casa **del** pueblo / la maison **de** la ville.

Itzulpen **bakun** honetatik sortzen ari dira nahasketak. Gure sasi-
-elebitasunean, erdara eta erdal egiturak dira nagusi; eta bi
«de», horien arteko semantika – desberdintasunari erdaraz
morfema - markarik ez dagokionez gero, euskaraz ere galtzen
hasiak gara.

Ohar batzu, halere, aisa egin daitezke:

a) **-ko** atzizkia ezin erabil daiteke sekula bizidunetan:
gizoneko, emakumeko, txakurreko. **-(r)en**, berriz, bai
bizidunekin bai bizigabeekin erabil daiteke:

- **gizonaren etxea.**
- **harriaren tamaña.**

Noiz bata? Noiz bestea?

b) **Bizidunek beti -(r)en:**

- **mutilaren alkandora.**
- **katuen kolorea.**
- **gazteen jokoak.**

c) **Bizigabeek**, berriz, batzutan **-ko**, beste batzutan **-(r)en**.

c.1) Aipatzen dena **LEKUTASUN HUTSA** dagoenean (= **NON**
dago? galderari erantzuteko moduan), **-ko** jartzen da.

– **mendiko etxeak**(= **mendian dauden** etxeak). Baina oso ondo
gerta liteke mendi horretan **etxerik ez** egotea.

– **etxeko anderea**(= **etxean egoten** den anderea). Baina gerta
daiteke etxe honetan edo hartan **andererik ez** egotea.

– **itsasoko ontziak**(= **itsasoan dauden** ontziak). Baina denak
kaian gertaturik ere, itsasoa itsaso dago.

c.2) –Aipatzen dena **BEREZKO OSAGAIA** denean
(= **ezinbestean DATXEKIO**), **-(r)en** jartzen da:

- **mendiaren goratasuna** (= mendiari **datxekion** goratasuna: 647 metro, eman dezagun). Goratasun hori ez **dago** mendi horretan, otsoak edo baserriak dauden bezala.
- **etxearen kolorea** (= etxe horri datxekion kolorea). Kolorea ez «dago» etxe horretan, goratasuna edo prezioa ez «dauden» bezala.
- **itsasoaren zabalera** (= itsasoari **datxekion** zabaltasuna). Zabaltasun edo zabalera hori ez «dago» itsasoan, arrainak eta ontziak «dauden» bezala.

18.3 – Los pseudo-adjetivos que se obtienen por medio de los sufijos -(r)en y -ko.
 – Les pseudo-adjetifs obtenus par les suffixes -(r)en et -ko.

- 18.4 Gauza bat, horretara, **LEKU GISA** hartzen bada, **-KO** erantsiko zaio; baina **BIZIDUN GISA** hartzekotan, **-(r)EN** atzizkia:
- **Euskal Herriko mendiak** (= Euskal Herrian **dauden** mendiak)
 - **Euskal Herriaren egoera** (= Euskal Herrian, herri bizia den aldetik, aurkitzen den egoera: ekonomikoa, demografikoa, eta abar).
 - **Hazparneko jendea** (= Hazparnen bizi den jendea)
 - **Hazparneren zabalera** (= Hazparneri dagokion eskualdearen hedadura).
 - **Hazparneko neskak**; baina:
 - **Hazparneren bizia**.

18.4 – Especificidad de sus empleos respectivos.
 – Spécificité de leurs emplois respectifs.

- 18.41 **-KO** atzizkiari datzekion **LEKUTASUNA** ondoko hitz hauetan ageri da:
- soineko** (= soinean eramaten dena),
 - gerriko** (= gerrian eramaten dena),
 - oinetako** (= oinetan eramaten dena),
 - lepoko** (= bufanda/foulard; lepoan erabili ohi dena).

18.42 **-KOAN**, horretara, denboratasunez erabiltzen denean ere, halako **lekutasun** kutsua du:

belarrekoan, belarrari buruzko lanak egiten diren garaian (= durante/pendant).

mezakoan, (= durante la misa / pendant la messe).

19 KASUEN BALIO SEMANTIKOA (II)

- 19.1 Gure tauletan 1.2 ezaugarriaz agertzen den atzizkiak **(-r)ENTZAT)**, erdarazko «destino/ destination» adieratzen du:
- hau adiskidearentzat erosi dut (= he traído esto para el amigo/j'ai apporté ça pour l'ami).
 - txoria zuretzat ekarri dute (= han traído un pájaro para tí/ils ont apporté un oiseau pour toi).

19.1	–(r)entzat
	– Empleo de diversos sufijos.
	– Emploi de divers suffixes.

- 19.11 Ageri denez **-TZAT** hau, beti doa **-(r)EN** genitiboaren ondoren. Arreago: euskara zaharrean genitiboa aski zen: **zure ekarri dute** (= (gaurko) zuretzat).

- 19.12 **-TZAT** eta **-TZAKO** ez dira elkarren kideak: bigarrena izenlagun gisa erabiltzen da; eta bere **eskubian** izen bat hartzen duela. Lehenengoa, berriz, soilik:
- amarentzat erosi dute.
 - amarentzako loreak dira hauek.

- niretzat ekarri dute.
- niretzako liburuak bildu ditut.
- TZAKO = -TZAT + -KO
- (-KO hori, bestalde, bestetan ere erabiltzen den berbera izanik).

19.13 -TZAT eta -RAKO, nahiz erdaraz «para» itzuli biak, ez dira berdinak.

Eskuarki bai (baina ez derrigorrez) bizidunekin -TZAT erabiltzen da; eta bizigabeekin, LEKUTASUNA markatuz (alegia, NORA?) -RAKO. Adibidez:

- amarentzat ekarri dituzte
- etxerako bidea hartu zuten.
- elizarako arriketan gabiltza:
- = para el edificio material
- elizarentzat = para beneficio de la Iglesia, persona moral (orixe)

19.14 Garbi dago -RAKO = -RA + -KO; eta, horretara, NORA galderari datxekiola; eta ez NORENTZAT galderari.

«Colecta para la gramática» hortaz, «collecte pour la grammaire», «con destino a» denez gero, honela itzuliko da.

- diru hau gramatikarentzat biltzen dugu.

«Etxerako dirua» eta «etxearentzako dirua», hortaz, ez dira gauza bera:

- etxerako dirua (= etxera eraman behar den dirua)
- etxearentzako dirua (= etxea bera jasotzeko, apaintzeko edo burutzeko erabiliko den dirua).

19.14 -rako

19.2 Gure tauletan -(ren)GATIK agertzen dena (erd. a causa de/à cause de).

Askotan berez idatzi ohi da:

zugatik edo zuregatik egin dut

(= lo he hecho por ti/ je l'ai fait pour toi, à cause de toi).

19.2 -(ren) gatik

19.21 Ondotik **ERE**erasten bazaio, «a pesar de» / «malgré»adieraz-
ten du:

- diruarengatik ere, joan nintzatekeen.
- hargatik ere, gauza bera uste dut.

19.3 Gure tauletan **-(re)KIN**agertzen dena. Erdaraz «en compañía
de» / «accompagné de»:

- zakurrarekin joango naiz

(= iré acompañado de mi perro / j'iré accompagné de mon
chien).

- adiskideekin irten da

(= ha salido con sus amigos / il est sorti avec ses amis).

Atzizki hau, hortaz **bizidunetan** erabiltzen da berez; bizidunek
ez bestek egin baitezakete «lagundu» (latinez **-cum**).

19.3 -(re) kin

19.31 Erdaraz, aldiz, zabalera handiagoa du «con / avec» hitzak; eta
horretatik, berriz ere, kalkoak eta erdarakadak: «le pegaron con
una piedra / ils le frappèrent avec une pierre» harri batez jo zu-
ten.«Harria» hor ez da laguntzaile eta **bidaide**, zakurra edo mu-
tikoa izan daitezkeen bezala; baina **tresna** eta **lanabes** (= **-Z**
euskaraz).

19.32 Euskara Batuan ez dira **-kin/-kila**n atzizkien artean zenbait
euskalkitan gertatzen diren ñabardurak kontutan hartu (ikus
Lafitte, Gramatika, 142. puntua); ezta, aspaldiko denboretan,
-gaz/-kin atzizkien artean izan bide zirenak (ikus Azkue,
Morfologia, 495. puntua).

19.4 Gure tauletan **-Z**(1.5 kasua). Hauxe da **tresnazko**kasua (ikus
19.31 bereziki)

- harriz egin (= hacer con piedra, indefinida/ construire avec de la pierre, quelconque)
- Larrun-go harriaz egin (=construir con la piedra concreta del Larrun/construire avec de la pierre concrète de Larrun)

19.4 -z

19.41 Kasu berbera da «(hablar) sobre →» / «(parler) au sujet de →». Kasu honetan ere **-Z**, **-AZ**, **-EZ** dira hiru atzizkiak; eta ez inolaz ere **-ATAZ/-ETAZ** (hauek erakusleetan eta norkarietan erabiltzen direlarik)

- Euskal Herriaz mintzatu da (eta ez *Euskal Herria-taz).
- Bere anaiaz hitzegin du (ez *anaiataz).
- bere gaztetango urteez mintzatu da (eta ez *urteetaz).

Honen kide hertsia da **-(r)i buruz** esakera:

- Euskal Herriari buruz mintzatu da
- bere anaiari buruz hitzegin du
- bere gaztetango urteei buruz mintzatu da.
- Erdarakada nabarmena da, ordea (nahiz aski zabaldua izan), **-(r)en gainean** esakera; honek **LEKUA** adierazten baitu, eta ez **ZERTAZ**:

- Kulpitoaren gainean hitzegin du (= NON hitzegin du?).

Honen, horren eta haren gainean esan beharrean, **honetaz**, **horretaz** eta **hartaz** esan behar da.

Norkarietan eta erakusleetan, 1.5 kasuari **-TAZ** dagokio:

- zertaz hitzegin zenuten?
- horretaz ez dago zer esanik.

19.42 Erdarazko «**además de**»/«**en plus de**» esaerak, honela itzultzen dira: **-ez gain**. Adibidez:

- **honetaz gain** (= además de esto/en plus de ceci).
- **haretaz gain** (= además de aquello/en plus de celà).

19.5 Gure tauletan **-(e)KO** agertzen denak (2.1), **NONGO** galderari

erantzuten dio. **Lekutasuna** markatzen du («génitif/locatif» bataiatu du Lafittek):

– **etxeko jauna** (= el señor de la casa/le patron de la maison).
-(e)Ko eta -(r)EN atzizkien artean dauden desberdintasunaz, ikus 18.3.

Atzizki hau, berriro ere, ez zaie **inoiz ere** erasten bizidunei.

19.5 –ko

19.6 Gure tauletan **-(e)AN** agertzen den kasuak (2.2), **NON** galderari erantzuten dio; eta **lekutasun** hutsa markatzen du («inesibo» da, beraz). **Non** egon da?

– **etxean egon nintzen arratsalde osoan**
– **mendian bizi nintzen gaztetan**
– **laketan gelditu ginen.**

19.6 –an

19.7 Gure tauletan **-(e)RA** agertzen den kasuak (2.3), **NORA** galderari erantzuten dio:

– **Maritxu: NORA zoaz? Iturrira, Bartolo.** Honen menpeko gisa har daitezke ondoko biak: **-(e)RAINO** **-(e)RUNTZ.**
Euskara Batuari dagokionez, **-RA** onartu da; eta **-RAT** aipatu ere ez da egin. Zer bait lekutan egiten bide den diferentzia, beraz:

herrira joan: han ez gelditzekotan

herrirat joan: han gelditzekotan

ez da ofizialki hartu haintzakotzat, eta **euskalki** mailakotzat jo beharra dago.

19.7 –ra, –raino, –runtz

19.71 «Odio hacia...», «confianza hacia...», «amor hacia...» **GANA**

euskaratzen dira euskalki batzutan:

- hasarre dāgo gugana.
- borondate ona du nigana.
- ez da zugana fio.
- gorrotoa zuen aitagana.
- bere buruagana hasarre dago.

Hau dela-ta, «para con /envers» honela ematen da:

- aitaganako maitasuna; edo-ta,
- aitarekiko maitasuna.

19.72 **NORAINO** zoaz? (= hasta dónde?/jusqu'où?). Hemen **LEKUTASUNA** da kondua; **ez denbora**.

- mendi tontorreraino heldu ginen
- zulo zolaraino erori ginen
- herriraino joan nintzen gau hartan

19.721 **Denborari buruz**, berriz, **ARTE** erabiltzen da: **soilik** adberbioekin, **-RA ARTE** izenekin. Esate baterako:


-bihar arte itxarongo dut

(= esperaré hasta mañana/j'attendrai jusqu'à demain)

-astelehenera arte itxarongo dut (= esperaré hasta el lunes/j'attendrai jusqu'à lundi).


* «asteleheneraino» esatea ez da egokia: eta * «herrira arte joan ginen» ere ez.

19.722 arte eta artean ez dira gauza bera.



bihar arte ez naiz irtengo.

(bihar arte horretan, beste zerbait egingo dut: ikasi, lo egin, idatzi; baina irten ez, hain zuzen)



bihar artean egingo dut hori.

(bihar arte horretan egingo dut hori; eta bihardanik aurrera, biharrez geroztik, kito; gaurko eguna igarota, irten egingo naiz, arrantzara joan, ala gitarra jo. Baina bihar arte horretan ez; lan hori egin behar dut eta).

1 hortaz, «hasta/jusqu'à» itzuliko genuke.

2 berriz, «en tanto que/pendant que».

Artean eta **-no** elkarren **kideak** dira, beraz:

– aita hemen dagoen artean (= dagoen bitartean)

– aita hemen dagoeno

Eta, beti ere, DENBORATASUNARI datxezkie.

19.73 **NORUNTZ** zoaz? (= hacia dónde?/vers où?). Hemen ere **LEKUTASUNA** da gaia, ez denbora.

– etxeruntz noa (= voy hacia casa/je vais vers la maison)

– herriruntz hurbildu ziren (= se acercaron hacia el pueblo/ils approchèrent du village).

19.731 **-RUNTZ** eta **-(REN) ALDERA** elkarren **kideak** dira:

– etxeruntz goaz = etxe aldera goaz

– elizaruntz gatoz = elizaren aldera gatoz
(= elizari buruz gatoz, L)

19.7311 Hauetatik ere, **-(e)AN** atzizkia erantsita, **-runtzean** atzizkia: «al dirigirse hacia / en se dirigeant vers»

– etxeruntzean (= etxeruntz zihoazelarik)

– honuntzean (= hango aldera joatean)

– haruntzean (= hemengo aldera etortzean).

- 19.8 Gure tauletan **-(e)TIK** agertzen den kasuak. (2.6), **NONDIK** galderari erantzuten dio:
– **nondik zatozte?** menditik.
– **nondik erori ziren?** arrolatik.
Erdaraz, hortaz, «desde/de» itzultzen da atzizki hau.
LEKUTASUNEZKO hitzetan ez bestetan erabiltzen da hau (menditik, etxetik, zubitik).

19.8 –tik, –danik

- 19.81 **Denborari** buruzko «desde/depuis» **-danik** itzultzen da (edo, baita ere, **-az geroztik**). Esate baterako:
Adberbioetan, **-danik**
gaurdanik ez nauzue han ikusiko (= desde hoy, a partir/d'aujourd'hui).
– **atzodanik ez dut ezer edan** (= depuis hier, je n'ai rien bu).
Eta **izenetan, -az geroztik**:
– **asteazkenaz geroztik**:
(= desde el miércoles/depuis mercredi)
– **joan den hilabeteaz geroztik**:
(= desde el mes pasado/ depuis le mois dernier)
Gogoan har dezagun Azkue-ren iritzia: «Es lástima que digamos **gaurtik, atzotik, biartik, noiztik...** cual si fueran vocablos de seres locales». (Morf., 301).
Gure klasikoetan ongi ageri da erabilkera xuxen hori:
– **bartanik asi** (Mendiburu)
– **ordutanik** (J. B. Agirre).

- 19.82 «Basotik etorri», «kaletik joan», eta «menditik jetxi» esaldiek haxe adierazten dute: venir **desde** el monte, ir **desde** la calle, bajar **desde** el monte (= depuis, frantsesez).
«Venir **por el bosque, a través del bosque/à travers la forêt**», eta gainerakoak, honela euskaratzen dira:
1 -z: **basoz, kalez, mendiz** (etorri, joan, hurbildu...)

2 -an barrena: basoan barrena, kalean barrena, mendian barrena. Iparraldean: -an gandi: Zuberoan gandi ibili (= barrena).

3-an zehar: basoan zehar...

4 -an gora, -an behera: a través de, subiendo/bajando/à travers, en montant/en descendant.

–kalean gora, kalean behera (= por la calle arriba, por la calle abajo; en montant, en descendant la rue).

19.9 1.2/2.6 Kasu guztiotan (2.1 ezik), -KO erantsi eta izen-lagun berriak lor daitezke; eta eskuin aldean, horretara, izenak erants:

- amarentzat → amarentzako loreak
- andrearekin → andrearekiko betebeharrak
- harriz → harrizko gaztelua
- etxera → etxerako bidea
- etxetik → etxetikako opariak

19.91 –tzat (prolativo/prolatif)

19.91 -TZAT kasua mugagabeen erabiltzen da bakarrik:

–semetzat hartu zuen

(= lo tomó como hijo/il le prit comme fils)

–zakurtzat hartu zuen

(= lo tomó por perro/il le prit pour chien)

Esate baterako:

–zuk bezala egin du

(= zuk egin ohi duzun eran egin du)

–semetzat hartu du

(= bere semea balitz bezalaxe hartu du)

Hona hemen Prai Bartolome-ren adibide argitsu hau:

–«Dudaan daukan gauzia, ondo ez dakijana, eritxikua, edo sospetxakua, esaten badau ziurtzat juramentubaren beian, egiten dau guzurrezko juramentuba. Entzuna ikusitzat, eta ikusija entzuntzat esaten badau, edo mudeetan badau dakijan moduti, egiten dau guzurrezko juramentuba» (I, 110).

- 19.92 **-RAKO** atzikia, **DENBORATASUNARI** erantsi nahi zaionean, -
KO bihurtzen da **adberbioetan**:
– **biharko amaituko dute** (= acabarán para mañana/ils finiront pour demain)
– **astelehenerako amaituko dute** (= acabarán para el lunes/ils finiront pour lundi)

20 EUSKAL ERKAKETA

20.1 Erdarazko erkaketan, honen motak garrantzirik ez badu ere (tiene más dinero que, es más joven que/il a plus d'argent que, il est plus jeune que), euskarazko erkaketan funtsetik beretik egin behar dira sailketa batzu; eta **zenbatasuna/nolatasuna** aurren aurrenik:

- zuk baino diru gehiago du
- zu baino gazte-ago da
- zuk hainbat diru dauka
- zu bezain gizena da.

20.1 Calidad y cantidad en el comparativo vasco.
Qualité et quantité dans le comparatif basque.

20.2 **Zenbatasunezko erkaketak.**

20.2 Comparaciones cuantitativas.
Comparaisons quantitatives.

20.21 Berdintasuna.

Zenbatasunez edo ketaz neurtzen den zerbait erkatzen edo gonbaratzen denean, **hainbat** erabiltzen da (= bezenbat, Iparraldean):

- zuk hainbat daki Piarresek
- zuk bezenbat daki Piarresek
- andereak hainbat dauka senarrak
- nahi hainbat erosi dio

20.22 Desberdintasuna

a) «**más que/plus que**» euskaratu nahi denean, «**baino gehiago**» erabiltzen da:

- zuk baino gehiago ikasi du
- nik baino diru gehiago du
- Piarresek baino liburu gehiago dauka.

Edo, beste joskera bātez:

- gehiago ikasi du, zuk baino.
- diru gehiago du, nik baino.
- liburu gehiago du, Piarresek baino.

Erdarazko eta euskarazko erkaketaren barne—egiturak alderatzen direnean, guztiz itzuletara moldatzen direla agiri da:

–	zuk	baino	liburu	gehiago	ekarri	du
	1	2	3	4	5	6
=	ha	traído	más	libros	que	tú
	6	5	4	3	2	1
=	il a	apporté	plus	de livres	que	vous
	6	5	4	3	2	1

Transformakuntza hontan (errelatiboan eta beste zenbaitetan bezala) ageri da ongienik, beharbada, euskal joskeraren funtza zertan datzan.

b) «**menos que/moins que**» adierazteko, era berean, «**baino gutxiago**» erabiltzen da:

- zuk baino gutxiago ikasi du
- nik baino diru gutxiago du
- Piarresek baino liburu gutxiago dauka.

Euskara Batuan, eta gaur gaurkoz, gutxiago = gutiago; eta bata

zein bestea erabil daiteke.

ha	aprendido	menos	que	tú
il a	appris	moins	que	toi
1	2	3	4	5
=zuk	baino	gutxiago	ikasi	du
5	4	3	2	1

Ezen-**ez**, **ezik**, eta abar baliatuz molda daitezkeen gonbaraketak, ez dira euskal jatorrizkoak; eta hemen eman beharrik ez dago.

20.23 «**demasiado/trop**» **gehiegi** esaten da euskaraz, **zenbatasunari** dagokionez:

- **gehiegi ikasi du**
- **sagar gehiegi jan du**
- **ardo gehiegi edan duzue.**

Iparraldean «**sobera**» erabiltzen da; eta Bizkaialdean, bide beretik, «**larregi**».

«**demasiado poco/trop peu**», bide beretik, **gutxiegi** esaten dira:

- **gutxiegi ikasi du**
- **sagar gutxiegi jan du**
- **ardo gutxiegi edan duzue.**

20.24 Goreneko maila adierazteko, «**gehien**» eta «**gutxien**» erabiltzen dira:

- **honek du dirurik gehiena**
- **hark galdu du dirurik gutxiena.**

Ageri denez, partitiboaren eskubian agertzen dira biok.

20.3 **Nolatasunezko erkaketak**

20.3 Comparaciones cualitativas.
Comparaisons qualitatives.

20.31 **Berdintasuna**

Erkaketa **bezain** hitzaren bitartez egiten da:

–	Kepa	bezain	aberatsa	zara
	1	2	3	4
=	tú eres	tan	rico como	Kepa
	tu es	aussi	riche que	Kepa
	4	2	3 2	1

- mendi hau beste hura bezain gora da
- itsasoa bezain urdina zen.

20.32 **Desberdintasuna**

Euskaraz ez dago:

$A < B$ esaterik

Beti ere:

$B > A$ esan behar da.

Desberdintasunezko erkaketak, horretara, beti $>$ moldekoak dira; eta alderantzizkoak gertatzekotan, bestaldera jarri behar da esaldia:

- Joanes es **menos joven que** Maddi (= Joanes est **moins jeune que** Maddi) aldatu egin behar da ere honetara:
- **Maddi es más vieja que** Joanes (= elle est plus âgée que...).

Horretarako: **baino -ago** erabiltzen da:

- Joanes baino zaharrago da Maddi (Gipuzkeraz, gaur, **zaharragoa** askotan).

Transformakuntza honetan, eta erdaratik abiatuz gero, zeharo itzuli behar da hitzen ilara:

–	Maddi	est	plus	âgée (vieille)	que	Joanes
	1	2	3	4	5	6
=	Joanes	baino	zaharr	-ago	da	Maddi
	6	5	4	3	2	1

20.321 Adjetibo bakan batzuek gonbarakari berezia dute:

on / hobe / hoberen (= onen)

txar / okerrago / okerren

baina baita hau ere:

txar / txarrago / txarren

Pratikan, hortaz, berezkuntza bakarra dago:

on / hobe

20.322 Nolatasunak erkatzen ari garenez gero, ohar garrantzitsu bat egin behar da: adjetiboak berak ez ezik, **adberbioetan ere**

berdin jokatzen dela:

nekez / nekezago

ederki / ederkiago

maiz / maizago

eta, berezkuntzaz:

ongi / hobeki

(B): ondo / hobeto

– zu baino maizago joaten naiz Oñatira

– zuk baino hobeki ikasi du ingelesez

20.323 Eta, gaur honekiko etorria galtzen ari bada ere, bide beretik jokatu izan da aditzetan:

– akatsak joanago, eta okerrago.

(= cuanto más se deja que vayan lejos los defectos tanto peor/plus on laisse aller les défauts, et pis ça va).

«gehiago joan» esatea ez da euskara.

– itsasoa ikustenago, eta ederrago.

(gaur zahar kutsuz dena dela).

– ohean egonago, eta alferrago.

20.33 «demasiado/trop», -egi atzizkiak ematen da euskaraz:

– mutil hori gazteegi da

(gipuzkeraz, gazteegia, maiz)

– mendi hura handiegi zen

– afaria galestiegi gertatu zitzaigun

20.33 Excesivo/excessif.

- 20.34 Goreneko maila, bukatzeko, **-en** atzizkiaz (aurretik **-(r)ik** jarriaz):
- emákumerik ederrena
 - lakurik baketsuena
 - zakurrik leialena

20.34 Superlativo/superlatif.

- 20.4 Edozein erkaketatan erasteko, **.areago** hitza erabil daiteke; besterik ez bada ere adjetiboa eta adberbioa berriz esan behar ez izateko:
- Matilde ederra zen; Maritxu areago (= más todavía/plus encore).
 - hori aski izanik ere, areago esango dizuet (= gehiago esango dizuet).

Are, berez, «incluso/encore» itzul daiteke bere soilean.

- 20.5 Aditz baten adierazia berez **.nolatasunezkoa** baldin bada (maite izan, gorroto izan, beldur izan, gose izan, egarri izan), gonbarakaria moldatzeko **-ago** erabiliko da, eta **ez gehiago** zenbakaria:
- arrainak ura baino maiteago zaitut (eta ez, inolaz ere, euskal muina salbatuko bada, «gehiago maite zaitut».
- Era berean:
- inoiz baino beldurrago naiz (eta ez * inoiz baino beldur gehiago dut!!).
 - atzo baino goseago da (eta ez * atzo baino gose gehiago dauka!).
 - iazko jaietan baino edanago

- 20.51 Era berean:
 - **galduegi da euskara Nafarroan**
(eta ez * gehiegi galdu dā).

... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...

... eta bereziki ...

... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...

... eta bereziki ...

... eta bereziki ...

... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...
... eta bereziki ...

21 ADITZ-SINTAGMAREN EGITURA

Behin eta berriz gauza bera errepikatuz; eta nahiz-eta, Chomsky-ren ondoren batez ere, «morfología» eta «sintaxi» zaharren arteko mugak gaur ezabaturik egon, liburu honetan bidenabar ikutzen ditugu **katearen eraketari** dagozkion arazoak. Alde batetik Euskaltzaindiak honi buruz irizpide xeherik emanik ez duelako; eta, beste alde batetik, sintaxiari buruz, eta liburu honekin bateratsu, Patxi Goenaga lankideak argitaratuko duen ikerketarekin eginkizun berberaz ari ez izateko.

Aditz-sintagmaz, hortaz, bizpahiru ideia nagusi soilki.

– Una vez más se insiste en que, en el presente libro, no se analiza el problema de la concatenación que estudia la sintaxis propiamente dicha.

– On insiste à nouveau dans ce sens que ce livre n'étudie pas la concaténation syntaxique proprement dite.

21.1 Aditz-sintagmaren ardatza, izenak berak ongi adierazten duenez, aditza bera da.

Baina, erdarari gagozkiolarik, aditz-sintagma horren **sujetua zein den** gauza ageria baldin bada ere:

- mi amigo ha llegado ayer
- el padre vió las casas
- mon ami est arrivé hier

– le père a vu les maisons

euskaraz arazoa ez da batere ximplea.

Ondoko bi erdaretan azterbide erraza da; aski da aitzari dagokion komuntadura begiratzea:

- ha llegado → mi amigo
- vió → el padre
- est arrivé → mon ami
- a vu → le père.

Euskaraz ez da gauza bera gertatzen; azkeneko esaldiaren euskal itzulpenean ongi ageri denez:

- gure aitak etxeak ikusi ditu –

Erdarari dagokion «sujeto»a aldatzen badugu, aditza aldatu egiten da:

- zuk etxeak ikusi ditu zu

Baina erdarazko «complemento/complément» delakoa aldatzen badugu, orduan ere aldatu egiten da aditza:

- gure aitak etxea ikusi du –
- gure aitak zu ikusi zaitu –

Euskal perpausan, hitz batez, ADITZA da aditz-sintagmaren ardatza; baina aditz hori HIRU SUJETU-ren menpeko da:

NOR

NORI

NORK

Euskal aditzaren komuntadura HIRUOKIN BATERA egiten da; eta, hau dela bide, HIRU SUJETU daudela esan daiteke.

21.1 – En vasco los tres sujetos NOR/NORI/NORK afectan al verbo que caracteriza al sintagma.
– En basque les trois sujets NOR/NORI/NORK affectent le verbe qui caractérise le syntagme.

21.11 Inoiz falta ez den sujetua NOR da: euskaraz ez dago NOR gabeko aditzik:

- aitajoan da
- lagunak etorri ziren.

Aditz batzuek ez dute besterik behar (joan, etorri, eta abar).
NOR-aditzak dira (=«intransitivo/intransitif»).

21.12 NOR -aditz hauek, dena dela, NORI izan dezakete:
– lagunak Kepa-ri etorri zai-zkio

21.13 Beste aditz batzuek, berriz, NOR horrez gain, NORK behar izaten dute eskuarki:

- zakurrak hezurra jan du –
- zuk okela erosi du zu

Aditz hauei NORK-aditz deritze euskaraz (erd. «transitivo/transitif»).

21.14 Aditz horiek, dena dela, hirugarren elementu bat izan dezakete, NORI sujetuari dagokiona:

- zakurrak hezurra jan dio- katuari
- zuk okela erosi diozu harakinari.

21.15 Gerta daiteke, azkenik, «etiko» deritzen aditzetan (= «hika», «zuka» delakoetan), entzuleari dagozkion HIK HIRI (edo-ta ZUK ZURI) elementuak erastea. (Ikus, honi buruz, 31. eta 38. ikaskaiak).

Kasu hauetan bai lau sujetutaraino ere joan gaitzke:

- aita joan du k (2)
- lagunak Kepari etorri –zai-zkiok (3)
- zakurrak hezurra jan dik– (3)
- zakurrak hezurra jan ziok– (4)

Sujetutasunari buruz, hortaz, ondoko erdaretatik atera daitezkeen irizpideek ez dute gure kasoan ezer handirik balio.

21.2 Aditz-sintagman aditza da ardatza, beraz; aditzarekin doazen

hiru sujetuak daude; eta **adberbioa** (edo-ta, honen kidetsu den **aditz-laguna**) dago.

Hemen **juntagin** diogun horrek («conjunción/conjonction»), esaldien arteko loturak egiteko balio du. (ikus 37. ikaskaia).

Adberbioa SOIL joan daiteke (**ongi, gaur**); **aditz-lagunak**, berriz, **BETI BEHAR DU ERLAZIO-ATZIZKIA**. (**esandako** egunean, aitarekin, etxe zatar hartaraino).

Mugak, dena dela, ez dira beti oso garbiak.

21.3 Garrantzi aparta du euskaraz **GALDEGAIA** deritzon ideiak.

Zeri deritzo «galdegai»? (Sebero Altubek «elemento inquirido» bataiatu zuen erdaraz).

Hona hemen hiru esaldi hauek:

- 1- **atzo ene anaia etorri zen**
- 2- **ene anaia atzo etorri zen**
- 3- **etorri egin zen atzo ene anaia.**

Euskaldun belarria duen edonork entzuten ditu honetara:

- 1- **atzo ene anaia** etorri zen
- 2- **ene anaia atzo** etorri zen
- 3- **etorri egin zen** atzo ene anaia.

Zein galderari erantzuten dioten esango bagenu, hau genuke:

- 1- **Nor** etorri zen atzo?
- 2- **Noiz** etorri zen zure anaia?
- 3- **Zer** egin zuen atzo zure anaia?

Ba dirudi, hitz batez, hiru esaldi horiek **HIRU GALDERARI** erantzuten dietela; eta horretatik **GALDEGAIA**. Galdegai, hitz batez, **esaldiaren kakoa** da; esaldiak beti nahi duen **galdera nagusia**.

21.3	– El elemento inquirido del sintagma, problema central. – L'élément «galdegai» (qui répond implicitement à la question) caractérise le syntagme.
------	---

21.31 Ohar nabarmen bat. Aditz-sintagmaren barnean, **GALDEGAIARI dagokio aditzaren aurreko lekua**, (ikus 1.ko «ene anaia»; eta 2.ko «atzo»). Lehenengo gauza aditza bera denean, aditza bera da galdegaia (eta, hortaz, erantzuna aditz hutsa denean, **aditza bera da galdegaia**).

«el miembro nominal inquirido (va) inmediatamente antes del verbo». (Altube, Erderismos, 18).

21.32 Galdegaia **ADITZA BERA denean, egin** erasten da:

4- **etorri egin zen Kepa**

5- **ikasi egin behar duzu aurrenik**

6- **joan egin bear duzu**

Eta gauza bera aditza erantzun bakarra denean:

7- **esan egin beharko diozu**

8- **erantzun egin zidan**

9- **erori egingo zara**

Baita **egin** denean:

10- **egin egin zuen**

11- **egin egin beharko duzu**

12- **egin egin behar!**

Jatorra da, honi buruz, Arrasate-ko esaera bitxi hau:

– [in'ín' imbjarbón]

Alegia:

– in in, in biar b'on, edo - ta:

– **egin egin, egin behar badon**

(= egin ezan, egin behar badun)

Bizkaieraz **egin** da laguntzailea.

Ageri denez, aditzaren **laguntzailea** ez da aldatzen:

13- **jan egin zuen**

14- **erori egin zen**

15- **eman egin diote**

16- **erori egingo haiz!**

Joskera hau bizkaieraz gorde da ongienik.

21.32 – El auxiliar egin como elemento de reforzamiento.
– L'auxiliaire egin en tant qu'élément de renforcement du syntagme.

21.321 Iparraldean -a edo -ik erantsiz lortzen dute galdegaiaren izaera:

4'-**etorria** zen Kepa / **etorririk** zen

14'-**eroria** zen / **eroririk** zen.

21.33 Joera honen garrantzia euskaldunen ahozko **erdal-gaiztoan** ageri da ongienik:

– con dos años y medio cuarenta libras pesaba.

– dolores se me ponen en el costao.

– brujería parece

(«Klin-Klon» idazlearen adibideak dira; Erderismos, 13)

Eta joera oso **jatorra** da, erdal joskeraren **aurkaria** bera baita:

1-**gaiztoa** izan

2-**okela** jan

3-**etxetik** irten

4-**itsasoz** etorri

5-**baketan** laga

Erdaraz:

1- **ser malo** / être méchant

2- **comer carne** / manger de la viande

3- **salir de casa** / sortir de la maison

4- **venir por mar** / venir par mer

5- **dejar en paz** / laisser en paix

Gutziz alderantziz, ageri denez.

21.34 Iparraldekoek hertsiki betetzen dituzte lege hauek; eta laguntzailezko aditzetan, laguntzailea uzten dute soilik aurrean; eta lagundua atzetik.

Hona hemen Axularren esaldi famatua:

–ditzagun gal eta honda!

Eta bide beretik gaur egunero:

–hori zaio gerthatu

–huntaz gira egun mintzatuko

–hari behar dakozu erran hori.

21.35 **Aditzak konjugazio trinkoa duenean**, modu honetara markatzen da:

–jakin, ba zekien

–joan, ba noa

–etorri, ba dator

(= como venir, ya viene / quant au fait de venir, il faut dire qu'il vient).

21.35 – El reforzamiento en el caso de los verbos con conjugación sintética.
– Le renforcement dans le cas des verbes avec conjugaison synthétique.

21.4 **Galdegaia besterik denean**, errepikatu egiten da honetara:

–Nor etorriko da?

–Etorri neu etorriko naiz.

–Nork erantzun zion hori?

–Denek esan zizkioten egundokoak, egia da; baina esaldi garraz hura, **esan**, Kepak **esan** zion.

21.41 Bide beretik jokutzen da-**egin** laguntzaileaz jokutzen den aditzetan:

–Nork hitz egin zuen han?

–Zalaparta hartan denak ziren kalakari apartak; baina hitz neuk egin nuen.

Galdegaia aditza bera balitz, aldiz:

– Hitz egin genion guk.

(Zenbait lekutan, oinarritzat «hitzegin» hartuz, «hitzegin egin genion» esango dute).

OHAR BAT: euskal perpausa ezin daiteke inolaz ere laguntzaile soilaz has:

- da gizon handia
- dute etxe bat
- dakizki hizkuntza guztiak.

Galdegaia **osagarria** baldin bada, osagarri horixe joango da aurretik:

- gizon handia da
- etxe bat dute
- hizkuntza guztiak dakizki.

Baina galdegaia **aditza bera** baldin bada, **ba-** erantsi behar zaio aurretik:

- ba da gizon handia
- ba dute etxe bat
- ba dakizki hizkuntza guztiak.

Aditz laguntzaileekin (edo-ta aditz trinkoekin) doan **ba-** baiezko hori eta ezezkoen ez delakoa, elkarren kideak dira:

- ez da gizon handia
- ez dute etxerik
- ez dakizki hizkuntza guztiak.

Baiezko ba hori, soilki, bai-ren kidea da; baina ez da inolaz ere *bai dakit, *bai datoz, edo *bai da esaten; **ba dakit, ba datoz,** eta **ba da** baizik.

22 ADITZEN SAILKETA

22.1 Euskal aditzik **gehienek**, beren konjugazioa egiteko, aditz **laguntzailea** behar dute:

- **erori** naiz, **dira**, **ginen**, **zitaion**...
- **saldu** nuen, **nion**, **genizuen**, **zidan**...

Banaka **batzuk**, berriz (euskararen gorabeherak jarrai ditzakegun arte guztian gainbehera ari), **soilik** molda ditzakete beren formak:

- **nator**, **zetorren**, **zetozkion**...
- **dakart**, **zekarren**, **zekarkizun**...

Aditz hauei **sintetiko** (= **azkar**) deritze; eta aditz normalei, berriz, laguntzailea behar dutenei, **perifrastiko**.

22.1 – Si bien todos los verbos conocen la conjugación perifrástica, solo unos pocos poseen flexiones sintéticas.
– Alors que tous les verbes connaissent la conjugaison périphrastique, seulement quelques uns d'entre eux possèdent des flexions synthétiques.

22.2 Euskal aditz-multzoan egin behar den lehen - lehenengo sailketa hau da: **NOR** aditz saila batetik (= intransitivo/intransitif), eta **NOR NORK** saila bestetik (= transitivo/transitif). Bai hauei, bai haiei, datiboa gertatzekotan, **NORI** elemendua erants dakieke.

Bidez proposatu dute batzuk, horretara, euskal aditzean hiru elemendu daudela argi-eta-garbi esatea; eta hortik aurrera jotzea.

18. ikaskaian adierazi denez, aditz batzuei dagokien ekintza **igarokorra** da: **ikusi** (= ikuslea, ikusten duena/ikusia dena, bestetik). Beste batzuei dagokiena, berriz, **igaroezina** da: **erori** (= ez dago erortzen **duenik**).

Semantika-azterketak berak, hortaz, sailketa hau egiten lagun dezake. Baina hizkuntzetan aurkitzen diren sailketak, eta guk gaur, geure jakinduria **berriaren** arabera egiten ditugun sailketak, ezpal eta plegu berekoak ez izanik, **berezkuntza** batzu egin behar direla ikusiko dugu.

22.2 – Distinción fundamental entre verbos intransitivos y transitivos.
– Distinction fondamentale entre verbes intransitifs et transitifs.

22.3 Zein dira **NOR** aditzak?

22.3 – Verbos con agente y paciente.
– Verbes à agent et patient.

22.31 Alde batetik, izan berberaz gain, **EGILERIK ez duten** aditzak:
egon
ibili
erori
etorri
joan
etzan

22.32 Beste alde batetik, esaldi **horretan**, **EGILERIK GABE** agertzen direnak:
Esate baterako:
– **itsas aldera hurbildu ginen** (kasu horretan, hurbildu aditzak ez du egilerik).

Bide beretik:

– harpean sartu ziren

(inork sartu ez bazituen ere).

«Hurbildu» eta «sartu» aditz horiek, halere, beste kasu batzutan egilerik baldin badute, **NORK** aditz bihurtuko dira:

– egur haiek surtara hurbildu zituzten

– dirua eltzeitsuan sartu genuen

– zeren esperantzak bizi baikaitu

Ageri denez, horretara, aisa gerta daiteke **aditz berbera** batzuetan **NOR**-aditza izatea; eta beste batzuetan, berriz, **NORK**-aditza izatea.

Hona hemen, Haraneder-en luman, aldakuntza horrek ematen duen ondorioa:

– iohan dute hobitik

(= eramaten dute)

– iaio dut seme bat

(= sortu dut, jaio erazi dut).

22.33 Era berean, aditz batzuek **egilea** dute eskuarki:

– nork erosi du lurralde hori?

– egundokoak esan zizkidan (hark)

– harri handi bat bota zioten (haiek)

Baina aditz hauek berak ere, **NOR**-aditz gisa jokaturik gerta daitezke.

Esate baterako:

– «**se** compran libros viejos» (= **on** achète de vieux livres)

= liburu zaharrak erosten dira

– «no **se** dice eso/**on** ne dit pas ça)

= hori ez da esaten

– hemen ezin daiteke satsukeriarik bota

Ageri denez, erdaraz «pronominal» kerazko esaldiak dira denak.

22.4 Halaz ere, zenbait euskal aditz sailetik sailera pasa da nabarmenki:

(lehen) Jainkoari eskatu natzaio

(gaur) Jainkoari eskatu diot

Beste zenbait **NOR**-aditz agertzen zaizkigu **sintetiko** gisa jokutzen direnean; eta **NORK**-aditz gisa **perifrastikoetan**:

- ikaskaiari garraizkiola
- zakurrari jarraitu zioten

Eta beste zenbait, azkenekorik, **NOR**-aditzak dira euskalki batzuetan; eta **NORK**-aditzak besteetan:

- urten dot (B) = irten naiz
- igon dogu (B) = igo gara
- bazkaldu naiz (BN,S) = bazkaldu dut

Zalantzetan, zer egin?

1 Ahal delarik, literatur-tradiziotik ez aldendu: ni narraio, hura dario, hark dirau...

2 Nahiz, semantika hutsaren aldetik, aditz batzu **igarokari** ez izan, Lafittek ematen duen aholkuari atxikiz, **NORK**-aditz gisa erabiliko dira hauek: «les verbes qui marquent une certaine **continuité**, une certaine **insistance**» (Gramm. 189).

Hona hemen **NORK** aditz gisa jokutzen diren batzu:

- afaldu (nahiz kasu honetan zerbait afaltzen bada ere)
- argitu
- askaldu (= merendatu)
- bazkaldu
- ditziratu
- gosaldu
- iharduki (jardun, B: nik diardut)
- irakin
- iraun
- jazarri
- kurritu

22.4 – Hay verbos que han cambiado de régimen.
– Plusieurs verbes ontchangé leur régime.

22.41 Erdaraz «se/on» itzultzen direnak, **NOR**-aditz agertzen dira euskaraz:

- usatu gara hori egiten (= nos hemos acostumbrado/nous nous sommes habitués)
- ez ginen han laketu

- 22.42 Kontuz ibili behar da, halere. Zeren-eta «-re(n) burua» **bihurkaria** ere, erdaraz «se» izenorde berberaz itzultzen baita:
- **bere burua hil zuen** (= **se** suicidó/il **se** suicida)
 - **neure buruari esan nion** (= **me** dije a mí mismo/je **me** suis dit)

Bi etsenplu bihurkari hauetan **hil** eta **esan** aditzek, gisa denez, ba dute **egilea**: **hark** eta **nik**; eta ekintza igarokaria ere ba dago: **NOR** hil? **Bere burua**.

Erdarazko «se» hauek, eta lehenago aipatutakoak, nahiz fonetikaz berdinak izan, semantikaz **biga** dira; eta arras desberdinak.

* **Ikusiko gara** esatea, hortaz, erdarakada hutsa da; **nik** zu ikusiko zaitut, **zuk** ni ikusiko nauzu; eta, beraz **zuk** eta **nik**, **biok**, elkar ikusiko dugula adierazi nahi baitugu.

Eroriko gara esatea, berriz, xuxena da; ez baitugu adierazi nahi **nik** zu eroriko zaitudanik, ez **zuk** ni eroriko nauzunik, eta ez **guk** **biok** elkar eroriko dugunik.

Gauza bat da:

– **bihar goizean sartuko gara biok itsasoan;**

eta beste bat:

– **bihar goizean sartuko dugu elkar itsasoan.**

Lehenengoan borrokarik edo bortxakeriarik ez da somatzen; bigarreanean, aldiz, halako indarkeri-zantzua edo aidean gelditzen delarik.

22.42 – Reflexivo / réfléchi.

22.5 Aditz batzuk **NORI** eskatzen dute garbiki:

– **zer deritozu horri?**

– **zergatik gaitzetsi diozu hark esandakoari?**

– **bartanik ura dario iturri honi**

Zein dira aditz horiek?

22.5 – Verbos que rigen dativo.
– Verbes qui exigent le datif.

22.51 Alde batetik, beti ere, edo aspaldidanik bederen, **NORI**-aditzak izan direnak daude

(**NOR**):

jarin (= iturriari ura dario)

jarraiki (= ilargiari zerraion)

atxeki (= horri gatxezkiolarik)

ekin (= gai horri dakizkiola)

(**NORK**):

eritzi (= gaizki eritzi zion entzundakoari)

eutsi (= eutsiozu gogor makila honi)

22.52 Beste batzuek, berriz, bai **NOR** bai **NORI** aditz jokoak dituzte:

deitu { dei nazazu bihar goizean (A)
 dei iezadazu bihar goizean (B)

begiratu { begiratu nuen neure laguna (A)
 begiratu nion neure lagunari (B)

Azkueren ustez **NOR**-aditzak dira bi horiek; eta **NOR** behar dute (A) saila: «**indebidamente usados como de recipiente**» (Morfol., 511).

Eta desegokiera hori analogiaz sortu bide da:

– **hots egin diot, hoska egin diot, dei egin diot**; eta, analogi-bidez:

deitu diot, dit, zidan, ...

– **so egin diot**; eta, analogi bidez:

begiratu diot, dit, zidan...

Biak bidezkotzat eman daitezkeela dirudi.

Era berean:

– **lagundu** (dut/diot)

– **utzi** (dut/diot)

– **utzi zion lanari, utziozu horri**; baita: – **uztazu horren egitera** (Iparraldean)

22.53 -**ERAGIN** aditza daramatenek, berriz, **NORI** behar dute:

– **eragiozu horri**

– barre eragin zioten (hari)

– negar eragin didazu (niri)

Kasu hauetan hauxe da karkoa:

– haiek hari barre eragin zioten

(= hark barre egin zezan)

– zuk niri negar eragin didazu

(= nik negar egin dezadan)

– keak zuri eztul eragin zizun

(= zuk eztul egin zenezan)

-EGIN-dun aditzen erazlea -ERAGIN da; eta aipatzen den eragintzaren egilea, nori gisa agertzen da (= hari, niri, zuri)

22.6 Beste bitxikeria batzu ba dira:

22.6	– Varios verbos irregulares. – Plusieurs verbes irréguliers.
------	---

22.61 Mundura jaio; esaten da (Leizarragak ere bai!)

mundura sortu;

lurrera belaunikatu;

baserrira ezkondu;

elizara bildu.

22.62 Eta, alderantziz:

mundutik hil.

(ikus «Oinarri Bila, 5.6).

22.7 Gaur, eskuarki norbaiti izena galdetzekotan, honetara egiten da:

– nola duzu izena zuk?

Literatur-tradizioan, berriz, eta herriaren ahotan ere orain dela gutxi arte, ERITZI aditza erabiltzen zen:

(orain-aldian)	niri	derizt
	hiri	derizk / derizna
	hari	deritzo
	guri	derizku
	zuri	deritzu
	zuei	deritzue
	haiei	deritze

(yo me llamo, tú te llamas, él se llama.../je m'appelle, tu t'appelles, il s'appelle...).

Eta:

	niri	zeriztan
(lehen-aldian)	hiri	zerizan / zeriznan
	hari	zeritzon
	guri	zerizkun
	zuri	zeritzun
	zuei	zeritzuen
	haiei	zeritzen

Hirugarren pertsonetan, beste lau hauek ere erabili izan dira:

hari deritza / haiei deritze

hari zeriztan / haiei zerizten.

(ikus «Oinarri Bila», 4.7).

Aditz hau erabili nahi izanez gero, ondoko hau atxiki behar da gogotan:

– Nola deritzu zuri?

–Andoni Etxeberria derizt niri.

– Nola deritzo mendi horri?

– Mendi horri Haizkorri deritzo.

– Nola zeritzon zure osabari?

– Nire osabari Joanes zeritzon.

– Nola deritze zure seme-alabei?

–Ene seme-alabei Jon, Filipe eta Elena deritze.

22.7	– El caso de eritzi (= llamarse)
	– Le cas de eritzi (=s'appeller).

22.71 Kasuren batetan, «cómo les llamáis vosotros/comment (les) appelez vous» esan nahi izanez gero, NOR/NORI NORK formak erabiliko dira:

– ¿cómo llamáis **vosotros** a este árbol?
comment appelez-**vous** cet arbre là?

= **nola deritzozue zuek zuhaitz honi?**

– ¿cómo te llamaremos **nosotros**?
comment t'appelleront **nous**?

= **nola eritziko dizugu guk zuri?**

Baina, garbi esan behar da, adizkera horiek **xaharkeri-kutsua** dute gaur; eta ez dira eskuarki inun entzuten.

Xehetasunik nahi duenak 29. Kapitulua ikus beza; baita, xehekiago, «Oinarri Bila» liburuan osoki emana den azterketa (4.7).

22.72 **Arkaikotzat** jo behar da, era berean, **maitatu**-ren ordeztu, **oneritzi** zaharra erabiltzea. Gaur:

– Yo te amo/je t'aime:

= (nik) **maite zaitut, maite haut**

– Yo te amaba/je t'aimais:

= (nik) **maite zintudan, maite hindudan.**

22.73 **Aspaldiko mendeetan**, berriz, eta Erronkariko Garde-n gutxienez euskara suntsitu arte, honela esaten zen:

– (nik) **onerizten** dizut, diat, dinat

– (nik) **onerizten** nizun, nian, ninan (zuri, hiri)

Edo-ta, sintetiko gisa:

– (nik) on deritzut, derizat, deriznat

– (nik) on neritzun, nerizan, neriznan (zuri, hiri)

Baina gaur ez dira erabiltzen; eta Euskara Batuan sartu beharrik ez dago.

22.8 Eritzi-ren eraginez, beharbada, **-etsi** aditz-atzizkiaz sortutako aditzek ere, **NORI** gisa erabiltzen dira:

– **eta frutuari eder iritzirik**

– **eta frutuari ederretsi zion.**

J. B. Agirre gipuzkoarrak xuxen erabiltzen du aditza:

– **ederretsi diogu edari biziari**

(= nos ha gustado / nous avons aimé).

– ederretsi dio alperkeriari
(= le ha gustado / elle lui a plu).

22.8 – El caso de -etsi.
– Le cas de -etsi.

23 ASPEKTUA ETA DENBORA

- 23.1 Aski da Azkue-ren «Morfología Vasca» liburu aberatsa arretaz irakurtzea, gure lekeitiar famatuak aditzaren denboratasunaz gain, **beste zerbait** ere somatu zuela erreparatzeko: ikus, batez ere, 739. eta 868. pasarteak.

Ba dirudi, halere, Lafon-ek bere «Système du verbe basque» idatzirik utzi arte, ez zuela inork horren sakonki somatu euskaran **aspektuak** duen (eta «izan zuen» batez ere) garrantzia.

Gure aldameneko erdaretan «aspektuak», morfologiari dagokionez batez ere, oso kontutan hartzekoak ez badira ere; txekoz, polonieraz, errusieraz, maia-kitxez, greko zaharrez, eta beste mila hizkuntzatan, oso garrantzitsuak dira.

Aspektuak behera, eta aditzaren denboratasuna gora: hona hemen, halere, hizkuntza askotan ageri den joera. Gauza bera euskaran. Leizarraga zaharraren aditzari buruz Lafon-ek egin zuen azterketa apartak, txunditu egiten du, zinez, argi bila doakeen irakurlea.

Hemen, ordea, **gaurko** Euskara Batuari buruzko oinarriketa honetan, alfer lana litzateke euskal aditza **zer izan zen** xeheki aztertzea. Hau nahi lukeen ikasleak hobe du, zalantzarik gabe, iturrietara jotzea. Eta puntu honi buruz, zalantza izpirik ez dago: René Lafon da iturria; eta Lafon du erakaslerik hoberena.

23.1 – Ya Azkue había intuído en el verbo vasco algo que escapa a la temporalidad, pero ha sido Lafon quien ha sistematizado y aclarado el problema del

aspecto en vasco.

– Déjà Azkue avait pressenti que le verbe basque possède des traits qui échappent aux catégories proprement temporelles; mais ce sera Lafon qui mettra à jour le problème de l'aspect en basque.

23.2 Azter dezagun, gaingiroki bederen, euskal aditz zaharra.

Oso gauza harrigarriak gertatzen dira.

23.2 – El análisis del verbo sintético en los autores antiguos muestra que hay aparentes irregularidades que se explican solo al tener en cuenta el aspecto de los verbos.
– L'analyse du verbe synthétique chez les auteurs anciens montre des lacunes et des irrégularités apparentes, qui seulement peuvent s'expliquer en tenant compte des aspects des verbes.

23.21 **Leizarragak**, esate baterako, ez du etorri aditzaren orain-aldi **sintetikoa** erabiltzen. Alegia: ez du inoiz ere: **nator, hator, dator, gatoz, zatoz, zatozte, datoz** erabiltzen. Debeku zaiola dirudi.

«Etorri»ren orain-aldia **perifrastiko** egiten du beti: **ethorten naiz, aiz, da, gara, zara, zarete, dira.**

Areago.

Ba- baldintza aurretik jarriz gero, **orduan bai**: horretara sintetiko osoa aurkitzen da Lizarraga-rengan:

banathor, badathor, bagatoz, ...eta abar.

Eta **-n** edo **-la** atzizkiez ere bai:

nathorren, dathorrela, gatozen, datozen...

Hori bakarrik ez.

Aginte-kerazko jokoak ba daude:

– **athor, bethor, zatozte**

eta **-ke** atzizkizkoak ere bai:

– **natorke, datorke, zatozketete**

Zergatik hutsune horiek? zergatik gramatika - ñabardura horiek? Zeri dagozkiola?

23.22 Hutsune eta berezitasun hauek harritu egin zuten gure Azkue handia. Eta, hori dela bide, ondoko hau idatzi zuen Nafarroako aezkerari buruz utzi digun bere monografi argitsuan: «**Tampoco en Aezkoa** (Baxenabarren bezala, alegia) **se conjuga el verbo etorri, por lo menos en indicativo... Pero se oyen flexiones imperativas como «ator gena» y «zato»;** como también los **subjuntivos «natorrela, yatorrela, datorrela...»** (Aezkera, 111) («gena» = geben + a).

Gure «ba nator» esateko (= ahora llego / j'arrive), Iparraldean bederen «**heldu naiz**» esaten da gaur bertan; eta ez sekula ere «ba nator». Hots, Leizarragak ere, orain dela lau mende oso, bide beretik jokutzen zuen; eta «**heldu da**» izkiriartzen zuen kasu horietan.

Zergatik?

23.23 Har dezagun orain **NORK**-aditz bat: ekarri. Zer gertatzen da **Leizarraga**-rengan?

Orain-aldiko sintetikorik baia? Bat ere ez. «**Aucune forme simple**» (Lafon, I, 218).

Perifrastikoak bai:

ekharten dut, duk, du, dugu...

Lehen bezala, **ba-**, **-n**, **-la**, eta **-ke**

atzizkiez osaturik bai:

dakarrazuen, dakarke, dakarkezue...

23.24 Azter dezagun orain beste aditz pare bat. **Egon**. Zer aurkitzen da?

nago, dago, daude. Ba daude, hitz batez.

Eta baita **ba-**, **-n**, **-ke**, atzizkiez ere:

agoen, zauden, bagaude, dauke (=dagoke)

Ibili. Zer, honetan? («ebili», Leizarraga)

nabila, abila, dabila, gabiltza, zabilzate, dabilta.

Hitz batez: ibili aditzak ere ba ditu.

Baita, noski, **ba-**, **-n**, **-l**, **-ke** dutenak ere:

dabilan, abilala, dabilan, bazabiltzate,...

23.25 Azterketa berbera egin daiteke **NORK**-aditzetan:

Entzun («enzun», Leizarraga)

– **danzut, danzuk, danzuzue...**

Ba daude, hortaz, joko sintetikoak.

Baita ere, noski, **ba-**, **-n**, **-la**, dutenak.

Jakin.

– **dakit, dakizu, daki, dakite...**

Ba daude, beraz.

Gauza bera aurrizkiz edo atzizkizkoak.

23.3 Hitz batez: aspaldiko aditzean (eta gauza bera Ekialdeko euskalkietan, suntsitu aurre honetan jakin dugunaren arabera), **zenbait aditzek ba dute** orain-aldi sintetikoa; eta **beste zenbait aditzek**, aldiz, **ez dute** orain - aldi sintetiko hori (nahiz atzizkiz edo aurrizkiz izanik ere).

Horixe aztertu zuen Lafonek xeheki 1943-ko bere liburu gogoangarrian.

Banaketak, ageri denez, ez du batere ikustekorik **NOR NORK** sailketarekin. Zertan datza kakoa, hortaz?

Aditz batzuek **ba dute** orain-aldi sintetikoa, **soilik** erabilia ere:

izan }
edun } laguntzaileak

ikusi

egon

ibili

iraun

joan

eduki

etzan

jarin

jakin

eritzi (eta abar)

Beste batzuek, berriz, aditz **soilik ez dute** (nahiz atzizkiz edo aurrizkiz inguraturik orain-alde sintetiko hori ba dutela gauza agiria izan):

* edin	} laguntzaileak («nadin» bai;
* ezan	
egin	baina «nadi» ez)
ekarri	
eman	
etorri	
eraman	
erakarri (Eta abar)	


Zerk berezten ditu, **semantikari** dagokionez, bi aditz-multzo horiek?

Erantzuna hau da: **aspektuak** (esp. aspecto / fr. aspect).

Aurrera baino lehenago, hortaz, esan dezagun laburki aditzaren **aspektua** zer den.

23.3 – Una primera clasificación aspectual.
– Un premier classement aspectuel.

23.4 Gaurko egunean, eta hizkuntza erromanikoetan ere bai, **denboran** barrena somatzen ditugu egintzak:



(A) adibidean, esate baterako, **iragana** dugu gogoan: **atzo gertatu zen**, **heranegun gertatu zen**, **jaz gertatu zen**, **Caesar-en garaian gertatu zen**.

(B) adibidean, berriz, **oraina** dugu aurrean: **orain** gertatzen da, **gaur** gertatzen da, **ordu honetan** gertatzen da, **aurten** gertatzen da.

(C) adibidean, azkenekorik, **geroa** dugu gogoan: **bihar** gertatuko da, **etzi** gertatuko da, **datorren astean** gertatuko da, **hemendik hamar urtetara** gertatuko da.

Aditz-ekintzen sailkaketarik logikoena horixe iruditzen zaigu.

Baina arazoa ez da horretan bukatzen.

Alde batetik, aditz askotan adierazten dugun ekintza kondaira egiazkoaren ardatzean gertatzen ez delako:

eros nezake

etor zaitez

hurbil gaitezen (nahi zuen)

Hiru adibide hauetan, **ez erosi egiten da** egiazki (eros nezake, baina oraindik ez düt erosi; erostearen fenomeno ez da kondairaren mailan obratu), **ez etorri egiten da** (etor zaitez: oraindik etorri ez den seinale, etortzea kondairaren mailan gertatu ez den seinale), eta **ez hurbildu ere**. Azkueren beraren hitzez esateko: «En imperativo, subjuntivo y potencial no hay acción, como la hay en indicativo» (Morfol. 623).

Hots, honi buruz, Azkueren iritzia onartu da Euskara Batuari dagokionez: «Aquí, con estos auxiliares, cuyos infinitivos ***edin** y ***ezan** no hay noticia de que se hayan usado nunca, es donde el verbo principal se presenta en forma **indeterminada**, (Azkue-ren «indeterminado» eta Lafon-en «indéterminé» ez dira **batere** gauza bera. Kasu!) **sin los determinantes i y tu**» (Morf. 623).

Gauza harrigarri hau gertatzen da, hortaz, euskaraz. Ba dagoela **egiazko biketa bat laguntzaileen artean**.


Kondaira-mailan **egiazko ekintzak** adierazten duten aditzetan **izan** (NOR) eta **edun** (NORK) erabiltzen direla gaur ere; eta **kondairatik at**-eko ekintzak (alegiatzko ekintzak, hitz batez) adierazteko, ***edin** (NOR) eta ***ezan** (NORK) laguntzaileak erabiltzen direla (eta hauetan, aditz-erroa soilki: eros, gerta, ibil, bazkal, sal, eror...). Hori gaur, berriz diogu.

Hots, oraindik ere bizirik dagoen berezketa hau, haseran uste genuen baino sakonagoa da; eta barnago ditu sustraiak ere, uste baino..

Hizkuntza eslaboetan (eta bestetan ere) bezala, errotikako biketa hori **aspektu** arazoa delako.

23.4 – Irreductibilidad de los grupos de auxiliares vascos.
– Caractère irréductible des groupes d'auxiliaires basques.

23.41 Ohar garrantzitsu hau. Gaur egun, denbora egiazkoari ez dagozkion forma hauetan, hau dugula:




* gerta dadi, *eros deza, geroago azalduko diren arrazoinengatik, ezinezkoak dira; eta ez dira sekula erabili.


23.5 23.3 puntuan utzitako hariari berriro helduz, aditzen ekintza denboran barrena getaturik har badaiteke ere (atzo erosi zuten, gaur erosi dute, bihar erosiko zutela esan zidaten); beste modu batera ere azter daiteke. Ekintzaren **ASPEKTU**-aren aldetik, hain zuzen.

Eta biketa hau egin daiteke: adierazten dugun ekintza hori **BURURATUA** da, arras **BUKATUA** da, zeharo **AMAITUA** da («perfecto, accompli» erdaraz); edo-ta, alderantziz, ekintza hori **BURURAGABEA** da, **BUKATU-GABEA**, oraindik ere **AMAITU-GABEA** («imperfecto/inaccompli»).

Ikus ditzagun **BURURATU** batzu (erdaraz):



baita BURURAGABEKO kideak ere:




Lehenengo saileko adibideetan, ekintza hori (iragana, oraingoa, etorkizuna) arras **bukatutzat** ematen da.

Bigarren sailekoetan, berriz; lehen, orain edo gero gertaturik ere, oraindik ere **bukatu gabetzat** ematen da; oraindik ere gertatzen ari balitz bezala.

Lehenengo sailean, ekintza horiek bukatuak dira, **borobildurik** agertzen zaizkigu.

Bigarrenean, berriz, bukatu gabe daude, oraindik ere ekintza isurian balego bezala. Horrengatik erabiliko ditugu, hermendik aurrera, irudi hauek:



Hots, Lafon-ek argiro erakatsi duenez, euskaraz, (eta aspaldiko euskara zaharraz areago) denbora-sailketa bezain garrantzitsua da **ASPEKTU SAILKETA** hau.

Euskarazko **izan/edun** sailari (da, du), **BURURAGABEA** dagokio; oraindik ere aurrera doan fenomeno; eta, funtsean, «**ser/être**» dena.

Euskarazko ***edin/*ezan** sailari, berriz (daiteke, dezake) **BURURATUA** dagokio. Erdaraz esateko «devenir/devenir» esan ohi dena.


Hots, **gerta/eros** ekintzaren **bururatzeari** datxezkio, ***edin/*ezan** laguntzaileen ondoan.

Eta **gertatu-tzen-tuko/erosi-ten-iko**, alderantziz, **bururagabeari** datxezkio, izan/edun laguntzaileen ondoan.


Gerta/eros formek **bururaketa osoa** adierazten dute; **gertatu/erosi** formak, berriz, **denboratasunezko gorabeherak** nabarmentzeko erabiltzen dira.

Adibide batzuen bitartez agertuko da hau garbikienik:

Etxea zuria da (alegia: orain zuria da; eta zuria izaten jarraituko du. Izan horretan **ez dago** aldakuntzarik).




Etxea erosi du (alegia: erosi du; eta erostearen ondorioa hor ikusten dugu, eta aldakuntzarik ez dago).



Etxea eror daiteke (Honetan bai: honetan **aldakuntza** gaitza dago. Etxea zutik dago; baina eror daiteke, hain zuzen, egoera aldatuz).



Etxea eros dezake (Aldakuntza adierazten da, hain zuzen: etxea A-rena zen; eta orain B-rena izango da)



23.5 Aspectos perfecto e imperfecto en vasco.
– Aspects parfait et imparfait en basque.

23.51 Bi lehenengoan ezaugarria, Lafon-ek bezala esateko, «**iraupena**» da («durée»); eta bigarren bikotearen ezaugarria, berriz, «**bururaketa**», aldakuntzaren osoa («aboutissement»).

Lehenengoetan **DENBORA** senditzen da; bigarrenetan, berriz, **BILAKAERAREN OSOA**, **GANBIAMENDUA**, batetik bestera **ALDATZEA**.

Kondaira/kontzientzia bikoteari dagozkio ere, hein batez. Dubois-ek ongi dionez: «Le TEMPS fait allusion aux CARACTERES PROPRES du procès, indépendamment de la représentation du procès; L'ASPECT, par contre, affecte la REPRESENTATION que se fait le SUJET parlant du procès».

23.51 – Subjetividad / objetividad.
Ser y devenir.
– Subjektivité / objectivité.

23.52 Ondorio larriak ditu honek guztiak. Bai euskara-zaharrari buruz (liburu honetan, aztergai ez dena); bai gaurko Euskara Batuari buruz ere.

GAUR. Gutxi gora behera hau esan daiteke: **KONDAIRARI izan / edun** bikotea dagokiola; eta **USTETASUNARI**, berriz, ***edin / *ezan**. Hau baldintzetan ageri da (ikus «Oinarri Bila»); eta hemen aipatuko diren puntuetan ere bai. (Ohar hau egitan, berriro ere, **gaurko euskara** dugu gogoan).

23.6 **ANTZINA** Euskara Zaharrean, berriz, ondorio garrantzitsuak zituen ASPEKTUAK.

Eman ditzagun hemen, bi lerrokatutan, eta elkarren parean, **Leizarraga**ren aditz trinko edo sintetikoen araberako sailketa (ikus Lafon):


Oharra: edasi aditza, eta beste, bururagabe edo bururatu izan daitezke, kasuen arabera.

1	2
{ izan	{ *edin
{ edun	{ *ezan
ikusi	egin
egon	jarri
ibili	jaugin
iraun	ekarri
joan	eman
eduki	etorri
etzan	etxeki
jarin	edeki (=kendu)
jarraiki	eraman
edasi	erakarri
entzun	eman
eritzi	hil
ezagun	
jakin	
iharduki	
irudi	

Azter ditzagun bi aditz-ilara horiek ASPEKTUAREN aldetik. Baina, hasi baino lehenago, har ditzagun gogoan hiru eskema hauek:

eraso (= atacar / attaquer).

aditz honek **hasera** nabarmena du, eta gero aurrera doala dirudi:



etorri (= venir / venir).

Hemen, berriz, nunbaitik honera heldu, eta punturen batean ekintza **bukatu** egiten dela dirudi:



egon (= estar / rester).

Honetan, **ez hasera** nabarmenik dago, **ez bukaerarik** ere:



Hauxe da, hortaz, bi aditz-mordo horiek aztertzean egin behar dugun ikerbidea. Alegia: aditzaren **ASPEKTUARI** dagokiona.

Hots, hauxe ageri da garbiki:

1 saileko aditzak, eskema honen arabera direla:



- **egon** ondoren ere, areago egon daiteke
- **etzan** ondoren ere, areago etzan daiteke
- **entzun** ondoren ere, areago entzun daiteke.

2 Saileko aditzak, berriz, eskema honen arabera dira:



- **egin** ondoren, egina dago eginkizuna.
- **kendu** ondoren, kendua dago kenkizuna.
- **etorri** ondoren, ezinezkoa da areago etortzea.
- **eman** ondoren, ezinezkoa da ematea.

23.61 Hots, Lafonek erakutsi duenez, 1 saileko aditzek **orainaldi sintetikoa izan dute**, eta soil erabili; 2 sailekoek, berriz, **sintetikoa izan badute ere**, ez dute soil inoiz erabili.

Kakoa **ASPEKTUAN** datza.

Eta laburki bederen azalduko dugu.

Azkuiek berak argiro ikusi zuenez:

«Los verbos conjugables sirven para expresar **ideas momentáneas** (de presente); los verbos inconjugables **no tienen ideas momentáneas**, y no pueden expresarlas... No puede decirse «**llego**». Quien dice **llego** está **para llegar**, o ha **llegado** ya: si lo primero, sólo puede manifestar idea futura: **llegaré**; si lo segundo, sólo puede indicar idea pretérita: **he llegado**». (Morf., 509).

Hots: horixe da Lafon-en tesi nagusia «Système du verbe basque» liburu bikoitzean. **Aspektu bururatu**a duten aditzetan (= «aspect déterminé»):

1 **Orain-aldi soilik ez dagoela**; eta dagoen neurrian (adi, zaitez, eta abar) **agintekera** (eta etorkizunari buruz, hortaz) motakoa dela.

(h)ator = vén /viens (geroxeago, hortaz).

«Leurs formes simples de présent nu, ou bien ne sont **pas** employées, ou bien le sont pour exprimer non seulement le présent, mais le futur; parfois même **uniquement le futur** » (Lafon, Système, I, 27, 435).

2 **Lehen-aldi trinko** edo sintetikoan, igaro-aldian, eta **zeharo bukatutzat** eman daitekeen itxuran agertzen dela: **zetorren** = vino, vint

«Leur **prétérit simple** peut avoir la valeur non seulement de l'imparfait du français ou de l'espagnol. Mais aussi de leur **passé simple**; et parfois même n'a que **cette dernière valeur**» (Lafon, Système, I, 28).

3 Laguntzailezko jokoetan, **etorkizun-kutsua** hartzen dutela: **il aie** (= hil haute) = te matarán / its te tueront.

23.62 Alderantziz, **bukaerarik eskatzen ez** duten aditzetan, egoera hau zen aspaldiko mendeetan (eta oraintsu arte ere bai, dirudienez, bazterretako euskalkietan):

1 **Orain-aldi soila ba dago**; eta orain-aldi kutsua du:

dago = está / il reste

«Tous les verbes que expriment un **procès sans terme** possèdent de telles formes» (Lafon, Système, I, 435).

2 Lehen-aldi trinkoan, **bukatu gabeko** (= imperfecto/imparfait) delakoari dagokio:

zegoen = estaba / il restait

3 Laguntzailezko jokoetan, **etorkizun-kutsurik ez du hartzen:**

egon da = ha estado / il est resté.

eta ez = estará / il restera

23.7 -Ke atzikiaren funtzio berezia (aspaldiko mendeetan), eta abar, hemen alde batera utzita, zer dago gaur aspektuaren arazoaz?

Zer atxiki behar da Euskara Batuari dagokionez?

23.7 – Aspectos puntual y durativo.
– Aspects ponctuel et duratif.

23.71 Aditz **trinkoa** (= sintetikoa) dagoenean, **puntukaria** da (= puntual / ponctuel); **laguntzailezko jokoak**, aspaldiko mendeetan, bezala, **iraukaria** («durativo, duratif»):

– **ba noa** (= voy / je vais) (= orain, berehala, gaur...)

– **joaten naiz** (= suelo ir / je vais habituellement) (= askotan, hiru aldiz, maiz...)

23.72 Denboran barrena **nola** gertatzen den, eta abar, axola ez zaigunean; baina **osoki gertatzen** dela, **osoki** mamitzen dela **aldakuntza**, orduan ***edin** eta ***ezan** laguntzaileak erabiliko ditugu (**gaur**, eta pratikan = ahalezko, subjuntibozko, eta agintezko jokoetan):

– **eror bedi** (= caiga del todo)

– **eror haiteke**

– **eror daitezen** (beldur naiz)

23.73 **Atsotitzetan**, jakina denez, **beti** (= **denboratik at**) gertatu ohi diren gauzak aipatzen dira. Gisa denez, hortaz, eta ohitura zaharrari jarraituz, ***edin** eta ***ezan** -ezko jokoak hobetsiko dira (edo-ta, laguntzailerik gabeko aditz-erro **soilez** moldatutako esakuntzak):

«**medikuek senda ala sorgiñek, berdin balio du**» (Iraburu, Fontes n° 12, 1972, 343) («conforme a la filosofía paremiológica euskalduna expresada en cierto refrán que oí en el pueblo de mi madre»).

23.74 **Antzinako atsotitzetan**, nabarmena da joera hau:


- **illak agin zegian, biziak bere naia** (Isasti)
- **unaiak aserra zitean, gaztak ager zitean** (Isasti)
- **zahar nendin, zora nendin** (J. Bela)
- **onhets nezan haritza, iduri zekidan gorbitza** (Oihenarte)
- **jaiki zedin nagia suaren pitzera, ezar zezan etxea erratzera** (Oihenarte)

Alegia: «**cuando quiera que... / où que...**» **Noiz-nahi**, hitz batez; eta ez halako edo halako denbora - unetan bakarrik.

23.741 **Aditzak ematerakoan**, horretara, **denboratasunetik at** ematea da bidezkoena. Eta horrelaxe ematen zituzten erronkariarrek: **har** (eta ez hartu); eta abar. (Berek «**ar**» zioten, jakina).

«**Har**», «**gerta**», «**eros**», eta abar, beren horretan, aditzaren **adierazle** huts gertatzen dira:

har, gerta, eros



deboratik zeharo at.

23.75 Jatortzat eman behar da, horretara, bai **atsotitz** gisako esaeretan, bai **denboratik at** gertatzen diren egiak adieraztekotan, **aditz-erroa** (soil, ala ***edin/*ezan** aditzen

laguntzaz) erabiltzea:

– ororen nahiz, oro gal (Oihenarte).


Baita Axularren perpausa honetan:

– zure Etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethi ere izatu da euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek Zuregana laster, Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak, arraiki eta alegeraki errezibi, zuhurki kontseilla, kida, goberna eta burutan athera».

Gaur, jakina, -tu atzizkiaz esango genituzke aditz horiek: errezibitu, gidatu, gobernatu, eta abar.

23.76 Beste alor bat: **ipuinen kondaketa**. Ipuinetan (eta gauza bera mitologiako kondairetan) **gertatu izanak du munta** (**gerta**, hitz batez); eta ez horrenbestearaino **noiz** gertatu zen, eta gauza gertatzean **nola** mamitu zen gertaera. Mitologiako gertakarietako denbora **beste** denbora-mota bat dugu (= **tiempo primordial / temps primigène**); gure denboraz bestaldekoa. Hitz batez, **ipuinei** eta **mitologiako pasadizuei**, ez dagokie batere **gertatu** moldea, **gerta** moldea baizik. Sapisir hizkuntzalariak, eta bestek, azaltzen dutenez, berezketa hauxe aurkitzen da hizkuntza batzutan.

Leizarragak, horretara, Ebanjelioak euskaratu zituenean, honen arabera egin zuen. Gertakari horiei buruz hau esan baitaiteke:



Halako batez, **osoki** gertatu zirela. Eta horretara hau dugu:

- erran ziezoten
- erran ziezen
- aserre zedin
- ethor zedin
- ikhus zezan
- igan zedin

–ager zekion
–igor zezan.


Gaurko azterkeraz: erran zioten, erran zien, haserretu zen, etorri zen, eta abar, esango genuke.

23.761 Simetria osoa zegoen lehen, hortaz, **ethor zedin / ethor daite(ke)** aditz jokoen artean.

* etor dadi, ez da sekula esan; bai, ordea, behin eta berriz kapitulu honetan ikusi dugunez:

– etor dadin (+ N)
– etor dadila (+ LA)
– etor badadi (+ BA)

Eta honen azalpena, 22.6 puntuan eman dugu.



Konturatu orduko, **puntukari horrek, gerta daite(ke)-tik, batez, segundo batez, gerta zedin -era pasa beharko luke.** Hortaz: ez dago.

23.8

izan		*edin
edun		*ezan

Euskara zaharrean, zinez gotorra zen bi laguntzaile-bikoteen arteko barrera gorri hori. Gaur ere ba da; baina, orain ikusiko dugunez, ASPEKTUEN arteko desberdintasun guztizko hura, makaldu egin ad: «L'ancienne opposition d'aspect a fait place à une distinction modale, semblable à celle qui s'exprime dans les langues romanes» (Lafon, Système, II, 50). Baita aurreraxeago honela mintzo zaigularik: «Sur ce point, comme sur tant d'autres, l'opposition entre l'aspect déterminé et l'aspect indéterminé a disparu» (57).

23.81 Oso ongi agertzen da hau **-izan** aditzetan. Hona hemen zein hitzez amaitzen den Axular-en «Gero» famatua:

lainkoak hala nahi duela

Gaur, noski, «nahi dezala» esango genuke. Axularrek ez; autore zaharrek ere ez:


– (gure falta guziak) hala nahi dituan estali eta ohortze (= «veuilles aussi ensevelir nos fautes»). (Leizarraga) (ez «nahi ditzaan», alegia).

Ahal izan, ezin izan, nahi izan, aihur izan, beldur izan, eta abar, **izan**-en hildotik jokatzeko ziren; baita subjuntiboetan ere (den/duen); eta ez (dadin/dezan), hauek beste **aspektu**-koak zirelako.

Diferentzia hau, dena dela, arkaikotzat jo daiteke.

23.9 Gertakarien kondaira, hitz batez, **aditz-erroaz** baliatuz egiten zen; baita *edin/*ezan aditzen iraganez: **zedin / zezan**.

zedin/zezan



Gero galdu egin da esakera hori (edo ia-ia galdutzat eman daiteke; Urduliz/Barrika eskualdeko azken aztarnak kontutan ez hartzekotan bederen). Baina **kondakeraren funtsa atxiki da** gaur arte; eta trukea hau izan da:

gerta zedin { gertatu zen
gertatu da

eros zezan { erosi zuen
erosi du.

Hitz batez: **-tu** eta **-i** baliatuz.

23.91 Baserritarrek eta euskaraz ongi dakitenek horretara kondatzen dituzte pasadizuak:

– Joan **da...** atera **da...** esan **dio...** ekarri **dute...** eraman **dute**. edo-ta:

– joan **zen...** atera **zen...** esan **zion...** ekarri **zuten...** eraman **zuten**.

Bestela esatekotan: aditzaren ekintza **BURURATUA** da; eta **partizipioa** erabiltzen da.

Esate baterako:

«Ala zagolik, yoan zaio ondora mutiko kozkor bat, eta ain suerte txarrakin erran dio:»

«Bañan Lesakan **bazen** gizon bat, Ramon Sanjurjo, Zapaterua, Kordiona yotzen **zuna**. Arek **zun** pianoko Kordiona. Yoan naiz bere tallerrara, eta erran diot:» (Pepito Yantzi, Auspoa, 77-78; 19,29).

Baina, erdaraz ez baita horrela kondatzen:

– «llega entonces... sale... sube arriba... le dice...»

– «il arrive alors... il sort... il monte... il lui dit»... euskaraz ere ez!

Alegia, inguruko bi erderetan **orain-aldi bururagabea** erabiliak kondatzen baitira gertakariak, **kalko hutsa** egiten dute gaur kaletarrek eta euskaraz, ongi ez dakitenek; eta honela entzun arazten dizkigute kondairak:

– *iristen da orduan... irteten da... gora igotzen da... esaten dio.

Antzinako **aspektuak** gaurko errusieraren mailaraino-edo jasotzerik pentsatu ere gabe (nahiz, errusieraz, **gaur**, **sputnik** eta guzti, aspektuen ñabardurak bizi-bizirik egon), oraintxe arte **BURURATU GISA** kondatzeko euskal kerari eutsi behar zaio; **-tzen orain-aldiak erabat gaitzetsiz:**

– **iritsi da orduan... atera da... gora igo da... esan dio.**

Kaukaso hizkuntzetan ba dago biketa hau bizirik (Lafon, I, 506). Eta gure «gutxietsi-minak» kentzeko, hau irakur dezagun: «Le choix entre les deux **aspects**, indéterminé et déterminé, demeure l'une des difficultés les plus irréductibles de la **langue russe**» (Boyer).

Zalantzarik ez. Aspektuak gaur **ez du** euskaraz lehen (eta orain dela gutxi arte bazterretako euskalkietan) izan zuen garrantzia. Nahi ez badugu ere, frantsesaren eta espainieraren aztermoldeak kutsatu zaizkigu; eta, hau dela bide, geure **aspektu** zaharrak gehien-gehienik galdu ditugu; eta galdutzat eman beharra dago.

Aldamenean hizkuntza eslaboak izan bagenitu, gaur inork ez luke «ni nator» edo «nik dakart» esango; eta beste ñabardura

asko gordeko genuke, errusiarrek edo poloniarrek gorde dituzten bezala. Baina... joanak joan!

Kapitulu honetan, halere, **aspektua** gutxi gora-behera **zer izan zen** azaldu dugu (xehetasun gehiago nahi duenak, jo beza Lafon-en «Système» la); baita **gaurko euskaraz**, gure ustez, **atxiki daitekeen eta atxiki behar litzatekeen** partea. Geroak erranen!

24 INDIKATIBOA

24.1 Indikatibozko aditz-jokoak moldatzeko, bi bide ditu euskarak:

24.1	– Indicativo perifrástico e indicativo sintético. – Indicatif périphrastique et indicatif synthétique.
------	---

24.11 **Zenbait adizetan** (gero eta gutxiagotan; baina aspaldiko mendeetan ere multxo bat baino ez izanak) konjugazio **trinko** edo sintetikoa dago. Aurreko kapituluan esandakoak kontutan harturik, ba daude joko trinkoak:

dakit
zeturten
nago
dakarte
zerraikion

24.12 **Aditz guztietan** (baita aditz - joko trinkoa duten adizetan beretan ere), **laguntzailezko konjugazioa** dago:

jakin dut
etortzen zen
bazkaldu dugu
esan zioten
ekarri zizkiguten

Azter dezagun lehenabizikorik laguntzailez moldatzen diren aditz - jokoak.

24.2 Indikatibozko jokoak, aurretik esana dugunez, **BURURAGABE** bataiatu ditugun aditz-oinarriekin batera sortzen dira; eta **izan /edun** (= **da /du**) laguntzaileez osatzen.

urrundu da
urruntzen da
urrunduko da
saldu du
saltzen du
salduko du

urrundu zen
urruntzen zen
urrunduko zen
saldu zuen
saltzen zuen
salduko zuen

24.2	– Empleos normales del indicativo. Tiempo histórico. – Emplois normaux de l'indicatif. Temps historique.
------	---

24.21 Indikatiboan, eskuarki bederen, egiazko ekintza gertatzen da.

Honengatik diogu «eskuarki»:

a– **Egia orokorrak**, gaurko euskaraz batez ere, eta erdararen eraginez, gero eta gehiago indikatiboa erabiliz adieratzen direlako:

gizona fidatzen den lekuan, galtzen da (Atsotitz gisako esaera horretan ageri diren «fidatzen da» eta «galtzen da» aditzek, ez dute egiazko ekintzarik adierazten).

Euskara zaharrez, eta jatorkiago (aspektua errespetatuz, alegia), egia hori orokorra delako, honetara ere esan liteke: **gizona non fida, eta hantxe gal** (denborak ez baitu horretan parterik batere).

Hots, horixe da Oihenartengan topatzen duguna:

non fida, han gal

(Atsotitzak, 337).

b– **Ohiturazko ekintzak** adierazteko: kasu honetan ekintza ba dago, behin eta berriz berretua:

goizeko zortzietan gosaltzen dut

Beste kasuetan, eta eskuarki beraz, ekintza bat **kondairaren mailan obratzen denean, indikatiboa** erabiltzen da.

24.22 Aurreko kapituluan ere esan dugunez, konjugazio **trinkoa** duten aditzetan (**bili, egon, joan, etorri; jakin, eduki, ekarri, eraman**; eta galtzear dauden beste zenbaitetan), joko **trinkoa** «puntukaria» da; eta laguntzailezko **perifrastikoa**, berriz «iraunkaria».

Esate baterako:

zeturten / etorzen zen

Sailketa hau egin daiteke:

<p style="color: red; margin: 0;">zeturten</p> <p style="margin: 0;">atzo</p> <p style="margin: 0;">heranegun</p> <p style="margin: 0;">esandako orduan</p> <p style="margin: 0;">orduantxe</p> <p style="margin: 0;">Otsailaren 15-an</p>	<p style="font-size: 2em; margin: 0;"> </p>	<p style="color: red; margin: 0;">etortzen zen</p> <p style="margin: 0;">egunero</p> <p style="margin: 0;">goizero</p> <p style="margin: 0;">Bilbo-ra joaten zenean</p> <p style="margin: 0;">askotan</p> <p style="margin: 0;">maiz</p>
--	--	--

Konjugazio **trinkorik ez** duten aditzetan, ordea, nola adienaz aspektuzko diferentzia hori?


Konjugabide trinkorik ez duten aditzek, iraunkortasunik **gabeko** formak ematen dituzte, **orain-aldian** batez ere:

oraintxe saldu du

gaur saldu du


orain dela bi ordu saldu du

Eta iraunkortasuna bereziki erantsi nahi zaienean, **ari izan** aditzaz egiten da:



(orain) esaten ari da

(= ez du esatea oraindik bukatu)



(atzo) ikusten ari zen

(= ikustea ez zuen atzo bukatu)

Kasu honetan, oinarrizko aditza nolanhikoa izanagatik ere (**NOR / NORK**), aditz horri **-(z)en** erasten zaio, eta laguntzailea **NOR** bidetik jokatzen da:

erosten ari da
 ikusten ari naiz
 urruntzen ari ziren
 erortzen ari zinenean.

24.3 NOR laguntzailea

24.3 – Auxiliar (un solo elemento)
 – Auxiliaire (à un seul élément).

24.30 Bi joko nagusiak hauek dira:

(ni)	1	naiz	1	nintzen
(hi)	2	haiz	2	hintzen
(hura)	3	da	3	zen
(gu)	1	gara	1	ginen
(zu)	2	zara	2	zinen
(zuek)	2'	zarete	2'	zineten
(haiek)	3	dira	3'	ziren.

Bi joko hauek baliatuz, sei aditz-multzo atera daitezke:

a—erori naiz	he caído / je suis tombé
b—erortzen naiz	caigo / je tombe
c—eroriko naiz	caeré / je tomberai
d—erori nintzen	caí / je tombai
e—erortzen nintzen	caía/ je tombais
f—eroriko nintzen	caería / tomberais

Itzulpen horiek, berriro ere, **gutxi gora beherakoak** baizik ez dira ematen. **6.f, batez ere**, kontu hartzekoa da; ez baita, erdaraz bezala, baldintz - erantzunetan erabili behar (Ikus xehetasunak ikaskai honetan).

Noski: adizki edo aditz-joko hauetxen kideak aurki daitezke

NOR /NORK aditzetan:

a- saldu dut

b- saltzen dut

c- salduko dut

d- saldu nuen

e- saltzen nuen

f- salduko nuen.

Nola erants, ordea, -(t)zen eta -ko atzizkiak? Zer esan -(r)en eta -go(go) atzizkiez?

24.301 Aditz-izena eratzeko (saltze, eroste, edate, botatze, hiltze, ibiltze...), -(t)ze erantsi behar da (-(t)zen inesiboan). Noiz -te, eta noiz -tze?

Hau errazki erabakitzeiko, aditzaren erroa zein den ikusi behar da:

saldu → sal

erosi → eros

bota → bota

esan → esan

hil → hil

eta erro horri behar zaio -tzen / -ten erantsi. (Ikus 25.6 puntua).

Erroa bokalez bukatzen bada,

-tzen erantsi behar da:

puskatu	→	puska	→	puskatzen
baretu	→	bare	→	baretzen
mamitu	→	mami	→	mamitzen
erotu	→	ero	→	erotzen
burutu	→	buru	→	burutzen
erre	→	erre	→	erretzen
busti	→	busti	→	bustitzen
jaio	→	jaio	→	jaiotzen

– Erroa l edo r- z bukatzen bada, -tzen erantsi behar da:

itzuli	→	itzul	→	itzultzen
irauli	→	iraul	→	iraultzen
erori	→	eror	→	erortzen
isuri	→	isur	→	isurtzen
irakurri	→	irakur	→	irkurtzen
ekarri	→	ekar	→	ekartzen
hil	→	hil	→	hiltzen

– Erroa **z, s, tz, ts** -ez bukatzen bada,
-ten erantsi behar da:

erauzi	→	erauz	→	erauzten
erosi	→	eros	→	erosten
eritzi	→	eritz	→	eritzen
hauts	→	hauts	→	hausten

(**z = tz, s = ts**, honi buruz).– **Partizipioa -di, -ti, -gi, -ki** silabaz bukatzen bada, eta erroari begiratu gabe, **-tzen** erantsi behar da:

jaiki	→	jaik(i)	→	jaikitzen
atxiki	→	atxik(i)	→	atxikitzen
edoski	→	edoski	→	edoskitzen
busti	→	busti	→	bustitzen
sendi	→	sendi	→	senditzen
jalgi	→	jalgi	→	jalgitzen
erdi	→	erdi	→	erditzen

(25.653 puntuan ageri denez, lehenengo bien joera berezkontzat har daiteke).

– **Bai erroa bai partizipioa**, biak, **-n** -z bukatzen direnean,
-te- artizkia erantsi behar da:

esan	→	esan	→	esaten
eman	→	eman	→	ematen
egon	→	egon	→	egoten
etzan	→	etzan	→	etzaten

jasan → jasan → jasaten
 edan → edan → edaten
 jan → jan → jaten

(Zenbait euskalkitan, **-ite-** erasten dute; nahiz ez beti. Euskaltzaindiak ez du bere azken irizpidea erakutsi puntu honi buruz). Joera, dena dela:

(1) ez da orokorra

(2) ez da zaharra

Partizipioa -ni, eta erroa **-n**, dutenek, **-tzen** hartzen dute:

eskaini → eskain → eskaintzen
 ipini → ipin → ipintzen

Aspaldiko mendeetako berezkuntzak hartu beharrik ez dagoela deritzagu; eta, hortaz:

utzi → utz → uzten
 -erazi → -eraz → -erazten

24.301 – Obtención del sustantivo verbal.
 – Obtention du nom verbal.

24.302 Etorkizunezko aditz-oinarria, dakigunez, **-ko(-go)** eta **-(r)en** erantsiz egiten da:

etorri → etorriko
 esan → esango
 esan → esanen

Ageri denez, atziki horiek **partizipioari** erasten zaizkio; eta **ez erroari**.

Ohar bat aldez aurretik: Euskaltzaindiak gaur arte ez duela, honi buruz ere, bere azkeneko hitza esan.

Hemen proposatuko den bidea, beraz, euskal gramatikariengan eta euskal idazleengan topatzen diren joera nagusietan finkatuko da.

– **-i** eta **-tu** letrez bukatzen diren aditzetan, **-KO** erastea da usuena:

etorri	→	etorriko
itzuli	→	itzuliko
bazkaldu	→	bazkalduko
zoratu	→	zoratuko

Nahiz bazterretako euskalkietan (eta antzinako liburuetan gauza bera), **etorriren**, **itzuliren**, **zoraturen**, eta abar aurkitzen badira ere.

– **-n** letraz bukatzen direnetan, bi joerak maila berean bide daude; eta **biak ontzat** eman daitezkeela dirudi:

esan	→	esanen	/	esango
egon	→	egonen	/	egongo
jasan	→	jasanen	/	jasango
jan	→	janen	/	jango
edan	→	edanen	/	edango

Bigarrena hautatzekotan, **-go** hartuko da.

Erdibide hau ez gaitzesteko, gogoan har dezagun Zuberoako Urdatsen entzuten diren formak: **erranenko**, **jasanenko**, eta abar.

– **hil** aditzak, **ilgo** egiten du bizkaieraz; baina **hilko** onar daiteke.

– **a**, **e**, **o** bokalez bukatzen direnek, **-KO** hartzen dute:

bota	→	botako
gorde	→	gordeko
jo	→	joko

24.302 – Obtención del futuro verbal.
– Obtention du futur verbal.

24.3021 **Nora**-ko aditzek (**-ra** atzizkiak osatutakoek), funtsean bederen, eta oraintsu arte gertatu denaren arabera, **-tu gabe** egiten dute partizipioa:

– **etxera behar dugu**

– horra düzü (zubereraz)

– mendira ziren

(= mendiratu ziren)

Egoera horren azterna segurua da gure atera aditza:

– at igorri zituzten

– atera naiz

Geroaldia, hortaz, –rako atzizkiaren bidez egiten da:

– ifernurako zare (Axular)

– gogora zait (Axular)

– gogorako zion (Mendiburu)

– gertura zanean (Gerriko)

24.303 **Gogo-izan** aditza, **nahi-izan** edo **ohi-izan** bezalaxe, aditzarèn ondotik doa. Eta «*tener la intención de / avoir l'intention de*» adierazten du.

Hots, arrazoin fonetikoengatik, euskalki askotan «gogor» ek, «gor» eman duen bezalaxe; «gogo» horrek, «go» ematen du.

Bokalez amaitzen diren aditzetan, nahasketarik ez da sortzen:

etorriko naiz \neq etorri go naiz

salduko dut \neq saldu go dut

Baina **-n-z** amaitzen direnetan, nahasketa sortzen da:

joango naiz \neq joan go naiz

edango dut \neq edan go dut.


Hau dela-ta, euskaltzale batzuk proposamen hau egin dute Euskara Batuari buruz: **Kontsonantez** bukatutako aditzetan, beti **-en** erabiltzea:


joanen naiz \neq joan go naiz

edanen dut \neq edan go dut

Baina Euskaltzaindiak ez du oraingoz ezer erabaki: ez alde, ez aurka.

24.31 Gogoan har itzazu ondoko marrazkiok:





Azter ditzagun aurrenik lau «denbora» hauek.

1- «Urruntzen» aditzaren ekintza hori (= alejarse / s'éloigner) «urrun», egia esateko, eror edo gerta bezalaxe, **BURURAGABEA** da t_0 unean. «Urruntzen da» esaerak jatorrizko bere **iraunkortasuna** erdi galdua du («le présent basque a perdu la valeur durative qu'il a eue sans doute autrefois», Lafon, Système, II, 43); baina, **ari izan** erantsita ere, bere horretan gelditzen da gutxi gora-behera:

urruntzen da / urruntzen ari da

Denbora hau, hortaz, **orain-aldia** da, denborari dagokionez; eta **bururagabea** aspektuari dagokionez.

2- «Urruntzen» aditzaren ekintza, **BURURAGABEA** da; **ari izan** erantsiz garbiri agertzen denez:

urruntzen zen / urruntzen ari zen

Denbora hau, beraz, **lehen-aldia** da denboratasunari dagokionez; eta **bururagabea** aspektuaz.

3- Kasu honetan, aldiz, aditzaren ekintza **BURURATUA** da, bukatua, amaitua.

Gaur, halere, **osoki bukatua** dela adierazi nahi dugunean, **-a** erasten dugu:

urrundu da / urrundua da

Hein batez, «urrundurik dago» esango bagenu bezala.

Denbora hau, hortaz, **orain-aldia** da batetik, eta **bururatu** bestetik. «Il exprime qu'un résultat est acquis au moment où l'on parle» (Lafon, II, 64).

«Le participe indique un état résultant d'un changement, un état acquis; tandis que l'adjectif d'où il est tiré indique, sans plus, une qualité»

(Lafon, Système, II, 12)

4– Kasu honetan, bide beretik, aditzaren ekintza **BURURATUA** da. Baina bereziki markatu nahi denean, **-a** erasten da:

urrundu zen / urrundua zen

Hau ez da lehengo berbera baizik; baina **t₀**-puntua antzinakoa da, **t_a** hain zuzen, («prétérit du parfait», Lafon).



Denbora hau, hortaz, **lehen-aldia** da batetik, eta **bururatua** bestetik.

24.31 – Aspectos y tiempos en indicativo.
– Aspects et temps dans l'indicatif.

24.311 Irudi hau marraz daiteke, hortaz:

<div style="text-align: center; color: green; font-weight: bold;">DENBORA</div> <div style="text-align: left; color: red; font-weight: bold;">ASPEKTUA</div>	ORAIN– –ALDIA	LEHEN– –ALDIA
BURURAGABEA	urruntzen da	urruntzen zen
BURURATUA	urrundu da	urrundu zen

24.312 Matematikalarri amorratua izan gabe ere, eta **1, 2, 3, 4** irudiak kontutan hartuz, ba dirudi, **simetria**z, beste bi hauek aurkitu behar genituzkeela euskaraz:



Alegia:

5a: bururagabea, eta etorkizuna.

6a: bururatua, eta etorkizuna.

Aditz joko horiek, ba ahal daude?

Erantzuna hau da:

a Ba zeuden, Leizarraga-ren izkribuan batez ere.

b Galtzorian edo nahasturik badaude ere, **ba daude**

Ekialdeko euskalkietan (Inchauspe).

5a: urruntzen date

(= estará llegando / il sera en train d'arriver, nolabait itzultzekotan)


6a: urrundu date

(= habrá llegado / il sera arrivé / ohar berberaz).

Euskaltzaindiak **date / duke** sailak onartu baditu ere, perifrastiko hauetaz irizpiderik ez du eman. Semantika-ñabardura hau **ia galdutzat eman** daitekeenez gero, **5a eta 6a piztu beharra ez da garbiki ageri.**


Baina gure sistema lardaskatua dela garbi dago.

24.313 Bi denbora erdi-arkaiko horien ordez, beste bi hauek erabiltzen dira gaur:



Denbora txarnegu honetan, **etorkizun**-izaria ageri da; baina **aspektuaren arrastorik ez dago**: ez dakigu bururatua ala bururagabea denez.


«**Bihar urrunduko naiz**», halere, «bihar urruntzen naizate» da, izan (~5a)




Kasu! Denbora honetaz hau esan behar da: ez dela inondik ere **6a** zaharraren kidea. Guztiz desegokiro erabili ohi da, denaz gain.

Bere betekizuna hau du:

(gaur) esan du / (bihar) urrunduko dela



(heranegun) esan zuen / (gaur) urrunduko zela



Konpletiba hauetan, hortaz, **denbora-gune** bat hartzen da oinarritzat:

a perpausan, **O** unea da.

b perpausan, **t_a** unea da (iraganean)

Eta, denbora-gune hori **finkaturik**, horri buruz **etorkizunean** dagoen **bigarren une** bat aipatzen **da**. Lehenengoan da erabiltzen da, bigarreanean **zen**.

Adibidez:

(gaur) etorriko zinela / esan zenuen (atzo)

(bihar) etorriko zarela / esan duzu (gaur)

24.314 Ez da batere egokia gehiegitan eman ohi den itzulpen hau:

*-etorriko zela = que vendría / qu'il viendrait

Erdarazko hori **baldintza batekiko erantzuna ere** izan baitaiteke; eta **etorriko zela** ez baita inolako baldintzarekiko erantzuna (erdarakada nabarmenean baizik).

24.315 Nola esaten da gaur euskaraz **6a** eskemari dagokion ideia?

(= erdaraz: **se habrá alejado**).

Etsexeparek jatorki esan zuen:

Eria dauginean egia sojeri date, hartu duten plazer oro orduian iragan date (iragan date = iragana izango da; habrá pasado / sera passé)

Baina gaur guk?

-a izango da esan daiteke.

Arestian itzuli dugun bidetik:

iragana izango da.

para mañana habrá llegado:

= bihar iritsia izango da

(= bihar iritsi date)

24.316 Erdarazko «habrá pasado», «habrá sucedido», «se habrá caído», eta abar, **zalantzazko esaerak** ere izan daitezke: se habrá ido (nik uste)

Esaera hori: *joan izango da itzultzea, ez da oso euskalduna.

Zergatik ez, gure hizkuntzaren arabera:

– joan da antza

– joan bide da

* joan date bera ere, erdarakada iruditzen zait (eta baxenabarreraz eta zubereraz horrelakoak entzun daitezke).


24.317 Ohar garrantzitsu bat **aspektuei** dagokienez.

Aldera ditzagun, marrazkia eta guzti, bi aditz joko hauek:


a gertatu zen

b gerta zedin (arkaikoa)

Hauen irudiak hauek dira:



Eta aldera ditzagun, era berean, beste bi hauek:



Lafonek guztiz ongi dionez, eta **aspektuak ahuldu ala**, bi bikote horien arteko ñabardura suntsitu egiten da: «*les sujets parlants pouvaient sentir une certaine affinité entre les formes exprimant un **resultat** (gure a eta c), et les formes exprimant l'**aboutissement à un terme** (gure b eta d)*» (Lafon, II, 104) Eta, azkeneko mendeotan, páreketa hauek egin ditugu:

$$a = b$$

$$c = d$$

Baina hautaketan, BAT-en deklinabidean bezalatsu, hautaketa «txarnegua» egin dugu.

a = b berdinkuntzan, **a** hautatu dugu (aspektuari dagokionez, **bururagabea** hautatuz):

gertatu zen

c = d berdinkuntzan, berriz, **d** hautatu dugu; aspektuari dagokionez, **bururatua** hautatuz:

gerta daiteke

Eta XVI mendean aditzak zeukan oreka harrigarria, galdu egin dugu.

Hona hemen, **soilik** batean edo **laguntzaile** gisa bestean, date horren erabilkera zuzenaren adibide bana:

– **bere sehi datena** (Haraneder)

(= bere sehi(a) izango dena = quien **será** su criado / celui qui **sera** son serviteur)

– **egin datenean** (Haraneder)

(= egina izango denean =


= cuando **habrá sido** hecho /

/ lorsqu'il **aura été** fait).

24.317 – Desaparición del equilibrio verbal del siglo XVI.
– Désapparition de l'équilibre originaire, existant encore au XVIème. siècle.


24.3171 Aurreko lerroetan ageri denez, euskaraz **aspektuak** zeukan errotikako garrantzia, galdu egin da. Errusieraz bezalaxe, euskarak ba zituen, elkarren osatzaile eta ukatzaile, **izan / edun** bikotea batetik (**denboran zehar** aztertutako ekintzak adierazteko), eta ***edin/*ezan** bikotea bestetik (**aldakuntza osoak** adierazteko aditz **puntukariak**).

Eros zezan aditzak, horretara, itxura hau zuen:



eta «aoristo»tzat jo daiteke (= compró / il acheta).

Erosi zuen aditzak, berriz, itxura hau zuen:



Alegia, t_a unerako **erosia** zeukala, **erosirik** zeukala; eta, alde honetatik, **bukatua** zela erosketa hura.

Nabardura hau mehea izanik, biak nahastu egin dira.

Gauza bera: **erosi duke / eros dezake** aditzen artean, azaldu dugunez.

Funtsean, hitz batez, **orain-aldian eta lehen-aldian** batez **ere** (beste zenbait hizkuntzatan gertatu den bezalaxe) antzinako **aspektuak**, antzaldaturik ere, **zutik** gelditu dira (ikus 24.311). Baina euskarak horretarako zeukan morfologi-berezitasun guztizkoa:

gerta zedin	eros zezan
gerta daite	eros dezake

ezabatu egin da. Gure aditza, hizkuntza erromanikoen arabera, «denbora-kortu» eginda.

Gerta zedin / eros zezan, gaur **subjuntibotzat** erabiltzen ditugu (ikus ondoko kapitulua).

Eta **gerta daiteke / eros dezake** aditzak, ahalezko jokotzat (ikus 26. ikaskaia).

Jatorriz zeukaten adiera (= ekintza **osoki eta bururaino**

gertatua zela adieraztea), aldatu egin da; nahiz **puntukari** (alegia, denboratasunezko xehetasunetatik at) gelditu.

24.318 Euskaltzaindiak, dena dela, date sail zaharra onartu du:

- 1- naizateke
- 2- haizateke
- 3- dateke
- 1- garateke
- 2- zarateke
- 2'- zaratekete
- 3- dirateke

Hau ez da, inolaz ere, **naiteke** ahalezkoaren anaia bizkia, eta ez horrelakorik ezer.

Naizateke = izango naiz. **Izan** sailekoa da (BURURAGABE) eta ez da **inolaz ere** aditz-erroaz erabiltzen:

- itzultzen naizate(ke)
- itzuli naizate(ke)
- itzuliko naizate(ke)

Hirurak, dena dela, oso xaharkituak. Egunero erabiltzea, «vos veredes» erdaraz esatea bezalakoa litzateke!

Naiteke berriz, ***edin** sailekoa da; eta **aditz-erroaz** erabiltzen da. Hitz batez: **BURURATUA da**, aspektuari dagokionez.

24.319 **NOR** / **NORI** elementuak izatekotan, hona hemen eskema:

	NOR			NORI	
1-	na	tzai	---	T	
2-	ha	tzai	---	K/N	
3-	—	zai	---	O	
1-	ga	tzai	zki	GU	
2-	za	tzai	zki	ZU	
2'-	za	tzai	zki	ZUE	te
3-	—	zai	zki	E	

Adibidez:

(ni hari) hurbildu natzai
 (hura zuri) erori -zaizu
 (gu haiei) hurbildu gatzaiakie
 (haiek hiri) erori -zaizkik / -zaizkin

Oharra: Orain, eta aditz guztian barrena, atzetik edozein atzizki datorrenean, aldakuntza hauek ditugu:

T → da
 K → a
 N → na
 zaizkit → zaizkidalako
 zatzaizkidate
 natzaik → natzaialako
 gatzaiakin → gatzaiakinala

Eta, bide beretik:

	NOR			NORI	
1-	nin	tzai	---	T	n
2-	hin	tzai	---	K/N	n
3-	zi	tzai	---	O	n
1-	gin	tzai	zki	GU	n
2-	zin	tzai	zki	ZU	n
2'-	zin	tzai	zki	ZUE	te n
3-	zi	tzai	zki	E	n

(ni hari) hurbildu nintzaion
 (hura zuri) erori zitzaizun
 (gu haiei) hurbildu gintzaizkien
 (haiek hiri) erori zitzaizkian / nan

24.319 – Presente (dos elementos).
 – Présent (deux éléments).
 – Pasado / passé (2 élem.).

24.3191 Atzizkiak erasterakoan, gogoan har -n errelatiiboaren

- erasketari buruz aipatu diren erregelak (15. ikaskaia):
 (15.22)– zaidala, dudalako, didanean, zainala...
 (15.23)– naizelako, haizenean...
 (15.25)– dituelarik, duenean...
 (15.26)– denean, garela, zarelako...
 (15.27)– diogula, dizula, zaizuean...
 Eta abar.


24.4 NOR / NORK laguntzailea


24.4 – Presente y pasado (auxiliar transitivo, 2 elementos).
 – Présent et passé (auxiliaire transitif, deux éléments).

24.411 Bi joko nagusiak hauek dira:

(nik)	1- dut	1- nuen
(hik)	2- duk/n	2- huen
(hark)	3- du	3- zuen
(guk)	1- dugu	1- genuen
(zuk)	2- duzu	2- zenuen
(zuek)	2'- duzue	2'- zenuten
(haiek)	3- dute	3- zuten

Eta, lehen esandakoaren bide beretik, **sei** aditz-multzorik sor daitezke:






Lau joko hauen azterketa eginez, hau dugu:

DENBORA ASPEKTUA	ORAIN- -ALDIA	LEHEN- -ALDIA
BURURAGABEA	erosten du	erosten zuen
BURURATUA	erosi du	erosi zuen

24.412 **Edun, izan**-en kide igarokaria izanik, lehen esandako guztia berresan daiteke:




5a = **erosten duke**
(= estará comprando / il sera en train d'acheter)

6a = **erosi duke**
(= habrá comprado / il aura déjà acheté).

Biok, gaur, ia guztiz ahantzirik (Ekialdeko euskalkietan izan ezik).

24.413 Zer esango **erosiko du** eta **erosiko zuen** jokoez?
Guztiz **urrunduko da / urrunduko zen** bikoteaz esandako gauza berbera.

24.414 Gauza bera, bereziki, **24.317**-an esandakoari buruz:



Aspektuen araberako azterkera ahuldu ala, berdinketa hauek gertatu dira:

$$a = b$$

$$c = d$$

Eta, **hautaketa nahasian**, hau dugu:

$a = b \rightarrow$ **BURURAGABEA** hautatu:
igorri zuen

$c = d \rightarrow$ **BURURATUA** hautatu:
igor dezake

24.415 24.41 puntuan **NORK/HURA** bakarrik eman dugu. Aditz-joko osoa hau da, ordea:

Orain-aldia:

	NOR			NORK
1-	na	—	u	T
2-	ha	—	u	K/N
3-	d	—	u	—
1-	ga	it	u	GU
2-	za	it	u	ZU
2'-	za	it	u zte	ZUE
3-	d	it	u	TE

Oharrak = a Bihurkariak (ikus 16. ikaskaia), -re burua erantsiz egiten dira:

nik neurre burua bota dut

guk geure burua ezagutzen dugu

b tu + te = tuzte (aditz guztian barrena)

Erabilkera:

(zuk ni) eramaten nauzu

(nik hi) maite haut

(zuek gu) ikusi gaituzue

(hark zu) salatu zaitu-

Lehen-aldia:

	NOR	NORK	
1-	nind u	T	N
2-	hind u	K/N	N
3-	(irreg.)	-	N
1-	gint u	GU	N
2-	zint u	ZU	N
2'-	zint u zte	ZUE	N
3-	(irreg.)	TE	N

Erabilkera:

(zuk ni) eramán ninduzu n

(nik hi) maite hinduda n

(zuek gu) ikusi gintuzue n

(hark zu) salatu zintu- (e)n

Eta hura-haiek / NORK:

	NORK	NOR		
1-	N ^s	-	u	en
2-	H	-	u	en
3-	Z	-	u	en
1-	GEN	-	u	en
2-	ZEN	-	u	n
2'-	ZEN	-	u	TE n
3-	Z	it	u	TE en

Erabilkera:

(hura nik)	saldu	n-uen
(hura hik)	saldu	h-uen
(haiek hark)	saldu	zitu <u>e</u> n
(haiek zuek)	saldu	zenituzte <u>n</u>

24.415 – Auxiliar (tres elementos)
– Auxiliaire (trois éléments).

24.4151 **NOR** / **NORI** / **NORK** adizkiak

Orain-aldia:

	NOR	NORI	NORK
1-	_____	T	T
2-	_____	K/N	K/N
3-	d i —	O	—
1-	_____	GU	GU
2-	_____	ZU	ZU
2'-	_____	ZUE	ZUE
3-	d i zki	E	TE

Oharra: 1, 2, 2', pertsonak, nahiz antzinako mendeetan erabiliak (= garauzkiote, ...) ez dira Euskara Batuan onartu.

Lehen-aldia:

	NORK		NOR		NORI	
1-	N	i	—		T	n
2-	H	i	—		K/N	n
3-	Z	i	—		O	n
1-	GEN	i	—		GU	n
2-	ZEN	i	—		ZU	n
2'-	ZEN	i	—		ZUE	TE n
3-	Z	i	zki		E	TE n

Adibidez:

guk hari hura	}	diogu
	}	geni-on
zuk guri haiek	}	dizkiguzu
	}	zenizkigun

24.416 Euskaltzaindiak gero-aldi zaharra onartu du Euskara Batuan:

	NOR				NORK
1-	na	—	u	ke	T
2-	ha	—	u	ke	K/N
3-	d	—	u	ke	—
1-	ga	it	u (z)	ke	GU
2-	za	it	u (z)	ke	ZU
2'-	za	it	u (z)	ke te	ZUE
3-	d	it	u (z)	ke	TE

Erabilkera:

(nik hura)	erosi	duket
(zuk haiek)	ikusi	dituzkezu
(hark ni)	ikusi	nauke—

Kontuz: aditz hau oso gutxitan erabiltzen da (Ekialdeko euskalkietan hura norkiarekin ez bada). Zorakeria litzateke kolpez leku guztietan orain topatzea.

Nolanahi ere:

duket = izango dut. **Edun** sailekoa da (BURURAGABEA); etd ez da inolaz ere aditz-erroaz erabiltzen:

erosten duke
erosi duke
erosiko duke

Hirurak, dena dela, joko bitxi gaur.

Dezaket saila, *ezan-etik dator; eta hau bai, hau erroaz erabiltzen da. Hitz`batez: **Dezaket** saila **BURURATUA** da, aspektuari dagokionez.

24.416 – Futuro arcaico.
– Futur archaïque.

24.417 **duket** sail honek **NOR/NORI/NORK** jokorik ez du.

	1 ^a	2 ^a	3 ^a	4 ^a	5 ^a	6 ^a
1 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket
2 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket
3 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket
4 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket
5 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket
6 ^a	duket	duket	duket	duket	duket	duket

25 SUBJUNTIBOA

25.1 Aurreko ikaskaian bezala, ohar hau egin behar da hasi aurretik: zenbait aditzetan (gero eta gutxiagotan), **-n** erantsiz, subjuntibozko joko trinkoak lor daitezkeela:

den
datorren
dabilen
dakarten

Gero eta maizago, ordea, subjuntibo **perifrastikoak** erabiltzen dira; baita laguntzailerik gabeko jokoak izan zitzaizketenetan ere:

etor dadin
ibil dadin
ekar dezaten

25.1 –El antiguo subjuntivo por medio del sufijo n (conservado en el verbo sintético) ya no existe en el vasco actual; excepto en los dialectos laterales (25.11 y .12).
–Le vieil subjonctif, que'on obtenait para suffixation de n (et qui se conserve dans le verbe synthétique), n'existe plus en basque actuel; sauf dans les dialectes latéraux (voir 25.11 et. 12).

25.11 Nahiz funtsean, aldrebeskeria osoa izan izan/*edin eta edun/*ezan aditzak nahastea, gaurko euskaraz horrela egiten da:

den → izan dadin
diren → izan daitezen
duen → izan dezan
duzuen → izan dezazuen

Azentuaren aldetik eman digun argitasunarengatik ospatsu bihurtu den esaldia:

elizá ezten eliza (Leizarraga)
beste honetara esango genuke gaur:

eliza hori benetako eliza izan ez dadin

edo horrelako zerbait; «den» hartan ez baitugu gaur subjuntiborik somatzen (erdialdeko euskaldunok batez ere).

25.12 Ekialdeko euskalkietan ez da gauza bera gertatzen; eta puntu honetan, beste askotan bezala, hobeki gorde da antzinako moldea (nahiz **dugun/dezagun** batzutan nahasiz) beste lekutan baino.

Hona hemen, adibidez, eta **zubererari dagokionez, XIX. mendeko «Kantika espiritualak»** liburutik hartutako etsenplu batzu:

– «izan zitie zühürrago,
etzüzien orok ber mallürra»

(horra hor biok: izan zitie / düzien (= duzuen))

– «debozioniaz gorthürik
den bethi gure bihotza» (= izan dadin)

– «dien Aitak eta Semiak
gloria lekhü orotan» (= izan dezaten)
(dien, S = duten, c)

25.2 Subjuntiboaren ezaugarri nagusia hauxe da: **helburua adieraztea**. Erdaraz, hortaz, «**para que / pour que**» dagokio. Eta, Lafitte-ren hitzez azaltzeko, «**généralement le subjonctif traduit suffisamment le but par lui même**» (Grammaire, 397). Honek berak markatzen ditu, hortaz, subjuntiboaren oinarriak.

25.2 –El subjuntivo sirve para marcar una finalidad.
 Aspecto perfecto.
 –Le subjonctif sert foncièrement à marquer un but.
 aspect parfait.

25.21 Aspektuari dagokionez, eta zerbait **osoki gertatzea** nahi baldin badugu (osoki **gerta dadin** hobeki esana, subjuntiboari buruzko ikaskaian batez ere!), bigarren mailan jartzen dugu **denboran barrena nola** obratuko den xede edo helburu hori; eta osoki gertatuko dela segurtaturik ikusi nahi dugu. **Subjuntiboa**, horretara, **BURURATUA** da aspektuari dagokionez; eta ***edin / *ezan** laguntzaileez eratzen da:

hurbil zedin
 eror daitezen
 eros nezan
 sal diezaioten

BURURATUA izanik, **aditz-erroa** erabiliko da (-i eta -tu gabe, ondoko pasartean azaltzen denaren arabera); eta **ez partizipioa**. Nahiz gaurko bizkaieraz, eta gipuzkeraz ere hor nunbait, urrezko erregelak hau galdu xamar egoñ, Euskara Batuan oinarritzat hartua izan da (ikus Arantzazuko Txostena, 1968, II. 5. 8. e).

25.22 Gauzak hobeki ulertzeko, gogoan har ezazu ondoko taula hau:

*edin	zedin	*dadi	daite
*ezan	zezan	*deza	dezake
	t_a	t_0	t_g

Jakina: daite \leq da(d)ite. Eta arrazoin osoa du berriz Azkuek **dadin** «presente» tzat eta **daiten** «futuro» tzat jotzen dituenear.

Taula horretan agertzen den oreka (ia-ia osoa Leizarraga-ren «Testamentu»an), galdua da geroztik; guttiz galdu ez bada ere.

a) **zedin/zezan** bikoteak «sucedió del todo» adierazten zuen, behin eta berriz esan dugunez. Eta **osoki** eta **antzinatasunean** gertatutakoei ezarri zitzaielako, geroago subjuntibo bihurtu da:

gerta zedin { **(lehen)** sucedió una vez del todo / il arriva
entièrement une fois
(orain) para que sucediese del todo/pour qu'il
arrivât entièrement.

sal zezan { **(lehen)** vendió un buen día del todo/il vendit une
fois pour toutes.
(orain) para que lo vendiese, del todo/pour qu'il le
vendît une fois.

b) *dadi / *deza bikotea, **soilik**, ez da sekula erabili: ez aspaldiko denboretan (literaturaren bidez jakin dezakegunez, bederen), eta ez gaur ere.

Ba dago, ordea, -n, -la, eta ba- aurrizki edo atzizkiekin:

dadin	dezan
dadila	dezala
badadi	badeza

Hots, nabarmen denez, eta Azkuek berak xuxen ikusi zuenez (ikus, berriro, liburu honetantxe, 23.22 puntuan azaldu duguna), **dadin**, **dadila**, **badadi** / **dezan**, **dezala**, **badeza** aditz-jokoek gero-kutsua dute (erdarazko itzulpenetan bezala):

etor badadi (= si viene, si viene luego, si viene más tarde, mañana, etc/s'il vient, s'il vient après, plus tard, demain, etc)

eros dezan (= que compre, para que compre: luego, mañana, el mes que viene / qu'il achète, pour qu'il achète: après, demain, le mois prochain).

Hurbil dadin gizona, horretara, hau izanik ere:

A) **hurbil dadin-n gizona**

eta guttiz ondoko honen kide:

B) **hurbiltzen de-n gizona**

Lafonek oso ondo azaldu duenez, gero-kutsua eta guzti (eta horrengatik, bizkaieraz batez ere, **dadin/daiten** nahasiak), subjuntibozko orain-aldi bihurtu da; eta bere xede-funtzioa galdu gabe, honela itzul daiteke:

hurbil dadin (= para que venga/
pour qu'il vienne)
eros dezan (= para que venda/
pour qu'il vende)

25.23 Orain arte esan duguna esanik, garbi ageri da gauza bat: aditz-joko horiek, gaurko euskaraz, **subjuntibo**-balioa hartu dutela: **helburuak** markatzea. Indikatiboan **benetako ekintzak** baldin badaude ere, subjuntiboan ez dago horrelakorik: hain zuzen ere **helburua** bete dadin nahi dugu (edota bete zedin nahi genuen). **Indikatibo / subjuntibo** oposizioa, horretara, **da / uste dut**—en artekoa da: **objektibitatea / subjektibitatea; kondaira/iritzia; gauzatasuna / nitasuna**; eta beste honelako hamaika ere bai.

25.3 Noiz erabil subjuntiboa?
Ontzat eman daiteke Lafittek ematen duen arrazoin-hirukotea:

25.3	–Se expone, por grupos, la lista de verbos que rigen subjuntivo. –On expose, par groupes, la liste des verbes qui exigent le subjonctif
------	--

25.31 **Nahi-izan** aditzaren menpean datozen aditzak (**nahi** dut, **agintzen** dut, **desiratzen** dut, **otoizten** dut, ...), nahiz erdarazko lotura **que** izan (konpletiba hutsetan bezalaxe), euskaraz **subjuntiboan** jartzen dira, eta **–n –z** beraz:

- bihar etor zaitezten nahi dut
- etxea sal dezazun nahi dute
- tirorik bota ez zezaten agindu zuen
- joan gaitezen manatu du

Gauza bat da **–la** eta beste bat **–n**, kasu hauetan bezala:
– Joanes etorri da (=horra hor kondairaren mailan gertatu dena).

Eta, hortaz:

- Joanes etorri de-la esan digute.

Bide beretik:

– Mendingian elurra ari zuen

(= horra hor beste kondaira-gertakari bat).

Eta, hortaz:

– Mendingian elurra ari zue-la jakin genuen

Borondateari datxezkion aditz-joko horietan, aldiz, aipatzen diren ekintzak **ez dira kondaira mailakoak**:

etor zaitezten = ez zarete etorri

sal dezazun = ez duzu oraindik saldu

bota ez zezaten = oraindik botatzen ari ziren

joan gaitezen = oraindik joan ez garen seinale.

Hitz batez, **aipatzen den ekintza ez da, eskatzen den arabera, mamitu.**

–la eta –n atzizkiek **betekizun desberdinak** dituzte.

Baina, gero eta gehiago, **erd. que = eusk. la** onartuz (eta hau, berriz ere, euskal jitearen aurkako kalko hutsa baizik ez da), esakera hauek entzun daitezke:

etor zaitezela

sal dezazula

bota ez zezaiela

joan gaitezela

Molde jatorra, zalantzarik gabe, –n duena da; eta bizirik dago oraindik ere euskalki askotan.

25.32 **Beldur-izan** aditzaren menpeko aditzak (**lotsa** naiz, **beldur** naiz,...)

– **lotsa** naiz gerta dadin

– **beldur** da tiro bat bota diezaioten

25.321 Iparraldean, honi gagozkiolarik, esakera jator bat aipatu beharra dago:

– (aditz erroa) **beldurrez**

Adibidez:

– (esandakoa) gerta **beldurrez**

– (erosi zuena) gal **beldurrez**

– (alaba) harrapa **beldurrez**

Gauza bera zubererazko hau:

esperantxa düt ikhus zelüko gloria

(= ikus dezadan).

Agiria denez, esaera hauek daude oinarrian:

- gerta (dadin) beldur (delako)
- gal (zedin) beldur (zelako)
- harrapa (dezaten) beldur (direlako)

25.33 Lafitte-ren bidetik beti, **debekatu** motako aditzen ondotik (**begiratu**, ...)

– **hori hauts ez dezan debekatu diot**

(= para que no... /pour qu'il ne...)

Hiruotan, hitz batez, **eskatzen dena ez da oraindik obratu**; baina **nahiaren** arabera gertatzea nahi litzateke.

25.4 Gero eta maizago, jokaturako subjuntibo horren ordeaz («zaila dela bide?..»), **-t(z)ea** eta **-t(z)eko** erabiltzen dira:

- **zuek bihar etortzea nahi dut**
- **zuk etxea saltzea nahi dute**
- **tirorik ez botatzeko agindu zuen**
- **joateko manatu du**


Joera hau gaitzesteko arrazoinik ez dago; nahiz aditz jokatuak duen xehetasunik infinitibo edo aditz-izen hauen bitartez ezin eman.

25.4 –Subjuntivo simplificado, sin flexiones personales.
–Subjonctif simplifié, sans flexions personnelles.

25.5 Aspektuari buruz jadanik azaldua dagoena kontutan hartuz, gogoan har ditzagun lau perpausa hauek:

- **hurbil gaitezen etxera**
- **sal dezagun txalupa**
- **goazen hemendik**
- **demagun hala dela**

Lau subjuntibo horiei dagokien irudia hauxe da:



Alegia: **obra dezagun, burura dezagun, buka dezagun osoki,** aipatzen den ekintza.

Helburuak, hitz batez, hauek dira:

- **berehala** gu etxean egotea
- **berehala** guk txalupa salduta izatea
- **berehala** beste nunbait gu egotea
- **berehala** guk uste edo iritzi hori ontzat eman; eta arrazoinbidean barrena jarraitzea.

Hitz batez:

hurbil gaitezen eta hurbil zaitez anaia bizkiak dira.

Lehenengo pertsonatan, hortaz, agintekerarik ez dagoenez gero, **subjuntiboa** erabil daiteke:

- **puska dezagun**
- **konpon dezagun**
- **eraman zaitzagun orain**

25.5 –El subjuntivo es de aspecto perfecto.
–Le subjontif est un parfait, du point de vue de l'aspect.

25.51 Kasu hauetan, **aurretik** joan daiteke laguntzailea:

- **ditzagun gal eta honda**
- **dezagun esan**
- **gaitezen itzul**

25.6 Subjuntiboarekin, esan dugunez, **–tu** eta **–i** kentzen dira:

- **gal dezazun**
- **itzul daitezen**

Beti ez da erraza, halere, zer ken daitekeen erabakitzea:

25.6 –Modo de obtener el radical.
–Facon d'obtenir le radical.

25.61 –tu (= –du) atzikiak amaitzen diren partizipioetan, berori kentzen da:

- ken ditzagun
- sar daitezten
- puska dezazuen

25.62 –n atzikiak amaitzen direnak, ez dira ezertan aldatzen:

- esan dezazun
- eramán gaitzaten
- egon zaitezten

25.63 –a, –e, –o, –l, edo beste, amaitzen direnak ere, ez dira aldatzen:

- bota gaitzazuen
- jaso ditzagun
- hil dadin

Hona hemen lerrokada bat:

–a –ra (atera, lurrera, etxera...)

- bota
- gusta
- pasa

–e –ase

- bete
- erre
- gorde

–o –eho

- jaio
- igo
- jo
- ito

25.64 Ez dira aldatzen, era berean; edo, hobeki esateko, aurretik doan hitza bere horretan uzten dute, **-izan** edo **-egin** laguntzaileez jokutzen diren aditzek:

beldur izan

opa izan

nahi izan

barre egin

eztul egin

negar egin

eta gainerako horiek.

25.65 **i** hizkia amaitzen direnetan, berriz, zenbait azpimultzo egin behar da.

25.651 **-li, -ni, -ri, -rri** silabaz bukatzen direnetan, **-i** kentzen da:

itzuli	→	itzul
irauli	→	iraul
eskaini	→	eskain
ipini	→	ipin
erori	→	eror
isuri	→	isur
irakurri	→	irakur
ekarri	→	ekar

25.652 **-zi, -si, -tzi, -tsi** silabaz bukatzen direnetan, era berean, **-i** kentzen da:

erauzi	→	erauz
hazi	→	haz
hasi	→	has
erosi	→	eros
eritzi	→	eritz
egotzi	→	egotz
hautsi	→	hauts
hetsi	→	hets

25.653 (bokale +ki) amaitzen direnetan, –i ken daiteke; beti kentzen ez bada ere:

jaiki	→	jaik
iguriki	→	igurik
atxiki	→	atxik
aurtiki	→	aurtik
etxekei	→	etxek

25.654 (kontsonante + di, ti, gi, ki) amaitzen direnetan, beren horretan gelditzen dira:

edoski	→	edoski
iraungi	→	iraungi
busti	→	busti
hunki	→	hunki
sendi	→	sendi
jalgi	→	jalgi
erdi	→	erdi

25.655 Aspaldiko denboretan, berezkuntza batzu gertatzen ziren (gaur bazterretako euskalkietan atxikiak):

utzi	→	utzi
–erazi	→	–erazi

Berezkuntza hauei zertan eutsi beharrik ez dago, gure ustez.

25.7 NOR aditzaren subjuntiboa.

25.7 /25.9 –Paradigmas del auxiliar (1, 2 y 3 elementos).
–Paradigmes de l'auxiliaire (à 1, 2 et 3 éléments).

25.71 Hona hemen bi joko nagusiak:

1- nadin	1- nendin
2- hadin	2- hendin
3- dadin	3- zedin
1- gaitezen	1- gintezen
2- zaitezen	2- zintezen
2'- zaitezten	2'- zintezten
3- daitezen	3- zitezen

(naiten (= naditen) saila ez da sartu)

– hurbil nadin

– eror daitezen

Erdal itzulpena hau da:

(para) que yo me acerque / (pour) que j'approche

(para) que se caigan / (pour) qu'ils tombent.

25.72 **NOR** / **NORI** taula hauxe da:

	NOR			NORI	
1-	na	ki	—	T	n
2-	ha	ki	—	K/N	n
3-	da	ki	—	O	n
1-	ga	ki	zki	GU	n
2-	za	ki	zki	ZU	n
2'-	za	ki	zki	ZUE	te n
3-	da	ki	zki	E	n

(hura niri) eror da kida n

(haiek zuri) eror da kizkizu n

(ni hiri) hurbil nakia n/nakina n

(gu zuei) hurbil ga kizkzue n

Eta, bide beretik:

	NOR			NORI	
1-	nen	ki	—	T	n
2-	hen	ki	—	K/N	n
3-	ze	ki	—	O	n
1-	gen	ki	zki	GU	n
2-	zen	ki	zki	ZU	n
2'-	zen	ki	zki	ZUE	n
3-	ze	ki	zki	E	n


(hura niri) eror zeki dan
 (haiek zuri) eror zeki zkizun
 (ni hiri) hurbil nenki an/ nan
 (gu zuei) hurbil genkizkizuen

25.8 NOR / NORK aditzaren subjuntiboa

25.81 Hona hemen bi jokorik xiri npleenak:

- | | |
|---------------|---------------|
| 1- dezadan | 1- nezan |
| 2- dezaan/nan | 2- hezan |
| 3- dezan | 3- zezan |
| 1- dezagun | 1- genezan |
| 2- dezazun | 2- zenezan |
| 2'- dezazuen | 2'- zenezaten |
| 3- dezaten | 3- zezaten |

eros dezadan
 sal dezazuen
 jan zenezaten
 bota zezaten



25.82 Hona hemen **NOR** / **NORK** osoa.

Orain-aldia.

	NOR			NORK	
1-	na	—	za	T	n
2-	ha	—	za	K/N	n
3-	de	—	za	—	n
1-	ga	it	za	GU	n
2-	za	it	za	ZU	n
2'-	za	it	za te	ZUE	n
3-	d	it	za	TE	n

Erabilkera:

- (zukni) salna zazun
- (nikhura) salde zadan
- (gukzu) salzait zagun
- (harkhaiek) sal dit za-n

Lehen-aldia (bi partetan eman beharra)

	NOR	NORK	
1-	nintza	T	n
2-	hintza	K/N	n
3-	(irreg.)	—	n
1-	gintza	GU	n
2-	zintza	ZU	n
2'-	zintzate	ZUE	n
3-	(irreg.)	TE	n

- (zuk ni) salnint zazun
- (nik hura) sal ne zan
- (guk zu) salzint zagun
- (hark haiek) salzit zan

Lehen-aldia (HURA/HAIEK)

	NORK	NOR		
1-	N	—	za	n
2-	H	—	za	n
3-	Z	e	za	n
1-	GEN	—	za	n
2-	ZEN	—	za	n
2'-	ZEN	—	za	TE n
3-	Z	it	za	TE n

25.9 /NORI/NORK adizkiak

25.91 Orain-aldia.

	NOR	NORI	NORK	
1-	_____	T	T	n
2-	_____	K/N	K/N	n
3-	d ieza-	O	—	n
1-	_____	GU	GU	n
2-	_____	ZU	ZU	n
2'-	_____	ZUE	ZUE	n
3-	d ieza ^z ki	E	TE	n

25.92 Lehen-aldia.

	NORK		NOR	NORI	
1-	N	ieza	—	T	n
2-	H	ieza	—	K/N	n
3-	Z	ieza	—	(i) O	n
1-	GEN	ieza	—	GU	n
2-	ZEN	ieza	—	ZU	n
2'-	ZEN	ieza	—	ZUE	TE n
3-	Z	ieza	zki	(i) E	TE n

Adibidez:

(nik zuei hura) dieza zuedan

(hik niri hura) dieza daan/nan

(guk zuri haiek) genieza zki zun

(hark haiei haiek) zieza zki en

26 AHALEZKO ADIZKIAK

26.0 Azkuek berak aitortzen duenez, **ahaltasuna / ezintasuna** arazoa «verdadero maremagnum» da euskaraz. Nahasketa ikaragarriaz gain, Azkueren beraren garaian ere nekez bete zitekeen paradigmarik herriaren ahotan bildutako adizkiez.


Aditz **trinkoari** (= sintetikoari) dagozkion ahalkera-jokoak, gerorako utziko ditugu; aldeztu aurretik, dena dela, ia-ia erabat galduta daudela esanez.

Eta **laguntzailezko** jokoei eutsiko diegu (= perifrastikoei); segurutzat eman daitekeena azalduz.


26.1 «yo **puedo** hacer / je **peux** faire» aisa ikus daitekeenez; **BURURATUA** da aspektuari dagokionez:

- sal dezaket
- eror daiteke

«Sal dezaket» (= **puedo** vender / je **peux** vendre) esaten badut, saltze hori une honetan **osoki gerta daitekeela** adierazi nahi dut; eta **egoera-aldakuntza** ere osoa izango dela: Saldu aurretik **enea** zen gauza, saldu ondoren **eroslearena** izango da:



Era berean, eror daitekeen hori **zutik** zegoen erori aurretik; baina erori ondoren, **lurrean** egongo da. **Aldakuntza**, berriz ere, **osoa** izango da:



Hitz batez:

- a) Aditzaren formari dagokionez, eta aspektuaz **BURURATUA** izanik, erroa agertuko da: **sal, eror, ikus, gerta**, eta abar.
- b) Bide beretik, eta laguntzaileari dagokionez, ***edin / *ezan** erabiliko dira: **naiteke, zitekeen, dezakegu, zenezakeen**, eta abar.


Ez du euskal funtsik, hortaz, laguntzaile bururatuari aurretik partizipio bururagaberik erasteak:

- *gertatu daiteke
- *erosi dezakegu.


Nahiz bizkaieraz gaur (eta gipuzkeraz ere gero eta maizago) honelako gauzak entzun, **Euskara Batuan** aspektuen errespetuan (eta euskalki **gehien**en errespetuan ere bai) **ez dira nahasketa horiek onartu**.

26.1 –Desde el punto de vista del aspecto, el potencial es perfecto. En él hay devenir y cambio total.
 –Du point de vue de l'aspect, le potentiel est un parfait. On y trouve le devenir et le changement total.

26.2 Ahalkera **bururatu**a izanik, berehala soma daiteke **bi denbora** edo adizki dituela funtsean:



Orain-aldia ezinezkoa da; edo-ta, gero-aldi balioa hartzen du. Egoera, hortaz, hauxe da:




hurbil zitekeen

(= pudo / il put)

sal zezakeen

edo-ta:

Gero-aldia («orain- aldia» deitua)



hurbil daiteke

sal dezake

(él podrá / il pourra)

- hurbil nintekeen (= atzo, heranegun, orain dela bi urte)
- hurbil naiteke (= berehalaxe, bihar, datorren astean, geurtz).
- sal nezakeen (= orain dela bi hilabete, iaz, zuk esan zenidanean)
- sal dezaket (= gaur arratsean, bihar, etzidamu).

Funtsezko adizkiak **bi horiek dira**; nahiz, gero azalduko dugunez, hirugarren bat onartua bada ere.

26.2 – Para los tres potenciales se usarán el radical, y los auxiliares de las series *edin / *ezan.
– Pour les trois potentiels on utilisera le radical, et les auxiliares des séries *edin / *ezan.

26.3 Zer da, hortaz:

- hurbil ninteke
- sal nezake delakoa?

Lafittek baldinkera-tzat hartzen du:

- nezake (= je l'aurais)
- ikus lezake (= il le verrait).

«dezaket / nezake» oposizioa, hitz batez, ez da oso garbi ageri.

Eta honela azal bide daiteke:

- dezaket = **puedo** (inmediato futuro)
- nezake = **podría** (futuro más remoto)

Ez dakigu, dena dela, azalpen hau oso gotorra ote den.

26.3 –Paradigmas de potencial (de 1, 2 y 3 elementos).
 –Paradigmes du potentiel (à 1, 2 et 3 éléments).

26.4 **NOR** ahalkera

Hona hemen bi adizki nagusiak:

- | | |
|----------------|-----------------|
| 1- naiteke | 1- nintekeen |
| 2- haiteke | 2- hintekeen |
| 3- daiteke | 3- zitekeen |
| 1- gaitezke | 1- gintezkeen |
| 2- zaitezke | 2- zintezkeen |
| 2'- zaitezketē | 2'- zintezketen |
| 3- daitezke | 3- zitezkeen |

26.41 **NOR** / **NORI** adizkiak

Orain-aldia

	NOR			NORI		
1-	na	ki	—	T	ke	
2-	ha	ki	—	K/N	ke	
3-	da	ki	—	O	ke	
1-	ga	ki	zki	GU	ke	
2-	za	ki	zki	ZU	ke	
2'-	za	ki	zki	ZUE	ke	te
3-	da	ki	zki	E	ke	

Erabilkera:

- (gu zuri) hurbil gakizkizuke
 (ni hari) hurbil nakiokē
 (hura zuei) hurbil dakizueke
 (haiek hiri) hurbil dakizkiake/nake.

26.42 Lehen-aldia

	NOR			NORI		
1-	nen	ki	—	T	ke	en
2-	hen	ki	—	K/N	ke	en
3-	ze	ki	—	O	ke	en
1-	gen	ki	zki	GU	ke	en
2-	zen	ki	zki	ZU	ke	en
2'-	zen	ki	zki	ZUE	ke	te n
3-	ze	ki	zki	E	ke	en

Erabilkera:

(gu zuri) hurbil **gen**kizkizu keen

(ni hari) hurbil **nen**ki keen

(hura zuei) hurbil **ze**ki zue keen

(haiek hiri) hurbil **ze**kizkia keen/ha keen.

26.421 Ahalkera urrunezko adizkiak ateratzeko, aski da taula honetako **—en** kentzea, eta hirugarren pertsonetan (HURA eta HAIEK) **z—**ren ordez, **l—** jartzea:

genkizkizu keen → **gen**kizkizu ke

zekikeen → **le**ki ke

26.5 NOR/NORK ahalkera

Hona hemen bi adizki nagusiak:

1- dezaket

2- dezakek/n

3- dezake

1- dezakegu

2- dezakezu

2'- dezakezue

3- dezakete

(podré, puedo /
je pourrai, je peux)

1- nezakeen

2- hezakeen

3- zezakeen

1- genezakeen

2- zenezakeen

2'- zenezaketen

3- zezaketen

(pude, podía/
je pus, je pouvais)

26.51 Orain-aldi osoa hau da:

	NOR				NORK
1-	na	—	za	ke	T
2-	ha	—	za	ke	K/N
3-	de	—	za	ke	—
1-	ga	it	za	ke	GU
2-	za	it	za	ke	ZU
2'-	za	it	za	ke	ZUE
3-	d	it	za	ke	TE

Erabilkera:

(ni zuk) ikus nazakezu

(hura haiek) ikus dezakete

(gu zuek) ikus gaitzakezue

(haiek hi) ikus hazakete

26.52 Lehen-aldia

(1, 2, 2')

	NOR				NORK	
1-	nint	za	ke		T	n
2-	hint	za	ke		K/N	n
	(irreg.)	—	—		—	n
1-	gint	za	ke		GU	n
2-	zint	za	ke		ZU	n
2'-	zint	za	ke	te	ZUE	n
	(irreg.)	—	—		TE	n

(3, 3)

NORK	NOR				
N	—	za	ke		en
H	—	za	ke		en
Z	e	za	ke		en
GEN	—	za	ke		en
ZEN	—	za	ke		en
ZEN	—	za	ke	TE	n
Z	it	za	ke	TE	n

Erabilkera:

- (ni zuk) ikus nintzakezun
- (hi guk) ikus hintzakegun
- (hura nik) ikus nezakeen
- (haiek hark) ikus zitzakeen.

26.521 Oharra:

Hirugarren aldia lortzeko, **-en** ken eta hirugarren pertsonetan l- eman (z- ren ordez)

nintzakezun → nintzakezu
genitzakeen → genitzake
zezaketen → lezake te

26.53 NOR/NORI/NORK ahalkera

26.531 Orain-aldia.

	NOR	NORI		NORK
1-	_____	T ✓	ke	T
2-	_____	K/N	ke	K/N
3-	dieza —	(i) O	ke	—
1-	_____	GU	ke	GU
2-	_____	ZU	ke	ZU
2'-	_____	ZUE	ke	ZUE
3-	diezazki	(i) E	ke	TE

Erabilkera:

- (nik hura zuri) ikus d iezazu ket
 (hik hura niri) ikus d iezada ke k/n
 (guk haiek zuri) ikus d iezazkizū kegu
 (zuk haiek hari) ikus d iezazkiø kezu

26.532 Lehen-aldia

	NORK		NOR	NORI		
1-	N	ie	za	T	ke	en
2-	H	ie	za	K/N	ke	en
3-	Z	ie	za —	i O	ke	en
1-	GEN	ie	za	GU	ke	en
2-	ZEN	ie	za	ZU	ke	en
2'-	ZEN	ie	za	ZUE	ke	TE n
3-	Z	ie	zazki	i E	ke	TE n

Erabilkera:

- (nik hura zuri) ikus n ieza—zu keen
 (hik hura niri) ikus h ieza—da keen
 (guk haiek zuri) ikus gen iezazkizū keen
 (zuk haiek hari) ikus zen iezazkiø keen

26.533 «Gero-aldi urruna» lortzeko, —n ken eta hirugarren pertsonetan l—:

ziezazkiø keen → liezazkiø ke

26.6 Potentzial hauen orde, gero eta maizago erabiltzen dira zenbait euskalkitan:

ahal izan (= poder / pouvoir)

ezin izan (= no poder / ne pas pouvoir)

Aditza —t(z)en atzizkiak erabiltzen da Iparraldean (ahalean):

- joaten ahal nintzen
- jaten ahal nuen

eta partizipioaz (ezinean):

- ezin nintzen joan
- ezin nuen jan

Bizkaieraz bai **ahal** bai **ezin**, **partizipioari** erasten zaizkio:

- ekarri al dot
- ezin ekarri dot

Euskara Batuari dagokionez, Euskaltzaindiak ez du puntu honetaz ezer erabaki; nahiz begi onez ikusi «Euskara Erraza» ri buruz Imanol Berriatuak prestatzen duen Gramatika. Honek, adierazia duenez, Bizkaiko moduaren aldetik joko bide du:

- **etorri ahal naiz**
- **ezin etorri naiz**
- bazkaldu ahal dut
- **ezin bazkaldu dut.**

Aspektu zaharren aldetik begiraturik, eta beste zenbait alderditatik ere bai, proposatzen den bide hau ezin onar daiteke, gure ustez, **errazpide** eta **lehen urrats** gisa baizik.

26.7 Gauza bera ote dira bi esaldi hauek?


- ezin ibili naiz
- ezin ibil naiteke.

Azkue-ren ustez diferentziarik ez dago: «**hoy no pasa de ser una redundancia**». Sebero **Altube**-ren ustez, berriz, bai: ba dago alderdirik; «**Algunos escritores euskaldunes (y con ellos: un euskerólogo eminente, según lo manifiesta explícitamente en un tratado publicado recientemente) no distinguen la diferencia semántica que presentan las dos locuciones expuestas... Sin embargo, el pueblo no contaminado del habla cervantina, nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones verbales**» (Erderismos, 248-249).

Berriro ere Euskaltzaindiak honetaz iritzi ofizialik eman ez duela gogorazi ondoren, eman dezagun **Altube**-ren irizkera.

A) ezin ibili naiz

Hona hemen ekintza honi dagokion eskema:




Alegia: ba nenbilen, ba nentorren, honeraino heldu naiz; baina orain, honetaraz gero, potto:

ezin ibili naiz

Azter dezagun orain bigarrena.

B) ezin ibil naiteke



Alegia: hemen nago. Ordua begiratu dut, eta berantegi dela ikusi. Jaiki egin naiz, ba nuen (eta ba dut) abiatzeko gogoia; baina:


ezin ibil naiteke

(= ezin abia naiteke; ezin has naiteke ibiltzen)


Gauza, bera, noski, NORK aditzetan:

A) ezin lorik egin det (Erderismos, 249)

(= etzanda nago oraindik; ondo ari nintzen lotan; baina orain, mila katramila buruan, eta akabo:



B) ezin lorik egin daiket (Erderismos, 250) (= lo egin nahi nuke; baina ezin naiteke lo egiten has).



27 AGINTEKERAK

27.0 Euskara zaharrean, **bi agintekera** berezten ziren:

a) **Berehalako** aginduak adierazteko erabiltzen zena: **adi, egik,** eta abar

b) **Geroan** bete behar ziren aginduak adierazteko erabiltzen zena: **aite, egikek,** eta abar.

Bigarren sailekoak galdutzat eman daitezke, eta Euskaltzaindiak onartu duen Euskara Batuan a) pleguko agintekera besterik ez da hartu.

b) Mailakoek «un ordre qui doit être exécuté à date indéterminée, mais non immédiatement et une fois pour toutes» balio zuten (Lafon, Système, II, 117).

– etxun aite afaltzaga ta jaiki aite zor baga (Refrán, 394; B)

– ikasi eikezu urrengoan obeto berba egiten (Mogel; B)

– artu eikezu egun bat (Añibarro, B)

Agintekera hau ez zen bizkaieraz bakarrik erabiltzen. Baina, Euskara Batuari dagokionez, hildakotzat eman behar da.

27.0 –En vasco antiguo nan existido dos imperativos: inmediato y no inmediato. La Academia solo ha retenido el primero en sus paradigmas de unificación.
–On a connu, en basque ancien, deux impératifs: l'un immédiat, l'autre non immédiat. L'Académie n'a retenu que le premier dans ses paradigmes d'unification.

27.1 Ohar bat hasteko: kapitulu honetan aditz perifrastikoei dagozkien **laguntzaileak** aztertuko direla; agintekera trinkoak (= sintetikoak) geroako utzirik.

Beste ohar bat segi aitzin: bigarren pertsonari dagozkion adizkiek \emptyset - dutela aurrizkitzat literatura zaharraren parte handi batetan; eta gauza bera gertatzen dela gaurko zubereraz. Euskara Batuan, halere, h- hartu da ezaugarritzat, gainerako adizkietan bezala.

27.1 –Es sabido que la marca de la segunda persona ha sido \emptyset en imperativo. Por uniformidad, la Academia ha adoptado la marca normal h-.
 –Il est bien connu que la marque de la deuxième personne a été \emptyset à l'impératif. Pour des raisons de régularité, l'Académie a adopté la marque normale h-.

27.2 **Aspektuari** dagokionez, agintekerari **BURURATUA** datzekio:
 – **hoa hemendik!**

(= nahi diat hi hemen ez ikusi; hemendik hi **joana izatea** nahi diat; hemen **egotetik, ez egotera** aldatzea. Alde hemendik, hortaz, eta azkar!)

– **jan ezak hau!**


(= ez muzin egon, hortaz; ez jangartsu egon; eta, otoi, hire platerean oraindik **ikusten dudan** okela-puska hori, hemendik minutu batetara **ez ikustea** duk ené nahia)

Hortaz:

a) Aditza **erro-keran** joango da: sal, jar, itzul, gerta, bota, ikus....

b) Laguntzailea, ***edin / *ezan** multzokoa izango da: hadi, ezak, zakizkio, iezadazu, ezazue, beza, ...

Eta aginduen eskema hau litzateke:



a) moldea erabiltzen da bakarrik.

27.2 –Desde el punto de vista del aspecto, el imperativo es un perfecto. Se usan, por consiguiente, el radical verbal y los auxiliares *edin / *ezan.
 –Du point de vue de l'aspect, l'impératif est un parfait. On utilise, par conséquent, le radical verbal et les auxiliaires *edin / *ezan.

27.3 NOR agintekera

NOR

- 1- (nadin)
- 2- hadi
- 3- bedi
- 1- (gaitezen)
- 2- zaitez
- 2'- zaitezte
- 3- bitez

27.3 –Paradigmas de imperativo: con 1, 2 y 3 elementos.
 –Paradigmes d'impératif: à un, deux et trois éléments.

27.31 NOR / NORI agintekera

	NOR		NORI	
1-	—	—	T	
2-	ha	ki	K/N	
3-	be	ki	O	
1-	—	—	GU	
2-	za	ki	ZU	
2'-	za	ki	ZUE	te
3-	be	ki	E	

Erabilkera

(hi niri) hurbil **h**akit
(hura hiri) hurbil **b**e kik/n
(zu guri) hurbil **z**akizkigu
(haiek hari) hurbil **b**ekizkio

27.4 NOR /NORK agintekera

	NOR			NORK
1-	na	—	za	
2-	—	—		K/N
3-	be	—	za	—
1-	ga	it	za	—
2-	—	—		ZU
2'-	—	—		ZUE
3-	b	it	za	TE

Erabilkera:

(ni hik) ikus **n**a za **k/n**
(hura hark) ikus **b**e za —
(gu zuk) ikus **g**aitzazu
(haiek zuek) ikus **i**tzazue

Oharra: hik, zuk, zuek, pertsonetan, NOR-i dagokion b— galdu egiten da:

itzazue; eta ez *bitzazue

27.41 NOR / NORI / NORK agintekera

	NOR	NORI	NORK
1-	_____	T	—
2-	_____	K/N	K/N
3-	b ieza—	i O	—
1-	_____	GU	—
2-	_____	ZU	ZU
2'-	_____	ZUE	ZUE
3-	b. iezazki	i E	TE

Erabilkera:

(hik hura niri) eros iezadak/n

(zuk haiek haiei) eros iezazkiezu

(zuek hura guri) eros iezaguzue

(haiek haiek niri) eros biezazki date

Oharra: (lehengoa bera)


hik, zuk, zuek, pertsonetan, NOR-i dagokion b— galdu egiten da:

*biezaguzue → iezaguzue

28 - BALDINKERAK (I)

Erabilera	Adierazpena	Adierazpena	Adierazpena
Orain	t_0	t_0	t_0
Buruz	t_a	t_a	t_a
Burrutik	t_g	t_g	t_g

- 28.1 Aski da ondoko eskema hau gogoan hartzea, funtsean bi baldintza-joko daudela ulertzeko:



Batak **geroari** buruzko baldintzak emango ditu (eta, berriro ere, geroaren barruan sartzen da **orain**); eta besteak **iraganari** buruzkoak eratzeko.

28.1 –Existen condicionales respecto al pasado, y condicionales respecto al futuro.
–Il y a des conditionnels qui se réfèrent au passé, et des conditionnels qui se réfèrent au futur.

- 28.11 Aspektuak orain kontutan hartuz gero, berriz, bi baldintza-mota era daitezke:

- Aditz **bururatuaz** bata; eta, honetan, zalantzarik gabe, **erroa** eta ***edin / *ezan** erabiliko ditugu laguntzailatzat.
- Aditz **bururagabeaz** bestea; eta, teorian bederen, hiru baldintza-denbora izango ditugu (orain-aldiari dagokiona ahul agertzen bada ere).

Omaetxebarria-rekin batera, guk ere hau esango dugu a) baldintza-motari buruz: itxura **puntukaria** dutela («puntual»), eta **ahal/ezin-izan**-ari ere datxezkiola («con algún deseo o esperanza»).

b) Motakoak, berriz, **hipotesi huts** dira; eta kondairazko lerrotik at.


Egia esateko, dena dela, Mitxelena ez dago gauza hauetaz oso sinetsita (nahiz J.M. Zabala, Altube, Omaetxebarria eta Kruttwig, gutxi gora-behera bederen, irizpide honetakoak izan); eta Euskaltzaindiak ez du honetaz ere azkeneko hitzik jaurti. Ondoko azalpenak, horretara, egilearen beraren azalpenak baizik ez dira.

28.2 Indikatibozko baldintzak

28.2 –Según que cojamos como base verbos de aspecto determinado o de aspecto indeterminado, obtendremos dos series de condicionales profundamente diferentes.
–Selon que nous prenions comme base des verbes à aspect déterminé ou à aspect indéterminé, nous obtiendrons deux séries de conditionnels profondément différentes.

28.21 Gero-aldizko baldinkera

si hemos de...
si nous devons finir par...



- a) joango bazara, zoaz oraintxe.
b) hori lortuko badugu, gaur hau esan behar dugu.
(= si realmente **hemos de...**, si verdaderamente **hemos de...** / si réellement **nous devons finir par...**)

Egin dezagun ondoko aldaketa hau:


- a) oraintxe ez bazoaz, **ez zara inoiz ere** joango.
- b) gaur hauxe esaten ez badugu, ez dugu hori sekula santan lortuko.

Alegia: «**Conditio sine qua non**» adierazten du baldinkera honen.

Gero Y lortuko baduzu, orain X egin behar duzu; eta derrior egin.

28.22 Lehen-aldizko baldinkera («irreal», eskuarki)

{ si hubiera...
s'il avait...



28.221 Iraganean

- Napoleon-ek hori egin balu, irabazi zukeen
- Napoleon hara joan ez balitz, garaitzaile gertatu zatekeen.

(= nahi ez badugu ere, Napoleon-ek «hori» egin zuen 1805-an; eta alferrik da orain penatzea. Baldintza hori **kondairaren kontra** jartzen dugu; zeharo baldintza **ezinezkoa** da; eta horretatik datorkio izena: «irreal / irréal»).

(= si Napoleón **hubiera hecho** eso, habría ganado; pero es **inútil** quejarse, pues la Historia escrita está ya / si Napoleón **avait fait** cela, il aurait bien gagné, mais il est bien inutile de se plaindre, puisque l'Histoire est déjà écrite en fait).

28.2211

NOR

(Baldintza)

- 1– banintz
- 2– bahintz
- 3– balitz
- 1– bagina
- 2– bazina
- 2'– bazinete
- 3– balira

(Ondorioa)

- 1– nintzatekeen
- 2– hintzatekeen
- 3– zatekeen
- 1– ginatekeen
- 2– zinatekeen
- 2'– zinateketen
- 3– ziratekeen


Eta aditzak, biak, partizipiotan:

joan
gertatu
erori
etorri

– atzo etorri ez bazina, gaur ez ginatekeen joan.

(Gaur, dena dela, ia beti:

* atzo etorri ez bazina, gaur ez ginen joango. Nahiz moldakera traketsa izan).



28.2212

NOR / NORI

Baldintza


		NOR		NORI		
ba-	1–	nin	tzai	–	T	
	2–	hin	tzai	–	K/N	
	3–	li	tzai	–	O	
	1–	gin	tzai	zki	GU	
	2	zin	tzai	zki	ZU	
	2'–	zin	tzai	zki	ZUE	te
	3–	li	tzai	zki	E	

Erabilkera:

(gu hari) hurbildu bagintzai zki
 (ni hiri) hurbildu banintzai k/n
 (hura haiei) hurbildu balitzaie
 (zu niri) hurbildu bazintzai zkit

Oharra: hurbildu balitz = hurbildu izan balitz

{habría...
 {je serais...



28.2213 **NOR** / **NORI**

Ondorioa

NOR			NORI		
nin	tzai	—	T	ke	en
hin	tzai	—	K/N	ke	en
zi	tzai	—	O	ke	en
gin	tzai	zki	GU	ke	en
zin	tzai	zki	ZU	ke	en
zin	tzai	zki	ZUE	ke	en
zi	tzai	zki	E	ke	en

Erabilkera:

(gu hari) hurbildu gintzai zki keen
 (ni hiri) hurbildu nintzai akeen/nakeen
 (hura haiei) hurbildu zitzaie keen
 (zu niri) hurbildu zintzai zki dakeen


Oharra:

Klasikoek **hurbildu**; gaur maizago **hurbilduko**. Baita, erraztu nahiz, lau hauek:

- hurbilduko gintzaizkion
- hurbilduko nintzaian/nan
- hurbilduko zitzaien
- hurbilduko zintzaizkidan

Gauza berbera **NORK** aditzetan

{ si hubiera...
si j'avais...



28.2214 **NOR** / **NORK**

Baldintza


		NOR	NORK
ba-	1-	nind u	T
	2-	hind u	K/N
	3-	_____	-
	1-	gint u	GU
	2-	zint u	ZU
	2'-	zint u zte	ZUE
	3-	_____	TE

	NORK	NOR	
ba-	N	-	u
	H	-	u
	L	-	u
	GEN	-	u
	ZEN	-	u
	ZEN	-	u TE
	L	it	u TE

Erabilkera:

(nik hura)	ikusi	ban-u
(hark haiek)	ikusi	balitu
(guk zu)	ikusi	bazintugu
(zuk gu)	ikusi	bagintuzu

{ habria...
j'aurais..



28.2215 NOR / NORK

Ondoria

	NOR				NORK	
1-	nind	u		ke	T	n
2-	hind	u		ke	K/N	n
3-	—	—		—	—	n
1-	gint	u		ke	GU	n
2-	zint	u		ke	ZU	n
2'-	zint	u	zte	ke	ZUE	n
3-	—				TE	n

	NORK	NOR			
1-	N	— u	ke		en
2-	H	— u	ke		en
3-	Z	— u	ke		en
1-	GEN	— u	ke		en
2-	ZEN	— u	ke		en
2'-	ZEN	— u	ke	TE	n
3-	Z	it u	ke	TE	n

tu + te = tuzte
Beti:
 tu + ke = tuzke


Erabilkera:

- (nik hura) ikusi n-ukeen
- (hark haiek) ikusi zituzkeen
- (guk zu) ikusi zintuzkegun
- (zuk gu) ikusi gintuzkezun

(ikusiko; edo ikusiko, gaur)

Edo-ta, desegokiro, baina maiz:

- ikusiko n-uen
- ikusiko zituen
- ikusiko zintugun
- ikusiko gintuzun



{ si hubiera...
 { si j'avais...

28.2216 **NOR** / **NORI** / **NORK**

Baldintza

	NORK		NOR	NORI	
1-	N	i	-	T	
2-	H	i	-	K/N	
3-	L	i	-	O	
ba- 1-	GEN	i	-	GU	
2-	ZEN	i	-	ZU	
2'-	ZEN	i	-	ZUE	TE
3-	L	i	zki	E	TE

Erabilkera:

(nik hura zuri)
 (zuk haiek hari)
 (hark hura niri)
 (zuek haiek guri)

bani-zu
 bazenizki
 bali-t
 bazenizkigute

Oharra: ikusi banizu = ikusi izan banizu

{habría...
 {j'aurais...

28.2217 NOR / NORI / NORK

Ondorioa

	NORK	NOR	NORI		
1-	N	i	T	ke	en
2-	H	i	K/N	ke	en
3-	Z	i	O	ke	en
1-	GEN	i	GU	ke	en
2-	ZEN	i	ZU	ke	en
2'	ZEN	i	ZUE	ke	TE n
3-	Z	i	E	ke	TE n
		zki			

Erabilkera:

(nik hura zuri)
 (zuk haiek hari)
 (hark hura niri)
 (zuek haiek guri)


saldu nizu keen
 saldu zenidao keen
 saldu zizkikeengu
 saldu zenizki keten

Edo, maizago, eta errazpidè bila:

- salduko nizun
- salduko zenizkiön
- salduko zidan
- salduko zenizkiguten

{ si me acercase...
 { si viesee...

28.222 Etorkizunean



Esate baterako:

- Zuk etzi hori salduko bazenu, diru mordoxka gaitza bilduko zenuke.
- Zu bihar Maule-ra joango bazina, garaiz iritsiko zinateke.


Baldintza mota hau, **hipotesi hutsean** egiten dugu; proposatzen dugun hori mamitzeko **modukoa** ala mamitu **ezinezkoa** ote den ezertarako kontutan hartu gabe.

Salduko bazenu (= ez dakit batere zure eskuetan dagoenez; baina, salduko bazenu...)

Joango bazina (= ez dakit batere joaterik ote duzun; baina joaterik izan, eta joango bazina...)

Aurreko puntuan azalduetakoa gogoan hartuz, diferentzia hau da:

{ etorri banintz —————> etorriko banintz
 { saldu banu —————> salduko banu




Beraz

BALDINTZA

– Baldintza jartzerakoan, berbera da laguntzailean: eta partizipioari KO erasten zaio.

Adibidez



NOR

– (bihar) etorriko bazina (28.2211)

NOR / NORI

– (etzi) hurbilduko bazintzaizkio (28.2212)

NOR / NORK

– (bihar) eramango baninduzu (28.2214)

NOR / NORI / NORK

– (bihar) salduko banizkizu (28.2216)


28.223 Ondorioa etorkizunean

1– Partizipioari **KO** erants:
– etorri (nintzatekeen) →
→ etorriko

2– Laguntzaileari **(E)N** ken:
nintzatekeen → nintzateke

3– Hirugarren pertsonetan
Z- → **L-**

Ikus ditzagun adibide batzu (lehen ikusitakoak berberak);
eta beti ere eskema gogoan:



– **NOR** aditzez (28.221)

– (bihar) igoko bazina, elkarrekin joango ginatēke (= si **subieras** mañana, **iríamos** juntos / si vous **montiez** demain, nous **irions** ensemble).

– (bihar) hara joango ez balitz, garaitzaile gertatuko litzateke (ikus 28.221)

– **NOR** / **NORI** aditzez (28.2212 - 28.2213)

– (bihar) gertatuko balitzaio, ez **nintzaioke** hurbilduko.


Eta lehen esandako arrazoin berberengatik **NORK**-aditzaz beti. («nuance plus marquée d'obligation», dio Ithurryk). Oraindik ere gogorrago da Azkue eztabaida honetaz: «El pueblo dice en todas partes y en todos los tiempos etorri nai dut... ibili behar dut... Fundarse en etorri naiz para (oponiéndose radicalmente al pueblo de todos los dialectos y de todos los tiempos que alcanzamos) decir etorri bear naiz en vez de etorri bear dut, es **no conocer** el carácter de los modales de infinitivo» (Morfología, 259-260). Eta hitz garratz hauetaz bukatzen: «Introdujo alguien en estos tiempos esta reforma, y sus incondicionales siguen diciendo etorri bear naiz, chocando con el pueblo, y haciéndole antipática la lectura de los nuevos textos vascos».

Arazoa horren garbi ez badago ere, horra hor Azkue-ren iritzia; Euskaltzaindiak zirt-edo-zart egin ez duenez gero, **geure** egiten dugun berbera.

32.33 Ohar berbera **aditz-izena** eta **partizipioari** dagokienez:

- **etorri behar dut** (nik)
- **etortzea behar dut** (Periko, adiskideak, ni ez beste nornahi).

32.34 Gauza bera **BEHARRAGO IZAN** aditzari dagokionez.

32.4 **OHI IZAN** (= soler / avoir l'habitude de).

32.4 Ohi-izan.

32.41 Hemen ere eztabaidak badaude ere (Etxeparek eta Leizarragak berak ez dira ados puntu honetaz...), **joera nagusiari** eta **Azkueri** jarraituko gataizkie.

Lehen-lehenengo puntua: **OHI** hitza ez da inoiz berezten:

- ↪ gertatu ohi da
 - ez da gertatu ohi
 - jan ohi dugu
 - ez dugu jan ohi
- Atzizkia balitz bezala.

32.42 OHI-IZAN PARTIZIPIOARI erantsi behar zaio:

- gertatu ohi da
- ez dugu hori esan ohi

Ez gertatzen ohi da, esaten ohi.

Are gutxiago, noski, *gerta ohi da (!)

32.43 OHI-IZAN-ek ez du laguntzaile-mota markatzen: **NOR**-aditz bati datzekionean, **izan** / ***edin** erabiltzen da; **NORK**-aditz bati datzekionean, berriz, **edun** / ***ezan**:

- oso maiz erori ohi zen
- askotan afaldu ohi genuen etxe hartan

32.44 Maiztasuna markatzen da:

- askotan gertatzen zen

baina nabarmenkiago edo azkarkiago:

- askotan gertatu ohi zen.

32.5 **ARI IZAN** (= estar haciendo / être en train de)

Oraindik ere **ekintza aurrera doala** adierazteko erabiltzen da:


- **erortzen ari naiz** (= me estoy cayendo / je suis en train de tomber)

- **bazkaria prestatzen ari gara** (= estamos preparando la comida / nous sommes en train de préparer le déjeuner).

32.51 Beti $-t(z)$ en izen-inesiboari erasten zaio, eta izan (NOR) laguntzailearen arabera jokatzen da:

- ikusten ari nintzen
- hurbiltzen ari dira
- jaten ari ginen
- bukatzen ari naiz.

32.52 Hona hemen marrazkia:



32.53 Honen kidea $-z$ joan da:

- galtzen ari da = galduz doa
- irabazten ari gara = irabaziz goaz
- iluntzen ari da = ilunduz doa
- zahartzen ari dira = zahartuz doaz

32.54 Nola erabil **EGURALDIAZ** hitzegiterakoan?

Jakina: **euria egiten du**, **elurra egiten du**, eta abar, entzuten dira. **Elurra dautso** oso galdua da. Usuenik $-a$ ari izan erabiltzen da; eta **NORK-aditz** gisa:

- elurra ari du
- euria ari zuen
- izotza ari du
- igortziria ari zuen
- haizea ari du

Temperaturari dagokionez, berriz:

- giro da (= hace buen tiempo / il fait beau)

- hotz da
- epel da
- bero da
- sargori da

Oharra: bigarren sail honetan mugagabea dugu; lehendabizikoan, berriz, mugatua.

32.54 Expresión de los fenómenos atmosféricos.
-L'expression des phénomènes atmosphériques

32.6	BIZI IZAN BALIO IZAN MAITE IZAN GORROTO IZAN HASTIO IZAN USTE IZAN	(= vivir / vivre) (= valer / valoir) (= amar / aimer) (= odiar / haïr) (= odiar / haïr) (= pensar / juger)
------	---	---

Lehenengoa **NOR** aditza da; beste guztiok, berriz, **NORK** aditzak.

Eskema lehengo berbera da:




- **bizi izan nintzen** (= viví / je vécus)
- **bizi izan naiz** (= he vivido / j'ai vécu).

Denboratasunari dagokionez, eskema berberari darraizkio beste bostok:


balio
maite
gorroto
hastio
uste

balio
maite
gorroto
hastio
uste

balioko
maiteko
gorrotoko
hastioko
usteko



32.601 Jatorrian hau ez zen honela
Simetri-arrazoinengatik ere, hau dugu:



Geroaldiak, beraz, hauek dira sail guztian:

- ari izango naiz
 - bizi izango naiz
 - uste izango dut
 - behar izango dut
 - nahi izango dut
- (eta abar)

Seber Altube-k molde honi eustea proposatzen zuen
(Erderismos, 253-256).

Baia?

Ithurry ez da iritzi berekoa; «Au lieu d'exprimer le Futur par uste ukanen du, il croira mieux vaut dire usteko du» (Gramm., 396).
Eta bide beretik ematen ditu hauek; **balioko du, nahiko du, beharko zuen, hariko zirela.**

Lafitte ere Altube-ren kontra: «Pour conjuguer nahi... le futur se fait actuellement à l'aide de nahiko (et non de nahi ukanen ou nahi izanen)» (Gramm., 348)

Axularrek berak beharko erabiltzen zuenez gero, geroaldi laburtuak **ere (nahiko, beharko, balioko, biziko,...)** ontzat emān daitezkeela iruditzen zaigu. Batez ere idazleek eta herri xeheak, puntu honetaz, batera jokutzen dutela ikusita.

32.601 –El futuro de estos verbos.
–Le futur dans ces verbes-là.

32.61 Ondotik beste aditz bat etorritz gero, **aditz-izena** erabili ohi da:

- ez du balio hori egitea
- maite du hara joatea
- gorroto dut txepelkeriatan ibiltzea.

Baina uste izan-ekin bi modutara erabiltzen da maizenik:

- hona etorriko den uste dut
- hona etorriko dela uste dut

Lehenengo Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da gehienik.

32.611 Beste esaera jator bat ere ba dago:

- mozkortu uste nuen
(= yo creía que me iba a emborrachar / je croyais que j'allais me saouler)
- erori uste zuen
(= creía que se caía / il croyait qu'il allait tomber).

Aditza **NORK**-bidetik beti.

Luzeago, jakina, honela esan daitezke:

- mozkortuko nintzela uste nuen
- eroriko zela uste zuen

32.7 **BARNE-EGOERAK** (beldurra, hotza, beroa, gosea, egarria)
IZAN aditzaz adierazten dira euskaraz:

- beldur izan
- lotsa izan
- bero izan
- hotz izan
- gose izan
- egarri izan

eta izena (= adjetiboa) ez da aldatzen:


- beldur naiz (= tengo miedo / j'ai peur)
- lotsa naiz (= tengo vergüenza / j'ai honte)
- bero naiz

- hotz naiz
- gose naiz
- egarri naiz.

*beldurra daukat, *beroa dut, eta abar, ez dira euskara.

32.7 -La expresión de la sensaciones o estados de ánimo.
-L'expression des sensations ou états d'âme.

32.71 Irudia hau litzateke:



32.72 Eta geroaldia?

*Beldurko naiz- ez da sekula esan.

Ezta *beroko naiz, eta abar.

Kasu hauetan molde luzea (osoa) erabiliko da:

- beldur izango naiz
- hotz izango naiz.


32.73 Hau bezain maiz erabiltzen da beste esakera bitxi hau:

hotz naiz = hotzak nago

beldur naiz = beldurrak nago
 bero ginen = beroak geunden
 egarri ziren = egarriak zeuden

Jatorriz hauxe da kakoa:
 egarriak zeuden < egarriak (hilik) zeuden.

Eta eskema hau litzateke:



Esakera hau, dena dela, literatura zaharrea barrena ikus daitekeenez, berri xamarra da gure hizkuntzan; IZAN-ekikoa zaharrago izanik.

32.74 Aurrerago ere esan dugunez:

- tengo miedo de que (se caiga)
- j'ai peur qu'il (tombe) =
= eror dadin beldur naiz.
- tenían miedo de que no viniera
- ils avaient peur que je ne vienne pas =
= etor ez nendin beldur ziren.

32.8 **BAIMENAREN** ideia euskaraz.

Orain «baimendu», «permititu», eta abar, proposatzen direlarik, on izango da lthurryk (eta Lafittek ere, hein batez) baimenaren ideiarri buruz diona.

HIRU MAILA daude euskaraz:

- HAIZU da
- ZILEGI da
- SORI da

Haizu zabalago da zilegi baino; eta zilegi, era berean, zabalago da sori baino.

Honetara:

haizu ⇨ zilegi ⇨ sori

- 1– haragia haizu da (= está permitida, por las leyes de todo tipo / elle est permise par toutes sortes de loi)
- 2– haragia zilegi da (= erlijioak ez du debekatzen)
- 3– haragia sori da (= erlijioak haragi-jateari buruzko aginduen arabera jan daiteke).

«Está permitido / c'est permis», hortaz,

HAIZU DA

esaten da.

32.8– La expresión de la permisividad.
– l'expression de l'idée de permission

33 - «EGIN»EZKO ADITZAK

33.1 Aurreko kapituluan aipatutako aditzen antzera, **EGIN** aditzaz osatutako aditz asko dago euskaraz:

- hots egin
 - negar egin
 - hitz egin
 - lan egin
 - barre egin
- eta beste anitz.

Jokabide berezia dute; nahiz berdinagoa ere bai «izan» ekikoei baino.

Oraingo multzo honetakook **egin** konjugatzen dute, beti, ereduaren arabera; eta, hortaz, beti ditugu **NORK**-aditzak.

Izena **MUGAGABE GISA** doa:

- agur egin (= agurtu, ere bai)
- alde egin
- amets egin
- atz egin
- barre egin
- doministiku egin
- eztul egin
- hitz egin
- hots egin
- huts egin
- ihes egin (= ihesi joan)
- irri egin

lan egin
lo egin
negar egin
oihu egin
zin egin
zintz egin
deihadar egin

Ez da *agurra egin, *aldea egin, eta abar; beste adierazkizun berezi batez ez bada.

33.1 Existe todo un grupo de verbos vascos, que se conjugan a través de EGIN. Lista.

Il y a tout un groupe de verbes basques, qui se conjuguent à travers EGIN. Liste.

33.2 Alde batera utziko dugu **eguraldiaz** mintzatzerakoan zenbait euskalkitan erabiltzen den **egin** hori:

- euria egiten du
- eguzkia egiten zuen
- igortziria egin zuen

Jatorragotzat eman baititugu (ikus honi buruz 32.54 puntua) ARI IZAN-eko esaerak:

- euria ari du
- eguzkia ari zuen
(= eguzkia zegoen)
- igortziria ari izan zuen

33.2 No es correcto utilizar **egin** para los fenómenos atmosféricos.

Il n'est pas correct d'utiliser agin pour les phénomènes atmosphériques.


33.3 Erdal itzulpenak, beraz, hauek dira:

- euria ari du (= llueve / il pleut)
- eguzkia ari zuen (= hacía sol / il faisait soleil)
- igortziria ari izan zuen (= hizo rayos / il tonna).

Eta, bide beretik, hitz egin aditzari dagokionez, hau dugu:

- hitz egiten du
- hitz egiten zuen
- hitz egingo du
- hitz egin du
- hitz egin zuen

Baita dagozkien eskemak ere:



Aditza, hitz batez, egin aditzak markatzen du.

33.3 Esquemas aclaratorios.
Schémas d'explication.

33.4 Ezezkoetan, berezi egin daiteke izena, edo-ta ilara alda:

- oso ondo hitz egin duzu
- ez zuen hitzik egin
(= ez zuen egin hitzik)
- hitz egin behar dugu
- nork egin behar du hitz?

33.4 Expresiones negativas.
Expresions négatives.

33.5 Esaldiaren gunea edo «galdegaia» aditza bera denean (ikus 21. ikaskaia), aditz horrek «egin» hartzen du:

- atzo esan zion
- esan egin zion azkenean
- nork ekarri du hori?
- ekarri egingo dizut liburua

Hori dela bide, galdegaia «egin»ezko aditza denean, «egin egin» entzuten da, bi aldiz segidan. Hau oso jatorra da, eta zertan harriturik ez dago:

- luzaz hitz egin genuen
- hitz egin egin behar dugu lasai
- askotan ez tul egiten duzu
- ez tul egin egingo duzu
- egin behar ahal dut?
- Bai. Egin egin behar duzu.

33.5 El verbo como elemento inquirido.
Le verbe en tant que noyau central.

33.6 «Buen provecho / bon appétit» esaerari, on egin dagokio euskaraz; eta ez *ona egin:

- on egin deizuela (= degizuela)
(eta ez ona egin...).

33.7 Aspaldiko mendeetan normala zen «egin» hori aditz trinko gisa jokatzea:

- **otoitz dagigun**
- **argi legien**
- **pot legionzat**

Gaur ez da horrelakorik egiten:

- **egin dezagun otoitz**

agintekeran ez bada:

- **egizue barre!**

33.7 Flexiones finitas de **egin**.
Flexions fortes de **egin**.

34 - ERAZI, ERAGIN

- 34.1 «Hacer comer, hacer beber, hacer leer... / faire manger, faire boire, faire lire...» ideia hori («factitivo / factitif»), nola adieraz euskaraz?

Hiru bide daude:

- 1) **-ra-** artizkiuz.
 - 2) **-erazi** aditzaz
 - 3) **-eragin** aditzaz.
- Azter ditzagun.

34.1 –Existen tres procedimientos en vasco para obtener los factitivos.
–Il y a trois procédés en basque pour obtenir les pactitifs.

- 34.2 **Fosildurik** gaur, **-ra-** artizkia erabili izan da aspaldiko mendeetan:

ikasi	→	irakatsi
ikusi	→	erakutsi
entzun	→	erantzun
etzan	→	eratzan
jaiki	→	eraiki
etorri	→	eratorri (= derivar / dériver)
ibili	→	erabili
eman	→	eraman
egin	→	eragin

Lerrokada horretan bertan ageri diren batzuek, jatorrizko balio semantikoa galdu dute; eta, **lerraketa** baten bitartez, **bestelakatu** egin dira.

Hauxe da kasurik nabarmenena agian:

jantzi → **erantzi**

(= desnudar / déshabiller; eta ez, arropak jar erazi)

Nolanahi ere **moldabide hau hila da**; eta, umorez Lafittek esaten duen bezala, «erhigitu» hitz berriak (= higitu + (-ra-)) ez luke gaur funtsik: «**ne serait comprise par personne**» (Gramm., 38).

34.2 -Existe el infijo -ra-, hoy fosilizado; que ha sido utilizado con un tipo bien concreto de verbos.
-Il y a l'infixe -ra-, aujourd'hui fossilisé; et qui a été utilisé jadis avec un type bien précis de verbes.

34.21 Urte hauetan, halere, «**asesinar / assassiner**» euskaratu nahiz, eta oinarriztat (ustez bederen!) «hil» hartuz, «erahil» asmatu dute (??). Baita, horretatik, «erahila» = «asesinado / assassiné».

Bi arrazoin bide dituzte hitz bitxi hori proposatzeko:

a) hil + (-ra-) = erahil

2) «eraile» hitz zaharra = asesino, assassin.

Hots, behin eta berriz eta hamaika bider:

a) **-ra-** eragilea, oso era zehatzetan erabiltzen da. Aski du irakurleak 34.2 puntuan ageri den aditz-lerrokada begiratzea, berehalaxe gauza batez ohartzeko: **-ra-** onartu duten **aditz GUZTIOK molde zaharrekoak** direla (ikus 30.21). hil aditza multzo edo sail horretakoa ez izanik, artizkia kasu horretan erabiltzeak ez du funtsik.

b) Iparraldean, **ONGI BIZIRIK**, ba dago gaur ere «matar / tuer» aditza:

ERHAN, ERHO, EHO

(Azkuek berak ere ba dakar: I, 261, «matar»).

Hots, Iparraldean hau dugu:

erran → erraile
 egon → egoile
 jasan → jasaile
 eman → emaile

Eta, hortaz;
 erhan → erhaile

Eta hau bai; hau hitz zaharra da, eta, lehen «erhan» bezala, Euskal Herri guztian barrena zabaldua:

«Eraila (B, Mog., Micol.)
 eraile (c)
 erhaile (S-s) = asesino / assassin»
 (Azkue, Dicc., I, 246)

–ra– hori ez da eragile
 Eta *erahil ez da euskal hitza:

hil → hiltzaile

Eta porru hori bakarra balitz!...

Ez da hori txarrena; Azkuek, orain dela 56 urte, burruka berbera baitzuen «erail» funsgabe honetxan aurka (ikus Morfología, 3. orrialdean).

34.21 –Observación sobre la palabra erhaile y sus posibles derivados.
 –Remarque au sujet du mot erhaile et de ses dérivés possibles.

34.3 Bigarren bidea erazi bidez dugu:

aditu → adierazi
 hartu → harrerazi

Hots, bi adibide hauetan ongi ageri denez, erazi hori ez zaio partizioari erasten, aditz-erroari baizik:

aditu → adi → adierazi
 hartu → har → harrerazi

Eta *aditu-erazi eta *hartu-erazi ez dira ezer euskaraz.

Aditz-eragilea sortzerakoan, hortaz, erroa berezi behar da aurrenik; eta, segidan gero, erro horri **erazi** erantsi:

itzuli	→	itzul	→	itzulerazi
sartu	→	sar	→	sarrerazi
entzun	→	entzun	→	entzunerazi
hil	→	hil	→	hilerazi
nahasi	→	nahas	→	nahaserazi
garbitu	→	garbi	→	garbierazi

Bi ohar, dena dela:

a) Errora jo behar, ez dela batere harrigarria, erroa baita denentzako oinarria:

- itzultzaile
- sarrera
- entzule
- nahasketa
- garbitzaile

b) Euskal sena galdu ala, **izan /edun** laguntzaile-truke soilak daukan indarra neurtzen ez dakigula:

- hil da** = ha muerto / il est mort
- hil du** = ha matado / il a tué
- sortu da** = ha nacido / il est né
- sortu du** = ha creado / il a créé
- joan da** = ha ido / il est allé
- joan du** = ha llevado / il a porté (BN)
- «**hiltzaile**» = (asesino / assassin, Azkue, I, 409)

34.3 – Empleo del factitivo erazi.
– Emploi du factitif erazi.
– Potencialidades del simple cambio de auxiliar.
– Possibilités offertes par le changement pur et simple d'auxiliaire.

34.4 **Hirugarren bidea** EGIN-eko aditzei dagokie; eta **egin** horretatik

eragin delakora pasatzen du:

- farra EGITEN eta ERAGITEN zigun
(Kardaberatz)

Eta bide beretik:

- alde egin → alde eragin
- barre egin → barre eragin
- ihes egin → ihes eragin
- lo egin → lo eragin
- negar egin → negar eragin
- zin egin → zin eragin

Eta ez, inolaz ere, *alde egin erazi, *barre egin erazi, eta gainerakoak.

Era berean, *adi eragin, *sarreragin, eta abar, ez dira zuzenak.

Aditz eragile edo «erazle» hauen moldabide zuzena ez da batere galdu, mende honetako idazle edo bertsolari jatorrengan ikus daitekeenez:

- farrak eragin (Xenpelar)
- orrenbeste itz eragitea (Txirrita).
- ez barren egiteko, ezta eragiteko're (Urruzuno).

Eta zer esanik ez aurrekoengan:

- farra egin eta eragiten zigun (Kardaberatz)
- iges eragin zien (Gerriko)

Baita modu honetara ere:

- eragin zuen preso (Gerriko)

34.4 El paso de egin a eragin.
–Le passage de egin à eragin.

34.5 Ohar batzu egin behar dira honeraz gero:

- a) Azkuek zorrozki ikusi zuenez, aditz-eragile hauek guztiak **NORK**-aditzak dira.
- b) Aditz eragileak, gisa denez, sustrai-aditzak baino

elemendu bat gehiago daukala:

jaiki → eraiki
etorri → eratorri
ibili → erabili
itzuli → itzulerazi

Hitz batez: ERAGILEA ageri da.

Azter dezagun, ordea, bertagotik.

34.51 NOR - aditzetan

(zu) itzuliko zara → nik itzulerazi nahi zaitut (zu)
(hura) erori zen → hark erorerazi z-uen (hura)
(gu) joan ginen → zuk eroan gintuzun (gu).

- NOR ez da aldatzen
- NORK agertzen da, aditz-eragilearen egile.
- aditza NOR motatik, NORK motara igarotzen da.

34.5 –Observación fundamental sobre las personas en los factitivos. Aplicación del criterio en la comprensión de las formas éticas.
–Remarque fondamentale qui concerne les personnes et les factitifs. Application de ce critère a l'élucidation des formes verbales éthiques.

34.52 NORK- aditzetan

(nik) saldu dut — hark ni behartu nau saltzera,
nik sal dezadan.
(nik) saldu dut hik behartu nauk ni, orain
nik sal dezadan

hortaz:

(nik) saldu dut → salerazi dida k (niri) (hik)
(guk) erosi dugu → eroserazi digu k (guri) (hik)

- **NORK NORI** bihurtzen da
- eragileak **NORK** hartzen du
- **NOR** ez da aldatzen

Honek guztiak garrantzi handia du ADITZ ETIKOA-ren funtza ulertzeko (ikus 38. ikaskaia).

35 - ADITZARI DATXEKION DEKLINABIDEA

35.1 Aurreko kapituluetan azaldu denez, aditzak lau molde ditu oinarrian:

gerta { daiteke
dadin
bedi

gertatu } da
gertatzen }
gertatuko }

gertatuko = gertatu + ko

gertatzen = gerta + tze + n

Hori dela-ta, hiru molde berez daitezke, deklinabideari dagokionez:

1) **GERTA: EZ DA DEKLINATZEN**

2) **GERTATZE: benetako ADITZ-IZENA.**

(eta, hori dela-ta, beste edozein izen bezala **DEKLINAGARRI**)

3) **GERTATU: PARTIZIPIO, ADITZ-ADJETIBO** esan daitekeena; eta, hein batean bederen, **deklingarria ere bai.**

35.1 –Hay seis formas fundamentales, a las que se añaden los auxiliares en la conjugación perifrástica.
–Il y a six formes fondamentales, qui servent de noyau auquel on ajoute les auxiliaires pour obtenir la conjugaison périphrastique.

35.2 **GERTA** (= aditz-erroa).

Ez da deklinatzen.

Aurrerago ere esan dugunez (eta 25, 26 eta 27. ikaskaletan bereziki) **aspektu bururatua**-ri dagokio; eta ***edin** / ***ezan** laguntzaileez erabiltzen da:

- **gerta daiteke** (= puede / il peut)
- **gerta zaitez** (agintekera)
- **gerta dadin** (subjuntibo).

35.2 –Radical verbal. Indeclinable. Aspecto perfecto.
–Radical verbal. Indéclinable. Aspect parfait.

35.21 Lehen esandakoa errepikatuz, hortaz, erroa ez da soilki erabiltzen, hiru molde hauetako **zerbaiten laburdura** gisa baizik:

- **abia!** (= abia gaitezen)
- **gal beldurrez** (= gal dadin beldur naiz)
- **joan eta bila orain** (= bila zak)

Bide beretik azaldu behar da hau:

- **ikus artio!** (= berriro elkar ikus dezagun artio).

35.3 **GERTATZE** (= aditz-izena)
(= el suceder / le fait d'arriver)

5. ikaskaian azaldu genuenez, **izenketan** ageri du honek bere funtsa: **egur biltzen**, **mando mozten**, **ardo edaten**, **kondu hartzen**, eta abar. Alderdi guztietatik ikus daiteke izenketa: **egurbilketa**, **mandomozketa**, **ardoedanaldi**, **konduharrera**, eta abar, sortuko bagenitu bezala.

Ez da guztiz «grammaire-fiction». Ezagunak dira Oñati-Arrasate inguruko aditz-izenak:

- **aginketan** (= agintzen)

- illóketan (= illotzen)
- ingíreketan (= ingiratzen)
- saláketan (= salatzen)
- úrreraketan (= urreratzen)
- urríketan (= urrintzen)

eta beste anitz (ikus K. Izagirre, Urquijo, 1970).

Hori dela-ta, deklinabide **osoa** du aditz-izenak; nahiz forma batzu, pratikan, oso erabiliak ez izan.

Ohar bat: **inesibo**-ari dagokionez, **-n** da atzizkia (zaharrena, dudarik gabe) eta leku-izenetan gorde den berbera:

Hazparne → Hazparnen

Sunbilla → Sunbillan

35.3 –El substantivo verbal. Diversas pruebas de su carácter esencial de sustantivo.
 –Le nom verbal caractère. Raisons diverses qui montrent son caractère essentiel de nom.

35.31 Deklinabidea:

GERTATZE

mugag.

0.1	—	gertatze	—
0.2	—	gertatze	— K
0.3	—	gertatze	— r I
1.1	—	gertatze	— r EN
1.2	—	gertatze	— r ENTZAT
1.3	—	gertatze	— r ENGATIK
1.4	—	gertatze	— r EKIN
1.5	—	gertatze	— Z
2.1	—	gertatze	— TAKO
2.2	—	gertatze	— N
2.3	—	gertatze	— TARA
2.4	—	gertatze	— TARAINO
2.5	—	gertatze	— TARUNTZ
2.6	—	gertatze	— TATIK
0.11	—	gertatze	— r IK
3.1	—	gertatze	— TZAT

Sing.		Plu.	
gertatze	– A	gertatze	– AK
gertatze	– AK	gertatze	– EK
gertatze	– ARI	gertatze	– EI
gertatze	– AREN	gertatze	– EN
gertatze	– ARENTZAT	gertatze	– ENTZAT
gertatze	– ARENGATIK	gertatze	– ENGATIK
gertatze	– AREKIN	gertatze	– EKIN
gertatze	– AZ	gertatze	– EZ
gertatze	– KO	gertatze	– ETAKO
gertatze	– AN	gertatze	– ETAN
gertatze	– RA	gertatze	– ETARA
gertatze	– RAINO	gertatze	– ETARAINO
gertatze	– RUNTZ	gertatze	– ETARUNTZ
gertatze	– TIK	gertatze	– ETATIK

Oharra: Aski da aditz-izen ezagun bat (zahartze, eman dezagun), taula honetan ageri diren moldeen normaltasuna ikusteko.

Baita **inesibo normala** ere entzun daiteke: **zenbait zehartzetan ikusi da hori.**

–era, –kuntza, –kunde, eta abar, izanda, hobe dirudi –tze atzikia **aditzen konjugabidean**, eta ez bestetan, erabiltzea.

35.32 Egin ditzagun orain ohar batzu deklinabide horretaz.

35.321 **GERTATZEA**. Gorago ere esan dugunez, erdarazko «el (hecho de) decir, hacer, traer... / le fait de dire, faire, apporter...»

izen-aditzaz adierazten da:

- gehiegi jatea ez da gauza ona
- hori aitortzea kaltegarri gerta dakizuke
- gaizki dago hori egitea.

Iparraldeko euskalkietan, «horren aitortzea», «horren egitea», esango litzateke gaur. Bi esaera horietan zein hauta? Euskaltzaindiak ez du biderik markatu; eta biak ontzat eman daitezkeela dirudi. Hona hemen Lafitte-ren iritzia: «Théoriquement il est impossible de condamner l'un des points de vue au bénéfice de l'autre» (Grammaire, 221).

Azaltzea luzeegi izango litzatekeen arrazoin mordoskak batetik, eta idazleen joerak bestetik, hori aitortzea, hori egitea, ura edatea, ogia jatea, eta abar, **hobestera** eramaten gaituzte.

35.3211 **eduki** aditzaren ondoan, beste adiera bat hartzen du esaldia:

- egitea zeukan! (= egin balu, ez zen orain horrela ibiliko)
- ikastea daukazu! (= aski duzu ikastea, eta kito)
- joatea daukak! (= aski duk hara joatea).

35.3212 **Aditzea-ri** beste esaera jator hau dagokio:

- horren aditzerik ba al duzu?
(= inoiz entzun al duzu ezer horretaz?)
- Einsteinen aditzea ba dut

(= jadanik zerbait entzuna dut Einsteinez).

– neska horren aditzea ba dut

(= ya he oído hablar de esa chica / j'ai déjà entendu parler au sujet de cette fille).

35.3213 Lehenago ere aipatu dugunez, subjuntibo labur gisa erabiltzen da:

– nahi nuke zuek etortzea

(= zuek etor zaitezten)

35.322 GERTATZEN

35.3221 Batzutan laguntzailezko aditz osoaren laburdura gisa erabiltzen da soilik:

– josten ikusi nuen

(= josten ari zela ikusi nuen)

Hona hemen, bizkaierari dagokionez, Holmer-ek diona: «El gerundio se usa mucho para expresar a o para con un infinitivo en español, como en: erosten juen nai (= a comprar, para comprar)».

35.3222 «On da...», «Zail da...», «Neke da...», eta abarren, osakin gisa erabiltzen da:

– ez da errez sinesten

– gaitz da esaten

Lehenago ere esan denez (ikus 5.2) bi moldeak erabil daitezke:

sinesten = sinestea

esaten = esatea.

Euskalkien arabera, lehenengoa (B) edo bigarrena (erdiko

euskalkietan) erabiltzen dira. Molderik zaharrena, dena dela, sinesten eta esaten moldeari bide dagokio.

35.3.223 ari izan aditzarekin erabiltzen da:

- ikasten ari da
- botatzen ari ziren

35.3.224 Gauza bera ote dira:

- a) margotzen ahantzi zaio?
- b) margotzea ahantzi zaio?

Ez.

a) (= lehen ba zekien margotzen, poliki erabiltzen zituen pintzelak; baina orain zabartu egin da, eta ez daki margotzen).

b) (= etsamina ongi gainditzekotan, ariketa batzu egin behar zituen. Ongi egin ditu gainerakoak; baina margotu ere egin behar zuen, eta puntu hau, margotzea, margoketa, ahantzi egin zaio).

(zalantzazko kasuetan, hitz batez, on izaten da –tzen-en ordez, –keta jartzea).

Ikasi, ahaztu, irakatsi, eta abar, –tzen-ekin:

- mintzatzen ikasi du
- josten irakatsi diote
- pintatzen ahaztu zait
- hitzegiten daki

35.3.225 Bitxikeria gisa, ohar pare bat.

- a) Ba dagoela, Baxenabarreko euskalkian, joaten adizkiaren kide bitxi hau: johan
–ongi johan dea? (maiz entzuten da hau Hazparnen)
(= ongi joaten dea?)
- b) Ba dagoela lapurteraz, –tzen honen kide hertsia, –ki atzikia

(ez, nolanahi ere, edozein aditzi erantsia):

- egoki naiz (= egoten naiz)
- etorki dira (= etortzen dira)
- ibilki gara (= ibiltzen dira)

Lafittek ematen duen lerrokadan hauek aurki daitezke:

izaki
ibilki
erorki
ethorki
egoki
joaki (= gaki, Azkainen)
eramaki
iragaki
jakiki.

Funtsean, denek dute (edo izan dute) jokabide trinkoa (da, **dabil, zerorizkan, datorren, dago, noa, daramat, dakit**). Honi loturik ote dago? Ezin esan.

Bide honetatik abiatuz gero, hondarbitarrak txapeldun:

- faki ga (= faki gara)

Pittin bat Erronkariko haiek bēzala:

- fatan gra

Jakina: **Euskaltzaindiak ez du ezer esan –ki** honetaz; eta lekuko hizkeratzat hartu behar da.

35.3225–Varios sustantivos verbales irregulares.
–Plusieurs noms verbaux irréguliers.

35.323 GERTATZEAN

(= en el momento en que... / au moment où)

- hori esatean (= hori esan zuen mementoan, hori esaten ari zen mementoan)
- harria botatzean (= harria botatzen zuen mementoan)
- liburua bukatzean (= liburua bukatzen zuen memento hartan)

– **tean** = –terakoan

Esate baterako:


– **hori esatean**

(= hori **esaten** zuen unean)


– **hori esaterakoan**

(= hori **esatera** zihoan unean).

Hori esatean:



Hori esaterakoan:



35.324 GERTATZEAZ

Egia esan ez du ezer berezgarririk:

– **atsegin dut zure ahotsa entzuteaz**

(= de oir tu voz / d'entendre ta voix)

– **Euskal Herriaren indartzeaz mintzatu zen**

(= Euskal Herriaren indarkuntzaz).

35.325 GERTATZERA

35.3251 Bere adiera normala du, noski:

– **ikustera noa** (= voy a verlo / je vais le voir)

– **erostera irten dira** (= a comprarlo / l'acheter)

– **apaintzera eraman dute** (= a adornarlo / l'orner)

Españerazko «a» itzultzen du.

Honetatik ere **-tzerakoan**:

- **sartzerakoan** (= sartzeko unean, tenorean)
- **amaitzerakoan** (= amaitzeko mementoan)
- **hori aitortzerakoan** (= en el momento en que iba a declarar eso / au moment précis où il allait avouer ça)

35.3252 Gipuzkeraz ba du beste balio bat:

- **hori gertatzera** (= hori **gertatzen bada**)
- **liburua erostera** (= erosten baduzu)
- **mutila eramatera** (= eramaten badute)

Honen kidea dugu beste hau:

hori erostera = hori **erosiz gero**.

Erdaraz: «en caso de que... / dans le cas où...».

35.3253 Zubereraz beste adiera batez erabiltzen da; eta gero aipatuko dugun atziki bat azal dezake:

- **galtzéa beítá** (= galtzera baita)
(= **galtzen ari** denez gero)

Hots, Iparraldeko euskalkietan (eta Nafarroan ere bai, Azkuek dionez) honen antzeko den **-tzer** (= **-tzeaz**) ba dago:

- **galtzer da** (= galtzeko zorian)
- **hiltzer dira** (= hiltzeko zorian)

«A punto de / sur le point de» itzultzen du Azkuek.

- El vasco está a **punto de** morir / le basque est sur le **point de** mourir =
= **euskara hiltzer da**.

Hots, horixe da **-tzera** atzikiak gaur bertan ere duen semantika-balioa:

- **üskáa galtzéa beítá**
(= euskara galtzeko zorian dagoenez gero).

35.326 GERTATZEKO

Subjuntiboaren laburdura da:

- etortzeko esan nion
(= etor zedin)
- joateko agindu zidan
(= joan nendin)
- ez isiltzeko erantzun nion
(= isil ez zedin)

Erdaraz: «que, para que / que, pour que». Xedea markatzeko erabiltzen da.

- 35.3261 -tzeko daramate, beraz, ondoko aditzek: beldur, gai, herabe, lotsa,... (izan)
- sartzeko beldur naiz
 - esateko lotsa zen
 - ikasteko gai zara.

35.3262 Honetatik -tzekotan:

- hori saltzekotan (= en el caso de venderlo / dans le cas de le vendre)
- hura entzutekotan (= en el caso de oirlo / dans le cas de)
- marrubiak jatekotan (= en el caso de que comamos las fresas / dans le cas...).

35.4 GERTATU (= aditz-adjetiboa)

Berriz ere lehenago egindako ohar berbera.

gertatu = sucedido / arrivé
(eta ez, suceder / arriver)

ikusi = visto / vu
(eta ez, ver / voir)

Baina honetan ere burruka latza dugu; aditzak ematerakoan

erroa eman beharrean (Erronkarin egiten zuten bezala), partizipioa eman ohi baitugu.

35.4 –Diferencia entre adjetivo y participio. Croquis diversos.
–Différence entre adjectif et participe. Divers schémas.

35.41 Adjetiboez sortutako aditzetan ageri da hau ongienik:


– **gazte** (= joven / jeune; berezko nolakotasuna)




– **gaztetu** (= rejuvenecido / rajeuni) (lehen ez zegoen dohaina agertu)



– **itsusi** (lehen eta orain)



– **itsustu** (= afeado / enlaidi) (aldatu egin da)



Adjetiboan **berezko egoera** dago; partizipioan, berriz, **aldakuntza** edo **bilakaera** baten ondorioa.

35.42 **Adjetibo gisa** erabiltzen delarik, **deklinat**u egin daiteke:
gaztetua, gaztetuari, gaztetuarengan...

35.43 Ondoko kapituluetan aztertuko ditugun **aditzondoak**,
partizipioari erasten zaizkio:

ikusi gabe
ikusi ondoan
ikusi eta
ikusi orduko
ikusi arren

35.44 Ohar labur batzu, dena dela, bitxikeriarik ezagunenak
azaltzeko.

a) Bi esakera hauek ez dira guztiz berdinak:

- teila erori da (= ha caído / elle est tombée)
- teila eroria da (= ha caído ya / elle est déjà tombée)
- hori esan dut (= he dicho / j'ai dit)
- esana dut hori (= ya lo he dicho / je l'ai déjà dit)

Zubereraz: **eroririk da, erranik düt.**

Gogoan har, honi buruz, 21. kapituluaren esandakoa.

b) « no hay **nada que** ... / il n'y a **rien à**...»

= ez dago zer **–ik**

– ez dago zer **galdeturik**

(= no hay **nada que** preguntar / il n'y a **rien à** demander)

– ez zegoen zer **esanik**

(= no había **nada que** decir / il n'y avait **rien à** dire)

c) **–ik ere** (= **aun cuando** ... / **même si** ...)

– hori **gertaturik ere**

(= aun cuando suceda eso / même si cela arrive)

– hau **agindurik ere**

(= aun habiendo ordenado esto / même en ayant ordonné ceci)

Honen kideak

- hori **gertatuagatik ere**
- hau **aginduagatik ere**

Hortaz:

- ik ere = –agatik ere

(oinarriztat PARTIZIPIOA hartuz)

d) –ik soilik (= habiendo... / en ayant...)

- hori **esanik** (= **habiendo dicho** eso / après avoir dit cela)

- hona **etorririk** (= **habiendo** venido aquí / en étant arrivé ici)

Eduki eta egon aditzekin, bereziki, –(r)!K da atzizkia.

Hona hemen adibide batzu:

- **eseririk daude** (Mendiburu)
- **Jesusek berak erranik zedukan eran** (Mendiburu)
- **itxatxirik zegoan** (Gerriko)
- **bizirik egon** (Arrue)
- **egiñik zeuden** (Gerriko)

–ten / –tera

Hona hemen **diferentzia**:

- **hara iritxita** (= al llegar allá / en arrivant là-bas)

- **hara iritxirik** (= habiendo llegado allá antes / en étant arrivé au préalable jusque là bas).

e) – **hori ezin ahaztuz** (= **no pudiendo olvidar** eso / **sans pouvoir oublier** cela)

Eta horretatik:

- **ezin sinetsizko** (= increíble / incroyable)

- **ezin esanezko** (= indecible / indicible)

- **ezin eramanezko** (= intransportable / importable, impossible à être porté).

f) – **esateagatik** (= esan duzulako)

- **esanagatik ere** (= zuk hala esanik ere; horrela esan baduzu ere).

Nola itzul:

«por no... / pour ne pas...»?

Noski: «ez – gatik» ba dugu.

– por no haberlo pagado /

pour ne pas l'avoir payé

= **ez ordaintzeagatik**

Baina joskera jator berezi bat ba dago:

– **ordaindu gabez.**

Gogoan atxikitzea on litzateke.

36 - PERTSONA ADIZKIEKIKO ATZIZKIAK

Hona hemen, ilaran, pertsona-adizkiei erasten zaizkien atzizkiak: **da** – **dela**; **naiz** – **naizenean**; **gara** – **garelako**: eta **abar**.

36.1 – **la** atzizkia

36.1 –El sufijo **-la**. La diferencia con **-nik**.
–Le suffixe **-la**. Différence avec **-nik**.

36.11 Konpletiben ezaugarria bera da, eta galdegaia diren esaldietan erabiltzen da (er. **que** / **que**)

– **etorri da** (– etorri dela esan digute).

ZER esan digute?

ETORRI DE-LA esan digute.

– **sagarrak erosi zituen**

(– sagarrak erosi zituela jakin genuen. ZER jakin genuen?)

EROSI ZITUELA jakin genuen.

Hor ageri denez:

a) Aditz nagusia baiezkoa da.

b) Bigarren mailako esaldia, nagusi horren galdegaia da.

Bi baldintza hauek **derrigorrezkoak** dira; bestela **-n** eta **-nik** agertzen dira:

- **ez digute esan etorri DENIK**
(galdegaia hemen EZ balitz bezala)
- **etorri ote DEN galdetu al dizuete?**
(**galderazkoa**)

- **etorri ote DEN ez dakigu** (= erd. **si / si**)
(**zalantzazkoa** dugu oraingoan)

Konpletiba hori, hitz batez:

ezezko
galderazko
zalantzazko

esaldi nagusi bati dagokionean, **-la ez da erabiltzen**. Hots, hiru perpausa-molde hauen berezitasuna, behin eta berriz agertzen eta agertuko da.

LA, hitz batez, zerbait BAIESTEKO erabiltzen da.

Bestek **-n, -nik** ordaintzen dute.

Bizkaieraz bederen (baina Gipuzkoan ere maiz entzuna) ongi atxikitzen da **-na = -la** liferentzia.

Eman ditzagun bi esaldi hauek:

- a etorri da**
- b esan digute**

eta alda dezagun orain galdegaia

Esate baterako:

- **Zer** esan digute?
- **Etorri dela** esan digute.

Kasu horretan, **b** esaldia dugu galdegaia.

Beste honetara, berriz:

- **Nola** jakin duzue?
- **Esan egin digute** etorri **dena**

Ezezkoetan, bide beretik, **-nik**izango dugu; ez-**a** bera galdegaia delarik:

- **ez digute esan** etorri **denik**

Baiezkoetan **-na** dugu:

- **Ba dakigu** etorri **dena**
- **ez dakigu** etorri **denik**

Oharra: liferentzi honen kakoa ongi ulertzea beharrezkoa da; **-lako** eta **-ta** ren arteko desberdintasuna, **mota berekoa delako**.

36.12 **Arrisku handia** dago **-la = que** idazteko; hein batean baizik ez baita egia hori.

USTE eta **NAHI** aditzezko konpletibek, gorago ere esan denez, **-n** behar dute; eta ez **-la**.


– joan zaitezen nahi dugu (= eta ez zaitezela)

– beldur nintzen ager zedin (eta ez zedila)

– iritsi den uste dut (iritsi dela baino jatorkiago; honetan lpartarrei garraizkielarik).

36.13 Beste adiera bat ba du **-la** honek: **erd. cuando / en... -ant**

– horretan ari nintzela, Andoni azaldu zen (= cuando estaba yo... / alors que...) Adiera honetan, **-nean** -en antzekoa da. Bien arteko liferentzia eman nahi izatekotan, hau esango genuke:



(en el momento en que... / au moment où...)

36.131 – Ohar bat, dena dela:



-nean \neq -netan

– etorri **zenean**

(= cuando vino / lorsqu'il est venu).


– etorri **zenetan**

(= etorri zen aldietan; las veces que vino / les fois qu'il est venu).



36.14 – **larik**

Hona hemen Azkue-ren iritzia: «Larik, por lo menos en nuestros días, **no añade ningún matiz semántico a la**» (Morf. 362)



(= cuando estaba haciendo... / alors que je m'occupais de...)

– Gauza bera, noski, **-larikan** atzizkia.

36.15 – **larik ere**

«Aun cùando... / même si...»

– hori esan zuelarik ere, ez zuen lortu

(= a pesar de que dijo...

por más que dijo...

aun cuando dijo... / malgré...)

Oso ondo adierazten du ideia honek: **halarik ere** (= aun así / même comme ça).

36.2 – **lako** (= porque / parce que)

– etorri zarelako

(= **porque** has venido / **parce que** vous êtes venu).

– erantzun ez diogulako

(= **porque** no le hemos contestado / **parce que** nous ne lui avons pas répondu)

– **hala delako** (= **porque** es así / **parce que** c'est comme ça).

Perpaua laburretan batez ere hauxe erabiltzen da maizenik.

36.2 –La expresión de la causalidad. –L'expression de la causalité.
--

36.21 – **lakotz = -lako**

Euskalkien arabera bata ala bestea erabiltzen dira; baina Azkuek «**sinónimos, sin ningún otro matiz de significación**» jotzen ditu (Morfología, 362), eta Villasantek ere, bide beretik, «**lako-ren variante**» -tzat dauka (Sintaxis, 155).

Nafarroa Garaian entzun daitekeen – **lakos** delakoa ere, gauza bera da.

36.22 – **lakoan**

(= **creyendo que...** / **estimant que...**)

– **ama zelakoan** (= ama zen ustean)

– **barkatuko ninduzulakoan** (= barkatuko ninduzun ustean)

– **etorri delakoan** (= etorri den ustean)

– **lako eta -lakoan**, hortaz, **ez dira batere berdinak**.

– **ama zelako** (= porque, OBJETIVAMENTE, era la madre / parce que, OBJECTIVEMENT, c'était la mère)

– **ama zelakoan** (= porque él, SUBJETIVAMENTE, había pensado que era la madre / parce que lui, SUBJECTIVEMENT,

croyait que c'était bien sa mère).

– **barkatuko ninduzulako** (= porque, OBJETIVAMENTE, me ibas a perdonar / parce que, OBJECTIVEMENT, tu allais me pardonner).

– **barkatuko ninduzulakoan** (= porque, SUBJETIVAMENTE, creía que me ibas a perdonar / parce que, SUBJECTIVEMENT, je croyais que vous alliez me pardonner)

36.23 Eta **zeren**?

Hau aurretik doa:

– **zeren egun hartan zure aita etorri ez baitzen**

– **zeren egun hartan zure aita etorri ez zen**

zeren = zeren-eta (gaur maizago entzuten da Iparraldean «zeren-eta» hau, «zeren» soila baino).

Zer adierazten du? **Porque / parce que**. Adierari dagokionez, hortaz, **bata edo bestea** erabil daitezke:

zeren-eta etorri baita / etorri delako.

Ba dirudi perpausa LUZEETAN, **zeren (eta)**... **bait-** erabiltzen dela; eta perpausa LABURRETAN, berriz **-lako** erabiltzen dela. Baina bien artean ez dago oposizio sakonik; eta erosotasunaz kanpoko hautabiderik ez dago.

Zeren (eta) hau, joskerari dagokionez, ez da euskal jitearen araberakoa. Hau garbi dago. Baina bai herriak, bai idazleek, betidanik erabiltzen dute; eta euskalki **guztiak** hori. (Aski da bizkaierazko **ze** famatuaz oroitzea).

Onartu beharra dago, beraz; batez ere, denaz gain, perpausa luzeetan eskaintzen dituen aukera aberatsengatik.

36.231 **Zeren** honek (edo **ze**, **zeren-eta** eta gainerakoek) hizki bat erasten du aditzean:

edo **-n** (= etorri den)

edo **bait-** (= etorri baita)

*Zeren etorri da, ez da euskara. Bai, ordea:

- a) zeren etorri den (Hegoaldean)
- b) zeren (eta) etorri baita (Iparraldean)

36.24 – ta.

Gogoan har ditzagun orain ondoko bi esaldi hauek:

- anaia etorri delako
- anaia etorri da-ta.

Liferentziarik ba al dago?

Ez handirik gaurko euskara mintzatuan. Baina Altubek azaldu du ongienik bien artean dagoen alderdia (ikus «Erderismos», 208-209).

Eman ditzagun bi esaldi hauek:

- A) hori gertatu da
- B) harria bota diozu.

Eta eman dezagun orain B dela A gertakariaren zergatikoa edo kausa:

B → A

(= B gertaerak A gertaera ekarri du).

Eta orain galdera hau egiten dugu: ZERGATIK gertatu da A gertakaria?

Erantzuna hau izango da:

– (harria bota DIOZULAKO) gertatu da (A).

Zergatikoa, hitz batez, B gertaera da; edo bestela esateko, B da GALDEGAIA. Eta horregatik hartzen du -lako atzikia, eta aditz nagusiaren aurrean jartzen.

– gehiegi jan duzulako harrapatu duzu betekada hori (= zergatik betekada hori? Ba dakit, eta zuk ere bai: gaur eguerdian gehiegi jan DUZULAKO).

Zergatikoa aurretik (edo ezkerretan, nahiago bada).

Eman dezagun orain B dela, A-ren kakoa, hori bai; baina ez dugula azpimarratu nahi. Orduan:

– zergatiko hori aurretik jarri beharrean (ezkerretan jarri

beharrean), **ondotik** (edo eskuinetan) jarriko dugu; **galdegaia** EZ IZATEARI dagokionez;

eta **lako** erantsi beharrean, **-ta** erantsiko diogu:

– hori gertatu da, harria bota diozu-ta.

«Harria botatzea» da, bai, gero gertatu denaren kakoa; baina ez dugu bereziki markatu nahi, eta **ez dugu perpausaren galdegaia** egiten.

– **lako** atzizkiari, irudi hau dagokio:

$B > a$

– **ta** atzizkiari, berriz, beste hau:

$B \sim A$

Lehenengoan B gertakarian dugu arreta; bigarrean elkarren parean uzten ditugu biak.

– **lako AURREAN** doa:

– etorri ez zaretelako gertatu da hori.

– **ta ATZEAN** doa:

– hori gertatu da, etorri ez zarete-ta.

36.24 – Empleo de –lako y de –ta. – Emploi de –lako et de –ta.

36.241 Bait–

Soilik doanean, **bait-** hau **-ta-**ren kidea da:

– hori gertatu da, etorri ez baitzarete.

Iparraldeko euskalkietan, dena dela, (**bait-** = **beit-**), Hegoaldeko **-lako-**ren ordaina da: **bata** erabiltzen da, pratikan, **ala bestea**. Bakanka biak eta euskalki berean.

36.3 -n atzizkia

Errelatibo gisa duen erabilkera aipatua izan da aurreko ikaskaietan.

Gauza bera erd. **que** / **que** -aren itzulketa gisa **-n** hartzen duen

balioa (ikus ere, hain zuzen, ikaskai honetako 36.1 puntua).

36.3 –Las interrogativas indirectas.
–Les interrogatives indirectes.

36.31 Beti ere kontuz itzulpenetan.

–n atzikia erd. **si** / **si** izan badaiteke ere:

– **ez dakit etorri (ote) den:** (= no sé **si** ha venido / je ne sais pas **s'il** est venu).

Honen kidea da, hain zuzen, **-nez** atzikia (= si **sí** o si **no**; si **oui** ou si **non**):

– **ez dakit etorri (ote) denez:** (= no sé **si** ha caído **o no**; je ne sais pas **s'il** est tombé ou **pas**; ez dakit erori ote **den ala ez**)

– **nez** honen moldeak dira **-ntz** eta **-nentz**; eta Euskaltzaindiak ez du, oraingoz, bakar bat hautatu.

36.311 **Beste gauza bat** da, ordea, **ba-** aurrizkia (= baldin ba); **baldintzak** jartzekoa, alegia.

ba- honek kidea du ingelesez: «if»; baita **-n(ez)** delakoa ere: «whether».

a) no sabemos **si** vendrá (o no) / je ne sais pas **s'il** viendra ou pas: **etorriko ote den(ez) ez dakigu**.

b) **si** viene, se lo diremos; **si** no, no diremos nada / **s'il** vient, nous le lui dirons; autrement, nous ne dirons rien:

baldin badator, esango diogu; ez badator, ez dugu deusik esango.

a) perpausan **zalantza** dago; b) perpausan, berriz, **baldintza** ageri da.

36.4 **-nez gero**

Bi adiera ditu:

– **después de / après**

– **puesto que / étant donné que**

Esate baterako:

– **liburua ekarri duzunez gero**

a) **puesto que** has traído el libro / **puisque** tu as apporté le livre.

b) **desde que** has traído el libro / **depuis que** tu as apporté le livre.

Bigarren adiera honetan, dena dela, maizago erabiltzen da beste atzizki hau:

– **nez geroztik**

= liburua ekarri duzunez geroztik

36.4	–La expresión de la consecuencia. –L'expression de la conséquence.
------	---

36.41 **Oharra:** mende askotan barrena **ezkero** idatzi izan da hau:

– **liburua ekarri duzun ezkeru.**

Azkeneko erabakien arabera, dena dela, **-ez gero** idaztea erabaki da. **Baina:**

1– «(e)z gero» idatziagatik ere, Z + G sandhi-ak **ZK** ematen du (= (e)zkero); eta ortografia berria fonetikari eta moda berriari egokitu beharrik ez dago.

2– Zenbait kasutan, **ezkero** da atzizkia ezinbestean: **noiz ezkeru?** (= noiztanik)

36.5 –**neko**

– **etorri zeneko**

(= etorri zen unetik beretik)

(= **tan pronto como vino / sitôt qu'il arriva**).

– **hura edan zuteneko**

(= hura edan eta segituan)

– **jaiki nintzeneko**

(= jaiki nintzen orduko)

36.51 -neko = -nerako

– etorri zeneko

(=etorri zen unetik beretik)

– etorri zenerako


(= etorri zen unerako; para cuando vino / pour le moment de son arrivée).

36.5/7 –Sufijos -neko, -no, -n arren.
–Suffixes -neko, -no, -n arren.


36.6 –no

Gorago azaldu dugunez, bi adiera hartzen ditu atzizki honek.

*edin / *ezan laguntzailearekin (aspektuz bururatuekin),
«hasta que / jusqu'à» adierazten du:



izan / edun -ekin, berriz, -n bitartean (= en tanto que sucede... / pendant que...)



(= hurbiltzen ari den bitartean)

36.7 –n arren

(= aunque... / quoique...)

– hori moldatu duzun arren

(= hori moldaturik ere)

nahiz -n -esakeraren kidea da:

– nahiz hori moldatu duzun (ere)

(= hori zuk moldatuagatik ere)

37 - EUSKAL JUNTAGINAK

37.1 Ikaskai honetan azaltzen diren atzizkiek eta aurrekoek ez dute berezkune garbirik, noski. Baina arrazoin pratikoengatik soilik egin dugu zatiketa hau; eta, hein batez, beste hizkuntzetan «conjunción / conjonction» sailaren kidea hemen ematekotan (esaldien **elkarketaz**).

37.2 **eta** (= y / et)

Nahiz hizkuntza mintzatuan **ta** bihurtu (bokaleren ondoan, eta bizkaieraz bereziki); eta **da** (l eta n-ren ondoan; eta esaldi haseran ere bai), Euskara Batuaz **eta** idatzi behar da beti.

- **orobat** (= de la misma manera / de la même façon)
- **gertu gaude hara joateko; orobat, esan behar zaiona, esateko.**
- **berebat** (= análogamente / de façon analogue).

37.2 –Conjunciones copulativas: **eta, orobat, berebat.**
–Conjonctions copulatives: **eta, orobat, berebat.**

37.3 **edo** (= o / ou), **ala** (= o / ou)

Azkeneko urteotan, Arana-Goiri-ren eraginez itxura denez, berezketa hau egin ohi da bion artean:

ala= o (disyuntivo / disjonctif)

– zein ardo nahi duzu? Zuria ala beltza?

(= ba dakit zuria eta beltza ez zaizkizula gauza bera iruditzen. Hortaz, otoi, zeure nahiaren arabera, hauta ezazu: zuria nahi duzu, **ala** beltza?).

edo= o (equivalencia / équivalence)

– trenez edo berebirez joan zaitezke.

(= Hernanira bi modutara joan zaitezke, bai trenez, bai berebirez. Batak eta besteak dituzte alderdi txarrak eta alderdi onak. Trenez **edo** berebirez joan zaitezke, beraz).

37.3 –Conjunciones disyuntivas: edo, ala
–Conjonctions disjonctives: edo, ala.

37.31 Joera hau azkar xamarra izanagatik ere, berria da Euskal Herrian.

Dirudienez **BETI** erabil daiteke **edo** juntagina: bai hautaketa adierazteko, bai berdinketa adierazteko ere. **Ala**, berriz, «markatua» denez, **HAUTAKETETAN** ez bestetan erabil daiteke:

– Zer nahi duzu?

1) ardo beltza edo ardo zuria?

2) ardo beltza ala ardo zuria?

Baina: **orobat** da arazoa:

1) trenez joan zaitezke, edo berebirez

{edo} ⊃ {ala}

Irakur dezagun Villasante: «**ala** es el término **marcado** para expresar la idea **disyuntiva**. **edo**, en cambio es un término **indiferenciado**: sirve para expresar la idea **disyuntiva**, pero también la de **equivalencia**, u otras zonas intermedias **indiferenciadas**» (Sintaxis, 26).

Hitz batez:

– zer nahiago duzu? Haragia ala arraina?
(ongi)

– zer nahiago duzu? Haragia edo arraina?
(ongi)

Baina:

Kontua **zerbait** jatea da; zer jango **berdin** da:

- jan ezazu haragia edo arraina (ongi)
- jan ezazu haragia ala arraina (gaizki)

Entzun Lafitterren azalpena:

«ala, sert à **distinguer** deux objets ou deux idées... edo, sert à marquer que la distinction qu'on peut établir n'a pas d'importance» (Grammaire, 175).

Beste modu batez esateko:

– -la atzizkiak osatutako konpletiba huts baten aurrean gaudenean,

EDO

– funtsean galdera bat datzanean,

ALA

37.4 **Ere** (también / aussi); **are... ago** (incluso... / plus...)

37.4 –ere; are.

37.41 Ere **solilik ez da** «también / aussi»:

baita... ere (= también / aussi)

eza... ere (= tampoco / non plus)

A– nik ba nekien hori

B– nik ere bai (= baita nik ere).

A– nik ez nekien hori

B– nik ere ez (= eza nik ere).

37.412 Bizkaieraz **bere** esaten da (laburtzapenez: **be**); eta bokale ondoan **-re** atzizki gisa erabiltzen da:

– hori esandare

– niri're esan zidan

– horrek e(re) gauza, bera dio.

Idazterakoan ERE idatziko da beti.

37.413 NON jarri behar da ere hau?

Eman dezagun esaldi hau:

– herenegun Heleta-ra joan ginen..

Perpaua honetan hiru zati daude:

herenegun (NOIZ)	Heleta-ra (NORA)	joan ginen (ZER egin)
---------------------	---------------------	--------------------------

Gure **ere** honek hiruok izan ditzake oinarri.

1) zenbait aldiz izan gara Heletan; baina berriro ere, herenegun ere, joatea erabahi genuen:

HERENEGUN ERE joan ginen Heletara.

NOIZ joan? HERENEGUN ere bai.

2) Herenegun berebila ba genuen, eta jai-eguna ere bai; eta biak ongi baliatzea bururatu zitzaigun. Eta, Gasteiz-tik irten, eta Aralar-a joan ginen, Iruñera gero; handik Orreagara...

– Eta, besterik, NORA joan zineten?

– HELETARA ERE joan ginen herenegun.

3) Heleta genuen gogoan goizetik, eta haruntz abiatu ginen, ikusi ere egin genuen kaminotik, eta...

– zér egin zenuten?

– JOAN ERE egin ginen Heletara herenegun.

*joan ginen ere ez da euskara: «a la conjunción ere nunca puede precederle una FLEXION verbal» (Erderismos, 199).

– IKUSI ERE egin genduan (Altube).

Partizipioa, hitz batez, bai; adizki jokatuak, ez.

37.414 Ohar berbera egin daiteke beste juntaginez ere: eta, edo, bada, baino, baizik, eta abar:

- ez zen joan egin, etorri baizik
- ez duk hori nahi? Entzun, bada.

37.5

Aurkariak:

37.5	-Conjunciones adversativas. -Conjonctions adversatives.
------	--

37.51 **Baina** (= pero / mais)

Eskuarki **aurretik** jartzen da:

- agindu egin zigun, bai; baina ez zigun ekarri.

Baina **atzetik** ere jartzen da:

- ez zekien baina (= ez zekien, ordea).

Joskera hau jatortzat eman daiteke; euskaldunek erdaraz eman ohi duten esaldi mota hau:

- ya te dije **pero**
- no me lo trajeron **pero**

ez baita batere gaztelani-kutsukoa!

37.511 Behin eta berriz azaldua denez (Azkue, Villasante, eta abar) gauza bat da baino, beste bat baina.

- zu baino zaharrago naiz (= soy **más** viejo **que** tú / je suis plus âgé que toi)
 - esan nizun baina (= **pero** ya te dije / **mais** je t'avais dit)
- Biak nahasteko arrazoinik ez dago.

37.512 Multzo berean sar daitezke beste hauek:

- **ordea** (= por el contrario / par contre) **ATZETIK** jarri behar da.
- esan nizun ordea

- ez, ordea!
- bai, ordea!

- **alabaina** (= sin embargo / cependant).

Esaldiaren **HASERAN** jartzen dute Ipartarrek:

- **alabaina, adiskideak ez zuen barkatu.**

Interjezio gisa, Hegoaldekoen «noski!»;

(= evidentementee! / évidemment!) delakoaren kidea da:

alabaina! (= noski!)

- **aldiz** (= por el contrario / par contre)

- **hau, aldiz, ez zion ekarri.**

- **berriz** (= aldiz)

- **aitzitik** (= por el contrario / par contre).

Hau esaldiaren **HASERAN** jartzen da

- **aitzitik, hau gertatu ondoren ere, ez zen isildu.**

(= **halarik ere, ...**) (gaur gutxitan erabilia)

- **bizkitartean** (= halere, Iparraldeko euskalkietan)

- **hala ere, halarik ere** (= sin embargo / cependant)

- **alta** (= hala ere)

- **bestenaz = bertzenaz** (= bestela, de otro modo, d'une autre façon).

- **haatik** (= hala ere)

Nola euskara:

«**en la medida en que / dans la mesure où?**»

Noski: erdaratik hitzez hitz moldatutako moldea ba dago:

- **zuk hori eskuratu duzun neurrian.**

Iparraldean, dena dela, oso esakera jatorra dute horretarako:

- **zuk hori eskuratu duzun ber**

Esate baterako:

- **egia den ber**

(= egia den neurrian)

- **arno hori goxua den ber**

(= en tanto que ese vino sea dulce / dans la mesure où le vin sera doux).

37.6 **Baizik** (= baizen, Iparraldean)

Eskuarki ATZEAN joan ohi da:

ez da txikia, handia baizik

(= no..., sino... / non... mais...)

Aurretik ere joan daiteke; baina eta hitzaz osaturik:

- ez da txikia, baizik-eta handia.

Esaerarik jatorrena lehenengoa da; baina bigarrena ere erabiltzen da, eta erosoago da, bestalde, perpausa luzeetan.

37.7 **Bederen** (= por lo menos / au moins)

Esaldiaren ATZEAN joan ohi da:

- emaidazu liburua bederen

- izan zaitetz ona bederen

37.7.1 **Gutxienez** nolakotasuna baino **zenbatasuna** adierazi nahi denean, gutxienez erabiltzen da:

- bost etxe saldu ditu gutxienez

edo-ta,

- gutxienez bost etxe saldu ditu.

37.8 **Bada** (= pues / donc)

Esaldiaren ATZEAN.

- esan nizuen bada

- ez zigun ekarri bada.

(= ya te dije, pues)

Bide beretik, eta jator:

- bai, bada! (= báita)

- ez, bada! (= éspa)

*Ba, bai; eta *ba, ez erantzunak ez dira euskara, nahiz gaur oso maiz entzunak izan.

37.9 **Ezik** (= excepto / excepté).

«baizik» en aurkaria da:

- denek dakite, zuk ezik.

37.6/9 –Otras conjunciones.
–Autres conjonctions.

38 ADIZKI ETIKOEN SORRERA

Gorago esan dugunez, esakera arruntari:

- erori da
- saldu da

esakera «etikoak» dagozkio euskaraz (hika, noka eta zuka).

- | | |
|--------------|--------------|
| - erori duk | - saldu dik |
| - erori dun | - saldu din |
| - erori duzu | - saldu dizu |

Noiz erabiltzen diren erabaki ondoren, azter dezagun orain aditz - joko horiek **NOLA SORTZEN DIREN**.

Baina, aurrerago segi aitzin, ohar bat:

ADITZ ETIKO HONI DAGOKIONEZ, EUSKALTZAINDIK EZ DUELA EZER ERABAKI ORAIN ARTE. Hemen emango diren **paradigmak**, horretara, ez dira ofizialak (ezin izan); baina euskalki guztietan **sorbide berberari** dagozkionez gero, sorbide honetan jarriko dugu arreta.

-En vasco existen, además de las formas verbales normales, las llamadas «éticas» (que varían según el interlocutor); y que son tres en vasco: hi (masc.), hi (fém.), zu (respetuoso).

-En basque il existe, en plus des formes verbales normales, celles qu'on appelle flexions «éthiques» (qui varient en fonction de l'interlocuteur); et qui sont trois: hi (masc.), hi (fém.), et zu (respectueux).

38.1 Euskal aditz - jokoetan, eta etikoa sortzerakoan, **entzulea** da aldakuntzen eragilea; mintzatzen ari den pertsonarekiko **begiramenduz** aldarazten dira adizkiak.

Adiskide batekin hitzegitean, hika modura egokitzen dira (**to**-ka edo **no**-ka, noski); eta errespetua merezi duen pertsona batekin, berriz, **zuka** modura.

Aldatzen diren aditz - jokoak lehenengo eta irugarren pertsonakoak dira:

naiz → nauk, naun, nauzu
zen → zuan, zunan, zuzun
ditut → dizkiat, dizkinat, dizkizut
zuten → ziaten, zinatzen, zizuten.

Bigarren pertsonak ez dira aldatzen:

hintzen → hintzen (hika)
zarete → zarete
duk → duk
duzue → duzue

38.2 **NOR** adizkietan, berez **NOR-aditza** zena, **HIK** edo **ZUK** egina balitz bezalaxe aldatzen da (gogoan har **eragile** -ei buruz esan duguna).

Has gaitezen errazenetik:

1- ni naiz
3- hura da
1- gu gara
3- haiek dira

Horra hor **NOR** elemendua duen orainaldia. **HIKA** (**to** eta **no**) adizkiak sortzeko, hau egingo dugu: ekintza horren **egilea** **HIK** jarritz

ni erori naiz → (**HIK**) ni erori nauk
Emakumezkoa baldin bada:

ni erori naiz → (**HIK**) ni erori naun

Eta **ZUKA** moldatzeko, gauza bera; baina orain egiletzat **ZUK** hautatuz:

ni erori **naiz** → (**ZUK**) ni erori **na**uzu

Egin dezagun aldakuntza bera hirugarren pertsonan:

Hura erori **da** → (**HIK**) ni erori **d**uk

hura erori **da** → (**HIK**) ni erori **d**un

hura erori **da** → (**ZUK**) ni erori **d**uzu

Egin dezagun gauza bera pluralean:

gu erori **gara** → (**HIK**) gu erori **gait**uk

gu erori **gara** → (**HIK**) gu erori **gait**un

gu erori **gara** → (**ZUK**) gu erori **gait**uzu

haiek erori **dira** → (**HIK**) haiek erori **dit**uk

haiek erori **dira** → (**HIK**) haiek erori **dit**un

haiek erori **dira** → (**HIK**) haiek erori **dit**uzu

Eta adizki horiek taula modula jarritz:

		NOR		NORK
1	naiz	na	- u	
3	da	d	- u	- K
1	gara	gait	- u	- N
3	dira	dit	- u	- ZU

Edo, bestela emanda:

	NOR			NORK
1-	na	---	u	---
2-	---	---		K/N
3-	d	---	u	---
1-	ga	it	u	---
2-	---	---		ZU
3-	d	it	u	---

Hots, taula hau ez da, izan, **NOR/NORK** orainaldia baizik:

NOR gisa 1, 3, 1, 3, ditugu.

NORK gisa, 2 pertsona.

Aditz etikoa, hitz batez, berbera da; baina **elemendu bat GEHIAGO du.**

NOR aditzetan, **HIK/ZUK** ditu egiletzat.

38.2 –Las formas éticas derivadas de las flexiones con NOR, corresponden a dichas flexiones, pero haciendo en ellas agente implícito a la persona con quien se habla.
–Les formes éthiques, dérivées des flexions avec NOR, correspondent aux mêmes flexions, mais avec un agent implicite: la personne avec qui on parle.

38.3 Azter dezagun NOR-lehenaldia.

1– nintzen

3– zen

1– ginen

3– ziren.

Egiletzat orain **HIK/ZUK** eginez hau dugu:

	NOR		NORK	
1–	nind	u		
2–	—		K/N	n
3–	(irreg.)		—	
1–	gint	u	—	
2–	—		ZU	n
3–	(irreg.)		—	

eta 3. pertsonetan:

(HIK) huen (hura)

(HIK) hituen (haiek)

(ZUK) zenuen (hura)

(ZUK) zenituen(haiek)

Hitz batez:

1- nintzen { ninduan
nindunan
ninduzun

3- zen { huen
zenuen

1- ginen { gintuan
gintunan
gintuzun

3- ziren { hituen
zenituen

Eta orain galdera: **HORIETXEK** izango ote dira Euskaltzaindiak proposatuko dituen adizkiak? Ezin eskierki esan.

Baina **ez dirudi**

1) **Orainaldian BAI**

2) **Lehenaldian:**

2.1- **Lehenengo** pertsonetan, **BAI** segur aski; tradizinoak eta teoriaren araberako jokoak, **berberak** direlako: **ninduan, gintunan, eta abar.**

2.2- **Hirugarren** pertsonetan, **EZETZ** soma daiteke. Euskalki **guztietan** (gipuzkeraz ezik) **Z**-dun adizkiak baititugu; eta hori baita XVI mendeko Leizarragarengan ere. Nekez onartuko dira, beraz, gipuzkerak atxiki dituen formak.

Zer onartuko? Ene ustez, ondoko hauek (orainaldiari lotuak, jakina):

3. zen { zuan (eta ez G. huan)
zunan (eta ez G. huan)
zuzun (eta ez G. zenuan)

3. ziren { zituan (eta ez G. hituan)
zitunan (eta ez G. hituan)
zituzun (eta ez G. zenituan)

Hirugarren pertsonetan, hitz batez, araubidetik at gelditzen

diren jokoak onartuko bide dira (egilea HIK / ZUK galdurik duten jokoak, hain zuzen).

erori nintzen → erori ninduan
erori zen → erori zuan
erori ginen → erori gintuan
erori ziren → erori zituan

Ongi begiratu gero, **lehenaldiko etikoak erregularrak dira; NORK** delakoa **ez baitator**, erregelaren kontra, aurrera:

ditut → nituen

baina ez etikoetan:

dituk → zituan

ditun → zitunan

dituzu → zituzun

Sistema hau **erregularra** da. Kasu!

– joan dituk → – joan zituan
– joan ditun → – joan zitunan
– joan dituzu → – joan zituzun

38.3 –En el pasado, sólo las formas éticas guipuzcoanas corresponden al esquema regular. En los demás dialectos se ha producido una «regularización» sobre la base del presente.
–Dans le passé, seulement les formes éthiques guipuzcoanes correspondent au schéma régulier. Dans les autres dialectes on constate une «régularisation» sur la base du présent.

38.4 NOR / NORI aditzetan

Hauetan ere **HIK / ZUK** sartuko dugu; eta aditza bi elemendutatik, **hirutara** pasako da (hirugarrena **HIK / ZUK** egilea delarik).

Esate baterako:

- zai - o
 - zai zki gu
 na tza i - e
 ga tza i zki o

Zer egin?

- zai - o K/ N/ ZU
 - zai zki gu K/ N/ ZU
 na tzai - e K/ N/ ZU
 ga tzai zki o K/ N/ ZU

Beraz zaiok, zaion, zaiozu, eta abar.

38.4 –Los verbos intransitivos de dos elementos, incorporan un agente virtual de segunda persona.
 –Les verbes intransitifs à deux éléments, incorporent un agent virtuel de la deuxième personne.

38.41 Ohar gisa hau esan behar da: tradizioaren araberako adizkiak onartu behar badira, **NOR** zutabean, edo **lehenengo letraren ondoan, i** sartu baharko dira:

ez **natzaio**k – **niatzaio**k baizik

i hori sartzea **normala da**:

dut – **diot, diote, dizuet**, eta abar.

38.42 **Bide beretik** lehenaldian:

nin tzaie n → nin tzaie an / nan / zun
 zi tzaizkigu n → zi tzaizkigu an / nan / zun
 gin tzaizkie n → gin tzaizkie an / nan / zun
 zitzaidan → zitzaida an / nan / zun

38.43 Erregularik baia?

a) Noski: ez dago etikorik **lehenengo** eta hirugarren pertsonetatik at (eta honek **NORI**-ri buruz ere balio du).

b) **HIK / ZUK** pertsonari dagokion atzizkia **BETI NORI**-ren **ESKUINEAN** doa.

38.5 **NOR / NORK** aditzetan.

Etikoa egiteko **NORI** sartuko dugu hirugarren elemendutzat; **HIRI / ZURI** erantsiz:

dut	{	d i	A t		
		d i	NA t		
		d i	ZU t		
gaitu(z)te	{	g i	aitu	A	te
		g i	aitu	NA	te
		g i	aitu	ZU	te

(i hori sartuko ote den ez dakigu; teorian beharrezkoa izanagatik ere, euskalki batzutan ez baita sartzen).

ditu	{	d i	zki	K	—
		d i	zki	N	—
		d i	zki	ZU	—
ditu t	{	d i	zki	A	t
		d i	zki	NA	t
		d i	zki	ZU	t

Hitz batez: ezkerretan **-i-** artizkia sartu ondoren, aski da **K, N, ZU**, betiko atzizkiak **NORK**-en ezkerretan sartzea.

BERDEA
HIRI
(ezkerrean)

GORRIA
NORK
(eskuinean)

Horra hor buruan atxiki behar den irudia: gorria, politikoen baimenaz, **eskuinean**.

38.5 –Los transitivos de dos personas, pasan a éticos por incorporación de la segunda persona en dativo.
 –Les verbes transitifs à deux personnes, passent à éthiques par incorporation de la deuxième personne au datif.

38.51 **Lehenaldian** ez da lege hori betetzen; lehenaldian **NORK** aurrera datorrelako. Baina sistema berbera da:

n- uen	{	n	i	-	A	n
		n	i	-	NA	n
		n	i	-	ZU	n
genituen	{	gen	i	zki	A	n
		gen	i	zki	NA	n
		gen	i	zki	ZU	n

NORI zutabea bere lekuan dago; baina **NORK** atzizkiak «ihes» egin, eta **ezkerraldera** aldatu da.

38.6 **NOR** / **NORI** / **NORK** aditzetan

38.6 –Los verbos transitivos de tres elementos, adquieren un cuarto elemento: la segunda persona en forma de dativo.
 –Les verbes transitifs à trois éléments, acquièrent un quatrième élément: la deuxième personne au datif.

38.61 **Orainaldia.**

Laugarren elementu bat sartzen zaie adizkiei, ondoko etsenplu hauetan ageri den modura:

d i o t	→	z i o A t, z i o N A t, z i o Z U t
d i z k i o g u	→	z i z k i o A g u / o N A g u / o Z U g u
d i d a t e	→	z i d a A t e / d a N A t e / d a Z U t e
d i z k i t -	→	z i z k i d a K - / d a N - / d a Z U -

Hortaz:

a) Haseran hau dugu, gipuzkeraz batez ere:

di- — * dii- — zi-

b) HIRI-ZURI saila (beti bezala K, N, ZU, bukaeran; A, NA, ZU, tartean) NORK-en aurrean sartzen da; diagrama hau dugularik:




Beste adibide batzu (beti 1. edo 3. pertsonakoak):

di o — → zioK—, zioN—, zioZU—
 di t — → zidaK—, zidaN—, zidaZU—
 di zki o te → zizki o A te / o N A te / o Z U te
 di zki da te → zizki da A te / da N A te / da Z U te

38.62 Lehenaldia

Bide berbera erabiltzen da etikoa sartzeko; baina NORK-en «ihesa» dela-ta, ondoko diagrama hau dugu:



Esate baterako:

ni- on —→ ni- o A n / o N A n / o Z U n
 ni- en —→ ni- e A n / e N A n / e Z U n
 nizki on —→ nizki o A n / o N A n / o Z U n
 zi- dan —→ zi- da A n / da N a n / da Z U n
 zizki en —→ zizki e A n / e N A n / e Z U n
 zizki gu te n → z izki gu A te n / gu N A ten / gu Z U ten

ekarri nioñ – { ekarri nioan
 ekarri nionan
 ekarri niozun

38.7 HIRI etiko ≠ HIRI datibo

Euskara Batuaz **biak** nahasten dira:

- esan **d i A t** (= esan dut, etikoa)
- esan **d i a t** (= esan diat, **nik hiri**)

baita bi sail hauek ere:

- esan **d i zu t** (= esan dut, etikoa)
- esan **d i ZU t** (= esan dizut, **nik zuri**)

Hemen **a, na, zu**, letra **txikitan** idazten dugu **jatorrizko datiboa** (= recipiente real de una acción / récipient réel de l'action); eta letra **handitan A, NA, ZU, etikoari** dagokiona.

Mitxelenaren erabaki hau, guztiz gipuzkeraren aldekoa (eta **datibo / etiko** nahasketa sotzailea) oso kritikatu izan da zenbait euskaltzaleren artean. Baina Euskaltzaindiak **bere** egin du.

Beste euskalkietan **DATIBOA** eta **ETIKOA** berezi egiten dira:

d erau	a t	(= nik hiri)
d i	A t	(= nik etiko)
n erau	a n	(= nik hiri)
n i	A n	(= nik etiko)

Gauza bera lehenaldian:

d erau	tzu t	(= nik zuri)
d i	ZU t	(= nik etiko)
n erau	tzu n	(= nik zuri)
n i	ZU n	(= nik etiko)

Aditza **transitibo** denean **–RA–** artizkia ageri da; **etiko** denean, berriz, **ez da ezer** sartzen.

Hau dela-ta, zubereraz esate baterako, gauza bat da **deizüt** eta

beste gauza bat **dizüt**; eta bi gauza **deiat** eta **diat**, ondoko lerro hauetan ikus daitekeenez:

- erran **deizüt** < de rei **züt** (= **nik zuri**)
- erran **dizüt** < di **ZUt** (= **nik etiko**)
- erran **deiat** < de rei **at** (= **nik hiri**)
- erran **diat** < di **At** (= **nik etiko**)

Aditz ñabardura hau galdua da Euskara Batuaz.

38.7 –En el Vasco Unificado, al adoptarse el dialecto guipuzcoano como base se ha perdido la diferencia entre formas éticas y formas transitivas con segunda persona como recipiente.
– Dans le Basque Unifié, et du fait qu'on a pris le dialecte guipuscoan comme base, on a perdu la différence formelle entre formes éthiques et formes transitives avec la deuxième personne comme récipient.

38.8 Aditz trinkoan—

38.8 –El verbo sintético sigue las mismas leyes.
–Le verbe synthétique suit les mêmes lois.

38.81 NOR-Ikus adibide hauek:

- nator → n i a torr (e)K
- gatoz → g i a toz (e)K
- nabil → n i a bil (e)K
- dabilta → d i a biltza K

Beraz:

- Nor-i dagokion kontsonantearen ondoan i sartzen da.
- Atzetik **K, N, ZU**, sartzen dira (= **HIK / ZUK**).

Bi ohar, halere:

- 1– i hori ez da beti atxikitzen euskara mintzatuan (bai, ordean,

literatura zaharrearan)

- «natorrek» entzun daiteke (= niatorrek)
- «gatozek» entzun daiteke (= giatozek)

2- Hirugarren pertsonetako **dia-** (literatura zaharrearan normala) **ze-** bihurtu da gipuzkeraz eta **ja-** [za, xa] bizkaieraz

- G, **ba zetozek**
- B, **ba xatoxak**

38.82 **NOR** / **NORK** aditzetan

Ikus ondoko adibideak:


- da kar **t** → d i a karr A t / NA t / ZU t
- da ki **t** → d i a ki A t / NA t / ZU t
- da ki **zki te** → d i a ki zki A t / NA t / ZU t
- da rama **gu** → d i a rama A t / NA t / ZU t

diakiat { G, zekiat
 B, xakiat

Beraz:

- 1) Aurretik i artizkia sartzen da.
- 2) **NORK**-en aurrean A, NA, ZU erasten.

Lehen bezala:



38.83 **NOR** / **NORI** aditzetan

HIK / **ZUK** erasten da, i sartu ondoren:

- - zaio → - zaio**k**, - zaio**n**, - zaio**ZU**
- - zaie → - zaie**k**, - zaie**n**, - zaie**ZU**
- natzaio → niatzaio**k**/ on/ o**ZU**
- gatzaizkio → giatzaizkio**k**/ on/ o**ZU**
- - zaizkit → - zaizki**dak**/ dan/ d**azu**

Beraz, i aurrean sartu batetik, eta atzetik **K, N, ZU**, erantsi.

38.84 **NOR** / **NORI** / **NORK** aditzetan

Ikus adibide hauek:

- daramakio**t** → d ia ramaki o **At**/ o**NA**t/ o**ZU**t
- dakarkidate → d ia karki da **A te**/ da**NA**te/ da**ZU**te
- dakarkie - → d ia karki e**K**-/ e**N**-/ e**ZU**-

NORK-en aurrean, beraz, **K, N, ZU**, etikoa. Beti bezala ere, **dia** - ja edo **ze**, euskalkien arabera.

38.9 Ahalezko laguntzailea

Atzizkizko adizkietan **etiko**-rik ez badago ere (**nadin**, **gaitezen**, **dezan**, eta abar, ez dira aldatzen; -n hori, Lafonek ongi azaldu duenez, **errelatiboa** baizik ez delako), **potentzialetan** (= ahalezkoetan) ba dago; eta orain arte emandako legeen arabera egiten da:

NOR

naiteke → niateke**k**/ **N**/ **ZU**

daitezke → diaitezke**k**/ **N**/ **ZU**

NOR/NORI

naikioke → nia**kio** **A** ke/ **NA**ke/**ZU** ke

da**kid**ake → dia**kida** **A** ke/ **NA** ke/**ZU**ke

NOR/NORK

na**z**ake - → niazake**k**-/ ke **N**-/ ke **ZU**-

de**z**aket → diezake **A t**/ke **NA t**/ke **ZU t**

NOR/NORI/NORK

diezaio**k**e → ziezaio ke **A t**/ ke **NA t**/ ke **ZU t**

diezadake**te** → ziezada ke **A t**/**NA te**/ **ZU te**

Moldalegea, hitz batez, **normala** da; eta aurreko pasarteetan emandako legeak kontutan hartzea besterik ez dago.

39 - EUSKAL ADBERBIOAK

Juntagin-ez egin dugun bezala, hemen ere ohitura zaharrari jarraituz moldatuko dugu kapitulu berezi hau.

Alde batetik, euskaraz, egiazko adverbiorik **ez dagoelako**: «los adverbios pueden vivir domiciliados en varias categorías gramaticales» (Azkue, Morf. 227).

Eta bestetik, **izenari** izen-laguna dagokion bezalaxe (nahiz «adjetibo» ez izan), **aditzari** ere **aditz- laguna** dakiok:

- **lagunarekin** joan
- **garaiz** heldu
- **esandako orduan** etorri
- **azaldu dizudan eran** abiatu ziren

(Ageri denez, **NOLA**, **NOIZ**, eta gainerako adverbio-galderei erantzuten baitiete adverbio-itxurarik ez duten sintagma horiek).

–Distinción entre adverbio y locución adverbial.
–Distinction entre adverbe et locution adverbiale.

- 39.1 Alde batetik, hortaz, ba daude egiazko adverbioak: hein batez deklinagarri izanagatik ere, adverbio itxura dutenak: **atzo**, **hemen**,

Eta bestetik ere ba daude adverbio-atzizkiak: **-ki**, **-to**, **-ro**, eta abar.

Goazen sailka ikustera.

39.2

Adberbio-altzizkiak

Ez dira anitz, dena dela:

39.2 –Varios sufijos utilizados en la formación de adverbios.
–Plusieurs suffixes utilisés pour la formation d'adverbes.

39.21 **-ki** (= **-mente / -ment**)

Ekintzaren **kera** (= modua) markatzen du; eta **adjetiboei** eta **izenei** erasten zaie eskuarki.

- ongi (= bien / bien)
- gaizki (= mal / mal)
- ederki (= hermosamente / très bien)
- xuhurki (= con avaricia / avec avarice)
- deplauki (= frontalmente / frontalement)
- gizonki (= gizonari dagokionez)

Adjetiboaren arabera, **ugaritasun** (edota **urritasun**) kutsua har dezakete:

- biziki ederra (= guztiz ederra)
- ausarki edan genuen (= erruz edan genuen, ugari)

39.211 Bizkaieraz **-to** da honen kidea:

- | | |
|-------------|-------------|
| c, ongi | = B, ondo |
| c, ederki | = B, ederto |
| c, (h)obeki | = B, obeto |
| c, poliki | = B, polito |

39.22 **-zki** (= **-mente / -ment**)

- **ki**-ren kidea da zenbait kasu berezitan:

- egiazki (= verdaderamente / vraiment)
- handizki (= handien modura)
- laburzki (= brevemente / brièvement).

39.23 **-ro** (= -mente / -ment)

- handiro
- astiro (= baratxe, poliki, presarik gabe)
- berriro (= ostera bere, berriz)
- luzaro (= luzaz)
- zeharo (= guztiz; baita xehetasunetan ere).

39.231 – **kiro** (= -mente / -ment)

- Bi atzizkion erasketa da:
- emekiro (= emeki, poliki)

39.232 **-tara** (= -mente / -ment)

- osotara (= osoki, guztiz).

39.24 **-ka** (= hau edo hura eginez):

- harrika (= a pedradas)
- lasterka (= azkar ibiliz)
- gordeka (= izkutuan)
- aldizka (= tarteka)
- erdizka (= a medias)
- bultzaka (= bultzatuz)
- esaka (= hau edo hura esanez).

39.3 Atzizkiz osatutako izenak

Egiazko adberbioek, atzizkiz osaturik joan badaitezke ere (gaurdanik, hemendik, atzo arte), soilik ere joan daitezke aditzaren ondoan: gaur, hemen, atzo.

Aditz-lagunek, berriz, aditzaren ondoan joango badira, atzizkiren bat behar dute.

Liferentzi hau, garbi ageri denez, adjetibo / izen-lagun multzoen artean dagoen berbera da.

Sail honetan, hitz batez, sasi-adberbio edo aditz-laguntzat har ditzakegun batzu emango ditugu:

– egiaz (= egia + z)

Eta abar, ilara honetan barrena:

– gogoz (= con entusiasmo / avec enthousiasme)

– nekez (= difícilmente / difficilement)

– garaiz (= garaia deno)

– berriz (= de nuevo / à nouveau)

– alferrik (= en vano / en vain)

– bakarrik (= sólo, no acompañado / seul, non accompagné)

– gostura (= atseginez)

– kontrara (= por el contrario / contrairement)

– gisala (= por lo que dicen / vraisemblablement)

– honela / horrela / hala

Baita sintagma luzeagoak ere:

– dudarik gabe

– hemendik aurrera

– noizean behin

Denak ematerik ez dago.

39.3	–Adverbios obtenidos por declinación. –Adverbes obtenus par déclinaison.
------	---

39.4 Hitz bakarrezko adberbioak

Ezin daitezke denak ilaran eman

(ikus Azkue, esate baterako, 456/472).

39.4 –Adverbios propiamente dichos: de lugar, de tiempo, de modo, etc.
–Adverbes proprement dits: de lieu, de temps, de mode, etc.

39.41 Lekutasunaz

- hemen, hor, han (–NON?)
- (baita hona, horra, hara) (– NORA?)
- gertu, hurbil (= cerca / près)
- urruti, urrun (= lejos / loin)

39.42 Denboratasunaz

- orain, lehen , gero (–NOIZ?)
- atzo, herenegun
- bart (= atzo gauean, arratsean)
- berdantzart (= herenegun arratsean)
- bihar, etzi, etzidamu
- egun (= hoy, egun osoa)
- gaur (= hoy, arratsean bakarrik)
- beti (= siempre)
- inoiz (= a veces / parfois)
- inoiz ez (= nunca / jamais)

(Kasu diferentziari)

- biharamun (= día siguiente a / le jour après...)
- biharamunean (= al día siguiente / le suivant jour)
- aurten (= gauden urte honetan)
- iaz (ez *ihaz) (= joan den urtean)
- geurtz (arc, = datorren urtean)
- ja (= ya / déjà)

39.43 Keraz

- nola? nolatan? (= ¿cómo? / comment?)
- hala, halatan (= era hartan)
- ki
- ka
- ro

39.44 Zenbatasunez

- aski (= suficientemente / suffisamment)
- ausarki (= abundantemente / abondamment)
- erruz (= ugariki)
- sobera, gehiegi
- frangoki
- gutxienik, gehienik

39.5 Beste batzu

- «con motivo de... / à l'occasion de...» = -kari (- Bazkokari)
- «que sí / mais oui» (= baietz)
- «que no / mais non» (= ezetz)

Oharra: niketz (= de mi parte / de ma part)
 zuketz (= de tu parte / de ta part).

- «a punto de / sur le point de» = -tzer, -tzear
 - hiltzer, hiltzear (= a punto de morir / sur le point de mourir)
- «medio / à moitié» (= erdi-)
 - erdihila
- «tal vez / peut-être» (= menturaz)
 - menturaz etorriko da

Etor dadin beldur bagara:

- beharbada etorriko da

Etor ez dadin beldur bagara:

- agian etorriko da.

Beraz:

- beharbada etorriko da (= baldin badator, kolpe latza izango da denontzak)
- agian etorriko da (= etorriko balitz, etor baledi hobe, ederra)

liteke)

- **menturaz etorriko da** (= bai etortzea, bai ez etortzea ere, berdin zaizkigu)

Nabardura hauek Iparraldean ematen dira ongienik.

39.6 Baiespena / ezespena

Adberbioak hauek dira:

- **BAI** eta **EZ**

Aditz laguntzailearen aurrean **BA** da, eta ez **BAI**:

- **ba dator** (eta ez *baidator)
- **ba dakite** (eta ez *baidakite)

Esaldi-amaieran, era berean, **ba** bihurtzen da:

- **erranen dautzu, ba** (Iparraldean)
- **ba, ba; ba dakit.**

39.6	– Afirmación y negación. – Affirmation et négation.
------	--

39.7 Alegia

Bi adiera ditu:

- «**haciendo como si / faisant comme si**»
 - **alegia ez ikusi** (= ikusi ez balu bezala jokatzuz)
- alegia** (= es decir / c'est-à-dire) (= hau da...).

40 - INTERJEKZIOAK

Erdal giroa nagusitu ala, ahuldu eta odolustu egiten da euskara. Eta makaltze hau **interjekzioen** mailan ageri da garbikienik: orain dela gutxi arte, erdaraz ari zirelarik ere, euskarazko interjekzioak erabiltzen zituzten euskaldunek (**ene! hau lana!**). Orain, berriz, gazteenek batez ere, erdarazko interjekzioak (eta hitz zantarrak bereziki!) erabiltzen dituzte (**puta! Dios!**), baita euskaraz ari direlarik ere.

Beharrezko dirudi, horretara, euskal interjekziorik arruntenak azken kapitulu honetan gogorazteak.

Oharra: orain arteko gardenkeriak alde batera utziz, hitz zantar batzu ere emango ditugu (parentesi artean, dena dela, (Z) erantsiz).

—El cambio de idioma dominante es especialmente sensible en el terreno de las interjecciones. Si bien, hasta hace poco, los vascos lanzaban las interjecciones en euskara cuando hablaban erdara, ahora ocurre el fenómeno exactamente inverso.
—Le changement de langue dominante est spécialement clair sur le terrain des interjections. Et s'il est bien vrai que, jusqu'à il y a peu de temps, les basques lançaient leurs interjections en euskara lorsqu'ils parlaient d'autres langues, il est vrai aussi que maintenant c'est exactement le contraire qui se produit.

40.11 Hona hemen lerrokada bat:

- beharrik! (= ¡menos mal! ¡afortunadamente! / heureusement!)
- anaia etorri dela? Beharrik!
- aupa! (= ¡ánimo! / courage!)
- aupa mutilak! Atxik! Eutsi!
- aupa aberkideok!
- agian bai! (= «ojalá suceda! / plût au ciel que cela arrive!)
- agian ez! (= ¡ojalá no suceda!)
- baldinba! (= ¡ojalá! / plût au ciel!)

Oso esakera jatorra da (beti ere erdarazko «ojalá» delakoa itzultzerakoan), **geroaldia** oinarritzat harturik, oinarritzko aditza eta laguntzailearen **artean** al monema sartzea (< ahal ?)

Esate baterako:

- hondatuko al da!
- (= honda dadin nahi dut)
- (= ¡ojalá se eche a perder!)
- itoko al aiz! (Mendiburu)
- eztanda egingo al dek! (Mendiburu)
- deabruak eramango al au! (Mendiburu)

Laguntzailearen mota (izan/edun) ez da aldatzen:

- itoko haiz→itoko al haiz!
- eramango hau→eramango al hau!

40.11 /40.33 –Se da una lista de exclamaciones con sus traducciones.
–On donne une liste d'exclamations avec leurs traductions respectives.

40.12 Ondoko hauek, **agurtzeari** dagozkio:

- agur!
- Goizean agurtzean = agur!
- Arratsean joatean = agur!
- Erdal itzulpena **ez da** «adiós / au revoir»
- agur jaunak! (= muy buenas, señores / salut)
- adio!
- (= adiós / au revoir).

joatean: **adio**, jaunak!

Baina, baita hau ere:

ez adiorik! (joaterakoan)

– zenbait aldiz, dena dela, eta «agur» bezala, lehenengo aldiz agurtzerakoan **adio!** esan daiteke.

Baita, noski:

– **egun on!** (= eguerdira artean)

– **arratsalde on!** (= arratsera artean)

– **gau on!** (= ilun denean, edo oherakoan)

– **Edozein ordutan** erabil daiteke, dena dela, eta adiskideen artean bereziki, beste hau:

– **Kaixo!**

– **Kaixo, mutilak!** Zer diozue?

– **Kaixo, neska!** Zer dion?

– **adi!** (= «adio»ren kidea)

40.13 Ageri ez den norbait deitzekotan:

– **heup!**

– **heup! inor ez dea etxe honetan bizi?**

40.14 Gurekin norbait ekartzekotan:

– **hots!**

– **goazen biok! tira!**

– «venga! / allons-y!»

(= ea! ea bada!)

– **soizu!** (= ¡mira! / regarde!)

– **beha zazu!** (= ¡mira! / regarde!)

– **otoi!** (= ¡por favor! / je t'en prie!)

– **barka nazazu, otoi!**

– **utz gaitzak baketan, otoi!**

– **arren!** (= otoi!)

«otoi» Iparraldean entzuten da, eta «arren» Bizkai aldean.
Gauza bera adierazten dute biek.

40.15 Beste batzuek **sospresa** markatzen dute, espero ez zenari buruzko harridura:

- to! (= jarrea! / tiens!)
- to! Hemen habil?
- to! Begira nor dagoen hor!
- alajainkoa!
(Jainkoa lekuko hartuz).
 - alajainkoa! hori kolpea!
 - alajainetan! (= gauza bera)
 - alajainetan! ez zara makala dirua eskatzean!
- arranpola!
(= ¡demonio! / diable!)

40.16 **Nazka** sendi dugunean:

- putxa! (= kaka! / merde alors!)
 - zakurraren putxa!
 - Bai, bai... Orain ... zakurraren putza!
 - Orain... inoiz baino okerrago!
- bo! bo!
(= ez genuen besterik behar!)

40.17 Uste ez zen zerbait gertatu, eta **ondorio larriak** izango dituenean, erdaraz, leunkienik, hau esango genuke:

- ¡demonio! ¡ahora sí que la hemos fastidiado!/ maintenant c'en est fait de nous!
Euskaraz, nola?
- Ene!!
 - Eneee!! Oraintxe egin du gureak!

- Aluia!! (Z)
- **Oso** interjekzio **gogorra** da; eta oso gaizki hartzen da euskaldunen artean.
- Ene **galdua!**
(Oraintxe galdu naiz!)

40.18 Norbait **uxatzeko** eta gauden lekutik alde eragiteko:

- Alde, alde!
(= ¡fuera de aquí! / dehors!)
- Hanka!
(= gauza bera)

40.19 Entzuten dugun zerbait **sinesten ez dugula** adierazteko:

- Utikan! (= no me vengas con eso ahora; déjame en paz).
– Orain oso ondo jokatuko omen dik...
- Utikan!! (= hoa hortik, ken hortik)
- Bai zera!
(= ya, ya! ¡no creo nada!/ je n'en crois pas un mot!)
- Ja! (silaba batez, [já])
(= tira, tira; ez dut **batere** sinesten)
Edo sinesten **zail** gertatzen zaigunean:
- A –Ba dakik gaurko berria? Urliak bere burua hil duela!
- B –Ja!! Ez duk posible!

40.20 Zerbait **kontuz** egitea nahi dugunean:

- et! et! et! (= etetet)
(kontuz, otoi. Min hartzeko beldur naiz oso)
- kontuz! (= ¡cuidado! / attention!)
- kasu! (= gauza bera; Iparraldean erabilia)
– kasu emazu! (= ten cuidado / fais attention)

40.3 Eta harridurazko esaldiez zer esango?

(= erd. qué... cuán...)

Esate baterako:

– «¡**qué** hermoso día!»

Gauza bat da segurua: ***zer** egun ederra! ez dela euskara.

Oso jatorra ere oste hitzaz sor daitekeen esakera:

– **ze uste, eta ze uste oste!** (Mogel).

40.31 Lehenengo moldea hau da:

– **Aurretik erakuslea** jartzen da:

hau, hori, hura; hauek, horiek, haiek.

– **Ondotik izena edo adjetiboa**; baina **mugatu gisa** (= -a, -ak)

Esate baterako:

– **hau lana!** (= ¡qué trabajo! (éste) / quel travail!)

– **hura lana!** (= ¡qué trabajo! (aquél) / quel travail!)

– **hau beroa!** (= bero ikaragarria dugu gaur)

– **hura beroa!** (= sapa izugarria izan genuen egun hartan)

– **hori neska!** (= ¡vaya chica! / quelle môme!)

– **haiek istiluak!** (= ¡qué líos, aquéllos!)

Hitz-ilara hau, ageri denez, arauen kontrakoa da.

40.311 Bide beretik **adberbioak**:

– **horixe polliki!**

(= oraintxe bai ongi ari zarela!)

40.32 Harritzen duen sintagma izena + adjetiboa denean, maizago erabiltzen da BAI aurretik jartzea; eta izena eta adjetiboa, ondoren, **alderantzizko** ilaran jartzea:

– oso emakume ederra zen –

– **BAI ederra, emakumea!**

- txit ona zen sagardoa –
- BAI ona sagardoa!
- egun ikaragarriak izan ziren–
- BAI ikaragarriak egunak!

40.33 Hirugarren bidea (zoritxarrez ahantzi xamarra) hauxe da:
izenari -(r)en erantsi, eta **adjetiboa** mugatu gisa uztea:

- ¡qué hermosa chica! / quelle belle fille! = neskaren ederra!

Bide beretik:

- lakuaren barea! (= ¡qué lago más pacífico!)
- zeruaren urdiña! (= ¡qué azul estaba el cielo!)
- gauaren luzea! (= ¡cuán larga noche!)
- kolpearen latza! (= ¡qué golpe más áspero!)
- ene galdua! (= ¡cuán perdido estoy yo! / que je suis perdu!)
- ene! (= ¡ay de mí!)
- nire galdua! (Mogel)
- zuen bildurtiak! (Mendiburu)
- zure onegia! (Mendiburu)
 (= zu bai zarela onegia!).

AURKIBIDEA

(Zenbakiak pasarteak adierazten dute).

A

A berezkoa	12.1 – 12.2
–a (= ya/déjà)	35.44
–a (galdegaia)	21.321
ADBERBIOAK	39
adi / aite	27.0
adio	40.12
ADITZAK (Sailketa)	22
aditz - erroa	35.1
aditz - izena	24.301
aditz trinkoak	21.35/23.2; 23.3/30.21
agian	39.5/40.11
AGINTEKERA	27
–ago	20.3/20.5
agur	40.12
ahal (izan)	26.6/26.7
AHALEZKOAK	26/29.2/29.5
aita	16.51
aitatxo	11.2
aitzitik	37.5
ala	37.3
alabaina	37.512
aldiz	37.5
alegia	39.7
alegiako baldinkera	29.1/29.2/29.5
alfer	1.326
alimale	2.3
alta	37.5

ama	16.51
amatxo	11.2
-an	19.6
aoristo	24.3171
are	20.4/37.4
areago	20.4
-aren (interjekzioetan)	40.33
ari (izan)	32.5
arima	2.7
arren	35.43/40.14
(-n) arren	36.7
arte	19.721
artean	19.722
asko	7.31
ASPEKTUA	23
ATRIBUTO	5

B

ba-	36.311
ba- (= bai)	39.6
bada	37.8
bai (interjekzioetan)	40.32
baimenak	32.8
baina	37.51
baino	37.511
bait-	36.241
baitan	25.1
baizik	37.6
baldinba	40.11
BALDINKERAK	
- INDIKATIBOZKOA	28
- AHALEZKOA	29
balio (izan)	32.6
barne-egoerak	32.7
(-an) barrena	19.82
bat	6; 6.7
bata	6.71
batzu / batzuak	6.72/7.51/7.52
bederen	37.7
behar (izan)	32.3

beharbada	39.5
beharrik	40.11
(an) behera	19.82
beldur (izan)	32.7
ber	16.8
bere	37.412
berebat	37.2
berriz	37.5
beste	7.4
bestea	6.71/7.52
bestenaz	37.5
bezain	20.31
bezenbat	20.21
bi / biak	14.9
bihurkuntza	16.6
bizi (izan)	32.6
BIZIDUNAK	2
BIZIGABEAK	2
bizkitartean	37.5
bost / bostak	14.9
(ren) burua	22.62
bururagabea	23.5/24.2/24.3
bururatua	25.2/26.1; 27.2; 28.11

D

danik	19.81
dateke	29.318
datibo	18.23
deikaria	18.212/18.217
deklinabidea (erregelak)	9.3/12.0
duket	24.416
dun	1.326

E

—e, deklinabidean	13.2
edo	37.3
edozein	14.5
eduki	30.45
egarri (izan)	32.7
egi	20.33/20.51

egik / eikek	27.0
egile	22.3
EGIN	33/30.31
egin (galdegaia)	21.32/21.41/33.5
egin egin	33.5
egon	30.31
eguraldia	32.54/33.2
eguzkia	2.6
ekarri	30.41
elkar	16.7
-en	1.32/18.3/20.34
-engatik	19.2
-engatik ere	19.21
-enko	24.302
-entzako	19.11
-entzat	19.1
erabili	30.43
eragin	22.53/34.4
eraile	34.21
erakusleak (interjekzioetan)	40.31
eraman	30.42
-erazi	34.3
ere	37.4
ergatibo	18.2
eritzi	22.7/30.49
ERKAKETA	20
-nolakotasunean	20.3
-zenbatasunean	20.2
errege	11.1
ERRELATIBO	15
-erregelak	15.22
erroa (aditzetan)	25.6/35.2
eskutitzak	16.5
eta	35.43/37.2
etorkizuna	24.302
etorri	30.3142
-etsi	22.8
etxekei	30.33
etz	39.5
etzan	30.32

ezagun (izan)	5.31
ezik	37.9
ezin (izan)	26.6/26.7

F

franko	3.32
--------------	------

G

gabe	35.43
(-z) gain	19.42
(-an) gaindi	19.82
gaitz (izan)	5.3
galdegaia	21.3
galdekariak	1.328/3.31/4.2
-gan	2.1
-gana	19.71
-garren	1.324
garrenkariak	14.8
(-a) gatik ere	35.44
-gaz	19.32
gehiago	20.22
gehiegi	20.23
giza - atalak	2.7
gogo (izan)	24.303
GONBARAKETA	20
(-an) gora	19.82
gorputz	2.7
gorroto (izan)	32.6
gose (izan)	5.5/32.7
gu	16.2
gutxiago	20.22
gutxienez	37.7

H

hoatik	37.5
hainbat	20.21
haizu (izan),	32.8
hala ere	37.5
halarik ere	37.5
hau	17.2/17.5

hauk / hauek	17.1
hauxe (saila)	17.6
hi	16.2
HIKA (ETIKOA)	31/34.5
–aurrizkiez	31.3/31.4
–atzizkiez	31.5/31.6
–galderetan	31.7
–paradigmak	38.2 - 38.9
hiri / hika	38.7
hori	17.3/17.5
hura	17.4/17.5

I

ibili	30.3141
–ik	18.213/21.321/35.44
ikusi	30.47
–il, deklinabidean	13.5
ilargia	2.6
–in, deklinabidean	13.5
INDIKATIBOA	24
INTERJEKZIOAK	40
iraukaria	23.71
iraun	30.48
irudi	30.48
–ista	1.33
IZAN	32
IZEN - SINTAGMA	1
(aditz) - izena	35.3
IZENAREN DEKLINABIDEA	
–arruntak	9
–nagusiak	10

J

ja	40.19
jakin	30.46
jarin	30.34
jarrai(ki)	30.35
JENEROA	8
joan	30.3143
johan	35.3225

joskera	1.1
JUNTAGINAK	37

K

ka	39.24
kaixo	40.12
-kari	39.5
-ketan	35.3
-ketz	39.5
-ki	35.3225/39.21
-kin	19.3
-kiro	39.24
ko	1.32/18.3/18.41/19.5/ /19.9/19.92
koan	18.42

L

-la	36.1
laguntzailea (aditza)	22.1/22.5
-lako	36.2
-lakoan	36.22
-lakos	36.21
-lakotz	36.21
landareak	2.3
-larik	36.14
-larik ere	36.15
-larikan	36.14
leku - izenak	10.2
lekutasuna / nortasuna	2.8

M

maite (izan)	32.2
menturaz	39.5
mugagabe (adjetibo)	3.32/4.2/7
mugagabea	3.2/3.3
mugatua	3.2
multzokari	3.3/6.81
multzotasuna	2.4

N

-n	25.1/36.1
nahi (izan)	32.2
nahiz	36.7
naizateke / naiteke	24.318
-nean	36.13
-neko	36.5
-netz	36.31
-nez gero	36.4
-nez geroztik	36.4
ni	16.2
nihaur (saila)	16.3
-nik	36.1
ni neu	16.31
-no	19.722/36.6
noiz	14.33
nominatibo	18.1/18.2
non	14.32
nor	14.31
NOR-KIAK	16
NOREN-KIAK	16
NUMERO	3

O

ohi (izan)	32.4
on (egin)	33.6
ondoan	35.43
ordea	37.512
orduko	35.43
-ori / -ok	18.218
orobat	37.2
otoi	40.14

P

partizipio / adjetibo	35.4
pertsona	2.3
puntukari	23.71

R

-r/-rr (deklinabidean)	13.1
-ra	19.7/34.2
-ra jaio (saila)	22.61
-raino	19.7
-rako	19.13/19.14
-(r)en	1.32
-(r)ik	35.44
-ro	39.23
-runtz	19.73
-runtzean	19.7311

S

-sa	8.4
setsu - markak	8.2/8.3
sori (izan)	32.8
SUBJUNTIBO	25
sujeituak (hiru)	21.1

T

-ta	36.24
-taz	19.41
-t(z)ea / -t(z)en	25.4/35.3224
-t(z)ean	35.323
-t(z)ear	35.3253
-t(z)eko	35.326
-t(z)ekotan	35.3262
-t(z)en	5.4/35.3
-t(z)er	35.3253
-t(z)era	35.3251
-t(z)erakoan	35.3251
-tik	19.8
-tik hil (saila)	22.62
to	40.15
-to	39.211
-ts / -tz (deklinabidean)	13.3
-tzat	19.91

U

uste (izan)	32.6
utikan	40.19

Z

-z	19.31
-z geroztik	19.81
-z joan	32.5
-zale	1.333
-(an)zehir	19.82
zein	14.42
zenbait	7.32
zenbakari	3.33/4.2/4.3/14.7
zenbakiak	1.325
zenbat	14.43
zer	14.41
zeren	36.23
zilegi (izan)	32.8
-zki	39.22
-zko	1.323
zomorroak	2.3
zu	16.2
zuek	16.2
ZUKA	31
zuri / zuka	38.7

AURKIBIDEA (II)
Kapituluen edukina

1 - Izen-sintagmaren egitura = bar- ne-ordenakera	9
2 - Bizidunak eta bizigabeak	17
3 - Gramatika-numeroa euskaraz	25
4 - Mugagabearen Komunztadu- ra = adjetiboekin, aditzekin	35
5 - Aditzaren osakianak = atri- butuen arazoaz	49
6 - BAT zenbakaria eta -A artikulua	54
7 - Adjetibo mugagabeak = de- klinabide-taulak	64
8 - Euskal jeneroak = arra eta emea	74
9 - Izen arrunten deklinabidea = paradigma osoak	78/86
10 - Izen nagusien deklinabidea = paradigma osoak	95
11 - Deklinabide berezi batzu = errege, aitatxo	102
12 - Deklinazio-atzizkien eraspidea. A berezkoen arazoak	106
13 - Oztopo batzu deklinabidean = r samurrak, -e, eta abar	113
14 - Galdekarien eta zenbakarien deklinabidea	117
15 - Euskal errelatiboa	129
16 - Izenorde pertsonalak. Noren-kien bi sailak: nire/ /neure. Elkar, ber	136
17 - Erakusleak	156
18 - Kasuen balio semantikoa (I)	161
19 - Kasuen baliosemantikoa (II)	177
20 - Euskal erkaketa = zenba- tasunezkoa, nolakotasunezkoa	187
21 - Aditz-sintagmaren egi- tura. Galdegaia	194

22 - Aditzen sailketa: nork/nor. Eragin, eritzi	202
23 - Aspektua eta denbora	212
24 - Indikatiboa	232
25 - Subjuntiboa	256
26 - Potentziala	273
27 - Agintekerak	283
28 - Baldinkerak (I). Indi- katibozko baldintzak	288
29 - Baldinkerak (II). Ahal- kerezko baldintzak	300
30 - Aditz sintetikoa. Zein molde eta paradig- mak	312
31 - Hiza eta zuka ari: Noiz aditz-joko etikoak eta noiz normalak	344
32 - Izan-ezko aditzak	350
33 - Egin-ezko aditzak	366
34 - Erazi eta eragin	371
35 - Adizkien deklinabidea	378
36 - Pertsona adizkiekiko atziz- kiak	395
37 - Euskal juntaginak (Kon- juntzioak)	406
38 - Adizki etikoak sortzeko bideaz	414
39 - Euskal adberbioez	429
40 - Interjekzioak	436
I - Aurkibidea (gaika)	444
II - Aurkibidea (kapituluka)	454